

=====

LISIEUX-KO

T E R E S E

=====



ARIMA BATEN ISTORIA

LISIEUX-KO TERESE
ARIMA BATEN
ISTORIA

Itzultzaille: AITA ONAINDIA

Bear diran baimenakaz

© Aita Onaindia. Larrea 1991

Depósito Legal: BI - 1.499 - 91

Igarri, s. c. l. - Rafaela de Ibarra, 1, lonja
Deusto - Bilbao

SARRERA

Teresa bi, Avila'koa bata, 1516'garrean jaioa, eta Alenzon'en 1873'an jaioa bestea. Oni dagokiona da urrengo istoria. Luis Martin eta Zelia Guerin onen gurasoak, zazpi alaba ta seme biren aita-ama. Gaixo samarra zan ama eta iñude bat aukatzen dabe berau zaintzeko, Errose Taillé, eta onek daroa Teresatxo baso-zelai ederrez ingurutako baserri batera: Teresak bere bizitza guztian gogoratuko ditu ango lora, bedartza eta zelaia.

Teresa lau urteko zala il jakon ama. Eta orduan familia Alenzon itxi ta Lisieux'era alda zan bizitaz, Ementxe bizi da, gaiñera, ama zanaren neba bat, Isidoro Guerin; oneik alaba bi eukezan, Juana eta Maria.

Lisieux'en Martin'ek erririk kanporantza, etxe polit bat erosi dau, etxe zabal oba eziña, naieran ibilli ta jolasteko. Izen polita ipiñi dautsoe: "Buissonets", au da, "Sasitsa", sasi ta gaparraz beterik egoalako. Liburuan sarri aitatzen dau Teresatxok.

Mans'ko Visitasionean bizi zan amaren aizta bat lekai-me eta, eta Maria eta Paulina aizta nagusi biak ementxe egin ebezan euren ikasketak lekai-me sartu aurretik. Leoniak eta Zelinak, barriz, Lisieux'ko Beneditarren'etxean, emen bai daukie ikastetxe bat neskattillentzat. Bere aizta biak be, Maria eta Paulina, azitzaille bikaiñak izan ebazan Teresak bere neskato urteetan.

Biotz-samur zan umetatik. Eta lenengotan bai, baiña gero, oraindik gaztetxo zala, sarri aurkitu zan berak opa eban samurtasun gozo barik, bere aitzak batez be urrintzen asi ziranean. Beti izan zan gaixotia, baiña gaixoago biurtu zan oraindik biotzez bakarrik aurkitzean. Ikastetxean ez egoan pozik; naiz-ta bere sasoiko asko euki inguruan, zer edo zer falta jakon.

Argia etorren, alan be, Jainko-zalea. Amalau urte eukazala, gorputzez mardul eta arimaz ez gitxiago, barruan sentitzen zituan gurari biziai jarraitzekotan, erabagi sendo bati eutsi nairik ebillen. Bere aizten antzera karmeldar monja izan nai eban.

Gazteegia zala-ta, ez eutsoen baimenik emon nai. Or bere Erroma'ra osterea, azkenez bear eban baimena lorturik. 1888'garreneko apirillaren 9'an sartzen da Lisieux'ko karmeldar komentuan, 15 urteko zalarik: orixe bai zan bere gurari bizia.

Giro ederra aurkitu ebala esan daikegu, emen egozan aurretik bere aizta Maria ta Paulina, eta euron eritxiz lekaike-bizitzarako oraindik gazte zan arren, samur eta maitati Jainkozko bidean azi ta ezteko. Ortarako, Ama on-arduratsua eukan Ama Gonzaga, sar-barrien edo nobizuen zaintzaille bizkorra; onek azi ta ezi eban batez be Teresatxo santutasunezko bidean.

Gaztetan eskuratzen dauskuezan liburuak guri bai sarri on ikaragarria; Eleizan beti izan jatzuz eder, Dabiden Salmuak eta Juan Gurutzekoaren idatziak, eta liburu biok izan ziran monja sartu aurretik be. Orrein bitartez ikasi eban, bere idatzietan agertzen danez, edozein gauzari beti alderdi eder-apaiñetik begiratzan. Naiz prosaz naiz

bertsoz, aren lumari beti dario ederra. Ez idazkeran bakarrik, santutasunean be, kidetasun aundia dabe karmeldar santu biok.

Teresa monja sartu eta iru illabetera il jaken aita. Zelinak, oster, oso-osorik aske, illa bi geroago Lisieux'ko karmeldar komentuan sartu zan. Eta azkenez Leoni beste alkarte baten.

Iru esku-idatziz

1894'rantza, Maria, Teresatxoren aizta nagusiak, orduan komentuko buru zan Iñeseri eskatu eutson, agindu eiola Teresari beronen gaztetako gomutakiak paperrean jarteko. Olan egin eban Iñese Amak, eta baiezkoa izan zan Teresatxoren erantzuna. Eta ortik sortu zan arek idatzitako "Histoire d'une Ame" — "Arima baten Kondaira". Egillea ilda gero, ainbat bidar eta izkuntzatan argitaratua.

"A" Esku-idatzia

Iñese bere aitzari eskiñi eutson. 1895'an zear idatzirik urrengo urteko urtarrillaren 20'an, Iñese AMARI koruko jarlekuan itxi eutson, beronen santuegunez, emoitz aintzatsu bezela.

Teresak bere umezaroan eta geroago Jainkoaren doaiz josia izan da, eta bere lenengo esku-idazlan mesede oneik dakaz gogora. Karmel'en sartu aurreko urteak iru zatitan bereizten ditu, ondo mugatuta; lenengoa, errazoi-argira zanetik amaren eriotzararte; lau urte ta erdi eukazan Teresak. Bigarrena, lau urte ta erditik amalaurarte, eta irugarrena, bere biurtzetik komentuan sartu zan arte.

Auxe izan zan Teresak erabilli eban egin-asmoa eskatu eutsoena idazterakoan. Onetxek ziran bere umeteko oroitzapenak. Zerbait luzatu eban, bear bada, Zelina karmeldar egin zan arterakoa be bertan sarturik.

Garrantzitsua nunbait esku-idatzi au. Zortzi lenengo kapituluok izan ziran leenengo argitalpenetan ainbat urtetan erabilli ziranak.

“B” Esku-idatzia

1896'neko udazkenean, gogo-iñarkunak egin zituan Teresatxok, goiargi ta mesede askoren iturri. Oneik zirala-ta, bere aizta Maria'gaz euki eban antza alkar-izketa gozo batzuk eta onek eskatu eutson beretzat be idazteko gogoeta batzuk... Ortik sortua da “B” esku-idatzia, iraillaren 13'tik 16'ra osotua. Karta bi dira: bata bere aizta Mariari zuzendua ta bestea Jesusi berari zuzendutakoa. Zelako goi-geiak sentitzen dabezan diñotso: “Eleiz Amaren biotzean, ni maitasuna izango naz”.

“C” Esku-idatzia

Egiaz gaixotu da Teresa. 1896'ko Eguen eta Bariku Santuz gorakoak euki ditu, odola bota dau. Izuak jota geratu da garai atan nagusi dan Iñese Ama; Teresak oindiño amaitu barik dauka bere kondaira. Amaitzeko eskatzen dautso, idatzi ta azaltzeko bere lekaime bizitza. Emendik sortua da “C” esku-idatzia.

Fedearen kontrako tentaldi etenbakoak adirazten dauskuz; eriotzaraño ziztatu eben izugarriro. Alkar maitasunaz diardu luze ta sakon; arimak

zeruratu nai ditu berak, lurrean lez zeruan onei-kaitik Jainkoari eskatuz.

Aulduta aurkitzen zan Teresa garagarrillaren 11'rantza idatzi au amaitu ebanean; azkena lapitzez amaitu bear izan eban.

Liburu eder onen itzulpena egiteko, 1957'an Lisieux'en argitaraturiko “Manuscripts Autobiographiques” eta Madrid'en “Espiritualidad” Argitaletxeak egindako “Historia de un Alma” erabilli doguz.

Larrea, 1991 - 3 - 24

AITA ONAINDIA

"A" ESKU-IDATZIA

J. M. J. T.

Jesus

1895 Urtarrilla

LORATXO ZURI BATEN UDABARRIKO
KONDAIRA. BERA-BERAK IDATZIA ETA
JESUSEN IÑESE AGURGARRIARI
ESKIÑITAKOA.

I ATALA

LENENGO GOMUTAPENЕК

Zeuri, neure Ama laztan, birritan ama zaitudan orri, eskiñi nai dautzut neure arimearen kondaira, istoria... Berau egiteko zuk agindu zeunstan egunean, biotza onek urduri ipiñiko eustala uste izan neban, neure buruaz jardunik; baiña Jesusek gero senti-erazo eustan zintzo-zintzo esana egiñaz atsegin izango nintzakola; beste aldetik, nik ez dot egin nai gauza bakar au baiño: kantatzen asi betiere guztian egingo dodana bera: "Jaunaren errukiak!!! (Sal. 88, 1).

Lumea artu aurretik, belauniko jarri nintzan Andra Mariaren irudi aurrean (gure familiari ainbat

ama-ta maite erakutsi emon dautson Zeruko Erregiñaren aurrean), nire eskuak bere gogoko ez dan lerro be idatzi ez daian berak zuzendu daiala eskaturik. Ebanjelio santua edegi dot jarraian eta nire begiak itz oneikaz aurkitu dira: "Jesusek, mendi batera igonik, Berak nai ebenai dei egin eutsen" (Mark. 3, 13). Ona emen nire goi-deiaren misterioa, nire bizitz osoarena, eta batez be Jesusen nire arimeagazko preferentzia... Arek ez dautse duin diranai dei egiten, Berak opa dabena baiño, edo Paul deunak diñoanez: "Jainkoak berak nai dauana dau erruki eta Berak nai dagionari dagio erruki; beraz, ez da nai dauanarena eta arin dagiana be, erruki dan Jainkoarena baiño" (Errom. 9, 15-16).

Arimen diferentzia

Neure buruari itaunka egon naz luzaro zergaitik ete eukazan Jainkoak bere preferentzik, zergaitik ez ebezan arimak artzen neurri bardiñean euren graziak; arriturik nengoan, egon be, Bera iraindu eben santuai, San Pablo ta San Agustin lakoai, bere grazi aundiak emoten ikusirik, Berak, olan esateko, artu eraginda lez; edo baita, santuan bizitzak erakurrita, Gure Jaunak berak, arima batzuk kumatik illobira losingatzea eder jakola erakutsiz, Beragana igon al izateko bidean zoztorrik itxi bage eta arima onei fabore aundiakaz aurea arturik, bateo-jantziaren zurtasun aratza loitu ez egien. Neure kautan itanduten neban, basati gaixoak, adibidez, zergaitik ilten ziran asko ta asko Jainkoaren izena entzun barik... Jesusek iragarri daust maitekiro misterio au. Izadiko liburua ipiñi daust begien aurrean eta argi ulertu dat Berak sortu dabezan lora guztiak dirala ederrak, larrosearen

lillurak eta lirioaren zurtasunak ez dautsela euren usain gozoa kentzen bioleta txikiari edo-ta margaritaren apaltasun arrigarriari... Ulertu dot, loratxo guztiak larrosa izan nai ba'lebe, izadiak bere udabarri apaindurak galduko leukez, zelaia ez litzakez orain lora pitiñez eder jantzita...

Bardin jasoten da arimen munduan be, au da, Jesusen baratzean be. Berak sortu nai izan ebazan santu aundiak, lirio ta larrosen antzekoak; baiña baita sortu nai izan ebazan txikiagoak be, eta oneik pozik egon bear dabe margaritak edo bioletak Arek bere jainkozko begiak bere oiñetarañño jastan dabezanean poza emoteko. Osotasuna da Aren naia egitea, izan gaitezala arek gu izatea gura nai dauana...

Konturatu nintzan baita Gure jaunaren maitasuna bardin agertzen zala ezetan be gogor egiten ez dautson arimarik apalenean lez, gurenean be; izan be, maitasunari be egotea dagokion ezkeror, arimak guztiak irakasle santuenak ba'litzaz, Eleizea euren irakatsiz argitu dabenean antzekoak, Jainkoak ez leuke ainbeste jatxi bear izango euren biotzetarañño eltzeko; beretzat sortu dau umetxoa, ezer ez dakiana eta aul-aul garrasi besterik egiten ez dauana; berak sortu dau basati gaixoa bizitzan zuzentzeko berezko legea besterik ez daukana eta Bera jastan da maitero onein biotzetarañño; onetxek dira lilluraturik izten dabenean zelaietako lorak, eder zoragarriak... Eta jaste augaitik, Jainkoak bere aunditasun azken-bakoa erakusten dau. Eguzkiak batera izaiak (zedroak) eta loratxo bakotxa, bat bakarra ba'litz lur gairiñean argitzen dabezan lez. Gure Jauna be olantxe arima bakotxez arduratzen da maitasun bereziatz, beste antzekorik ezpalego lez; eta izadian urte-aro guztiak bakotxari dagion

eran antolaturik dago ta bere egunean, margarita apalenaren mote-buruak ler dagi; era berean, guztia eraturik dago arima bakotxaren onerako.

Jomuga ta elbideak

Duda barik, Ama laztan, arriturik itanduko dau-tsozu zeure buruari. nora noian orrela, oraiñarte ez bait dot idatzi ezertxo be neure istoriaz zer ikusia daukanik, baiña zuk eskatu zeustazun burura etorkidan lez, askatasun osoz idazteko; ezta, ain zuzen be, neure bizitzea nik idatzi nai dodana, Jainkoak emon daustazan grazi ta mesedeai buruz nik uste dodana baiño. Igaroari begitu bat emon nengikeon aro baten aurkitzen naz; kanpoko ta barruko azter-aldietan umoturik dago nire arime-a; arain, ekaitz artean sendotu dan lorearen antzera, burua jasoten dot eta neugan beteten dirala ikusten dot XXII'garren salmoko itzak. ("Jauna dot artzain, ez naz ezeren bearrez itzango. Larre gurietan etzun erazte nau; maitekiro naroa ur-ertzetan zear. Neke barik daroa nire arimea... Baiña ibar kerizpetsu ta eriotz sakoneraiño jatxi arren, ni ez naiteke gaitzaren bildur. Zu, Jauna, bai ziñake nigaz") (Sal. 22, 1-4). Jauna beti izan da nigaz errukior eta amultsu... Nagi zigortzeko ta errukiz zabala!... (Sal. 102, 8). Orixegaitik, ene Ama, egiazko poztasuna sentitzen dot Jaunaren errukiak abesten zeure ondora etortean... *Zeuretzat baka-rrik* idatzi nai dot Jesusek aukeratutako *loretxoar-en* kondaira. Beraz, askatasun osoaz idazten noa, ez idazkeraz ez egingo dodazen ara-orai jaramo-nikegin bage. Ama batek ulertu oi dau bere semea, onek berba-erdiak besterik esaten jakin eztabe; beraz ondo dakit zuk igarri ta ulertuko nozuna, nire biotza zeuk eratu ta Jesusi eskiña dalako...

Loratxo batek, uste dot, itz egin al ba'leu, Jainkoak beragaz egin dauana esango leuke lau-lau; Agandik artu dauazan mesedeak gordeten ibilli barik. Eleuke esango, sasi-apaltasunez, doakabe ta usain gozo bakoa danik; ezta eguzkiak ostu eutse-nik be eukan dizdiza; lastoa ekatxak apurtu eutsoenik; beregan bestela dala jakiñik. Bere istoria kontatzera doan lorea pozik dago, Jesusek ain dubanik egin dautsozan biotz-samurtasunak iragar-terakoan; ba-daki ez egoala beregan ezertxo be Aren begitua erakarri leikenik eta Aren errukiak bakar-bakarrik bete ebala ontasunez. Beraz jai-azo eben lur santu ta *birgiñ usain gozatsuan*. Berak nai izan eban aurretik zortzi zitori zuri zuri euki-tea. Beronek nai izan eban euron maitasun al-tzoan gorde nai izan eban munduko kirats bolada-tik bere loratxoa; eta bere buru-kukutsa agertzen asi zaneboxe, Jainko Salbagilleak Karmel mendira aldatu eban, orduko emen bere bizitzako udaba-rrian bigun eta samur inguratu ta seaskatu eben zitoriak aurkitzen ziran lekura... Zazpi urte igaro dira loretxoak birjiñen Senarraren baratzean sus-terrak bota ebazanetik, eta orain iru zitori dira aren ondoan euren buru usaintsuak kulunkatzen dabezanak; urruntxoago, beste zitori bat zabalduz doa Jesusen begipean, eta lora oneik ekarri dabe-zan kanil donetsi biok Zeruko Aberrian alkarturik dagoz orain betikotasunerako... Antxe aurkitu dabez lurrak zabaltzen ikusi ez ebazan lau zitoriak be... Oi, Jesusek ez daizala beste ur-ertzean luzaro itxi erbestean oraindiño jarraitzen daben lorak; laster bego osoturik Zeruan zitorien arramue!

Berba gitxitan egiña dot, ene Ama, Jainkoak nigaz egin dauan guztiaren bilduma; neure ume-aroکو zeaztasunetan sartuko naiatzu orain; ziur nago, beste edozeiñek kontaketa gogaikarria bai-

ño ikusiko ez leuken lekuan, zure *ama biotzak* benetako zoramena aurkituko dauala...

Gaiñera aizatzer a noan gomutakiak zeureak be ba-dira, zeure ondoan joan zalako nire ume-aroa. eta guraso oba eziñak eukiteko zoriona izan neban, ardura ta maite-samurtasun bardiñakaz inguratu ta losingatu ginduezanak. O! Bedeinka daiela euren alabarik txikiena, Jainkoaren goralpenak abesten lagundurik!...

Sendia

Neure arimearen kondairan, Karmel komen-tuan sartu nintzan arte, iru epe bereizten ditut oso bereziak: lenengoa, aldi laburrekoa izanda be, ez da joriezena gomutapenetan; errazoia itxartu jate-netik gure ama maitea Zeru aberrira joan zanerai-ño luzatzen da.

Jainkoak emon eustan adimena oso goiz ta gomutan oso josteko grazia, neure umetako gomutak ain zuzen; esatera noan gauzak atzo jazotakoak dirala begitan-duten jak. Jesusek nai eban, bere maitasunean, antza danez, niri ezagun-azo zelakoa zan Berak emondako ama bardin-bagea, baiña bere jainkozko eskua artaga egoala zeruan bera koroatu nairik...

Eder izan dau Jainkoak nire bizitza guztia mai-tasunez jostea: nire lenengo gomutak irribarre ta txera leunenakaz josita dagoz!... Eta Berak antola-tu ba'eban maitasun ugari nire inguruan, Berak antolatu eban nire biotz txikia be, maitagarri ta sentikor egiñik; bizi-bizi maite nebazan, ba, neure gurasoak eta era askotan erakutsi oi neutsen neure samurtasuna, alai-zabale nintzan-eta. Ortarako



Teresatxo, iru urte terdiko.

artzen nebazan bideak ziran, batzutan, arrigarri samurrak, amaren idazki batetik agiri danez. — "Umea ireltsu bat da, beste bat ez lakoa, txeraz daukat eriotzea opa daustala—. O, zu iltea gura dot, amatxol!... —, ez esateko olakorik diñotsat, eta arek: —Zerura joan zaitezcan diñot eta, ez diñozu ba il egin bear dala ara joateko?". Aitar be eriotzea opa dautso onako maite aldietan" (1).

1874'ko bagillaren 25'an, nik ozt-oztan ama-zortzi illabete neukazanean, ikus amak zer esaten eban nitaz:

"Zuen aitag ipiñi barri dau zibu bat. Zelina oso pozik dago, baiña zoragarria txikia zibu-zibuka ikustea; barregarria benetan, aunditxo bat lez dabilkigu, ez da arriskurik, ez jako askatuko korde-la, eta astiro doanean, oi u dagi. Aurretik lotu bear izaten dogu beste lokarri bategaz, eta alan be, ni ez nago trankil an goian ikusten dodanean.

Azken egunotan gauza barregarria jazo jat txikiagaz. Bost'terdiko mezatara joan oi naz; bera bakarrik izten ez nintzan lenengo egunetan ausartzen, baiña egungo be etzala itxartzen ikusirik, bakarrik iztea erabagi neban. Neure oian entzun-azo eta kumea ondo-ondoan ipiñi neban bertatik ezelan be ez jausteko moduan. Bein aztu egin jatan kumea ipintea. Ba-nator etxera ta txikia ez dago nire ogean; oi u bat dantzut une aretan, begitu ta neure oge-buruan egoan aulki baten jarririk ikusten dot; makur eukan bere burutxo burukoa-ren gain, lo txarra eukirik antza, apal egoan eta. Jainkoa eskertu neban ezer jazo ez jakolako, jainkoagondikoa da-ta, egi-egiaz: beera jausi bear eban.

(1) Paulina'ri idazkia, 1875-12-5.

Aingeru jagoleak eta garbitokiko arimak, egunero eskatzen bait dot eurokaitik, zaindu dabe; orrela aitzen dot nik... ulertu zuok nai dozuen lez...".

Idazki azkenean, amak onela iñoan:

"Ona umetxo nun datorkidan bere eskutxo niri arpegi-gain jartera, eta besarkatzera. Ez nau itxi gura gaixoak, neugaz dago beti; atsegin jako baratzer urtetea, baiña ni an ezpa-nago, berak ez dau an geratu nai eta negar baten dago neugana etorri arte..." (2).

Ona beste idazki baten pasarte:

"Teresatxok lengoan zerura joango ete zan itanduten eustan. Nik erantzun neutson baietz, ona ba zan. Ak erantzun eustan: "Bai, baiña ni ona ezpanintz, inpernura joango nintzake..., nik alan be ba-dakit zer egin orduan, zu zeruan egongo zintzakez eta ni zugana biurtuko; zelan Jainkoa konponduko ete litzeke ni arrapetako?... zuk euki ezkerro ni ondo oratuta? Ak ondo ekiala uste dot Jainkoak ezin eikeala ezer egin bere amaren besoetan ba egoan..." (3).

Mariak benetan maite dau bere aizatxoa, oso polita aurkitzen dau, eta ulertzekoa da, txikia ba ari naigaberik txikiena emoteko be bildurrez dabil. Atzo larrosa bat emon nai izan eutson, onek zoriontsu egingo ebana ba ekialako, baiña ez ebagiteko eskatu eustan. Mariak galazota eukan, gorri egoan zarratada biziz; alan be bi emon nautsozan, eta etzan azartu etxean agertzen. Larrosak neureak zirala nik esan eta esan... "Ez,

(2) Maria'ri eta Paulina'ri, Mans'eko Bizitagionean ikasleak, 1874-5-25.

(3) Paulina'ri idazkia, 1876-10-29.

iñoan arek, Mariarenak dira..." Errez erasoten dan neskatilla da. Utsik txikerrena egin dauaneko, mundu guztiak jakin bear dau bera. Atzo, konturatu barik, paperez apaindutako ertz bat urratu ebalako, lastimagarri egiña geratu zan, bere aitari esan bear jakon al bait ariñen, lau ordu geroago eldu zan, iñor etzan ordurako aregaz konturatzen bera baiña, bertatik urreratu zan Mariari esaten au esanaz: "Esaiozu aitari papera urratu dodala". Zigorraren zain dagoan gaizkille baten antzera geratzen da, baiña uste dau, bere burua salatu ezker, errezago parkatuko dautsoela..." (4).

Maria

Egiaz laztan neban nik neure *amabitxi* maitea (5). Igerri barik, ardura aundia jarten neban neure inguruan egin eta esaten zan guztian; uste dot oraintxe lez epaitzen nebazala gauzak. Adi-adi entzun oi neban Mariak Zelinari erakusten eutsona, neuk be aren antzera gauzak egiteko; arek Bisitaziñotik urten ebanean, arek Zelinari emoten eutsozan ikas-orduetan aren gelan artzeko mese-dea egin egioen, oso zentzun aundiz egon oi nintzan, zer guztietan esaneko. Berak, oster, erregaluz beteten ninduen, balio aundikoak etziran arren, poztasunez josten ninduenak.

Paulina

Esan daikedanez, nire aizta nagusi biak arro-bide jatazan; baiña Paulina zan nire umetako

(4) Paulina'ri idazkia, 1876-5-21.

(5) Maria Teresatxu'ren amaibitxia izan zan.

eredu... Ni berba egiten asi ta amak itanduten eustanean "Noregan zagoz pentsetan?", betikoa zan nire erantzuna: "Paulina-gan..." Beste baten, neure atzamartxo kristal gaiñ erabillirik, esaten neban: "Nik Paulina idazten dot..." Sarri entzuten neban esaten, Paulina *lekai*me izango zala; orduan, ori zer zan enekiala, burura nenkarren au: "*Neu lekai-me izango naz*". Auxe da nire gomutetatik lenengo-ko bat, eta ordutik ez dot iñoiz be aldatu neure erabagia... Zeu izan ziñan, ene Ama maite, Jesusek aukeratu zinduzana ni Beragaz ezkontzeko. Zu orduan ez zengozan nigaz, baiña gu bion artean orduko alkartasun lokarri bat egoan egiña... Zu ziñan nire *eredu*, zure antzeko izan nai neban eta zeure ikasbideak eroan nau ni urte bi ezkeror Birjiñen Senarrarengana... Ol, zelako gomuta atse-gingarriak gogoratu nai neuskizuzan! Baiña lora-toaren kondairan jarraitu bear dot, bere istori osoa ta orokorra, Paulinari buruzko nire gomutakiak ba, zeatz-meatz esatera ezker, beste danak albora itxi bearko neukez...

Leonia

Leonia nire aizatxoak be toki on bat eukan nire biotzean. Asko maite ninduan. Neugaz geratzen zan arratsaldetan, familiko guztiak kanpora urte-tean... Entzuten nagola iruditzen jat oindiño niri lo-eragiteko kantatzen eustazan eresi gozoak... Andik eta emendik ni pozik eukiteko alegin guztiak egin oi ebazan, eta nik ez neutson ezetan ba naigaberik emon gura.

Ondo gogoan dot aren lenengo Jaunartzea, batez be beragaz batera sakristira eroateko besoe-

tan artu ninduan momentua; ederra zan niretzat, izan be, neu lez zuriz jantzita egoan aizta nagusi baten besoetan!... Gabaz, arin ogeratu ninduen ni, oraindik oso txikia nintzalako aparti nagusian esku artzeko; baiña ba-dakust oindiño aita, azkenetan, bere erregiñatxoari arrautz-opil zati bat ekarri eutsona...

Biaramonean edo egun batzuk geroago, amagaz joan gintzazan Leoniaaren laguna ikustera; egun orretan izan zala, uste dot, amak orma baten ostera eroan ginduzana (Dagorau andra gaxoak serbidu euskun) ardaotik pizkat bazkal-ondoan guri emoteko, andra gaixoari nekerik ez bait eutson emon nai izan, baiña ez eban gura gu ezeren faltan egoterik be... Oi, amaren biotza bai dala eztiā, zelan agertzen dauan bere samurtasuna milla arduran, iñok pentsatuko eleukezan gauzetan be ardura zolia jarririk!

Zelina

Zelinaaren txanda datorkit orain, neure umetako laguntxoā; ainbat gomutaki daukat euki be, ez dakit zeintzuk aukeratu. Amak Bisitazion ikastetxera idazten eutsozan eskutitzetatik zati batzuk aukeratuko ditut, baiña ez noa dana aldatzen luzeegia litzakelako... 1873'ko garagarrillaren 10'an (neure jaiotz urtean), ona berak zer iñotson:

"Iñudeak Teresatxo ekarri dau eguenean; irribarre besterik ez egian, Zelina batez be atsegin jakon, barre-zantzoka ekion beragaz, onezkero jolas-gose dala esan leiteke; laster asiko da olgetan; bere ointxo gaiñean tente egoten ikasi dau onezkerro, taket bat legez edo. Nik uste dot laster asiko dala

ibiltan, eta ari onekoa izango dala; buru onekoa dirudi eta autua" (6).

Baiña neure iñudea itxi ondoren izan zan batez be neure Zelina txikiari maitasuna erakutsi neutsona. Guztiz ondo alkar artzen genduan, bakar-bakarrik neu nintzala a baiño biziagoa ta zintzo-ezagoa; arek baiño iru urte ta erdi nekukazan arren, adin bardiñekoak giñala emoten neban. Ona amaren kartako pasarte bat Zelina leuna zala ta ni txibi ta zan-bizi nintzala erakusten dauana:

"Nire Zelina birtuteari oso emona jatzu, bere izatearen sentimen barrukoia da, gatxa gorroto dauan arima garbia. Untxarta, ez dakigu zer izango dan, ain txikia da, ain urdurial Zelina baiño be argiagoa da, baiña, ez da ain gozoa, eta mukerra oso, ezi-eziña; ezetz diñoanean, ez dago andik zirkiñik eragiterik; egun osoan be-barru sartuta be, antxe lo egingo leuke baietz esan baiño leen...

Baiña urrezko biotza dauka, guztiz txeratsua da ta egitia, Polita da nigana etorten ikustea, autortza au niri egiten: "Ama, bein kaka egin dautsat Zelinari, jo egin dot beste bein, baiña ez dot geiago egingo". (Orrela dozu egiten dabezan zer guztietan). Eguen arratsaldean ibiltaldi bat egiten joan gintzazan geltokirantz; berak naitanaiez egongelan sartu nai izan eban Paulinaaren billa joateko, gure aurretik joian bene-benetan pozik; baiña Paulinaaren billa joateko trenean igon barik biurtu bear zala ikusi ebanean, negarrez etorri zan bide guztian" (7).

Eskutitzaren azken zati onek gogora dakarst Bisitaziñotik zu itzultzean nik artzen neban poztan

(6) Paulina'ri idazkia, 1873-6-1. Teresatxo oker dabil egunez.

(7) Paulina'ri idazkia, 1876-5-14.

sunak; zuk, Ama, ni artzen ninduzun besoetan eta Mariak artzen eban Zelina; nik orduan milla palagu egin oi neitsozan eta atzerantz makurtzen nindun, bere kopeta luze-ederra miretsi nengian...; gero, zuk txokolate opil bat, iru illabetea gordeta eukana. Erliki bat zan au niretzat, konturatuko zareanez!

Manns-era joan-etorria

Gogoratzen dot baita Mans-era egin neban joan-etorria. Trenean lenengoz ibilli nintzana zan. Poz aundia benetan amagaz bakarrik osterategitea!... Bat-batean, ez dakit zergaitik, negarrari emon neutsan, eta nire amatxo gaixoak ezin izan eutson aurkeztu Mans-ko nire izekoari, joan-etorri bitartean negar eta negar gorri aurkitzen zan neskati eragin dotore bat baiño... Ez dot gordetan izketa- ren gomutakirik, gogoratzen dot bakar-bakarrik izekoak emon eustazan arratoi zuria eta kartoizko otzaratxo bat gozokiz betea; onein gaithean *agiri ziran* azukrezko erestun polit bi, neure atzamar neurrikoak ain zuzen be; bat-batean nik garrasi: "Au poza!, erestun bat egongo da Zelinarentzat". Baiña, au samia!, kinten batetik oratu neban otzaratxo, bestea amari emon, eta urten genduan; oindaka batzuk emon ondoren, neure otzaratxo begitu, eta nire gozokiak ia danak zelaian jausirik egozan Oskolotxoaren arri-koskorak lez. Astiroago begitu ta erestun areitatik eder bat bere gozokiak lez lurrean egoan... Onezkero ez neukan ezer be Zelinari eroateko!... Nire miñak eztanda orduan. Atzera biurtu nai dot, baiña amak ez daust antza jaramonik egin gura. Geiegi zan, ene malko-negarren ondoren, or etozan nire geiagotu egiten eban orrek nire naigabea...

Teresatxoren akatsak

Barriro nator amak Zelina'z eta nitaz berba egiten dautzun kartetara, auxe da izan be nik erabilili neiken modurik onena zuri neure izaera erakutsi azteko; ona emen pasarte bat nire akatsak argi be argi dizdiz dagielarik:

"Txikiagaz alaitzen da Zelina kuboakaz jolaska, eztabaidak sortzen dira noizik beinka; Zelinak izten dautso bere koroari txirlarri bat geitzeko. Txikitxoari asarre egin bear izaten dautsot, sumiñaldi ikaragarriak artzen ditulako; gauzak bere naira ez doazanean, zoro baten antzera lurrean etzuten da, dana galduta dagoala uste izanik. Bera baiño gogorrago da au batzutan, eta larri jarten jatzu. Ume urduria da, Baiña begikoa ta argia oso; danok gaukaz gogoan" (8).

Ikusten dozu, ene Ama, akats bako ume izate-tik! Nitaz ezin leiteken esan "lo nengoala be ona nintzanik", gabaz egunez baiño be iperlokago genduan; pikutara bialtzen ebazan maindira guztiak eta gero (lotan egoala) neure oe-oletan golpeak emoten eustazan; miñak itxartzen nindun, orduan iñoan: "Amatxo, *trimindu naz!*..." Amatxo gaixoak jagi-azten nindun, eta baita ikusi be, egi-egiaz txori-buruak neukazala bekokian, *trimindu* nintzala; ondo estaldu ta barriro ni ogera; baiña andik laster golpeka asten nintzan oster be, eta askotxo zalako neure oiari lotu bear izan ninduen. Zelina etorkidan gauero untxarta pitiñak ama golpeka itxartu ez egien lokarriak jartera; neurri ori etzan txarra izan eta aurrerantzean *ona* izan nintzan *lo nengoan* bitartean... Ba-neban beste akats bat be (itxarrik) amak bere kartetan aitatzen

(8) Paulina'ri idazkia, 1875-12-5.

ez dauana, neure buruaganako maitasun geiegia. Ona emen adibide bi beintzat, kondaira au luzeegi ez egiteko. Amak bein esan eustan: "Teresatxo, lurra munkatzen ba dozu, ogei zentimu emongo dautzudaz". Ogei zentimu diru mordoa zan niretzat. Berau irabazteko ez neukan txikitu bear aundirik; txikia nintzan ezkerro, ez bai egoan nigandik lurrera olako bide-arlo aundirik. Arrotu zan, alan be, nire barrua, "lurrari mun egin bear" neutsolako, eta, benetan zutik, esan neutson amari: "O!, ez, amatxo, naiago dot ogei zentimu barik geratzea!..."

Beste bein Grogny-ra joan bear izan genduan, Monnier andrearen etxera. Mariari esan eutson amak niri neure soñeko urdiña, apainduraz ornidutakoa, jazteko, baiña besoak ez eistazala agirian itxi, eguzkiak txigortu ez eistazan. Itxi neutson jazten neure adiñeko umetxoen ardura-ezez, baiña barruz niñoan nik politago nengokela besotxoak agirian izanik.

Zelina ta Teresa, ezin aldenduak

Nik lango izakera izanik, on-eziketa bako gurasoak edo-ta, Zelina lez, Luisak maiñatua izan banitz, oso okerra izango nintzan eta bear bada galdut egingo nintzan... Baiña bere emaztegei txikiaren ardurea eukan Jesusek. Aren akats guztietatik probetxu ateraten jakin eban, denporaz neurriturik, osotasunean aurrera egiteko balio garri izan bai jakoz... Neure burua *maiteegi* nebalako eta *ona* be oso maite, benetan pentsatzen asi nintzaneko (oraindik txiki nintzala izan zan berau), gauza bat ez egoala ondo esatea naiko jatan, birritan esan bearrik ez izateko... Pozarren dakust, amaren eskutitzetan, nik asi-ala, pozaldi biziagioak emo-

ten neutsazala. Ikusi be, ikasbide onak baiño ez nebazan ikusten neure inguruan, eta bene-benetan nai neban ejenplu areik neure egin. Ona zer idazten eban arek 1876'an:

"Teresatxok be buru-ukapenak egin nai ditu... Pospolintxu bat dogu, itzal bat aiña leuna, bizi-bizia, baiña biotz sentikorrekoa. Zelinak eta berak benetan maite dabe alkar, naikoa dira biak olgetako; bazkal ostean egunero Zelina bere oillarretan doa, kolpez arrapatzen dau oilloa Teresarentzat; ni ezin naz aren jaube egin, baiña a guztiz trebe data, lenengo zartadan eskuratzen dau. Gero sutandora doaz euren egaztiakaz luzaro jolastuz. (Errosek emon eustazan oilloa eta oillarra, eta Nik Zelinari oillarra). Lengoan Zelina neugaz ogeratu zan, eta Teresa goian Zelinaren oian; Luisari eskatu eutson beera eroan egiala jazteko. Luisa ba-doa aren billa ta utsik aurkitzen dau oia. Teresak Zelinari esana entzun eban eta beera jatxi zan beragaz. Luisak diñotsa: "Ez ete dozu jatxi nai jantzi zaitezan?". "O, ez, Luisa, oillotxo biak lez gara, banandu ezin diranak". Eta au esanik biak alkar besarkatu ta estutzen... Ondoren, arrastian, Luisa, Zelina ta Leonia Batzartegi Katolikura joan ziran eta laga eben etxean ara joateko nimiñoegia zala ba ekian Teresa gaixoa. Berak iñoan: "Zelinaren ogean beñik-bein etzun-azoko ba ninduen!... "Baiña ezta, ez eben nai izan... Ak ez eban ezer esan, eta bere kruseluaz geratu zan. Ordu-lauren geroago, lo egoan parrastaka" (9).

Beste egun baten amak idazten eban baita:

"Zelina ta Teresa banandu-eziñak dira, ezta errez alkar geiago maite daben neskato bi; Maria

(9) Paulina'ri idazkia, 1876-11-8.

Zelinari klasea emoten datorrenean, Teresa gai-xoak negarrari emoten dautso. Zer izango e-
bere agiskidetxoa ba doal... Mariak, errukiz, bera-
gaz daroa eta txikia aulki baten jarrita dago ordu bi
edo iruan; perla ta txirlarriak emoten dautsoez
josteko zapi baten kordatzeko; zirkiñik egin bage
dago eta noizik bein intziri sakonak botaten. Josto-
rratzatik aria ateraten danean, berak saioak egiten
ditu barriro sartzeko, arrigarriro saiitzen da, ez
dau lortzen eta ezta azartzen Mariari gaitz egiten.
Bertatik ikusten dira malko aundi bi matrailleta-
tik txirrist dagienak... Beingoan poztu oi dau Mariak,
jostorratza arian ipiñi eta aingerutxo gai-xoak irri-
barre dagi bere negar-malko artetik..." (10).

Gogoratzen naz, ain zuzen be, ezin nintzala
egon Zelina barik, naiago neban azkeneko zizki-
mizkiak jan barik maia itxi, bera barik joan baiño
amaitu ondoren Bira-biraka nenbilen neure jar-
leku garaian, andik jasteko niñotsen eta olgetan
giñoiazan alkarregaz; batzutan Jauriariaren ala-
beagaz joan oi giñan; atsegin jatan au, parkean
zear eta erakusten euskuzan toki ederretan zear;
baiña ara niñoian ni batez be Zelinari poza emo-
tearren, baiña nik naiago neban geure baratz txi-
kian geratzea *ormak gorraskatzen*, emendik atera-
ten genduzan zotz dirdaitsuak, an egozanak, eta
gero aitari *saltzen geuntzazan*; onek oso *serio* eros-
ten euskuzan.

Domeketan, ni eleizkizunetara joateko oso txi-
kia nintzalako, neugaz geratzen zan ama; garai
ontan txit ona nintzan meza bitartean beatz-pun-
tetan ibilli oi nintzan; baiña atea edegiten ikusiz
batera bardiñik bako pozezko eztanda etorren;

(10) Paulina'ri idazkia, 1877-3-4.

neure aizatxoari bidera urteten neutson astrapa-
da ikaragarrian, egon be orduan *zoragarriro*
apainduta egoan... eta esaten neutson: "O, Zelina-
txu, emoidazu bizkor ogi bedeinkatua!" Batzutan
ez ekarren, beranduegi eldu zalako... Zer egin?
Ezin nintzan ori barik gelditu, axe zan "nire
mezea"... Laster erabagi neban zer egin. "Ez dau-
kazu ogi bedeinkaturrik, zeuk bedeinkatu egizu",
Esan eta egin. Jarleku bat artzen dau Zelinak, alaza
bat zabaldu, ogia artu, zerrenda bat ebagi ta oso
serio, *Agur Mari* bat esan bere gaiñ, ondoren neuri
eskiñirik, eta nik, gurutz-ezugarria egiñik, jan dagit
eraspen aundiz, ogi bedeinkatua baizen ona... Sarri
gogozko itzaldiak egin oi genduzan alkarregaz; ona
eredu bat amaren idazkietatik artuta:

"Gure txiki biak, Zelina ta Teresa, aingeru be-
deinkatuak dira, aingeru-izatezkoak, poza bera da
Teresa, Mariaren poza ta aintza. Siñistu eziña da
zein arro sentitzen dan beragaz. Egia da, zelako
burutaldiak daukazan, daukazan urteetarako;
Zelina baiño geiago da, au urtez birritan geiago
dan arren. Zelinak iñoan lengo egunean: "zelan
egon daiteke Jainkoa osti ain txikian?" Txikiak
erantzun eutson: "Ezta arrigarri, Jainkoa guzti-
alduna da-ta". Zer esan gura dau guzti-aldunak?"
"Nai dauana egiten dauala"... (11).

Nik dana aukeratzen dot

Bein, Leoniak, andrakilletara jolasteko aundie-
gia zala uste izanik, gugana etorri zan jantzi ta
zapi-zatiz beteriko zimeratxo bategaz, beste ba-
tzuk osotu gengizan; danen gaiñean bere andraki-

(11) Paulina'ri idazkia, 1877-5-10.

ilea egoan etzunik. "Artu, aitzatxoak, esan euskun; aukeratu, dana emoten dautzuet". Zelinak eskua botaz atsegin jakon kordoi-mataza bat artu eban. Nik, apur baten pentsatzen egon ondoren, luzatu neban neure eskua, esanaz: "nik dana artzen dot" eta beste zeremoni barik zimera osoa artu neban; ango testiguak bidezkotzat ikusi eben gauzea. Zelinak berak be ez eban erakutsi naigaberik (arek ba eukan eta naiko joztaillu, bere aitabitxik ain zuzen be erregaluz bere oi eban eta Luisak nai eban guztia eskuratzen alegintzen zan).

Neure umetako jazokun au neure bizitza osoa baten batzen dauana dozu. Geroago, osotasunean begi aurrean egokitu jatanean, ulertu neban *santu* izalera eltzeko asko sufridu bear zala, beti billatu osoena eta nobere buruaz azlu; ulertu neban milla asko egozala osotasunean eta arima bakotxa aske zala Gure Jaunaren deia erantzuteko, Beraugaitik giti edo asko egiteko; berba baten, Berakeskatzen dauskuzan buru-ukapenen artean *aukeratzeko*. Orduan, neure umezaroko egunetan lez, nik neure kolkorako: "*Ene Jainko, nik dana aukeratzen*". Ez dot izan nai *erdizkako santua*, ez nau ikaratzen Zugaitik sufritzeak, gauza batek ezik ez nau ikaratz, neure naiari eusteak. Ar eizu. Zeuk nai dozun *guztia aukeratzen dot...*!"

Baiña naikoa onezkero, ez dautzut oindiño neure gaztaroz itz-egin bear, lau urteko putulxez baiño.

Deabrukumeen amesa

Gogoan dot sasoi onetan euki neban ames bat, gomutamenean sakon be sakon josi jatana. Gau

baten, ames egin neban baratzera urten nebala bakarrik, ibiltaldi bat egiten. Ara eltzeko igon bear nebazan mailla-orpora urreratu nintzanean, izuturik gelditu nintzan. Neure aurre-aurrean, parrapean, kare-barrika bat egoan eta barrika onen gaiñean *deabrutxo bildurgarri* bik dantzan egien txairo be txairo, kate sendoak oiñetan euki arren. Ikusiz bakarrik suzko begitua bota eusten, eta beingoan, ni baiño izutuago egozala emonik, barrikatik jatxi ta aurrez aurre egoan jantzitegian gorde ziran. Orren koldar aurkitu nitun ezker, zer egiten jaiazan jakin nai izan neban eta leiora urreratu nintzan. An egozan *deabrutxo* gizajuak mai-gaiñez saltoka eta nire begi aurretik zelan iges egin ez ekiela; noizik beinka leiora urreratzen ziran, artega begiratzuz oindiño an ete nengoan eta nik an jarraitzen nebala ikusirik, etsi-etsita ariñari emoten eutsoen.

Lo onek, bear bada, ez dau ezer arrigarririk. Jainkoak nai izan dau nik gogora ekartea, grazian dagoan arima batek ez daukala zegaitik *deabruen* bildur izan adierazteko; bildurtiak bai dira, ume-txo baten begi aurrean be igeska doazanak...

"Ekin" pitiñak

Ona emen amaren kartetatik beste zatitxo bat. Ama gaixo onek aurkezten dau onezkero bere erbestearen amaia:

"Txiki biak ez nabe arduratzen, ain onak dira biak, izaera aukerakor bi, onak izango dira duda bagarik. Mariak eta zuk guztiz ondo azi ta ezi zeinkiez. Zelinak ez dau iñoiz, naita, faltarik txikiena be egiten. Txikia be ona izango da, ez eluke

munduko urre guztiagaitik be guzurrik esango; zuen arteko bategan be ikusi ez dodan lakoxe espiritua dau.

Lengoan dendariazen etxean nengoan Zelina ta Luisagaz; ak bere praktikak (ekiñak) azaltzen eta Zelinagaz bizi-bizi estabaidaten ekion; emakumeak Luisari esan eutson: "Zer esan nai dau?, baratzean jolaska diordunean, praktikak baiño ez ditu aita-tzen. Gaucherin andrea leiora urreratzen da praktikai buruzko eztabaida au ulertu gurarik... Gure poztasuna da umetxo au, ona izango da, agiri jako onezkero bere erroa; Jainkoa da bakarrik bere autugai, eleukez egiteko itxiko bere otoitzak. Eder litzakit entzungo ba zeuntso ipuiñak esaten; ez dot iñoiz ain gauza xarmantik. Berak bakarrik asma-tzen ditu bear diran doiñu ta kiñuak, baiña batez be au oguzten dauanean: "Buru gorrizko aurtxo orrek, Jainkoa nun uste dozu dagoala?"... Ona eltzen danean: "An goian dago, zeru urdiñean", gora begiratzen dau aingeru-mosu gozoz. Esan eta esan eragiten dautsogu; ain jaku zoragarria! aingeruan zerbait dago aren begiradan, lilluratzen gaituna!... (12).

Izadia eta txi-roak

O, ene Ama, ni bai nintzala zoriontsu adin orretan! Biziaz gozatzen asia nintzan orduko, eder jatan birtutea eta, uste dot, gaur lakoxe gogaldian nengoala, neure egiñen jaun eta jaube nintzalarik. Al, zein arin txirristatu ziran nire ume-aroko urte eguzkitsu areik, nire ariman gomuta gozoa itxirik alan be! Gomutapen zoriontsuak izan be

(12) Paulina'ri idazkia, 1877-3-4.

aitak Txabolara eroaten ginduzenekoak; gauza txikienak be josirik geratu jatazan biotzean... Igan-detako ibiltaldiak datorkidaz batez be gogora, amatxo beti bai etorren geugaz... Sentitzen ditut oraindik gari-soloetan zear ibilliaz artu ariman ernetan zartada sakon oleritsuak, pitxoletaz, lo-bedarrez eta baso-loraz jantzitako bazterretan zear ibilliz. Maite nitun nik orduko urriñeko *osertzak*... Usgunea ta izai jagiak, adar luzeak be-be zituela, nire biotzean gaur be izadia ikusiz sentitzen dodan biotz zauskada itxi eben...

Askotan, ibiltadi luze oneitan, eskekoakaz topo egiten gendun bidean, eta Teresatxo zan beti limosnea eroaten eutsena, eta onek zoriontsu be zoriontsu egin oi eban; baita sarritan, aita, bere erregintxoarentzat bidea luzeegi eritxiz, (naizta pena aundiz) besteak baiño lenago etxera ekarten eban. Poztuteko, Zelinak margaritaz beteten eban bere saskitxoa eta etxera eltzean emoten eutsozan; baiña, ai!, amamak uste eban geiegi eukazala lo-beak eta zati bat Andra Mariarentzat artu oi eutson... Au ez jakon gogoko Teresatxori, baiña ez eban ezer esaten, ezegaitik ez naigabetzen oitua zalako, ezta bere zerbait artzen eutsoenean be, edo erru barik salatua zanean; gurago eban ixillik egon ezer esateke; au etzan beretzat on-egiña, berezko birtuteko baiño... Penagarri benetan esku-antze ain ona urtutea!

O!, danak egistan irri-barre lurrean; lorak aurkitzen nitun neure oinpean, eta neure izaera alaiak be lagungarri jatan neure bizia atsegintsu egiten; baiña aro barri bat asiko zan nire arimearentzat. Proga-arragotik igaro bear neban eta ume-arotik sufridu ariñago Jesusi eskiñia izan nedin. Udabarriko lorak be erneten asten dira edurpean eta

eguzkiaren lenengo izpiakaz zabaltzen dira, orrelaxe nik idazten dodazan gomutakien loratxoak be, proba edo azterketen negua igaro bear izan eban...

II ATALA

AMAREN ERIOTZ OSTEAN LISIEUX-ERA ALDATZEN

Geure amaren gaixotasunari buruzko zeaztasun guztiok bizi-bizi dagoz oindiño nire biotzean; gogoratzen ditut batez be lur gaiñean igaro zitun azken asteak. Zelina ta ni erbesteratutako gaixo bi legez gintzazan. Goizero Leriche andrea billa etorten jakun eta bere etxean emoten gendun eguna. Egun batean, ez gendun euki astirik urten aurretik geure otoitzak egiteko eta, bidean ibilliz, Zelinak ixil-ixil esan eustan: "Esango ete dautsagu ez doguzala egin geure otoitzak?"... "O, bai!", erantzun neutson; orduan berak adeitsu Leriche andreari esan eutson, eta onek: "Ederto, alabatxoak, oraintxe egin zeinkiez" eta gu gela aundi batera eroanik, joan zan... Zelinak begitu eustan, eta guk geure artean: "O, ezta ama langoa..., arek beti laguntzen ginduzan otoitzak egiten!..."

Neskatoakaz olgetan genbiltzala be, geure amatxo maitearen pentsamentua lagun genduan beti. Zelinak bein muxika eder bat artu eban, urreratu ta esan eustan: "Ez dogu jango, amatxori emongo dautsat". Baiña, ai!, amatxo gaixoa gaixoe-gi egoan lurreko frutak jateko, etzan *asetuko* zeruan ezik Jainkoaren *aintzaz* eta Jesusegaz *edan* Arek bere azkenengo aparrian aiatatu eban ardao *ezkututik*, eta bere Aitaren erreinuan gugaz bananduko ebala agindu euskuna (Mt. 26, 29).

Azken Igurtziko zeremoni erdiragarria be josi-ta geratu da nire ariman; ikusten dot oindiño Zelinaren ondoan artzen neban lekua; bostok erres-tadan gengoan adinka, eta aitaxo be antxe nega-rez...

Egun aretan edo amaren eriotz biaramonean, besoetan artu nindun berak, esanaz: "Zatoz zeure amatxo gaixoari azken-mosua emoten". Eta nik, ezer be esan barik, neure ezpanak urreratu neba-zan neure ama laztanaren bekokira...

Ez dot uste negar asko egin nebanik. Ez neutso-zan iñori neukazan sentimentu biziak adieraz-ten... Begitu ta entzun, ixillik... Iñok ez eukan astirik nitaz arduratzeko, orixegaitik gorde nai neukazan gauzak ikusi nebazan; une betean, il-kutxaren ateari aurrez-aurre aurkitu nintzan..., begira geratu nintzakion luzaro, iñoiz ez neban antzekorik ikusi; alan be, ulertzen neban... Ni oso txikia bai nintzan, eta ama be txikia, goi-bez, burua jaso bear neban guztia ikusteko eta *aundia* eta tristea iruditu jatan...

Amabost urte geroago, beste ateute baten au-rean aurkitu nintzan, Jenobeba Amarenaren aurrean; nire ama zanaren neurrik bardiñekoa zan eta oindiño neure ume egunetan nengoala uste izan neban... Neure gomutaki guztiak moltzo-tu ziran, egi-egiaz Teresatxo berbera zan begira egoana, baiña *azita* egoan, eta ilkutxa *txikia* irudi-tzen jakon, eta orain ez eukan, ikusteko, burua jaso bearrik; ez eban *jasoten* oso *alaia* begitandu-ten jakon *zerua* ikuskatzeko baiño, proba guztiak amaituak bai ziran eta bere arimearen negua iga-roa zan betiko.

Gure amatxo maitearen gorpuzkin ilkorrak Elei-zeak bedeinkatu ebazan egunean, beste ama bat

emon nai izan eustan Jainkoak lurrean, eta bera neuk aukeratzea nai izan eban askatasun osoz. Alkarturik gengoan bostak, naigabe aundiz bata besteari begira; Luisa be antxe aurkitzen zan eta, Zelina ta niri begira, esan eban: "Gaixoak, orain ez daukazue amarik!" Orduan Zelina Mariaren beso artean jausi zan, esanik: "Zu izango zara nire amatxo". Nik aren antzera jokatu oi neban, baiña zugana, Ama, itzuli nintzan, eta geroak oraindik bere miesa urratu ba leu lez, zeure besoetan etzun nintzan, negar-zotinka: "Paulina izango da nire ama!"

Lisieux-en

Leen esan dodanez, neure bizitzako epe ontatik asten da neure bizi-aroko bigarren zatia, iruretatik samintsuena, batez be nik bigarren "amatzat" aukeratu neban Karmel komentuan sartu zintza-netik. Aldikada au neure lau urte ta erditik neure amalaureiño luzatzen da; orduantxe artu neban barriro be neure *ume* izaera, naizta biziaren serio-tasuna ulertzera eldu.

Esan bear dautzut, ene Ama, amatxo il zanetik, guztiz aldatu zala nire izate alaia; ni leen bizi ta zabala izanik, bildurti ta baretsu egin nintzan, lar sentikor. Begitu bat naikoa zan, niri begiak mal-koz asetzeko; ni pozik eukiteko iñok ez eban ardu-ratu bear; pertsona ez-ezagunik ez neban alboan eroan al izaten, eta familikoen artean bakarrik etorten jatan *galdutako* poztasuna... Alan be, samurtasunik *samurrenaz* inguraturik bizi nin-tzan. Ain *txeratsu* zan aitaren maitasunari geituz nik leendik neukan ama-txerari... Zu, Ama, ta Maria, ez zintzazen niretzak amarik *txeratsu* eta

berekoi-ezenak?... Al, Jainkoak erein ez ba'litu iz-pi ongille oneik bere loratxuaren gaiñean, bera etzan egundo be lurrean ezarriko, makalegia zan oraindik euriak eta ekatxak eroan al izateko; beroa bear eban, iruntz biguna ta udabarriko aize meiak; ez jakozan on oneik iñoiz falta izan, Jesus-ek aurkitueragin eutsozan, baita proben adurpean be!

Buissonets-etan

Ez nintzan naigabetu Alenzon izlearren, umeak maite dabez aldakuntzak eta atsegin izan jatan Lisieux'era etortea. Gogoratzen egin genduan ostereaz; gabaz eldu gintzazan neure izekoaren etxera; aurrean daukadaz oindiño Juana ta Maria gure zain atean... Zoriontsu nintzan ain maitagarri ziran lengusiña biakaz; laztan nebazan, neure izekoa lez, eta, batez be, neure osabea; onek lotsea sartzen eustan ez nintzan bertan aurkitzen Buissonets-etan baizen pozik. Emen nintzan benebenetan zoriontsu... Goizean zeu etorten ziñan nire ondora eta itanduten zeustan ia Jainkoari eskiñi neutson neure biotza; gero jazten ninduzun eta Aretaz berba egiten zeustan eta ondoren zeure ondoan egiten nebazan neure otoitzak.

Bereala irakurtea osotzen gendun; neuk baka-riak irakurri neban lenengo itza au izan zan: "Zerua". Neure amabitxi laztanak irakasten eustan idazten eta zuk, Ama, beste gauza guztiak. Ez neukan erreztasun aundirik ikasteko baiña gogamen ona neban. Dotriñea eta batez be edesti deuna ziran niretzat gogokoenak; pozarren ikasi oi nebazan; gramátikeak, ostera, malkoak ixuri eragin daustaz sarri... Gogotan dot gizonarena ta emakumearena!

Klasea amaitzen nebanean, ikustokira igoten neban eta aitari eroaten neutsozan neure izki-mizkiak eta notak. Ni bai zoriontsu au entzunik: "5 bat dauka *akats* barik, Paulina izan da lenengo esan dauana..." Nik, ba, esaten neutzunenean 5 bat neukan akats barik eta zuk baietz esan, uste neban puntu bat gitxiago neukala. Baita puntu onak emoten zeustazan puntu kopuru bat piltzen nebanean, saria emon oi zeustan orduan eta opor-egun bat. Gogoan dot egun orreik besteak baiño luzeagoak jatazala, eta onek zu poztu egiten zinduzan, au bai zan ezer egin barik egotea ez jatala gogokoa. Arratsaldetan aitagaz joan oi nintzan ibillaldi egiten; alkarregaz egiten geuntson ikustaldi bat Gure Jaunari, egun baktxean eleiza batera joanik; orrela sartu nintzan lenengoz Karmel kapillatxoan; aitak erakutsi eustan koruko burdin-sarea, mojak an atzean egozala esanik. Ez neban uste, ezta urrik be, bederatzi urte geroago ni be arein artean egongo nintzala!...

Aitaren maitasuna

Ibillaldiaren ostean (aitak orretan beti erosi oi eustan ogei edo berrogei zentimoko gauzatxoren bat), etxera biurtzen giñan. Nik orduan egiten nebazan neure "deberiak" eta ondoren ikutika egin oi neban aitaren inguruan, ez nekian ba andrakilletara jokutzen. Atsegin jatan aziakaz ur-egosia egitea, eta bardin bidean aurkitzen nebazan zugatz-azalakaz; aitari eroaten neutsozan gero oporño polit baten; aitak, bere lana itxirik, edango ba'leu lez egiten eban irribarreka. Gopor edo tazatxoa biurtu aurretik ixilka itandu oi eustan ia ixurki a beera bota bear eban; baietz niñotsan batzuetan, baiña geienetan eskuratu oi neban

barriro be edaria, askotan eskintzea eder jatalako... Eder zan niretzat loratxoak landatzea aitak emonda neukan baratzean. Jolas berezia zan niretzat orma erdian egoan zulo baten altaratxoak antolatzea; amaitzen nebanean, arin-arin niñoiari eta berari eroanik begiak ondo zarratzeko eskatzen neutson eta ez edegiteko neuk eskatu arte; eskatzen neutson legez egiten eban eta olantxe neure baratz aurrera eroan oi neban; orduan nik oi: "Aitatxo, edegi begiak". Ak zabaldu egiten, eta lilluraturik geratzen niri poza emotearren; miretsirik, jakiña, nik arte-lan bat zala uste nebana!... Ez neuke iñoiz amaituko olako milla kondairatxo edestu nai ba 'neukez, asko bai dira gogoan daukadazanak... O!, zelan azalduko neukez nik, aitak bere erregiñatxoaz eukazan txera ta samurtasun guztiak? Ba-dera gauza batzuk, biotzak sentidu arren, ez itzak, ez pentsamentuak adierazo ezin dabezanak...

Landa ta zelaietan zearko ibillaldiak

Bai eder-atsegiñak jatazala "nire errege lazta-nak" beragaz egurasten eroaten ninduan egunak; atsegin jatan, izan be, alorra, lorak eta txoriak! Neure kañabera txikiaz noizik bein saiatzan nintzan arrantzuan, baiña ederrago jatan *bakarrik*, bedar loratzuan jartea. Nire pentsamentuak orduan sakonak ziran eta gogarketa zer zan jakin barik, egiazko otoitzean murgintzen jatan arimea... Urriñeko zurrumurruak entzuten nebazan... Aizean murmurio ta bakartadeen musika, euren soñua eltzen jatan goibeltasun samurrez biotza beterik... Erbeste-toki iruditzen jatan lurra eta zerua nik ames... Arin joian arratsaldea, laster etorren Buissonets'etara biurtzeko ordua, baiña biurtu

aurretik arrastikoa artzen neban, zimeratxoan eroan nebana; zuk gertatu zeustan gozoki-zerrenda; itxuraz aldatua bera, bere margo biziaren ordeztarrosa kolorezko itxura ariña eukan, zaartua ta illunduan goibelago iruditzen jatan lurra, eta konturatzan nintzan zeruan bakar-bakarrik eukiko nebala odeirik bako poztasuna...

Odeiak dirala-ta, ain zuzen be, gogoratzen naz, kanpoko zeru eder urdiña illundu zan bein. Ekatxa bertatik asi zan zaratoska, bizi-bizi asi be; tximistak odei goibelak zearkatzen eta oñaztarri bat ikusi neban ez urrin be jausten; ez nintzan bildurtu; lilluraturik nengoan; Jainkoa neugandik ur-ur egoala uste bai neban!... Aitatxo ez egoan bere erregiñatxo baizen pozik; ez gero ekatxak izutzen ebalako; bedarrak eta margaritak (ni baiño aundiago ziranak) arri pitxiz dizdiz egielako baiño. Landa bi zearkatu bear genduzan bide batera eldu orduko eta nire aitatxok ez eban nai diamanteak bere alabatxoa bustiterik; lepoan artu eban, arrantzurako zakutoa eroian arren.

Aitagaz egin oi genduzan ibillaldietan, arek nai izaten eban bidean aurkitzen genduzan ez-eukientzako limosnaren bat eroatea; bein, ikusi gendun bat bere makulu gaiñean arrastaka ebille-na, baiña nire limosnea artzeko lain txiro bere burua ikusten ez ebala-edo, irribarre tristez bigiratu nindun eta ez eban onartu nai izan eskintzen neutsona. Ezin dot adierazo nire biotzak somatu ebana; poztu-azo ta nekean arindu nai neukean a, eta uste izan nebanez, apal-azo egin neban. Gaixo arek, antza igarri eban nire sentipena; itzuli zan beintzat, irribarreka. Aitak erosi-barri eukan pastel bat; nik ari emon nai izan nautsan; baiña ez nintzan azartuten; beste zerbait eskiñi nai neu-

tsan, ukatuko ez eustan zerbait, aregazko txera bizia sortu bai zan nire kautan. Gogora jatan orduan, iñoiz entzuna nebala, lenengo Jaunartze egunean eskatzen dan guztia lortzen dala. Pentsamentu onek poztu ninduan eta, sei urte baiño ez neukazan arren, neure barrurako esan neban: "Olotz egingo dot, neure txiroaren alde, neure lenengo Jaunartze egunean". Bost urte geroago bete neban neure guraria eta uste dot Jainkoak entzun ebala bere soin-atal minduetariko bat-gaitik egiteko buruan jarri eustan otoitza...

Biktoria

Maite-maite neban Jainkoa eta sarri eskiñi oi neutsan neure otoitza amatxok erakutsi eustan era erabilliz. Bein, alan be, au da, maiatzeko arratsalde baten, uts bat egin neban emen esatea egoki dana; ereti ona ekarriko daust neure burua apalasteko, eta uste dot beragaz ondo damuturik negoa-la.

Maria´en illera joateko oso txikia nintzan ezkerro, Biktori´gaz geratzen nintzan eta onegaz egiten nebazan neure deboziñoak *Maria´ren neure altaratxoaren* aurrean, neuk neure erara apainduten nebanaren aurrean. Dana zan txikia, argitoki, lorontzi, misto bik argitzen eben ederto be ederto; Biktori´k noizik bein argizai puska bigaz etorri oi jatan, baiña noizetik noizera bakarrik. Arrasti baten, gerturik geunkan dana geure errezuak asteke eta esan neutson: "Biktori, asi nai dozu gomutau zaitetz, nik ixetuten dodan bitartean?" Asiko ebalakoa egin eban, baiña ez eban ezer esan eta barreka begiratu nindun; nik, neure *misto* bikaiñak laster amaitzen zirala oartuz, barriro esan neutson asteke otoitza; bera ixillik, eta orduan jagirik, ao be-

tean esan neutson gaizto-gaiztoa zala bota neutson, eta, neure betiko biguntasuna aitzuz, beia jo neban oiñez neure indar guztiakaz... Biktori gai-xoari ez jakon orduan geratu barre geiago egiteko gogorik, sor ta lor egiñik begiratu ninduan eta erakutsi eustazan ekarritako kandela pusketak..., nik ostera, sumin-malkoak ixuri ondoren, damu bene-benetako negarra egin neban, egundo gei-ago olakorik ez egiteko asmo biziaz!

Beste egun batean jazokun bat izan neban Biktori´gaz, eta ez naz bat bere bera eukiaz damutzen, neure sena guztiz zainduta izan zalako. Sukaldeko tximiñi gaiñean egoan tintontzi bat nai neban; ni oso txikia bait nintzan bera artzeko, artu egidala eskatu neutson *maitekor* Biktori´ri, baiña arek ez eban nai izan, jarleku batera igon eta neuk artzeko esanaz. Artu neban aulki bat ezer esan bagarik, baiña ez nintzala beragaz maitekor izan ari aitzen emon nai izan neutson. Billa neban neure burutxoan zek naigabetuko ete eban geien. Bera nigaz asarre zanean "txiki ori" esaten eustan, ni bene-benetan apalazten ninduana. Orduan, neure *aulkitik jatxi baiño leen*, adei aundiz biurtuta bota neutson: "Biktori, txikikor bat zara zu". Ariñari emon neutsan, esan neutson berba sakona ausnartzen a itxirik... Laster etorren ondorioa; beingoan entzun neban aren garrasia; "Maria andereño... Teresak oraintxe deitu daust "txikior". Etorri zan Maria eta parkamena eskatu eragin eustan, baiña damu barik egin neban, pentsatuz, Biktori´k luzatu nai izan ez ba eban luzatu bere *beso luzea, zerbitzu* pitin bat niri egiteko, merezirik eukala *txikiar* titulua...

Alan eta guzti be maite ninduan eta neuk be maite neban, bein *arrisku aundi* batetik atera

nindun neure erruz jausi nintzanetik. Plantxetan ebillen Biktori, bere alboan urez beteriko tangar bat eukala; ni ari begira nengoan (oi nebanez) jarleku baten gaiñean balantzaka alako baten aulkiak uts egin eta ni beera, baiña ez *lurrera*, *tangar* barrura baiño... Neure oiñakaz joten neban burua tangarra beteten neban txitatxoak arrautzea lez... Arriturik begiratzan nindun Biktori gai-xoak, iñoiz ez bai eban ikusi olako gauzarik. Nik albait ariñen urten nai neban neure *tangarretik*, baiña ezin, nire itxitua neurri-neurrikoa zan eta nik ezin zirkiñik be egin. Naigabetan salbau nindun neure *arrisku aunditik*, baiña ez alan be nire soiñekoa eta abar, aldatu bear izan eban busti-busti eginda egoan-eta.

Beste bein suetean jausi nintzan, baiña zorionez amatauta egoan. Biktori'k ez eban zeregin aundirik izan, andik atera ta jantzian neukan autsa astindu. Gauzok eguastenetan jazo oi jatazan beti, zu eta Maria entsaietan ziñiela. Baita beste eguasten baten Ducellier jauna bisitaz etorri jakunean, Biktori'k esan eutson Teresatxo bakarrikegoala etxean; sartu zan sukaldean ni ikusteko eta nire lanak begiratu zituan; arrosko nengoan neure *autorlea* arturik, egun batzuk lenago autor-tu nintzan, ba, leenengo aldiz. Gomuta gozoa bat niretzat!

Lenengo autortza

Zelako arduraz zeuk, Ama laztan, gertatu ninduzun ortarako! Etzala gizon bat, Jainkoa bera baiño, esaten zeustan, neure pekatuak esan bear neutsazana. Nik ba-nekian ondo zer egin bear neban eta fede osotan egin neban neure autor-

kuntza; zeuri itandu neutzun baita ia Ducellier jaunari esan bear neutsan biotz-biotzez nebanaren pertsonan Jainkoari itz egiten neutson-eta.

Egin eta esan bear nebanagaz ondo jabeturik, sartu nintzan autortegian, belauniko jarri-rik; baiña saretxoa edegitean, Ducellier jaunak ez eban iñor ikusi. Ni oso txikia nintzalako burua ez jatan eltzen eskuak jarten diran oltxoraiño zutik gertzeko eskatu eustan. Beingoan egin neban ak esana; zutundu ta berari bekoz beko jarri nintzan bera obeto ikusteko. Neure autortza egin neban *neskato aundi* batek lez eta aren onespena *deboziño aundiz* artu neban, zuk esan zeustan ba momentu orretan *Ume Jesusen* malkoak garbitu egiten ebela nire arimea. Gogoan dot egin eustan len-itzaldo-txoan indartu nindula, batez be, Andra Mariagana-ko eraspenera eta nik erabagi sendoa artu neban leen baiño be geiago orretan jarduteko erabagia. Autortegitik urtetea, ordurarte iñoiz somatu ez neban lakoxe poz-alaitasunez beterik nengoan. Ordutik aurrera jai aundi guztietan autortzen nintzan, eta egiazko *jai* bat izaten zan niretzat egiten neban guztietan.

Jaiak

Jaiak! Zelako gomutakiak dakarstazan berba onek!... *Jaiak*, ain eder jatazan!... Zuk, ene Ama maite orrek, ain ondo azalduten zeustazun euretariko bakotxak eukazan misterioak!; niretzat, beraz, egi-egiaz zeruko egunak. Atsegin jatazan, batez be, Kristo agirian zala egiten ziran prozesiñoak. Bai pozgarria Jainkoaren ibilpidean lorak erei-tea!... Baiña jausten itxi aurretik, gora be gora jaurtzen nebazan eta atsegin aundi-aundia jatan

nire larrosa orrikatuak eguzki sagaratua ikutzen ebela ikustea...

Jaiak! Urri ziran aundiak, baiña astero neukan nire biotzak maite-maite ebana: "Igandea!". Igandekoa bai jai bikaiña!... Jainkoaren jaia zan, *atsedenaren* jaia. Azteko oian geratzen nintzan besteetan baiño geiago; gero etozan Paulinak bere alabatxoari egiñiko loxingak, txokolatea eroaten eutson ogera, eta gero jantzi erregiñatxo bat lege... Nire amabitxi etorren bere *besoetakoa* orraztuten, au barriz etzan beti ondo portetan, uleetatik tiratzen eutsonean; baiña gero poz-pozik joan oi zan beste egunetan baiño samur-eztiago besarkatzen eban egun onetan bere erregearen eskua artzera. Ondoren, mezatara joiazan etxeko guztiak. Bide guztian eta Eleizan, aitatxoari emoten eutson eskua, bere lekua be aren ondoan arturik. Itzaldirako jarri bear gendunean be, jarleku bi aurkitu bear, alkarren ondoan. Etzan gauza gatxa, jente guztiari oso begiko bai jakon a *agurgarri* bat neskato ain *txikiaz* ikustea, eta ango danak saiatzen ziran eurai leku bat eskintzen. Leenengo bankuetan jarten zan nire osabea benetan pozten zan gu biok eltzen ikusiaz; bere eguzki-izpitxo esaten eustan... Ez eustan ardura begiratzen ba eusten be. Adi-adi entzun oi nebazan itzaldiak, naizta asko ez ulertu. Lenengo ulertu nebana eta bene-benetan eragin eustana, Nekaldiari buruzko itzaldi bat izan zan, Ducellier jaunak egindakoa. Gerora itzaldi danak ulertu nebazan nik.

Izlariak Santa Teresa'z berba egiten ebanean, aita makurtuta belarrira iñostan: "Entzun ondo, erregiñatxo, zure Zaindari Santuaz diardu". Ondo entzun neroan, ain zuzen be, aita begiratzen neban geiago izlaria baiño. Ainbat gauza iñostazan aren

betarte ederrak!... Aren begiak batzuetan *negar-
anpuluz* beteten ziran, berak alperrik estaldu nai ebazanak. Egi betikorretan amildurik bizi nai eban, onezkero ez zirudian lurrean bizi zanik!... Aren ibillia, alan be, urrin egoan oindiño azkenetik; urte luzeak igaro bear eben oraindik zeru anaia aren begi lilluratueta edegi ta Jaunak bere zerbitzari zintzoaren *malkoak* legortu orduko...

Barriro nator igandeari buruzkora. Bizkor be bizkor joaten zan egun atsegingarri orrek ba-eukan bere melankoli-ñitsa be. Konpletak deritxon errezueta arte osoa zan nire zoriona; errezu au egiterakoan, burura etorkidan eguna azkenetan egoala..., urrengo egunean barriro asi bearko zala betiko bizi-moldea, lana, ikasgaiak; eta lurtar erbesteak samintzen eustan biotza... zeruko atsedeen betikoa opa neban, azkenik ez eukan Aberriko atsedena... Naigabezko sentipenak artzen eustan arimea Buissonets-etara biurtu aurretik egin oi genduzan ibillaldietan.

Familia orduko ez egoan osorik, aita ba, neure osabeari eder izatearren, beragaz izten ebazan domeka arratsalde bakoetxean Maria edo Paulina; pozik nengoan bakar-bakarrik neu be geratzen nintzanean, au bakarrik gomindatua izan baiño atsegingarriago jatan, olan gitxiago begiratu ta ederresten ninduelako. Nire atsegiñik aundiena zan nire osabeak esaten ebana entzutea, baiña ez jatan atsegin niri ezer itandutea, eta bildurra emostan berak, bere belaunen baten gaiñean kokaturik, abots ederrez, "Bizar Urdin" abesten eustanean. Urduritsu itxaroten aita nire billa etorri eiten.

Biurtzen giñanean, samurkiro ñirñir egien izaretan jarten nebazan neure begiak eta ikuskari

onek birloraturik izten ninduan... An nekusan, batez be, *urrezko pitxi* andana bat, ni ameskor jarten ninduna, atsegin eztitan, Tantzeko aurkiturik (era onetan gitxi gorabera), aitari adierazoaz, nire izena zeruan idatzirik egoala esaten neutson. Gero ez neban ikusi gura izaten lur zirtzil ontako ezer eta eroan nengiala eskatzen neutson. Orduan, oiñak nun ipinten nebazan begiratu barik, neure burutxoa jaso oi neban urdin izartua ikuskatzea itxi bagarik...

Sukalde ta eskola

Neguko gau-aldietaz, zer esango?, domeketa-koetaz batez be? A! Nik bai poztasuna Zelina'gaz batera aitaren belaunetan jartean, *domino jokaldi* baten ostean!... Berak bere abots ederrez abesten ebazan arimea pentsamentu sakonez betetan ebenak... edo-ta samurkiro gu itxirik, olerkiak oiukatzen ebazan betiereko ebenak... Azkenez gora igoten genduan danon artean otoitza egitera. Erregiñatxoa bere erregearen ondoan egokitzen zan, eta naikoa eban ari begiratzea santuak zelan erresetan daben jakiteko. Guenean, danok gentozan, zaarrenetatik asita, aitari gau onak eta mosu bat emotera; erregiña etorren, jakiña, azkenengo; erregeak mosu emoteko besoetan jaso oi eban eta berak abots zoliz oi: "Gabon, aitatxo, gabon, ondo lo egin; gau-ero egiten eban bardin. Ondoren nire amatxok artzen nindun besoetan eta Zelina'ren ogera eroaten nindun; nik orduan itanduten neuntsan: "Paulina, ona izan naz gaur?... *Aingerutxoak egaz egingo ete dabe nire inguruan?*" Erantzuna beti zan baiezkoa, bestelan gau osoa emongo neban negarrez... Gero neure amabitxi be mosukatu ostean, Paulina beera *jasten* zan eta Teresatxo

gaixoa bakarrik geratu oi zan illuntasunean; poztgarri jakon *aingerutxoak bere inguruan egazka* iruditzea; izuak artzen eban laster, illunpeak bildurgarri-akozan, bere ogetik ez bai ebazan izarrak ikusten dizdiz maitekor.

Esker berezitzat dot zuk, Ama maite, lagundu zeustalako bildurra gainditzen. Noizik bein zeuk gabaz bakarrik eroan oi ninduzun urriñeko gela baten gauza bat billatzen. Ain ondo azi ta ezia izan ez ba'nintz, bildurtia izango nintzan. Orain, ostera, nekez ikaratuko nau ezek... Neure buruari itanduten dautsot batzutan zelan azi al izan ninduzun ain maitatsu ta samur erregutu ta mizke egin bagarik, ain zuzen be ez eustazun ba izten uts-egite txiki bat be; ez eustazun egundo be errazoi barik asarrerik egiten, baiña ezta atzera egin be arturiko erabagi baten aurrean. Ondo nekian nik ez nebala al izango, ezta nik gura be, oinkada bat emon be, zuk galazo izan ba zeust. Aitak bera be zure naiaren mende egoan; *Paulina*-ren baimen barik ez neban etxetik urteten eta aitak eskatzen eustanean, nik erantzuten neutson: "Paulinak ezdau nai"... Bera etorren orduan baimena eskatzera. Batzutan, ari atsegin egitearren, baietz esaten eutson Paulinak, baiña Teresatxok arpegian igarten eutson ez eutsala biotzez esaten. Negarrari emoten eutsan poztu-eziña, *Paulinak* baietz esan arte eta gogo onez besarkatzen eban.

Teresatxo gaixorik egoanean, negu guztietan jazoten zana, adierazo eziña da zelako ama-samurtasunez zaintzen eben. Paulinak ogeratzen eban bere oian (mesede esan-eziña), eta gero nai eban guztia emoten eutson. Bein Paulinak *aiztotxo* bat atera eban limardiaren azpitik eta bere alabaxoari emonik idatzi ezin dan lakoxe zorabioan

murgil itxi eban: "O, Paulinal, arek oi, biotz-biotzez maite bait nozu, neugaitik zeure *aiztotxo* eder barik, *nakarrezko* izardun barik gelditzen zara?... Baiña ainbeste nozun ezketiño, opetsiko zeunke zeure *orduria* ni il ez nadin?..." "Ez bakarrik zu il ez zaitez, emongo neuke neure orduaria, zu osaturik ikustearren be emongo neuke, eta bereala egin be oparo ori". *Paulina*-ren itzok entzunaz, arrituta geratu nintzan eta nire esker ona aundia bait zan, adierazo ezifiekoa... Udan noizik bein zorabioak izaten nebazan eta Paulinak zaintzen nindun beti samurkiro; ni poztu ta jost-erazteko, auxe bait zan niretzat osabiderik onena, *burditxoan* erabilten nindun baratzen zear eta gero, andi jatsi-azirik, margarita-txortak ipinten zituan bertan, *ardura* aundiz neure baratzeraifño eroanik, eta antxe jarten ebazan zeremoni ezgixiz...

Paulinak artu oi ebazan nire barruko ixil-gauza guztiak, neukazan duda guztiak argitzen eustazan... Bein ikusi-eragin neutson neure arrimena Jainkoak ez eutsela zeruan aukerau guztiai aintza bardiña emoten, danak beraz etzirala zoriontsu izango-ta. Paulinak aitatxoaren edontzi aundi billa bialdu nindun, eta ipinteko berau itandu eustan. Biak egozala bardin erantzun neutsan eta ezin leikioela ur geiago botá, ezin bait eben artu areago. Nire Ama laztanak orduan ulertu eragin eustan Jainkoak zeruan aukeratu baktxari artu leikean beste aintza emoten eutsola eta beraz ez ebalaz azkenengoak lenengoaren bekatzik izango. Eta olantxe, neuk ulertzeko moduan goi-ekuturik bikaiñenak be ipiñirik, zuk, Ama. ba zenkian nire arimeari bear eban janaria emoten.

Bene-benetako poztasunez ikusi oi neban urte-

ro sarien banaketa etorten!... Onetan, beste guztian lez, zuzen jokutzen zan eta ez jatazan emoten merezi izan nebazanak baiño. Bakarrik eta zutik batzar nabariaren aurrean, "Prantzi'ko ta *Naparroa'ko erregeak*" irakurritako epaia entzuten neban. Nire biotzak indartsuago taupa egian sariak eta koroia artzerakoan... Epai-irudi bat lez zan niretzat!... Bertatik, sariak banandu ondoren, erregiñatxoak bere soiñeko zuria izten eban eta antzez-jolas aundian parte artu egian zomorrotzen alegindu oi ziran!...

Etxeko jai oneik bai zirala alaiak!... Urrin nen-goan ni orduan, neure errege maitagarria ain doatsu ikusiaz, laster gaiñ etorkozan proba aundiak aurrez susmatzeko!...

Ikuskari berezia

Egun batez, alan be, Jainkoak erakutsi eustan, ikuskari bene-benetan oiezlako baten, aurretiaz gertatu gura euskun probaren irudi bizia.

Kanpotik zan aita egun batzuk zirala joanda; oindiño beste egun bi igaroko ziran etxera biurtu aurretik. Arratsaldeko ordu biak edo irurak izango ziran. Dirdaitso dizdiz egian eguzkiak eta izadia jai-itxuraz oso-osorik. Bakarrik nengoan baratz aundira emoten eban ganbarako leirotik begira. Aurrera begiraten neban, espirtua gogarketa alaiz nebala, eta orretan ikusi neban, bekoz beko neukan ikuztoki aurrean gizon bat ikusi neban aita legez jantzita, goibe bardiñekoa estalita eukan burua kolore dudazko alzokanda antzeko bategaz, olan ez neutson arpegia ikusten. Aitarenaren antzeko kapela bat eroian. Neure baratz pitiñaren

inguruan ibilli zan neke aundiz... Izatez-goitiko izu-ikarak jo eban nire arima, baiña beingoan uste izan neban aita bear bada itzuli zala eta niri itsu-mustu bat emoteko an gordeko zala; nik orduan dei egin neutson abots zoli, ta biotz-dardar; "Aita-txol, aitatxol". Gizaseme ezkutsuak antza ez eustan entzuten; aurrera jarraitu eban, ezer ezpalitz lez, bere ibillian, burua biurtu be egin barik. Ni ari jarraika begiakaz, eta ibilpide aundia zatitzen eban basartetxora zuzentzen ikusi neban; uste neban zugatz aundien bestekaldean ostenduten ikusiko nebala, baiña urtua zan orduko goi-atsezko ikuskaria... Guzti au unetxo batekoa izan zan, baiña nire biotzean barru be barru josirik geratu zan ezkerro, gaur be, 15 urte geroago... aurre-aurrean dot ikuskari ori oraindik begi aurrean ba'neuka lez...

Maria zeugaz egoan, ene Ama, ni nengoanagaz erdikide egiten zan batean. Niri aitari deika entzunik, bildurtu egin zan, uste izanaz, gero berak adierazo deustanez, gauza arrigarriren bat jazoten zala. Bere biotz-zauskada gorde-azorik, neugana urreratu zan, zer zan jazotan jatana aitari deika ibilteko, au Alenzon-en egoala-ta; adierazo neutsan orduan ikusi-barri nebana; ni otzandu nairik, Mariak esan eustan Biktori izango zala bear bada ni ikartzeko, burua bere amantalaz estalduta; baiña oni itandurik, Biktorik baieztu eban berak ez ebalu urten eskaratzetik. Beste aldetik, ni zigur nengoan gizon bat ikusi nebalata, aitaren itxura bardin-bardiñekoa. Gero irurok joan gintzazan zugatz-sail oster, gizonik andik ibilli zanaren azternarik aurkitu ez genduan ezkerro, zuk esan zeustan orretan ez pentsatzeko geiago...

Ezin neban a aztu; irudimenak sarri ekarstan aurrera nik ikusi neban irudia... Sarri baita jaso-azo nai izan neban esan-naia gordeten eustan zapia, biotz-ondoan neukan ba ikaskari au egunen baten iragarria izango jatalako susmo oso-oso... Luzaro itxaroa izan zan egun au, baiña 14 urteren ondoren, Jainkoak berak urratu eban misterioz beteriko itzalkia.

Jesusen Biotzaren Maria Aizteaz nengoala, beti lez, beste bizitzako gauzak eta geure umetako gomutak ziran gure autagai; 6 edo 7 urteko nintzala izan neban ikuskaria gogora ekarri neutsanean, bat-batean, jazokun arrigarri aren zeaztasunak biribildurik aldi berean ulertu genduan zer adierazo nai eban... Aitatxo zan, izan be, nik ibiltzen ikusi nebana urteakaz makur... Bera zan, bere betarte agurgarri gaiñean, bere buru zurizka gaiñean, bere proba *aintzatsuaren* iker-ezaugarria eroialarik... Jesusen Arpegi agurgarria lez, bere nekaldian estalduta, orrelaxe bere zerbitzari leialaren arpegia be estalduta nai eban bere atsakabezko egunetan; dirdir egin egian zeru-aberrian bere Jaunaren ondoan, Itz Betikorragez... Esan-eziña dan aintza onen altzotik, bera errege zan lekutik, gure aita maiteakjadetsi dausku, gure proba baiño 10 urte aurretik, ulertarazteko grazia; Jainkoak aurretiaz erakutsi euskun aita zelari bere seme-alabai begiz jo eragiten dautsen eurentzat gertatzen dabillen etorkizun bikaiña, aurretiaz poz-atsegindurik euren erentzi izango diran azkenik bako ondasunak...

Zergaitik Jainkoak emon eustan niri argi au? Zergaitik erakutsi eutsan neskato ain txikiari ulertu ezin leikean gauza bat; gauza bat, ulertu ba'leu, naigabez ilgo zanekoa? Zergaitik, baiña? Ona ola-

ko misterioetatik bat zeruan bakarrik bear bada ulertu ta betiraun osoan miretsiko doguna...

Jainkoa bai dala ona!... Emoten dauskuzan indarren neurrian bialdu oi dauskuz probak be. Iñoiz be ez nebazan eroan al izango, esan dodan lez, ezta pentsamentuz be, geroak ostenduten eustazan atsekabe mergatzak... Ezin neinkean gogora ekarri be, ikaraz dardaratu barik, aitatxo *leitekenik*... Bein eskillara baten gaiñera igonda egoan, eta ni bean doi-doi nengoalarik, oi u egin eustan: "Urrindu zaitez, *txiki*, jausten ba'naz zapalduko zaitut". Barruz nastau nintzan au entzunaz eta, urrindu bearrean, mailladiari loturik geratu nintzan, au pentsatuz: "Aitatxo jausten bada, ez dot izango bera ilten ikusteko penarik, beragaz ilgo nintzake-ta". Ezin dot adierazo zenbat maite neban aitatxo, arrimen jatan aren edozer gauza. Bere gogai ta pentsamentuak azaltzen eustazanean (ni adiñez alaba aundiago banitz lez) nik esan oi neutson, gauza orreik gobernuko gizon aundiai esanik, bear bada errege izateko dei egingo leuskioela eta orduan Frantzia iñoiz baizen zoriontsu izango litzakela... Baiña pozik nengoan barruz (eta pentsamentu burukoi lez bota oi neban) aitatxo nik baizen ondo iñok be ezagutzen ez ebalako, bera elduko ba litz ba *Frantziho eta Naparroako* errege izatera, ba-ekian zoritxarreko izango zala, errege guztien zoria orixe dalako eta, batez be, orrela niretza bakarrik ez litzaken errege izango...

Trouville

Nik 6 edo 7 urte neukazan aitak Trouville'ra eroan genduzenean. Ez dot iñoiz aztuko itxasoak

itxi eustan dartada, eta atertu barik so nengion; bere gurentasuna, bere olatuen orroa, dana egoan nire arimeari berbetan Jainkoaren aunditasun eta al-izateaz. Gogotan dot ondartzan zear genbiltzan-la gizon eta emakume batek zelan begiratzen eusten pozarren ikusirik aitarene ondoan ni jauzika, eta gugana urreratuz itandu eutsoen bere alaba ete nintzan, eta esan eutsoen ni neskato guztiz txarmanta nintzala, eta eder izan jatan, siñisten ez neban arren. Zuk ardura aundia ipinten zenduan, ene Ama maite orrek, ene errubagetasuna orbandu leiken edozer gauza nigandik urrintzen, eta batez be nire biotza uskerira itxartu leiken ezer entzun ez nengian. Nik bere itzai eta Mari'renai bakarri egin oi neutsen kasu (eta zuek ez zeusten iñoiz be kunplidurik egin), ez neutsen jaramonik emon andren berba ta kiñuui, mirespenezkoai diñot.

Arrats-beran, eguzkia olatuetan murgiltzen dala dirudianeane, *erreten diartsua* itxirik, aitz baten gaiñean jarten joaten nintzan, *Paulina* gaz bakarrik. Gogora nenkarren orduan *urrezko ildoaren* historia erdiragarria... Luzaro begizatzen neban erreten argitsu au, ontzitxoak bere bere zapi polit zuriak egin bear eban bidea argituzko graziaren irudia... *Paulina* ren alboan, Jesusen begituti neure arimea iñoiz be urrintzeko erabagia artu neban, baketan abantegin dagidan zeruko aberrirantza...

Nare ta zoriontsu joian bizitzea. *Buissonnets-etan* biran neukan biots-samurtasuna azi-azoten nindun, baiña naiko adiñeko nintzan onezkero gainpeka asteko, mundua ta beronen mixeriak ezagutzen asteko ain zuzen be.

III ATALA

ABAT-IKASTETXEAN IKASTEN ANDRA MARIAREN IRRIBARREA

Zortzi urte neukazan nik Leoniak ikastetxea itxi ebanean, eta neuk artu neban Abat-etxe eskolan aren lekua. Sarri entzun dot esaten ikastetxean emondako aldia izan oi dala bizitzako onena ta zoriontsuena. Nirentzat etzan orrela izan. An igarro nebazan bostak izan ziran niretzat neure bizitzako tristenak. Neugaz euki izan ez ba neu neure Zelina laztana, ez neban iraungo illa bete be gaixotu barik... Loratxoa oitu egingo zan bere sustrai makalak *hur aukeratuan*, ain zuzen be beretzat egiñean. Orixegaitik gauza latza iruditzen jakon mota askotako lora artean egotea, suster samurtasun gitxikoen artean batzutan, bizi izateko bear eban janaria *guztizko hur* batean aurkitzera bearturik...

Ikastetxeako bizitza

Zuk ain ondo gertatu ninduzun, ene Ama maite, ikastetxera eldu nintzanean neure adiñeko neskatoen artean aurreratuen nintzan ni. Adiñez guztiak ni baiño zarrago ziran ikasleen klasean jarri ninduen. Euretatik bat, 13 edo 14 urtekoa, etzan burutsua; baiña besteen gaiñetik jarten ekian, baita irakasleen artean be. Ain gazte nintzala ikusirik, ia beti neure klaseko aurrenengoa ta

monja guztiak maite ninduela, bekotxak artu eban antza, ulertzekoa ikasle barruko bategan, milla eratar ordaindu eragin eustazan neure arrakesta txikiak...

Bildurti ta aul izatez nintzalako, ez nekian nik neure buruaren alde egiten, eta ixillean negarrari emon, orixe zan egiten nebana. Ez nintzan kejatzen, ezta *zeuri* esan be, neure sufrimentu oneik; baiña ez neukan birtute naiko bizitzeak dakarskuzan mixerio, eta nire bioztxoak asko sufriduten eban... Zorionez, arratsalde bakotxean barriro aurkitzen neban aitaren sukaldea, orduan asazkatu oi zan nire biotza. Neure erregearen belaunetara zapart nengian, emon eustezan notak esaten neutsozan eta aren mosuak aztu eragiten eustazan pena guztiak... Nik bai iragarri neutsula pozez gaiñezka neure lenengo *idatz-lanaren* ondorioa (Edesti Deunari buruzkoa), *puntu bat* falta jatan gorenengoa eukitea, Moises'en aitaren izena ez bait neban jakin. Lenengoa izan zan eta zidarrezko irudi polit bat irabazi izan neban. Sari lez, aitak ogei zentimoko *dirutxo eder* bat emon eustan erregalotzat kutxatxo baten gorde nebana, eta gero be, ia eguen guztietan, ortxe gorde daroat diru barri bat, beti *neurri* bardiñekoa... (kutxa ontatik ateraten neban dirua jai aundietan, neure ziskutik limosna bat egin nai nebanean, Fede-Zabalkundeko eta beste egintza antzekoetarako). *Paulina*, bere ikaslearen aurrerakuntzakaz zorerazorik, aro bat emon eutsan ikasle ona izanik jarraitu egian poztu nairik. Txiki gaixoak ba eukan familiko pozturri onein premiñarik; olako barik, ikastetxeko bizia gogorregi izango jakon.

Eguen arrastian oporrak eukazan, baiña etziran *Paulina* ren oporrak lakoak; oneik ez ebazan

emoten ikus-lekuan aitagaz... Neure lengosiña txikiagaz jolastu bear neban eta Maudelonde'koakaz, ez Zelina'gaz; onegaz nai izaten neban nik jolastea, etxean *beragaz bakarrik* nengonean. Beste neskatoen antzera jolasten ez nekialako, neketsua jatan, ni ez nintzan lagun atsegiña. Al nebana egiten neban besteen antzekoa izaten, baiña ez neban lortzen eta gogait egin oi neban, eta benetan egin be, bereziki arratsalde guztia *taldeka dantzari* igaro bear izaten genduan. *Izararren baratzera* joatea jatan bakarrik atsegin; orduan ni nintzan danean lenengo, eurez batzen nebazan lorak, politenak aukeratuaz, bekatxa ta garra sorturik neure laguntxoan artean.

Baita eder jatan Maria (Guerin)-egaz bakarrik geratzea, gitxitan jazoten zana. Zelina falta zalako, Maudelonde jolas arruntetara eroan oi ebanak, edozein aukeratzen izten eustan askatasun osoz, eta nik jolas barri bat aukeratu oi neban. Maria eta Teresa *bakar-zale* bi egiten ziran, eta eurok ez euken txabola zirtzil bat, gari-solo pitin bat eta ortuari batzuk zaintzeko. Begitu ta ikusi orrelaxe emoten eban bere denpora, au da, bakarti bat beste otoitzekoari ordezkako egiña; bear zanean bizitz eragillean be jarduna. Dana egiten zan alkar-aiturik, ixillik eta lekaimen bizitzan be oso-soa zan moduan egiña. Nire izeko billa etorkidanean geure ibilladia egiteko, kalean be geure jolasean ekiten geuntson.

Bakarti biak errosarioa be alkarregaz esaten eben atzamarrakaz kontua eroanik, euren eraspene jante sen-gitxikotik estaltzearren; baiña egun baten bakarti gazteenari aztu jakon ori: arratsaldean artzeko pastel bat emon eutsoen, jaten asi orduko Aitaren aundi bat egin eban eta onek

munduko bada-ezpadako guztien irribarrea ler-
azo eban...

Maria ta biok beti gentozan bat, gustu bardiñak
geunkazan, baiña bein gure *naimen-batasunak*
mugak igaro zituan. Arratsalde baten, Abat-etxetik
itzuliz gentozala, Mariari esan neutson: "Zuzendu
nagizu, begiak iztera noa". "Neuk be itxi nai do-
daz" esan eban ak. Esan eta egin. Bakotzak bere
naia egin eban, *eztabaida* barik... Espaloitik giñoia-
zan, ez geunkan beraz kotxeen bildurrik; minutu
gitxiko ibilte gozatsun ondoren, itsu antzera ibil-
teak dakazan gozotasunak iruntsi ondoren, txiki
biak, balditurik, *batera* jausi ziran denda baten
atean egozan kaja batzuen gañera, edo obeto,
eurak jausi-eragin eutsen. Suminduta urten eban
dendariak bere salgei ta merkantziak batzeko.
Naiezko itsu biak bakarrik jagi ziran eta urrats
onean joiazan, *ondo* zabalik begiak, Jaunaren esa-
nak, dendaria baizen asarre zanarenak entzunaz...
Zigor antzera, alkarregandik bereiztea erabagi eban
eta egun aretatik Maria ta Zelina alkarregaz joia-
zan, ni Juanagaz niñoialarik. Onek amaira eban
gu bion *nai-batasun* geiegia eta etzan erabagi txar-
ra izan nagusiagoentzat be, oneik ba gutaz beste-
ra, ez bait etozan bat sekula be eta bide-arlo guz-
tian eztabaidaka ebiltzan. Onela bake osoa egin
zan.

Teresa eta Zelina

Oindiño ez dot ezer esan Zelina' gaz neukazan
neure barru-artu-emonai buruz. Guzia esan bear
ba neuke, ez neuke iñoiz amaituko!...

Lisieux'en paperak aldatu ziran. Zelina iratxo
txiki bat egin zan, maltzurkeriz betea, eta Teresa

neskato on, naiz-ta larregi *negarti*... Au etzan era-
gozpen Zelina ta Teresa alkar gero ta maiteago
izateko; batzutan ba ebezan euren eztabaidak,
baiña gora aundi bakoak eta mamiñez beti etozan
bat. Bai, egiaz diñot nire aitzatxo maiteak iñoiz be
ez eustan *sufridu* eragin; bestera, bera izan da
niretzat eguzki-izpi lez, beti alaitu ta poztu oi
ninduana... Zelan adierazo ete neike onek Abati-
kasgoan salatzen ninduenean ni babestean nin-
dun bizitasuna!... Nire osasunaren ardura geiegia
eukan, batzutan niri gogait eragiteraiño. Laket
jatan bere *jolasean ikustea*; gure txikitxoan talde
guztia alkatu oi eban eta irakasle trebe batek lez
klasea emoten eutsen, bere alabak beti onak izan
eitezan ardura aundia izanik, nireak osterar sarri
klaserik egotziak izaten ziran okerrak ziralakoko...
Klasean ikasitako gauza barri guztiak iñostazan,
onek poz aundia emostan eta zientzi-oxin lez
begiratzen neutson. "Zelinaren alabatxo" titulua
emon eustan; onela nigaz muzintzen zanean, bere
asarre nagusia adierazten eustan, au esanaz: "Orain
etzara nire alabatxo, amaitu da ori, *beti gogoratuko*
naz ...". Orduan ez neukan beste biderik
Madalena'ren antzera negar egitea baiño, ni bere
alabatxo lez aurrerantzéan be eukiteko eskatuaz.
Gero besarkatzen nindun etzala *ezertaz be*
gogoratuko esanik!... Ni poztu nairik, beronen
andrakilletatik bat arturik, esan oi eutson: "Laz-
tantxu, besarka eizu zeure izeko". Bein andraki-
llea ariñegi ebillelako ni besarkatu nairik, atza-
martxoak sartu eustazan *surretik*... Zelinak, ez bait
eban naita egin, arriturik begiratzen eban, surre-
tik dindil egoan andrakille; izekoa etzan nagiegi
ibilli bere lobaren besarkada lar samurrak leku-
tzen eta jazoera berezi a zala-ta, barreari emon
eutsan gogotsu.

Politena izan zan gu, batera, dendan geure gabon-sariak erosten ikustea. Arduratsu bata besteagandik gordeten giñan. Bost edo sei gauza diferenteak erosi bear genduzan, eralgiteko geunkazan 50 zentimogaz. Eztabaidaka genbiltzan nok *gauza politagoak* erosi. Erosita gauzakaz lillutaturik, urteko lenengo egunaren zain gengoza urduri, alkarri eskintzeko geure erregali baliotsu-ederrak. Lenengo itxartzen zana alegintzen zan besteari urte asikeran zorionak emoten; ondoren emoten geuntsozan alkarri eta bakotxa 50 zentimogaz erositako altxorra miresten geratzen zan...

Erregalu pitin oneik guretzat geure *osabeak* egiten euskuzan *gabon-sari* ederrak baizen atsegingarri ziran; au gaiñera gure poz-atsegiñen asiera besterik etzan. Egun orretan bertatik jantzi oi gintzazan eta bakotxa gertu egoan aitaren samara zapart egiteko. Bere gelatik urtenaz ba poz-oiuak entzuten ziran etxe guztian eta aita pozago zirudian gu orrela ikusita... Mariak eta Paulinak euron aizatxoai egiten eutsezan erregaliak ez euken ainbeste balio, baiña *poz aundia* laindu oi euskuen... Al, sasoi orretan ez gengoza *zarpilduak*; gure arimea, bere guritasun osoan, edegiz joian goiz-iruntza artzean lora zoriontsu baten antzera... Aizeño bardiñak zabunka ebiltzan gure lili-kuttsak eta batari poza naiz atsekabea emoten eutonak, besteari be emoten eutson. Bai, gure pozak bionak ziran, au ondo ulertu neban nere Zelina maitearen lenen Jaunartze egunean. Ni ez niñoian oindiño Abat-etxera, ez neukazan zazpi urte baiño, baiña biotzean gorderik daukat gomuta gozo bat, zuk, ene Ama, Zelina'ri egin zeuntson gertakuntza. Arratsalde guztietan, zeure belaun gain jarriarik, egitera joian egintza aundiz berba egiten zeuntsan. Nik adi-adi entzuten neban, neu

be gertatu nairik; baiña zuk sarri txikitxo nintzala-ta andik joateko esaten zeustan. Mingarrijatan au, eta uste neban lau urte etzerala larregi Jainkoa artzeko gertakuntza egiteko...

Arratsalde baten esaten entzun neutson, lenengo Jaunartzetik, bizitza barria asi bear zala. Bertatik erabagi neban ez nebala itxaron bear, Zelina'gaz batera asi baiño...

Iñoiz ez nintzan konturatu zenbat maite neban iru eguneko bakartade orretan beste. Lenengo neure bizitzan banantzen nintzan beragandik, ez nintzan ogeratzen aren oian... Lenengo egunean, bera etzala etorriko azturik, geriza mordo bat gorde neban, aita erosi eustana, beragaz batera jateko; etzala etorten ikusirik, oso triste geratu nintzan. Aitaxok poztu nindun, urrengo egunean berak Abat-etxera eroango nindula esanik, Zelina ikustera eta orduan emon al izango neutsolea beste geriza txorta bat...

Zelina'ren lenengo Jaunartze egun neureak lakoxe poz-atsegiña itxi eustan. Goizez itxartu nintzanean, bakarrik neure oge aundian, *pozez gaiñezka* nabari nintzan. "Gaur da!... Eldu da egun aundia..." Itzok esan eta esan nenbillen. Neu nintzala esan eikean lenengo Jaunartzea egin bear ebana. Uste dot, egun orretan, grazi aundiak artu nebazala, eta neure bizitzako *ederrenetako* bat lez daukat.

Paulina karmeldar

Apur bat atzera itzuli naz gomutaki gozo atsegintsu au gogorazteko. Orain Teresatxoren biotza

apurtu eban proba mingotsaz itz egin bear dot, nik ain samurkiro maite neban *amatxo, Paulina*, Jesusek kendu eustanean...

Paulina 'ri esan neutson bein bakartia izan nai neukala, urriñeko eremu batera joan beragaz; nire guraria berea be ba-zala jakitean, arriturik gelditu nintzan, eta itxaron egiala ni aundia izan arte biok batera joateko. Benetan ez esan eustan, dudarik bage, baiña Teresatxok benetan artu eban. Zelakoa etzan izango, ba, bere naigabea, egun baten bere aizta Paulina, laster Karmel komen-tuan sartuko zala Mariagaz berbetan entzutean?... Nik ez nekian Karmel zer zan, baiña ulertu neban arek ez eustala *itxarongo* eta laster galduko nebala neure bigarren Ama. A!, zelan adierazo nire biotz-miña?... Beingoan ulertu neban bizitzea zer dan, ordurarte ez neban orren goibela aurkitzen, baiña oraingoan zan legez bere garraztasun osoan jarri jatan aurrean; ulertu neban bai sufripena baiña etzala, etenik bako banaketa. Malko garratzak bota nebazan, ez bait neban oraindik ulertzen buru-ukapenaren *poza*; *aula* nintzan, oso *aula* eta grazi aunditzat daukat neure indarren gaiñetik egoala zirudian proba ikaragarria eroan al izan nebalako... Apurka apurka jakin izan ba 'neu neure Paulina maitea ba-joiiala, ez neban bear bada ainbeste sufriduko, baiña ez ustean jakin izanik, sastakai bat biotzean sartu ba leuste lez izan zan...

Beti gogoratuko dot, ene Ama maite, zein samurki poztu ninduzun... Gero azaldu zeustan Karmel komentuko bizi-modua, oso ederra iruditu jatana! Zuk aurretiaz esana barruz ausnarturik, Karmelo zala ulertu neban ni be gordetan joan neiten *eremua* orixe zala... Bene-benetan ulertu neban, duda-izpirik ez gelditzeraiño ulertu be.

Etzan errez eroateko neskato baten amesa, jainko-dei baten ziurtasuna baiño. Karmelora joan nai neban, ez *Paulina*-gaitik, *Jesus*-egaitik bakar-bakarririk baiño... *Sarri* pentsatu neban itzak ezin dabela adierazo, baiña poztasun aundi bat izten ebela nire ariman.

Biaramonean Paulinari iragarri neutson neure ixil-gordea, eta onek, nire gurarietan Jainkoaren naia ikusirik, esan eustan beragaz joango nintzala laster Karmeloko Ama nagusia ikusten eta ari adierazo bear neutsola Jainkoak biotzean jarten eustana... Igande bat aukeratu zan ikertaldi garrantzitsu au egiteko, Asko naigabetu ninduan Maria Guerin neugaz geratuko zala jakitean, txikia zalako karmeldarrak ikusteko; bakarrik geratzeko bide bat aurkitu bear neban; ona buruak zer emon eustan; Mariari esan eutson, Ama Nagusia ikusi bear genduan ezkerro, onak eta eziketa aundikoak izan bear genduala; orretarako geure *sekretuak* esan bear geuntzazala; bakotxa une baten urtengozan eta bestea bakarrik itxi. Mariak siñistu eustan eta ez *eukazan ixillak* esatea, iguingarri jatan arren, bakarrik geratu giñan, bata bestearen ostean, geure Amaren ondoan. Neure *ixilpeko garrantzitsuak* entzun ondoren, Gontzaga'tar Maria Amak ontzat artu eban nire goi-deia eta esan eustan ez ebela 9 urteko moja-geirik artzen eta 16 bete arte itxaron bearko nebala... Etsi ta bat-etorri nintzan, nik bene-benetan nai izanda be ainbat ariñen sartzea, neure lenengo Jaunartzea egiñik Paulinak. San Agustiñen Teresa Aizta, ikusten etorri jatana, etzan asetzen ni polita nintzala esan eta esan... Ez nintzan Karmelo'ra urreratzen gorapenak artzeko; olan, iztokitik urtenik, Jainkoari eten barik esaten neutsan *Beragaitik* bakarrik izan gura nebala karmeldar.

Paulinai oraindik munduan geratzen jakozan egunai guna ateraten alegindu nintzan; egun guztietan, Zelina ta biok pastelak eta gozokoak eroaten geuntsozan, laster ez ebalá geroago jango eta. Bere alboan gengoan beti, unetxo baten be baketan izten ez geuntsola. Azkenez, eldu zan urrillaren 2, malko eta bedeinkapenen eguna; orduantxe Jesusek aukeratu eban bere loraetatik lenengoa eta urte batzuk geroago beragaz alkartzera etorriko jakozanen *ama* Izango zana.

Begi aurrean dot oindiño Paulina'ren azkenen-go mosua artu neban lakua. Izekoak gero danok eroan ginduzan mezatara, aítak Karmel mendia igoten eban bitartean bere *lenengo oparia* eskitzen... Negarrez egoan famili osoa, eta jenteak, eleizan sartzen gu ikusiz, arriturik begiratzen euskun; baiña berdin eustan au ta ez eustan negarra galazoten. Dana amildu ba litz be, uste dot, nire inguruan, ez nintzala konturatuko. Gora begiratzeneban zeru urdin ederra eta gelduta nengoan eguzkiak ain dizditsu argi egin leikela ikusirik, nire arimea goibel be goibel aurkitzen zalarik... Zuk, ene Ama maite, uste izango dozu geitu egiten dodala sentitzen neban atsekabea?... Ba-dakit ez ebalá izan bear ain aundia, barriz Karmelon idoroko nebanaren itxaropena neban-eta; baiña nire arimea urrin egoan oindiño *umotzetik*. Proba askotatik igaro bear oraindik opa neban elburua jo orduko...

Urrillaren 2 zan ni Abat-ikastetxera biurtzeko eguna; ara biurtu bear neban, ba, naiz-ta atsekabetan aurkitu... Arratsaldean izekoa etorri jatan Karmelo'ra joateko eta ikusi neban neure Paulina maitea, burdiñezko sare ostean... O!, zenbat sufri-du dodan Karmelo'ko iztokian! Neure arimearen

kondaira idazten dodan ezkerro, dana kontatu bear dausat neure Ama maiteari eta autortu bear dautzut zure moja-sartze aurretik izandako neke-miñak ondoren etorri ziranen aldean etzirla ezer izan... Eguen guztietan sendi osoa joan oi gintzazan Karmelo'ra. Nik, Paulinaz luzaro itz-egitera oituri-negoan ezkerro, naiz-ta nekez lortu neban bisita ostean bi edo iru minutu beragaz egotea; negar baten emoten nebazan minutuok biotza urtuta andik alde egiñik... Ez neban ulertuten zuk neure izekogaz adeitsuago izatearren, zeure alabatxoakaz baiño berba geiago egiten zendula Juana ta Maria'gaz... Ez neban ulertzen eta neure biotz barrenetik uste neban: "Galdu dot Paulina!!". Arrigarria da zelan eratu zan nire espiritua sufri-mentuan artean; era berezian moldatu be, eta laster gaixotu egin nintzan.

Gaixotasun bakana

Izan neban gaixoa, dudarik bage, deabrugandikoa izan zan. Paulina Karmelo'n sartu zalako, asarre zan apika eta niregan artu nai izan eban apena, geroan gure familiaren egingo gatzaren orde; baiña ak ez ekian Zeruko Erregiña eztiak zaintzen ebalá bere loratxo auskorra, irriparka eukala bere aulki garaitik eta gertu egoala ekatxa baketzeko, bere naitaez trukutz egitera joian unean bertan...

Urte azkenerantz, ia mingarri ez jatan jarraiko buruko min ariña sentitzen asi nintzan. Neure ikasketak jarraitzeko beste ba nintzan, eta iñor etzan nigaz arduratzen. Onek iraun eustan 1883'ko Pazko jairarte. Paris'era joana zan aita Maria ta Leonia'gaz. Nire izekok bere etxera eroan nindun Zelinagaz.

Arrasti baten, ene osabak berarekin eroan nindun, eta amatxo ta igarotako gomutak gogora ekarri eustazan samur be samur eta nik, barru-barru eragiña, negarrari emon neutsan; orduan, ni sentikorra nintzala esan eustan eta gogoa barreriatu bearra neukala oso, Pazko opor-aldietan, neure izakoaz batera poz-atsegin ugari artzea erabagi eban.

Arratsalde atan katoliku batzokira joan bear genduan. Izekoak, ni oso nekaturik nengoala ikusirik, ogeratu nindun; jantziak kentzen nebazala, otzikara bakan bat zentidu neban. Izekok, otz nintzala uste izanik, mantaz eta botella beroz batu ninduan, baiña ez eban be nire dardara arindu al izan ia gau guztian iraun ebana noski. Nire osabea, batzoki katolikutik neure lengusiñakaz eta Zelina-gaz biurtu zanean, arriturik geratu zan ni berak guztiz astuna uste eban egoera atan ikusiaz, baiña ez eban adierazo nai izan, nire izekoari bildurrik ez emoteagaitik. Urrengo egunean Notta osagilea-gana joan zan; bat etorren nire osabearekin, gaixorik nengoala, benetan astun, neskato gazte baten-tzat gaixotasun bakanez. Mundu guztia egoan izuturik. Nire izekoak naitaez euki bear nindun bere etxean, eta guztiz arduratsu zaindu nindun, bene-benetako ardura *amakorrez*. Aita nire aizta nagusiakaz Paris'tik itzuli zanean, Aimée-k arpegi oso tristez artu ebazan eta Mariakuste izan eban ni illa nintzala... Baiña gaixotasun au etzan ni il nendin, Lazarorena lez, Jainkoa goretsia izan eiten baiño... (Jn. 11, 4). Egiaz izan zan, nire aitatxoaren etsipen arrigarriagaitik, "bere alabatxoa *zoratu* edo *ilgo* zala uste izan eban eta. Baita izan zan Mariaren etsipenagaitik be... Al, zenbat sufridu dauan neugaitik...! Esker onez beterik nauka nigaz utsean euki ebazan ardura guztien alderako... Biotzak

iñotsan nik zer bear neban eta ama baten biotza beti da osagille batena baiño *jakitunago*, igarten daki bere semearen gaixoari zer jakon egokien...

Maria gaixoa neure osabearen etxean egokitu bear izan eban, ni orduan ez nintzan gauza ba Buissonets'era aldatzeko. Bien bitartean, ba etorren Paulinaren abitu artze eguna. Nire aurrean ez eben ortaz barbarik egiten, ara ez joateak zenbat atsekabetuko nindun jakiñik; baiña nik sarri niñarduan ortaz, eta orduko ondo egongo nintzala neure Paulina lastana ikusten joateko.

Ain zuzen be, Jainkoak ez eustan ukatu nai izan poztasun ori edo, obeto, poztu ta alaitu nai izan eban bere *maitetxoa*, bere alabatxoaren gatzaz ainbeste sufridu ebana.... Ikusi dodanez, Jesusek ez ditu naigabetu gura bere alabak euren ezkontza egunean; jai onek odei bakoa izan bear dau Paraisuko poz-atsegiñen aurrerapen bat; ez dau erakutsi onezkero 5 bidar?... Al izan neban bai besarkatu neure Ama maitea, bere *belaun* gaiñean jarri eta txeraz bete... Ikuskatu al izan neban dizditsu, ezkontzako soiñeko zuriaz... Al, egun ederra izan zan neure proba illunaren barruan; egun ori, alan be, Jesus'ean igaro zan... Arin igon bear izan neban Paulina'gandik urrin eroan ninduan kotxera... urrin neure Karmelo maitetik. Buissonets'era eldu giñaneko, ogeratu ninduan, ez neure gogoz, nik esaten bai neban guztiz ondo nengoala, osaturik eta ez nebala ardurarik bear. Ai!, neure probaren asieran nengoan oindiño!

Urrengo egunean jausi nintzan barriro, aurretik egon ez nintzan lez, eta gaixotasuna ez osatzeko moduan gaiztotu zan, giza-jakitunak iñoenez... Ez dakit azaldu gaixo ain arrotza; orain ziurturik

nago deabruaren lana izan zala; baiña osatuta gero be luzaro siñisturik egon nintzan, gaixoarena egin nebala, eta au benetako martiritza izan zan nire arimearentzat... Mariari esan neutson eta al ebanez onek poztu ninduan, bere oizko *ontasunez*; autortzan be esan neban eta nire autorlea be alegindu zan bizkortzen, eziña zala esanik ni egon nintzan beste denporan gaixoarena egin al izatea. Ziur asko garbitu ta batez be aapal-azo gura ninduan Jainkoak itxi eustan *barne martiritza* au, Karmelo'n sartu nintzan arte; gure gogo *Aitak* emen xarmaduraz lez urtu ebazan nire ezbaiak, eta ordutik baketan nago oso-osorik...

Ezta arrigarri egiaz egon barik, gaixorik nengoala iruditzea, pentsatzen ez nebazan gauzak esan eta egiten nebazalako. Makal nengoala emoten neban beti, zentzunik ez euken berbak esanez, eta alan be, *errazoa* iñoiz be ez nebala galduta nago. Sarritan joana gelditzen nintzan, zirkiñik txikiena be egiteke; Eurak nai ebena egiten itxiko neutsen, il azten be bai; entzuten neban orraitino nire inguruan esaten zan guztia, eta oraindik dana gogoratzen dot...

Bein bai jazo jatan begiak ezin zabaldurik luzaro egon nintzala eta beingoan edegi nebazala bakarrik aurkitzen...

Deabruak artu ebala, uste dot, kanpotiko indar bat niregan, baiña ezin zan urreratu ez nire arimara ez nire espiritura, *izu-ikara* aundi bat sortzeko ezik gauza batzuen aurrean, esate baterako, alperrik artu eragin nai izaten eustezan osabide ezerezek. Baiña Jainkoak deabruari izten ba eutson nigana urreratzen, aingeru ikusgarriak be bialtzen eustazan... Maria beti egoan nire oge ondoan ni jagoten, eta ama samur batek lez poztuten

ninduan. Egundo ez eban erakutsi neke eriñenik be, ekarri oi neutsozan neke-lan guztiakaitik, batez be nire ondotik ez eitela urrindu eskatuz. Alan be, aitagana joan bear eban joten, baiña ni dei ta dei nengoan a urrin zan denpora guztian. Laguntzen eustan Biktoriak, nik olan esaten neutson neure "amatxo" laztanaren billa joan bear izaten eban... Mariak urten nai ebanean, mezatara joateko edo-ta *Paulina* ikusteko, izango zan, eta orduan nik ez neban ezer esaten...

Nire osaba ta izeko be on-onak izan ziran nigaz. Nire izekotxo *egunero* etorten jatan ikusten eta milla txitxiri-bitxiri ekarten eustazan. Baita etorri jatazan ikusten beste pertsona batzuk be, etxeko adiskideak; baiña Mariari eskatzen neutson nik esan egiela ez nebala bisitarik gura; iguingarri jatan *pertsonak neure oge inguruan jarrita ikustea*, KIPULA TXORTA BAT *legez*, *pizti itsusi bat ba'nintzan lez begira*. Osaba ta izeko ziran bizitaz inguruan nai nebazanak.

Ez neuke esango zenbat geitu zan eurakanako gure maite-txera, gaixotasun onen ostein. Iñoiz baiño geiago ulertu neban etzirala sendiko batzuk geiago. A! Aitatxok bai eukala errazoa idatzi dodazan itzok sarri esaten eustazanean! Geroago somatuko eban berak etzala oker ibilli eta, batez be, berak babestu ta bedeinkatu bear ditu ainbeste ardura eskiñi eustenak... Erbestean nago ni oindino, eta esker-ona zelan erakutsi ez dakidan lez, bide bat besterik ez daukat neure biotza arintzeko: otoitz egin maite dodazen sendikoen alde, joan ziranen eta nigaz ain onak izaten jarraitzen dabenen alde.

Leonía be oso ona zan nigaz, al ebanik eta geien ni poztu jolasten alegintzen zan. Nik batzutan

naigabetu oi neban, argi nekusan ba ak ezin ebala egin Mariaren ordezkoa nire ondoan...

Eta nire Zelina laztana? Zer ez eban ak egin bere Teresagaitik?... Domeketan, kanpora urten bearrean, ordu luzeetan gorderik egoan ume gaixo bategaz, ergel zirudian bategaz. Naitaez, benetan maite izan bear ninduan, nigandik iges ez egiteko... Al, nire aizatxo maiteari zenbat sufridu eragin dautsedan!... iñok be ez dautse sufridu eragin nik beste, ezta zuek emon daustazuen beste maitasun artu be... Zorionez, zerua izango dot eskuetan aspertu al izateko. Nire senarra guztiz aberatsa da eta *maitasun* altxorretatik aterako dot neugaitik sufridu daben guztia bete-betea eurai biurtzeko.

Gaixo egon nintzan bitartean nire pozik aundiena izan zan Paulinaren karta bat artzea... Irakurri ta ber-irakurten neban buruz ikasi arte... Bein, Ama maite, ondarrezko erloju bat bialdu zeustan, eta neure andrakilla bat karmeldar moja jantzirik; ezin dautzut adierazo nire poz-betea... Ez egoan pozik nire osaba. Nire Karmelo gogora ekarri barik, iñoan, ori aztu eragin bear zeustala. Nik bestera, nik uste neban egunen baten karmeldar izateko itxaropenak gordeten ninduala bizitzan. Benetako atsegiña zan niretzat Paulinarentzat zeredozer egitea. Kartulinazko lantxoak egiten neutsazan. Nire egitekorik atsegiñena zan miosota koroiak egitea, eta margaritazkaok Andra Mariarentzat. Mariaren illean gengoan; izadia loraz jazten zan, poza eriola; *loratxo*a joian bakar-bakarrrik aulduz, betiko zimelduta.

Bere ondoan, alan be, eguzki bat egoan, eta eguzki au Birjiña Andra Mariaren *trudi mirarigillea* zan, amatxori birritan berba egin eutsona. Sarri,

oso sarri, loratxoak izar bedeinkatu onegana biur-tzen eban bere kukutza... Bein aita ikusi neban Mariaren gelan sartzen, ni lotan nengoan gelara. Urrezko txanpon batzuk emon eutsozan betarte guztiz goibelaz eta Paris'era idazteko eskatu eutsan Garaipenetako Andra Mariari mezak esateko eskatuz, bere alabatxo gaixoa osatu zedin. Al, zela-ko poza emon eustan neure errege laztanaren fede ta maitasunak! Adierazo naiko neutsan osaturik nengoala, baiña lendik be naikoa poztasun lillurakor emon neutsozan. Etzan nik nai nebana ak mirari bat egitea, bat bear bait zan ni osatzeko... Mirari bat bear zan eta Garaipenetako Andra Maria izan zan berau egin ebana.

Andra Mariaren barre-irria

Domeka baten (meza-bederatzi-urren bitartean), baratzeraz joan zan Maria ni leio ondoan irakurten eban Leoniaz itxirik. Andik minutu batzuetara, abots meiaz, "Amatxo... amatxo" deika asi nintzan. Leoniak bai egoan ni olan beti berbaz entzuten oitua, ez eutson jaramonik egin. Luzarokoa izan zan au; orduan gogorrigo deika asi nintzan eta azkenez etorri zan Maria; ondo ikusi neban sartzen; alan be, ezin neinkean esan ezagutu nebanik eta gogorrigo deika jarraitu neban: "Amatxo..." *Miñetan nengoan*, barruko jazar beartu ta azaldu eziñez, eta Mariak bear bada nik baiño be geiago sufritzen eban. Alperrik alegiñak egin ondoren niri neure ondoan egoala adierazo nairik, belauniko jarri zan, Leonia ta Zelina'gaz, neure oge ondoan. Gero, Andra Mariagana biurtu ta bere semearen bizia eskatzen dauan *ama* baten fede biziz eskaturik, Mariak lortu eban nai ebana...

Laguntzarik lurrean aurkitu ezta, Teresatxo gaixoa be zeruko Amagana biurtu zan; biotz guztiz eskatu eutson azkenez be errukior izan ekiola..., Andra Mari beingoan *ederra* iruditu jatan, nik egundo ikusitako gauzarik ederrena baizen ederra, aren arpegiak ezin adierazo lakoxe ontasuna ta samurtasuna eriozan, baiña nire arima barneraiño eldu zana *Andra Mariaren irribarre eroatzaillea* izan zan. Momentu aretan nire naigabe guztiak urtu ziran, malko aundi bi jalgi ziran nire betsaifietatik eta ixil-ixillik labandu jatan matrail bera; poz utsezko malkoak ziran... Al, uste izan neban, irripar egin daust Andra Mariak, ni bai zoriontsu...! Iñoiz ez daustat iñori esango, orduan ba nire zoriona desagertuko litzateke. Ezetariko indar bage beeratu nebazan begiak eta Maria ikusi neban maitekor niri begira; biotzean ikutua nekusan, eta susmotzen ebala uste nik Andra Mariak egin eustan mesedea... Berari eta bere otoitz biziai zor neutsen nik, ezpairik barik, zeruetako Erregiñaren *barre-irriaren* grazia. Andra Mariari adi-adi begiratzen ikusi ninduanean, uste izan eban: "Osaturik dago Teresa". Bai, bizitzara etorren loratxoa, berotu eban *Izpi* argitsuk ez ebazan eten bear bere on-egiteak. Ez eban kolpez egin, samur eta leunkiro baiño; jaso eban bere lorea eta oso-osorik sendotua, bost urte geroago, bere burua edegiten eban Karmel mendi emonkorrean...

Lenago esan neban, Mariak susmatu eban Andra Mariak egin eustala grazi ixillekoren bat; olan, beragaz bakarrean aurkiturik, zer ikusi neban itandu eustan. Ezin nintzan ixillik egon bera galdera maitekor eta etenbakoan aurrean, miretsirik bai nengoan nik iñori be iragarri barik nire ixilla ba-ekiela-ta. Dana adierazo neutsan neure Maria

laztanari. Ail, pentsatzen neban lez, ondatzera joian nire zoriona, mingots egiñik. Lau urtean, artu neban grazi arrigarriaren gomutea, barne zimiko ta *kezka-gai* izan zan niretzat. Ez neban neure zorionik barriz lortuko Garaipenetako Andra Mariaren oiñetan ezik, eta, orduantxe, *oso-osoan* biurtua izan jatan... Geroago azalduko dot Andra Mariaren bigarren grazi au. Oraingoz, esan bear dautzut, ene Ama laztan, nire poza zelan biurtu zan naigabe.

Mariak, "neure graziaren" kondaira lau ta egitia entzun ondoren, baimena eskatu eustan berau Karmelo-n eralgiteko. Ezin negikeon nik ukatu... Karmeldegia kutun ontara egin neban ikertaldian pozez beterik geratu nintzan Andra Mariaren jantziz *Paulina* ikusirik; biontzat izan zan momentu ezti-gozoa... Alkarri esateko ainbat gauza geunkazan arren, nik ez neban ezer esan, nire biotza barriz goraiño beterik egoan... Gontzaga-tar Maria Ama be an egoan, guztiz biotz-samur. Beste Aizta batzuk be an ziran eta, euren aurrean, artu izan neban graziaz itandu eusten; Andra Mariak Ume Jesus ete eroian, argi asko egoan eta olakoak itanduaz. Itaun guztiok artegatu eta sufridu eragin eusten. Nik ezin neinkean esan gauza bat baiño: "*Oso ederra* begitandu jat Andra Maria... eta *irripar* egiten. Aren arpegia zan *bakar-bakarrrik* nabarmen jatana. Karmeldar mojak beste zerbait oso diferentea zala pentsatu neban, *guzurra esan* ete neban, (nire barru kezkak asiak ziran neure gai-xoa zala-ta)... Neure ixilpekoa zaindu izan ba neu, bear bada, neure zorionari be iraun-azoko neutsen, baiña Andra Mariak nai izan eban oiñaze au neure arimearen onerako. Berau barik, nunbait, arropuztu egingo nintzan, baiña *ezespena* izanik

nire erentzia, neure buruari naitaez begiratu bear neutson *izupenezko* sentimentu aundiz...

Al Zeruan bakar-bakarrik esan al izango dot sufridu dodana...

IV ATALA

LENENGO JAUNARTZEA. SENDOTZA

Karmeldar mojai egindako ikertaldiak aitatz, gogoan dot, *Paulina* sartu ta gerotxoago izan zala lenengoa; aztu egin jatan leen esatea, baiña ixildu bearez dodan zeaztasuna da berau. Mojen iztokira joan bear neban egunean goiztik, neure *ogean* gogartuz bakarrik (antxe zan nik neure otoitzik sakonenak eta Abestietako emáztez beste aldera, nik beti aurkitu oi neban neure Maitea), neure buruari itanduten neutson zer deitura artuko artuko neban Karmelon. Ba nekian Jesus'en Teresa Aizta bat egoana. Baiña ezingo eusten kendu Teresa neure izen polita. Beingoan *Ume Jesus* etorri jatan burura, nik ainbeste maite nebana, eta esan neban: O, ni bai doatsu izango nintzakela Ume Jesusen Teresa deituaz! Ez neban ezer esan iztokian guztiz itxarrik nengoala amesez, baiña Gonzaga 'tar Maria Amak, Aiztai itandurik zer izen ipiñiko eusten, buruak emon eutsan nik *ames* egindako izenez niri deitutea... Aundia bene-benetan nire poza eta pentsamentuz bat etorte zoriontsu au Ume Jesus neure kutunaren ondo-nai bat zala uste izan neban.

Irudiak eta Irakurteak

Azturik laga nebazan baita neure umezaroko zeaztasun batzuk Karmeldegian sartu aurretik, ez

dot ezer aitatu irudiai eta irakurteari neutsen zaletasunari buruz... Eta, alan eta guzti be, ene Ama maite, zuk sari lez emoten zeustazan irudiai zor dautset birtutearen ekiñera eroan ninduan poztasun gozoenak eta biotz-eragiñik gogorrenak... Eurai begira emon oi neban aldia; Jainko Katigua-ren loratxoak, esaterako, ainbat gauza iñostazan eta lilluraturik geratu oi nintzan. *Paulinaren* izena loratxoaren azpian idatzirik egoala ikusita, pozgarri izango jatan Teresarena be antxe ikustea eta Jesusi eskiñi neutson neure burua bere *loratxoa* izan naita... Ni ez nintzan bizi jolasean, baiña gogoko jatan irakurtea eta orrela igaroko neukean neure bizia. Zorionez, ba nebazan nik lurrean zuzentzen ninduen aingeruak eta oneik aukeratzan eustezan jolasaz batera biotza ta espiritua janaritzen ninduen liburuak. Irakurteari ez neutson eskiñi bear erabagitako aldia baiño geiago; au buru-ukapen itzala zan niretzat, sarritan ba pasarterik interesgarrienean eten bear izaten neban.

Irakur-zaletasun onek karmeldar sartu arte iraun eustan. Eziña izango litzakit nire eskuetatik igaro ziran liburu-numerua esatea, baiña Jainkoak ez eusten itxi iñoiz nik kalte egin leikedan liburu bat be irakurtea. Egia da, zaldun-kondaira batzuk irakurriz ez nebala beti ulertzen *biziaren egia*; baiña Jainkoak laster ulert-azo eustan egiazko aintza, betikoa izango dana eta berau eskuratzeko ez zirala ospe aundiko egintzak egin bear, nobere burua estaldu ta birtuteari ekin ezkerrak esku-meak dagiana (Mt. 6, 3) ez dakiala... Orrela izan zan, frantsez emakume zangarren aberri-egintzak irakurriz, batez be JUANA Arko *Gurgarriarenak* batez be, areik egin ebena neuk egiteko gurari bizia sentidu neban. Uste neban barruan nabai-



Nire izena zeruan dago idatzita.

tzen nebala areik sustatu ebazan gar berbera, zeru deiaren gar berbera.

Grazi bat artu neban orduan, neure bizitako aundiena lez beti euki dodana, sasoi orretan ez neban ba orain lango *argirik*; orain ain zuzen be, eskerrez ase nagola dirudit. *Aintzarako* jaio nintzala uste neban, eta ortarako bidea billatuz, Jainkoak sort-azo eustazan esan dodazan pentsamentuak. Ulert-azo eustan baita nire aintza etzala agertuko izaki ilkorren begietan, *Santa* aundia bat izatea izango zala aintza ori... Gurari au izan leikean ausartegia, orduan ni, eta gaur be orrela naz aul eta oso-eza, moja karmeldar zazpi urte igaro izan arren. Alan eta guzti be, santa aundi bat izango nazala uste dot konfiantza toles-gabez; ez gero neure merezimentuetan oiñarriturik, ez bait dot izpirik be, Birtutea, Santutasuna Bera dan Aregan uste izanik baiño. Berak bakar-bakarrik, nire alegin kaskarrakaz naikotzen danak, beraganañño jasoko nau eta, bere azkenbako merezimentuz ni estaldurik, Santu egingo nau. Nik orduan ez neban uste santutasunera eltzeko asko sufridu bear zanik. Au laster erakutsi eustan Jainkoak, lentxoago adierazo dodazan probak bialduaz... Neure kondairara biurtu bear dot orain, itxi neban puntura nunbait.

Lenengo joan-etorria Alenzon-era

Ni osatu ta andik iru urtera, Alenzon-era eroan ginduzan aitag; lenengoz biurtzen nintzan ni ara, eta bene-benetako poza izan, zan niretzat, neure umezaroa igaro neban lekua barriro ikustean; otoitz egin al izan nebalako batez be amatxoren obi gainean, beti zaindu nengiala eskatuaz...

Jainkoak egin daust mundua erdeñatu eta bertatik urrintzeko beste baiño ez ezagutzeko grazia. Esan neinke, Alenzon-en egon nintzanean izan zala, nik *munduan lenengo sarrera* egin neban aldia. Poz utsa zan dana, biotz-beratasuna nire inguruan; omendua nintzan, samur-samur maitatua, miretsia; itz baten, nire bizia, amabost egunean loraz ereinda egon zan... Autortzen dot, bizitza onek ba ebazala niretzat bere lillurak. Errazoiz diño Jakituriak: "Griña txarraren lillurapenak gerizpetu egiten dau onoiñena" (Jak. 4, 12). Amar urtegaz errez lausotu leike biotza; orixegaitik, grazitzat daukat Alenzon-en gelditu eza. Mundutarregiak ziran an geunkazan adiskideak; ondoegi alkartzen ekien lurreko pozak eta Jainkoaren zerbitzuak. Eriotzeak ez ebazan asko arduratzen eta, alan be, eriotzea etorria zan nik ezagutu nitun pertsona askoren billa. Gazteak, aberatsak eta zoriotsuak!! Eder jat areik bizi izan ziran leku *Atsegingarriak* gogora ekartea, nun dagozan neure buruari itandu, zer geratzen jaken euren jauregietatik, bizitzako erosotasunak gozatzen ikusi nebazan parkeak, zer!... Eta dakustanez dana da uskeria ta barru-naigabea eguzkipean (Id. 2, 11), *on bakarra* dogu-ta Jainkoa biot guztiz maite eta espirituz txiro izan emen bean...

Lenengo Jaunartzea

Jesusek bear bada mundua erakutsi nai izan eustan *lenengo ikertaldia* egin baiño leen, jarraitu bear neutson bidea askatasun osoz aukeratu nengian. Biotzean josita geratu jat neure lenengo Jaunartze aldikaldea, laiñorik bako gomuta lez. Uste dot, egon nintzan baiño obeto gertaurik ezin-

go nintzala egon, eta nire barru-kezkak uxatu ziran ia urte betean. Jesusek nai izan eban nik goza-azotea negar-erbeste onetan al dan lakoxe poztasun oso-osoaa...

Zu, ene Ama maite, gogoratzen zara neure lenengo Jaunartze baiño iru illabete aurretik egin zeustan liburutxo politaz?... Arek lagundu eustan arin eta jarraian neure biotza gertatzen, ni aurretik be gertatuaz niñoian arren, indar barri bat emon bearra eukan, *lora barriakaz* bete, Jesusek bertan atsedean gozoa euki egian... Egunero egiten nebazan ainbat eta ainbat buru-ukapen,beste ainbeste lora ziranak. Baita egiten nebazan ainbat eta ainbat biotz-jasotze, zeuk egunero egiteko neure liburutxoan idatzi zenduzanak. Maitasun-egintzok ziran *loren begitxoak*...

Astero idazten zeustan eskutitz eder bat, nire arimea pentsamentu sakonez bete ta birtute ekiñetan lagungarri jatana; poztasun aundia zan zure alabatxo gaixoarentzat, *buru-ukapen ondo aundia* egiten bai eban arratsalde bakotxean Zelina kutunak lez, zeure belaunen gaiñ *gertatua* ez izatez etsirik...

Mariak ordezkatu eban Paulina. Aren belaun gaiñ jarten nintzan eta *biziro* entzuten neutson iñostana. Bere biotz osoa, ain auntsi, ain zabal, oso osorik neurera aldatzen zala, uste dot. Gerrari ospe aundikoak euren semeei armak erabiltzen erakutsi oi eutsen lez, orrelaxe berba egistan ak bizitzako *burrukaz*, irabazle dira, nai emoten jaken palma-adarrez... Mariak be gogora ekarstazan egunero, errez, pillotu leikezan aberastasun il-eziñak; zelako zoritxarra zan eurak artzeko eskua luzatu barik bizi izatea. Baita erakusten eustan

santu izateko bidea, gauzarik txikienetan zintzoa izanik. Au iñoan orritxoa emon eustan: "Ukape-na", bere gogarteak egiteko oso atsegin jakona...

Al, itz-eder bai zala nire amabitxi laztana! Pozgarri litzakidan bakarra ez izatea bere irakatsi sakonak entzuten; oso eragiña izten ninduan, eta neure toles-bakotasunean uste neban izlari eundienak be neu lez eragiñik geratu zirala eta, zimelkor dira aberastasunak saiets itxirik zerukoak baiño ez ebezala irabazi nai izango... Garai ontan, ez eustan iñok erakutsi oraindik otoitz egiteko erea, nik benetan nai izenda be; baiña Mariak, naiko goi-zale nintzala-ta, neure otoitzak bakarrik esaten izten eustan soil-soilki. Egun batean, Abate-txeko irakasle batek itandu eustan zer egiten neban opor-egunetan, bakarrik nengoalarik. Nik erantzun neutsan: neure oge ostein uts-une baten gorderik, zapi zerriaz aise izten zan toki onetan *pentsatu* egiten nebala. "Baiña zertaz *pentsatu*?", itandu eustan. "Jainkoagan *pentsatzen* dot, bizi-tzan... BETIRAUNEAn, au da, *pentsatu* egiten dot..." Lekaime onak polito barre egin eban nire lepotik. Geroago, atsegin izaten jakon niri gogora ekartea nik *pentsatu* egiten neban denporea, oindiño be orretan jarraitzen ete neban galde egiñaz... Orain ulertzen dot jakin barik otoitz egiten nebala, eta Jainkoak eskolatzen nindula ixillean.

Gertakuntzako iru illabeteak arin joan ziran eta laster asi bear izan neban bakar-aldia eta barne-egote osoz, lo be Abat-etxean egiñik. Ez dakit zelan adierazo ixillaldi onek itxi eustazan gomuta atsegiñak. Egitan, barru-bizitzaz asko sufriduta be, ondo be ondo ordaindua izan nintzan Jesus-en zain igarotako egun labor oneik ekarri eusten zorian bete esan-eziñez... Onako zorian-pozkario-

rik, ez dot uste, txastatu daikegunik erlijisoen komentuetatik kanpo. Ez gintzazan neskato asko eta etzan zail, banazean be, bakotxaren ardurea eukitea. Egi-egiaz gure irakasleak ama batek lez arduratsu zaindu ginduezan. Nigaz, besteakaz baiño, ardura geiago izan eben. Gau guztietan irakasleetatik aurrena etorkidan bere kruseluaz eta mosu egiten eustan samur-samur. Gau baten, bere ondo-naiaz arriturik, *ixilpeko* bat adierazo bear neutsolea esan neutson eta kontuz-kontuz neure *liburutxo polita* aterarik bera erakutsi neutson, begiak pozez dizdizka nebazala... Eder jatan goizez ikaskideak lez itxartzean jagi ta eurak egiten ebena nik be egitea, baiña ni ez nengoan oiturik bakarrik orraztuten. Ez egoan an Maria nire uleak *kizkurtzeko* eta ni, bildurti, neure orraziaz garbiketa gelearen ardurea eukagana joaten nintzan. Barre egian arek, bakarrik orraztuten ez ekian amaika urteko neskato bat ikusirik, eta orraztuten ninduan, baiña ez Mariak baizen *leun*; alan be, ez nintzan ausartzen txilio edo negar egiten; au egin oi neban, ostera, egun guztietan neure ama-bitxiren esku leunpean... Ixillaldi edo erretiro bitartean konturatu nintzan eregatua nintzala eta lur gaiñean gitxi lez zain, amarik bako neskatoen artean batez be... Egunero Maria ta Leonia ikusten etorten jatazan aitagaz, eta onek txera beroz beteten ninduen; onela ez neban sendiaren gabezik sentiduten, eta ezek be ez eban illunpetzen nire ixillaldiaren zeru ederra.

Adi-adi entzuten nebazan Domin abadeak emoten euskuzan irakatsiak, baita laburpen bat idatzi be. Neure pentsamentuetatik, alan be, ez neban idatzi gura izan bat bera be, enebazala egundo aztuko esanik, eta egia izan zan. Atsegin-garri jatan monjakaz batera ofizio guztietara joa-

tea; nabarmentzen nintzan neure lagunen artean Leonia emonda mixiolariaren antzera gerrikoan nerioian *Kurutze* aundi batez. Kurutze onek bekaitza sortzen eutsen monjai *neure karmeldar aitzatxoren* antzeko izatearren neroiala, uste ebelako... A! Egia da bera nenkarrela burura, ba-nekian nire Paulinak be, neure antzera, bere erretiroa asirik eukala, ez Jesus emon ekion berari, bera Jesusi emon ekion baiño. Bakartade au, itxaropenean billatua, bitan atsegin izan jatan.

Gogotan dot, goiz batez gaixotegian sartu ninduela, eztul aundi neukalako (neure gaixo ostean, izan be, irakaslea arretaz zaintzen ninduen, zala buruko min ezerez bat, zala bestetan baiño larua-go ikusten ninduelako, pasietan bialtzen ninduen edo-ta gaxotegira atsedena artzen). Nire Zelina maitea ikusi neban sartzen; baimena emon eutsen ni ikusten etorteko, bakar-eguneten gengo-zala be, atsegin izan jatan irudi bat emon eistan: "Jainko Katiguaren loratxoa". O!, ni bai atsegindu nindula Zelinaren eskuetatik gomutaki au artzeak!... Zenbat maitasunezko pentsamentu sortu-azo daustazan onek!...

Egun aundiaren bezperan bigarrenez artu neban parkamena; nire autortza guztizkoak bake aundia itxi eustan ariman eta Jainkoak ez eban nai izan berau kezkatzera lañorik ariñenik be etorri eiten. Arrats aldean famili osoari eskatu neutson parkamena, ikusten etorri jatanari diñot, baiña negar bakarrik egin neban, biotzean ikutuegi nengoan... Ez egoan an Paulina, alan be biotzez neure ondoan somatzen neban; Mariaren bitartez *irudi eder* bat bialdu eustan, nik miresten nebana ta mundu guztiak bera mirestea opa nebana... Aita Pichon-i idatzi neutson bere otoitzetan gogoan

izan nengian, esaten neutson gaiñera laster izango nintzala karmeldar eta orduan bera izango zala nire zuzendari. (Eta orrelaxe izan be izan zan lau urte geroago, Karmelo-n zabaldu bai neutson neure arimea...) Mariak ekarri eustan aren idazki bat, zoriotsu nintzan egi-egiaz!... Batera eldu jatazan poz guztiak. Aren karteak geien poztu ninduana, esakun au izan zan: "Biar altara santura igongo naz zeugaitik eta zeure Paulina-gaitik". Maiatzaren 8'tik Paulina ta Teresa gero ta bateretuago egon ziran, Jesus'ek ba, antza zanez, galduago zirudien eta graziakaz beteago...

Eldu zan azken baten "guztien artean egun ederra". Zelako gomuta adierazo eziñak itxi dabezan nire ariman zerua dirudian egun ontako *zeaztasunik nimitñoenak!*... Goizeko esnatze pozgarri, irakasle ta ikaskide nagusien mosu adeitsuak... Areto aundia, *edur maluta* neskato bakotxa gero jantziko zanez beterik... Batez be, eleizara sarrera ta *goizeko* eresi ederra kantari: "O altara santu, aingeruz inguratua!"

Baiña ez dot zeaztasunetan sartu nai; ba dira gauza batzuk aizetara atera ezkeren euren usain ona galtzen dabenak; ba dira barruko pentsamentu *batzuk* be lurtar izkuntzan adierazo ezin daikezanak, euren barne-zentzun-zerutatarra galdu barik; irabazleari emongo jakon "Arri zuriak lakoak dira eta izen bat idatzita daroana, artzen dauanak izan ezik iñok be ezagutzen ez dauana" (Ap. 2, 17). A!, ezitia bai izan zala Jesusek nire arimeari emon eutsan mosua!...

Maitasunezko mosua izan zan, *maitatua* sentitzen nintzan, eta nik esaten: "Maite zaitut, zeurea nozu betiko". Ez egoan itaunik, ez ezbairik, ez oparirik. Denpora zalatik, Jesus eta Teresatxo gai-

xoak alkarri *begira* egonak ziran eta alkar uler-tuak... Egun ontan etzan begiratze bat bakarrik izan, baita *urtze* bat be, onezkero etziran bi, desgertua zan Teresa itxas-erdian galtzen dan ur-tantaren antzera. Jesus geratzen zan bakarrik. Bera zan ugazaba, bera Errege. Teresak ez ete eutsan eskatu *askatasuna* kentzeko, askatasuna bildurra ekartsola-ta? Ain aul ikusten eban bere burua, ain makal, beraz Jainko Kemenaz baturik egon nai eban beti-betiko!... Aundiegia zan bere poza, sakonegia orrela jarraitu al izateko; negar-malko gozatsuak uioldu eben laster, bere ikaslagunak arriturik geratzen zirala, geroago euren artean onela iñoelarik: "Zergaitik negar egin ete dau? Naigaberen bat ete dauka?... Ez ete da bear bada bere ama bere ondoan ez egoalako, edo-ta, ain maite dauan aizta karmeldarra gaitik?" Ez eben ulertzen zeruko poztasunak biotz baten sartzen diranean, *erbestetuta* biotz onek ezin daikela eroan malkorik ixuri bage... O!, ez, ama falta jatalako ez nengoa triste neure lenengo Jaunartze egunean: neuregan egoan zerua ta ama ez ete egoan bertan antxiñatxotik? Olan izanik, Jesusen bisitea arturik, neure ama maitearena be artzen neban; bedein-katzen neukan, bai, neure zorionean poza artuaz... Ezta, ez neban negar egin Paulinaren urrintasunagaitik; egia esan atsegin izango jatan neure ondoan eukitea, baiña aspaldi zala onartua neukan buru-ukapen ori; egun orretan, poztasunak bakar-bakarrik asetzen eustan biotza; beragaz alkartzen nindun, niri ain maitetsu emoten jatan Aregaz beti-betiko emonik!...

Arratsaldean neu autatu ninduen Andra Maria-ri eskintza egiteko; egoki zan izan be nik, neure lagunaren izenean, zeruko neure Amari *berba egi-tea*, lurreko ama barik ain laster geratu nintzala-

ko... Ari itz egiñik neure biotz osoa ipiñi neban, Ari eskiñi neutsan neure burua, bere amaren etzunik jagon dagiala eskatzen dautson neskato baten antzera. Uste dot nik, Andra Mariak bere loratxoa begiratu ta irri-barre egin eutsola; ez ete zan Bera osatu ebana agiriko irri-barrez... Berak ez ete eban jarri bere loretxoaren kukuluan, bere Jesus, Zelaietako Lorea, ibarreko lirioa?... (Abest. 2, 1).

Egun eder ontako illuntzean, barriz alkartu nintzan lurreko neure familiaz; biaramon goizean, neure aita eta neure senidarteko, maite guztiak; baiña oraintxe zan benetako batzarra. Aitatxo, erregiñatxoa eskutik eroiala, Karmelo' rantza zuzendu zan... Orduan ikusi neban Paulina, Jesus-en emazte egiña bere koroi zuri neurearen antzekoaz eta bere larrosazko burestunaz... Al, garraztasun bako poza izan zan; laster beragaz alkartzeko itxaropena neban, eta beragaz zerua! Biotzean ikutu nindun neure lenengo Jaunartze gabea egindako sendiko jaiak; neure erregeak emon eustan erloju politak, pozetan ipiñi ninduan; nira poza, baiña, trankila izan zan eta ezek ez eban nire barruko bakea artegatu. Mariak berarekin ogeratu ninduan egun eder onen ondorengo gabea; egun dirdaitsuen ondoren datoz illunpeak; bakar-bakarrik lenengo, bakarraren eguna, zeruko jaunartze betikoak ez dau izango illuntzerik!...

Neure lenengo Jaunartze egunaren ostekoa be guztiz ederra izan zan, baiña melankoliz urdin-dua. Bai jantzi politak Mariak erosi eustazanak! Artu nebazan erregali guztiak ez eben beteten nire biotza. Jesusek bakar-bakarrik asetu nengien; bigarrenaz artu neikean unearen zain negoan. Gitxi gora-beera illabete, neure lenengo Jaunar-

tzetik geroago, autortzera joan nintzan, Igokunde Jairako, eta jaunartzeko baimena eskatzen ausartu nintzan. Nik itxaron ez arren, abate jaunak emon eustan eta Meza Santu bitartean Aitatzoren eta Mariaren artean belaunikotzeko zoriona izan neban. Nik bai iraun-azo ditudala Jesusen bigarren bisita onen gomuta atsegiñak! Nire negarmalkoak barriro ixuri ziran esan-eziñezko gozotasunez. Aspertu barik errepikatzen nebazan Paul deunaren itzok: "Ez naz bizi nazana, Jesus da nigan bizi dana"... (Gal. 2, 20). Jaunartze onen ostean, gero biziagoa egin jatan Jesus artzeko irritsa. Ol, baimena izan neban jai nagusienetan Jauna artzeko. Egun zoriontsu onein bezperan, Mariak bere belaun-gaiñ jarten ninduan arratsaldetan eta neure len-Jaunartzerako lez gertatu oi ninduen. Bein, gogoan dot, sufrimentuaz itz egin eustan, nire bidea ziur asko etzala ori izango, Jainkoak beti umetxo bat lez erabiliko ninduala esanez...

Urrengo egunean, Jaunartu ondoren, Mariaren berbak gogora ekarri nitun. Sufriduteko gura bizia ernetzean somatu neban biotzean eta, aldi berean, Jesusek kurutze asko eukazala niretzat, iñostan barruak. Orduan nire erimea *poz itzalez* gaiñezka ikusi neban, neure bizitzako aundienez-takoan bat lez daukodana, *egoarriak*, sufrimentuak ekarten nindun; oindiño ondo ezagutzen ez nebazan zoramenak eukazan. Ordurarte, sufrimentuaz zer zan ez nekiala, maitatu barik sufritzen neban, egun zoriontsu ortatkegiatzko maitasunez. Baita ba-neukan Jainkoa izan ezik ezer maite ez izateko, Aregan izan ezik poztasunik ez billatzeko gogo bizia. Sarri, Jauna artzen nebanetan, Antz-bideko itzok esan oi nebazan: "O, Jesus, gozotasun bete-betea; mergatz egidazuz lurreko poztasun

guztiak! "...” Otoitz au bere-berez jalgia zan nire ezpanetatik, indarketa bakoa; bein eta barriz esana iruditzen jatan, ez neure indarrez, umetxo batek, beste pertsona maite batek gogora ekarrita bir-esaten dabezanaren antzera baiño... Geroago adierazoko dautzut, ene Ama maite, zelan Jesus poztu izan dan neure guraria egiten, zelan Bera bakarrik izan dan nire *gozotasun* ezin esana. Orretzaz berba egingo ba neuskizu orain, neure gaztetako gertakizunak aurreratu bearko neukez. Oraindik neure aurtzaroko zeaztasun asko geratzen jataz esan bearrak.

Sendotzea

Neure lenengo Jaunartze ostetxoan, bakarrean sartu nintzan barriro be, neure Sendotzarako. Alegin aunditan gertatu nintzan Espiritu Santuaren bisitea artzeko. Ez neban ulertzen zergaitik etzan ipinten ardura geiago *maitasunezko* sakramentu au artzeko. Geienez, bakar-egun bat besterik etzan egiten Sendotzarako, baiña Gotzain jaunak erabagitako egunerako ezin etorria izan eban ezkerro, nik poz-pozik egun biko bakartadea egin al izan neban. Bakartade au apur bat arintzeko, gure irakasleak Kasin Mendira aroan ginduezan. Nik an batzen neban esku beteka *margarita* aundiak Korpus-Kristi egunerako. A!, nik bai arimea poz-eztitan! Apostoluak lez, poz-dardara itxaroten neban Espiritu Santuaren etorrera... Pozkarioz jarten nindun laster kristiñau betea izango nintzan pentsamentuak eta, batez be, bekokian euki-nebalako betikotasun guztirako gotzaiñak sakramentua emotean marketan daben misteriozko gurutzea... Eldu zan, azken baten, une zoriontsua. Ez neban somatu Espiritu Santua jastean aize-

bolada zakarrik, bai ostera Elias igarleak Horeb mendian (Irg. 19, 12-13) entzun eban aize bebigunaren mulu-mulua... Egun aretan kemenez jantzia sentidu nintzan *sufriduteko*, laster asiko zan ba nire arimearen martiritza... Ene Leonia laztana izan zan nire amabitxi; biotzean ikutua egoalako, zeremoni tarte guztian negar eta negar. Neugaz batera artu eban Jauna, nik be egun onetan Jesusegaz alkartzeko zoriona izan neban-eta.

Jokoak eta adiskideak

Jai pozgarri ta aitzu-eziñon ostean, lengo bizi-tzara biurtu nintzan, au da, ain aldatz-gora egiten jatan ikastetetxera itzuli bear izan neban. Lenengo Jaunartze aldian eder jatan bizitz au, neure sasoiko neskatoakaz, danak borondate onez be-teak, guztiak neuk lez onoinenari bene-benetan ekiteko asmoa artu gendunak. Orain alan be, ikaskide oso diferenteak nebanan jolaslagun, zabarrak, araudia beteteari uko egitsoenak, eta onek doakaitz egiten ninduen. Alaia zan nire izakera, baiña ez nekian neure adiñeko jolasetan egoki etorten; askotan, solas-bitartetan, zugatz bati neutsola jarten nintzan, andik begira, gogaketa sakonetan murgildurik.

Atsegin jatan joko bat asmatu neban; zugatz-pean aurkitzen genduzan txoritxo illai lurra emotea; ikaskide asko jatazan laguntzaille eta gure obitegia guztiz polita egin zan, gure txoritxoan neurriko zugatz eta lorakaz.

Kondairak edestea be opagarri jatan, asmatu egin oi nebanan oneik burura etorri-ala. Nire lagu-

nak orduan inguratzen ninduen, arduraz, eta batzutan, aunditxoak be entzuleez tartera etozan. Kontaketa bardiña egunetan luzatzen gendun, gero ta interesgarriagoa egiten saiatzen bait nintzan, ortarako zerk geien biotz-ikutu oi ebazan ikusiz eta au neure lagunena betarteetatik ateraten neban. Alan be, nire irakasleak laster galazo eustan izlaritza ofizio ori, naiago eban gu jolasean ikustea, gu *asmaketan* baiño *lasterketan* ikustea...

Errez geratzen jatazan buruan ikasten nitun gauzak, buruz ikastea, baiña, ez jatan erreza. Neure lenengo Jaunartze aurreko urtean, baimena eskatu oi neban, ia egunero, jolas-denporan Ikas-bidea ikasteko. Nire saioak ekiñak ondo koroatu zitun eta lenengoa izan nintzan. Zer-edo-zergaitik neure lekua galde ba' nengian, *azturik itxitako berba bat-batgaitik* malko mergatzez erakutsi oi neban neure samintasuna, eta abate Domin-ek ez ekian zelan poztazo... Oso pozik egoan nigaz (ez negar egiten nebanean) eta bere *irakasle* deitzen eustan, Teresa neure izenagaitik. Bein, nire ondorengo egoan ikasleak ez eban jakin dotriñako itauna bere lagunari egiten. Abate jaunak, ikasle guztiai alperrik itandu ondoren, neugana biurturik, nik lenengo lekua merezi neban ala ez ikustera joiala esan eban. Neure *apaltasun sakonean*, ez neban itxaroten beste zerak eta, zutundurik, esan neban, segururik, itandu eustana, uts bat be egiteke, guztiak zurtuta lagarik...

Lenengo Jaunartzea eginda gero be, ardura aunditan euki neban dotriñea ikastetxetik urten neban arte, Ondo be ondo eroan nebazan neure ikasketak; beti nintzan lenengoa; atsegiñen jatazanak istoria ta idazkera ziran. Irakasle guztien eritxiz buru argiko ikaslea nintzan. Osabeak ez eban

orrela uste; onen ustez, ba, ez-jakin bat nintzan, on eta gozo, zuzena, baiña gai-eza ta baldana...

Ez naz arritzen nire osaba-izekoak nitaz eukien eta, gaur be, dauken eritxiaz. Berba gitxi egiten neban, bildurti nintzalako bear bada; idazten nebanean, nire *katu-letrea* eta nire idazkera (ortografia) arrunta zan arren, etziran *lilluratzekoak*... Joste, orratz-lan eta beste olako lan pitiñetan, ondo nenbilen, egia da, nire irakasleen eritxiz; baiña nik neure lana *nengian* modu *baldana*, naikoa zan niri buruz sortu eben eritxia urria sortzeko. Nik au esker bat begiratzen neban. Jainkoak, nire biotza beretzat bakar-bakarrik nai eban-eta, entzuten eban nire erregua, "*Garraz biurturik lurreko poztasunak*" (14). Bear neban, bai, zerbait, ni be ez bait nintzan sogor goralpenen aurrean. Sarri goratu oi eben nire aurrean besteen buru-argitasuna, baiña iñoiz bere ez nire, eta ortik atera neban ez nintzala buru-argi, eta olakotzat etxirik nengoa...

Nire biotza, sentikor eta amultsu, errez jarriko zan aren edo-ta onen esku, berari ulertzeko gauza zan biotz bat idoro ba' leu... Adiskidetasunean sarlu nai izan neban neure adiñeko neskatillakaz, eurotariko bigaz batez be. Maite nitun eta eurak be maite ninduen, al eben giñoan; baiña, ai!, txiki ta aldakor bai dala izakien biotza!!... Laster konturatu nintzan nire maitasuna etzala ulertua. Nire lagunetatik etxera biurtu bear izan eban sendikoa-kaz eta illabete batzuk geroago barriro etorri zan. Gogotan euki neban etxetik zan epe guztian, berak emon eustan erestun txiki bat arduraz gorderik. Egiaz poztu nintzan bera barriro ikusi nebanean, baiña, ai!, beragandik ez neban artu begirada ardura-

(14) Kristoren Antz-Bidea, 3.gn liburua, 26, 3 atala.

ezeko bat besterik... Etzan erantzuna nire adiskide miña; ulertu neban eta ez nintzan *eske ibilli* ukatzen eusten txeraren billa. Alan eta guzti be, biotz leiala emon daust Jainkoak eta garbiro izan dauanean, beti maitatu oi dau, neure laguna gaitik, beraz, otoitz dagit eta maite dot oindiño...

Zelinak gure irakasleatariko bat *kutun eballa* ikusirik, neuk be aren antzera egin nai, baiña izakien adiskidetasuna zelan irabazi ez nekialako, ezin izan neban lortu. Ez-jakite doatsu! Zenbat gatxetik jagon nauan!... Jesus' i esker onka nago *lurreko adiskidetasunetan mingostasuna* aurkitzen baiño itxi ez daustalako. Nirea lango biotzaz, lilluratzan itxi ta egoak ebagiko eustezan; eta, orduan, "zelan egaz egin eta atsedendu?" (Sal. 54, 6). Biotz bat, izakien zalekeriai egiña, zelan alkatu daiteke barrukoi Jainkoaz?... Ulertzen dot eziña dala. Iza-kien maitasun lar beroaren kopa pozoitutik edan bage, somatzen dot ezin naitekela lakioan jausi. Arima asko ikusi ditut, *guzurrezko argi orrek* irabazita, mitxeleta gaixoak lez egiñik egoak erreten; gero biurtzen maitasunaren egiazko, argi gozora, ego barriak, dizditsu ta ariñagoak arturik, Jesusengana egaz egin egien Jainkozko Sua, "ezereztu barik erreten dauana" (15).

Al, ba-dakit; makalegi ikusten nindun Jesusek tentaldian sartzeko; bear bada osorik erretan itxi-ko neban burua argi guzurti orretan neure begien aurrean ñirñirka ikusi ba neu... Etzan orrela izan; garraztasuna baiño ez dot aurkitu an arima tin-koagoak poza aurkitzen daben lekuan eta zint-zoak diralako eta txirrist txirrist dagie ortatik. Ez

(15) Urt. 3. 2, eta *Gurutzeko Guan Deuna*, maitasunaren su bigia, bigarren aspaldiari adirazpena.

daukat, ba, meriturik izakien maite-miñari mur-gildu ez Jainkoaren errukia izan bait zan ortik jagon ninduana... Ezagutzen dot, aren laguntza barik, Santa Magdalena baizen bee jausi neintek-ean, eta Gure Jaunak Simon' i esandako berbak durundu dagie nire ariman gozotasun aundie-tan... Nik ba-dakit: "*Gitxi parkatzen jakonak, maita-sun gitxi agertzen dau*" (Luk. 7, 47), baiña baita ba-dakit, Jesus' ek Santa Magdalenari baiño geiago *parkatu daustala, aurretiaz*, jaustetik jagon nin-dualako, parkatu eustan-eta.

Al, bai atsegin litzakidala somatzen dodana azaltzea!... Ona emen adibide bat, zelan edo alan adierazten dauana nire gogo. Egin daigun, maisu jakintzu baten semea; bidean arri bategaz topo-eginda, jausi ta soin-atal bat apurtzen dauala; beingoan joako aita laguntzera, maitaro jasoten dau, zauriak osatzen dautsoz, ortan erabilliz berak dakizan zientzi-laguntza guztiak eta, gero, guztiz osaturik, semeak erakusten dautso bere esker ona. Ezbai barik, seme onek errazoiz maite dau aita ain ona. Baiña, ona beste irudipen bat. Aitak jakiñik bere semea doan bidean arri bat dagoala, aurretik joaten bizkortu ta baztertu egiten dau arria (iñok be ikusten ez dauala). Egi-egiaz, seme onek, egite onan samurra egin jakonak, EZAGUTZE ez ba dau aitak kendu dautson arriskua, ez dautso erakutsi-ko on-egiñaren txera eta aitak osatua izanda baiño *gitxiago maite* izango dau... baiña jakin ba leki zelako arriskutik atera dan, ez leuke maite izango oindiño geiago? Orain ba, neu naz seme ori, *Aita len-ikuslearen maitasunak* ez bait dau bere itza bialdu *onak* bir-erostera, *pekatariak baiño*. Nik Bera maite daidala gura dau Arek, ez asko *parkatu* daustalako, DANA baiño. Arek ez dau itxaron nik

asko maitatzerik, Magdalena Deunak lez; nik JAKI-TEA nai izan dau Berak zenbat maite izan nauan, *maitasun ezin-esandeko aurre-ikuslez*, nik orain *zoratzeraño* maite izan dagidan...

Entzun dot esaten etzala aurkitu arima garbi damututako batek baiño geiago maite izateko. Al, laket izango litzakit baiesmen ori guzurtatzea!

Barru-kezkak. Abat-etxetik urteten dau

Baiña asko urrindu naz neure gailik, beraz len-gora nator arin-arin.

Nire lenengo Jaunartze urrengo urtea ia osorik nire arimearentzako proba barik joan zan. Bigarren Jaunartzerako bakar-egun bitartean, alan be, barrukezka izugarriak joa aurkitu nintzan... Berau ondo ulertzeko, martiritza onetatik igaro bearra dago naitaez; eziña izango litzakit urte t'erdian zer sufridu dodan adieraztea... Nire pentsamentu ta egite guztiak, baita ezerezenak be, motibu jatazan kezka-biderako. Mariari esanaz artu oi neban atsedeen pizkat; baiña gogor egiten jatan au be, bearturik nengoan, ba, berari adieraztera berari buruz neukazan pentsamenturik ganorabakoenak be. Neure fardela askatutakoan, bake-une bateko gozotasuna izaten neban; bake ori, baiña, tximist langoa zan eta beingoan asten zan nire martiritza. Zelako pazientzia bear izan dauan nire Maria laztanak, iñoiz be gogait egin barik niri entzuteko!...

Abat-etxetik itzuli orduko, ni orraztuten asten zan bera urrengo egunerako (aitari poz emoteko, bada, egunero ulea ondo orrazturik eroaten eban erregiñatxoak, bere ikaskideak eta batez be, bere

irakasleak miretsirik, ez bait eben ikusten euren gurasoak ainbeste loxingaturiko neskatorik). Bartzar-aldian ni negar eta negar, neure barru-kezkadanak iragarritz.

Urte azkenean, Zelina, bere ikasketak amaituaz, etxera biurtu zan eta Teresa gaixoa, bakarrik bizi izatera beartuta, lastertxo gaixotu zan. Ikastetxean eukan eusgarri bakarra bere Zelina banandu-eziñaz bizi izatea zan; a barik, "bere alabaxoak" ezin izan eban geiago jarraitu...

Klase bereziak

Urten nintzan, ba, Abat-eskolatik amairu urteko nintzala, eta neure eziketa jarraitu neban asteroklase batzuk artuaz Papinat andrearen etxean. Pertsona ona zan eta ondo *eskolatua*, baiña neskazar baten sino ta jarduerakaz. Bere amagaz bizi zan, eta polita ezkontzea ikustea *irurak* bat egiten ebena (katua *sendikoa* zan, ba, eta nik eroan bear neban aren run-run otsa neure ingurraztian gaiñ eta bere itxura galanta miretsi). On eta obari au neukan, famili-goxotasunean bizi nintzala; Buissonets'ak, nire maistrearen zerbait zaartuaren zangoentzako urrin samar egozalako, bere etxera neu joan nendilla eskatu eustan ikasgaiak artzeko. Ara eldukeran, geienetan Cochain andra zaartxoa besterik ez neban aurkitzen, onek *bere begi argi aundiakaz begiratzen nindun*, eta dei egian ondoren abots bare ta erabagitsu: "*Papinau andera... Emen dago Teresa andereñoa*"... Beingo baten erantzuten eutson bere alabeak bere aur-abotsez: "*Oraintxe noa, amatxo*". Bertatik asten zan ikasgaia. Klase oneik, gaiñera, ba-euken beste alderdi on bat be: (eurotan ikasi oi nebanagaz gaiñera)

mundua ezagutu oi neban bide batez... Nok siñistu!... Aintxiñako erara jantzitako bizitza onetan, liburuz ta ingurraztiaz inguratuaz, sarritan esku artu bear izaten neban ari askotako ikustaldietan : Apaizak, andrak, andereñoak, eta abar. *Cochain* andreak alik eta ondoen eroiazan alkar-izketak bere alabeak niri klasea emon egidan, egun orreitan, baiña, nik ez neban asko ikasten; sudurra liburuan, esaten zan guztia entzuten alegintzen nintzan, baita niretzat entzun eza obe izango zana be. Uskeria ain errez sartzen jatzu biotzean!... Andra batek iñoan nik txima ederra neukala... beste batek urtetean, nik entzuten ez neutsola-koan, gazte ain xarmanta nor ete zan itanduten eban, eta berba oneik, neure aurrean esaten etziralako zuri-koipetsuagoak, poz-jario berezia izten eben nire ariman, ni neure eritxiz noraiño beterik nengoa argi ta garbi erakusten ebana.

O!, erruki bai naiakela galtzen diran arimail!... Erreza da, izan be, munduko bide loratsuetan galtzea... Bear bada, pizkat jasorik bizi dan arima batentzat, eskiñi daroan gozotasuna garratzez naste dago eta *gurarien* uts-une *neurribakoa* ez litzateke beteko apur bateko goralpenakaz. Baiña *nire biotza jasoa izan ezpalitz Jainkoaganantz lenengotik*, munduak bere mende jarri izan ba'nindu bizian sartzerakoan, zer izango ete nintzan ni?... O!, ene Ama lastana, zelako esker onez abesten dodanaz Jaunak errukiak!... Jakituariaren itzai jarraituz "*ez nau mundutik baztertua gatzak adimena okertu ta maltzurkeriak arimea lilluratu baiño leen?*" (Jak. 4, 11). Andra Maria be itxarrik egoan bere loratxoa zaintzen, eta, ez eban nai bera zimeldu eiten lurreko gauzen ikutuz, loratan jarri baiño leen, bere *mendira* eroan eban... Une zoriontsu onen zain, Teresatxo aurrera joian bere zeruko Amaga-

nako maitasunean; baiña maitasun ori berari erakusteko asko *kostau jakon zerbait* egin eban, luze samarra dala be, itz gitxitan oraintxe esango dodana...

Maria´ren Alaba

Ni Abatetxean sartuta laster, Aingeruen Alkar-goan artua izan nintzan; onek eskatzen ebazan eraspen-jardunak guztiz atsegiñak jatazan, batez be, banazean, zeruko espirituai otoitz egitea; eta danen artean, Jainkoak neure erbesteko lagun lez emon daustanari. Lenengoz Jaunartu ta ez luze, Maria´ren Alabantzakoen zintea Aingeru Santuen ordekarri izan zan; baiña Andra Maria´ren alkar-tean sartu baiño leen itxi neban Abatetxea. Eta andik ikasketak amaitu aurretik urten nintzalako, ezin sartu izan nintzan antxiñako ikasle gisa. Egiaz diñot, onek ez nindula kezkatzen; baiña nire aizta guztiak "Maria´ren Alaba" izanik, bildur nintzan areik baiño gitxiago ez ete nintzan neure zeruko Amaren alaba izango, eta apal-apalik (asko egiten jatala be) artu nenguela eskatzen Abatxeko Andra Maria´ren alkargoan. Lenengo irakasleak ez eustan baimenik ukatu nai izan, baiña kondiziño au ipiñi eustan, astean egun bi, arratsaldea an igaro bearko nebala, alkar-te orlan artzeko duin nintzala erakutsi nengian. Baimen onek poztu bearrean, lanak lan izan jatazan.

Nik ez neukan, beste antxiñako ikasle batzuk lez, *irakasle adiskide* bat berarekin orduak txautzen joateko; nik, beraz, naikoa neban irakasleari agur egin eta gero lanari ekin, ixil-ixillik, lan-klasea amaitu arte. Iñok ez eukan nire ardurarik, eta olan kapillara joan oi nintzan, an Jaunaren

aurrean egonik, aita nire billa etorri arte. Auxe zan nire poztasun bakarra.

Ez al zan Jesus nire *Adiskide* bakarra? Aregaz bakarrik nekian berba egiten; mundutarren autuak, baita onak be, nekatu egiten eben nire arimea... Ba nekian oba zala Jainkoaz itz egin, Jainkoa-tzaz baiño, ainbat nobere eritxia sartzen da gogoko autuetan be!... A! Ni Andra Maria *gaitik* bakarrik niñoian Abat-etxera... Batzutan *bakarrik*, oso bakarrik sentitzen nintzan. Ikasle nintzaneko egunetan lez, larrain aundian triste ta gaixo egurasten lez, bein eta barriz esaten nebazan berbok, nire biotza bake ta kemenez beti jarten ebenak: "Bizitzea ez da zure egoitza, zure itxas-ontzi baiño!..." Itz laburrok indartsu biurtzen ninduen. Gaur be, ume-eraspenaren etaronik asko ezeztan dabezan urteak joanak izan arren, ontziaren iduriak lastu oi daust arimea, erbes otea eroaten lagundurik... Jakituriak ez bait dau esan gaiñera "olatu suminduak zearkatzen ditun ontzi bat legez bizitzea eta bere ibillian ez dabela izten ezertariko lorratzik?...". (Jak. 5, 10). Gauza oneitan pentsetan dodanean, azkenbakoan ondutzen da nire arimea, betiraunaren ertza ikutu dodala jadanik iduritzen jat... Jesusen besarkada artzen dodala dirudit... Neure zeruko Ama dakusdala uste dot, neure gurasoakaz bidera datorkidala, eta neure lau aingurutxoak... Uste dot, azken baten, gozatzan dodala onezkero betiko famili bizitza, egizegiaz betiereko bizitza...

Laster doa Maria

Zeruko *Guraso-sukaldean* sendia alkarturik ikusi baiño leen, banaketa asko sufridu bearko nebazan

oindiño. Mariaren alaba lez artu ninduen urtean, berak eroan eustan neure Maria lastana, neure arimearen euspen bakarra.

Maria zan zuzentzen ninduna, poztu ta birtute-lanean laguntzen eustana; bera zan nire kateamilla bakarra. Nire biotzean, ziurrik asko Paulinak artzen eban oindiño be lenengo lekua, baiña Paulina urrin egoan, nigandik urruti... Askok be asko sufridu bear izan neban bera barik bizi izatera egin orduko, aren eta nire artean orma ezin igaroetara egiña; baiña, azkenez, egi goibela onartzera egiña nintzan: galdua neban Paulina, ia bera illa ba'litiz legez. Arek maite nindun oraindik, otoitz egian nire alde, baiña nire begietan, nire Paulina lastana santa bat egiña zan, ez ebazan onezkero lurreko gauzak ulertzen. Bere Teresa gaixoaren mixeriak arriturik itxiko eben eta, ezagutu ba leuz, galazo egingo eutsoen bera maitatzen jarraitzea... Gaiñera, Buissonets'etan bezela nik neure pentsamentuak ari adierazo naita be, iztokia Mariarentzat zalako bakar-bakarrik. Zelina ta niri, *azkenerte*, ez jakun izten an sartzen, unetxo baten *ozt-oztan* biotz estuz alkar ikusteko... Egiaz, bada, ikusteko ez neukan Maria baiño; naitanaiezkkoa jatan bera; berari ezik ez neutsozan neure kezkak autortzen eta esan-esanekoa nai nintzan, nire autor-entzuleakez eban jakin egundo be gaitz tristea. Mariak baimendulako pekatuak numerua bakar-bakarrik esaten neutson, bat bera bere ez geiago; orrela arima kezkaz betea izan arren, munduan zanik eta olako bakoentzat, eritxiz beintzat, igaro neinkean... Mariak ekian, ba, nire ariman jazoten zan guztia; baita ezagutzen eban nik karmeldar izateko neukan gogoa be, eta benenetan maite nebalako ezin ni berak bizi.

Oporrak itxas-ertzean

Izekoak egun batzuk beragaz Trouville'n igarotera dei egiten euskun, txandaka. Oso atsegin jatan ara joatea, baiña Maria'gaz! Beragaz ez nengoanean, polito aspertu oi nintzan. Bein, alan be, ondo igaro neban Trouville'n. Aitak Konstantinopla'ra joan-etorria egin eban urtean izan zan. Pizkat alaitzearren (Aita urrin zalako naigabez gengoan zan-eta), Mariak bialdu ginduzan, Zelina ta biok, amabost egun itxas-ertzean emotera. Ondo joiazan egunak, Zelina'gaz nengolako. Izekok al ebazan alai-bide danak egokitzan euskuzan: ibillaldian asto-gaiñ, arraintxoak arrapatzea, eta abar. Ni neskatoegi nintzan oraindik, amabi urte t'erdi neukazanarren. Gogoratzen naz, ni bai pozik zeru-urdirn margozko zintak neure izekok neure uleetarako emonak ipiñi nebazanean; gogoratzen naz, baita, Trouville'n autortu nebala pekatu iruditzen aur-atsegin ori... Gau baten arritu nindun experientzi bat egin neban.

Ia beti gaixorik egoan Maria Guerin'ek, sarri-samar negar-ziñuka ziarduan; nire izekok orduan loxingak egiten eutsozan, nire lobatxoari berbetik samurrenakesanaz, buruko miña eukala-ta oraindik kexaz. Ni, alan be, ia egunero, buruko miñaz egon arren, ez nintzan estutzen, baiña gau baten Maria'ren antzera negar egin nai izan neban. Negarziñuka asi nintzan, aulki baten jarririk, aretoko baztar baten. Juana ta nire izeko bat-batean etorri jatazan ondora, zer neukan itanduz. Nik Maria'ren antzean erantzun neban: "Buruko miña daukat". Ez nekian antza kejazkoa egiten; iñoiz be ez neutsen buruan sartu al izan, niri negar eragiten eustana, buruko miña zanik. Lo-

xingatu bearrean, pertsona aundi bati lez berba egin eustan, eta asarre egin eustan neure izekoa-gan konfiantzarik ez neukalako, berak uste eban ba kontzientziko kezka-re bat-gaitik zala..., azken batean, itxi neban antz-artze ori eta aurrerantzean ez nintzan besteenik egin naiez ibilliko, "astoaren eta txakurtxoaren" alegia ulertuz. *Ni nintzan astoa, txakurtxoari* egiten eutsoezan leunketak ikusirik, mai-gaiñean ipiñi eban bere anka astuna bere txera pusketa artzeko; baiña, ail, abere gaixo aren antzera egurrik artu ez ba neban be, artu neban neure ordaiña, bai, eta ordain orrek bizitza guztira osatu ninduan, geiago izan ez nengian nabarmentzeko gogorik; ortarako egin neban alegin bakarrek garesti urten eustan!...

Urrengo urtean, neure amabitxi laztana joan zan urtean, barriro dei egin eustan nire izekoak, baiña oraingoan bakarrik. Oso desleitura aurkitu nintzan, eta bi edo iru egun barru, gaixotu egin nintzan eta Lisieux'era eroan bear izan ninduen. Aundia zala uste eben nire gaixotasuna etzan besterik Buissonets'eko etxe-miña baiño. Oiñak an ipiñiaz bakarrik, osatu nintzan. Eta neskato kendu bear eutson Jainkoak bizitzari lotzen eutson euspen bakarra!...

Maria'ren asmoa jakin nebaneko, lurrean iñori be neure burua ez lotzeko erabagia artu neban...

Teresa'ren bizitokia

Ikastetxetik urtetea, *Paulina*'ren antxinako ikas-egoitzean egokitu nintzan, neure erarajantzi-rik. Egiazko azoka bat zan, deboziño gela ta bitxilekua, baratza ta txori-tokia... Barren-barrean,

adibidez, nabarmen egoan orman zur baltzezko gurutz aundi bat, Kristo barik; atsegin jatazan marrazki batzuk; beste orma baten, zimera bat muselin-eunez eta larrosa kolorezko bedar eta lora joriz korapilloturik; a azkenez, Paulina´ren argazkia, amar urteko, geratzen zan orma guztia bakarrik artuz; argazki onen azpian mai bat eukan, onen gaiñean *kaiola aundi bat* eta *txori asko* barruan, onein zarata doiñutsuk zoratzen ebezan ikusten etozanak, baiña ez egiaz maite ebazan jaubetxoa... Ba eukan *atrapario zuri txiki* bat be, neure liburu, ingurrazti ta olakoz beterik... Atrapario orren gaiñean egoan Andra Mariaren irudi bat, beti lora barriz, eta kandelakaz orniduta egoana; inguruan santu ta askoren iruditxoak; maskorrez beterik zimera pitiñak, kartoi-kajak, eta abar... Azkenez, neure lilitegia, berton zaintzen nebazan lorontziak (aurkitu al izan nebazan lorarik bitxiennakaz) leio aurrean *jarten nebazan*. Ba-neukan baratz-zain bat be "neure museu" barruan, eta ortxe ipinten neban neure landararik kutunena... Leio ondoan neukan neure maia, oial berde bategaz estaldua, eta erdian kokatua, oial gaiñean, arezko erloju bat, Jose deunaren iruditxo bat, erloju-kutxa bat, lili-saskiak, tintontzi bat, eta abar. Jarleku *erren* batzuk eta Paulina´ren seaska zogarriak osotzen eben tresneria. Txapitulu errukarri au, egi-egiaz, mundu bat zan biretzat, eta, Maistre´k lez, liburu bat osotu neinkean titulu onekin: "Neure bizitoki inguruko ibiltegia". Eder jatan ementxe geratzea bakarrik ordu luzeetan, ikasten eta pentsatzen, eta neure begien aurrean edatzen zan ikuspegi ederra begiratzen...

Maria ba-joiala jakiñik, nire *bizitokiak* bere lillura guztia galdu eban niretzat. Ez neban bakarrik itxi nai izan, unetxo baten be, laster joan bear

eban aizta maitea... Zenbat pazientzi-egintza egin bear izan zituan neugaitik! Aren gela aurretik igaroten nintzan *bakotxean*, ots egin oi neutson atea edegi arte, eta biotz-biotzez besarkatzen neban; mosu-bilketak, olako barik aurkituko nintzan denpora guztirako. Berau Karmelo´n sartu baiño illa bete lenago Alenzon´era eroan nindun aitak, baiña lenengoaren aldean bestelakoa izan zan niretzat illuna ta garratza.

Bigarrenez Alenzon´era

Ez dakit zenbat negar egin neban amaxoren illobi gaiñean, aztu jatan-eta aziano txorta bat, berarentzat artua, bertara eroatea. Edozek naigabetzen nindun! Orain jazoten jatanetik bestera zan orduan, Jainkoak emon bai daust igarokor dan eze gaitik ez beeratzeko grazia. Joana gogora dakardanean, esker onez gaiñezka jarten jat ari-mea, goitik artu ditudan mesedeak ikusiz atan be. Niregan egin dan aldakuntzari esker, ezagutu eziña nago!... Gura nebana zan, ziur, "neure egitaden jaubetza osoa euki, euren menpeko barik euren etxeko-andra izan" (16). Kristo´ren Antz-Bidean datozan itzok barru-barru eragiten eusten; baiña neure gurariakaz, zelanbait esan, grazi taiutu-ezin au erosi egin bear neban. Neskato bat nintzan oindiño, zirudien bezintzat besteen naia baiño ez eukana; origaitik iñoen Alenzon´go pertsonak izatez nintzala makal...

Leoniak joan-etorri onetan egin eban bere saioa Klarisen konbentuan; atsekabetu nindun bere

(16) Kristaren Antz-Bidea, 2.gn liburua, 38, 1 atala.

sarrera *arrigarriak*, maite neban, ba, eta joan aurretik ezin izan neban besarkatu.

Ez jat egungo aztuko aitaxo gaixo onen ontasuna ta esturea Leoniak klarisa abitua jantzi ebala esatera etorri jakunean... Geure lez ari be arrigarri iruditen jakon au, baiña ez euskun ezer esan nai, Maria orren naigabetua ikusiz. Konbentura eroan ginduzan eta an lendik, monastegi bati buruz, egundo sentidu ez neban lakoxe *Aldigatxa* izan neban; onek Karmelok ez lakoxe ondorioa ekarstan, ak edozeri begira arimea zabal-azten bai eustan... Lekaimeak ikusteak be ez eustan pozik emon, eta ez nindun ezek zirikatu eurekaz geratzeko; Leonia gaixoa, barriz, zoraturik egoan bere abitu barriaz. *Bere begiak* ondo begiratzeko esan euskun, ez genduzala geiago ikusiko-ta (Klarisak ez dira agertzen begiak beian dabezala baiño); baiña Jainkoa pozik geratu zan illabiko opariaz eta Leoniak barriro erakutsi euskuzan bere *begi* urdiñak, sarri malkoz beteak...

Alenzon laga genduanean, nik pentsatu neban a klarisakaz geratuko zala, au zala-ta *Illargi-Erdiko* kaletik urrindu nintzan, biotza kikil. Aurrerantzean iru baiño ez giñean eta laster gure Maria laztanak be itxiko ginduzan...

Maria Karmel-konbentuan sartzen da

Urriaren 13 izan zan banaketa eguna! Buissonets'eko famili ugari alaitik etziran geratzen alaba bi txikienak baiño... Aitaren abitik iges egin eben usoak; geratu ziranak be egaz egin gurako eben areikaz, baiña onein egoak makalegiak ziran oindiño egara artzeko...

Jainkoak, guztietatik txiki ta aulena zanari dei egin nai eutson ezkerro, au bizkor ebillan bere egoak gaitu ta indartzen. Arek, bere ontasuna ta indarra erakustea eder jakonak, tresnarik gai-ezenak erabillirik, Zelina'ri baiño lenago niri ots egin nai izan eustan, mesede au Zelinak geiago merezi izan arren; Jesusek ba ekian, baiña, zein makal nintzan ni eta orixegaitik gorde nindun ni lenengo aitz-zuloan (Abest. 2, 14).

Teresa, bere barru-zimikoetatik osatua

Maria Karmel-komentuan sartu zanean, ni oraindik oso kezkatia nintzan eskrupuluz betea. Aurrerantzean agana ustez joan ezin neinkean ezkerro, zerura zuzendu nintzan. Ara gora nire aurretik joan ziran lau aingeruakana jo neban, dudak eta bildurra ezagutu ez eben arima erru bako oneik lurrean sufriduten eban euren arrebatxoaren errukia izango ebela uste nizanik. Umetxo antzera itz egiten neutsen, euren artean azkena oar-azoaz, beti izan nintzala maitatuena, losingatuena neure aizten artean; eurak lurrean geratu ba litzaz be, eurak be bardintsu maite izango ninduela... Eurak zerura joan izana ez jatan iruditzen errazoi bat nigaz aztuteko; bestera, jainkoazko ondasunak eskura eukirik, eurai guna atera ta *bakea* eratu bear leuskidela, orrela erakutsiz zeruan be ba.dakiela maitatzen!...

Laster etorri jatan erantzuna; laster etorri zan bakera nire arimea bere olatu zoragarriakaz gainezkatzen eta ulertu neban lurrean maitatua ba nintzan, zeruan be bardin nintzala... Ordutik gei-

tu egin zan nire eraspena neure nebatxo ta aizta-
txo oneingan, eta pozgarri jatan eurakaz sarri alai-
tzea, erbesteko paigabeak gogor ekarri... eta eura-
kaz Aberrian laster alkartzeko gogoa erakutsiz!...

V ATALA

GABONETAKO BIURPENA BAYEUX'ERA JOAN-ETORRIA

Zeruak graziz asetzen ba nindun, etzan nik ola-
korik merezi nebalako oso utsa nintzalako; birtute-
rako, egia da, gogo bizia neukan, eta modu bereziz
atundu oi nintzan ortarako. Ona emen erakus-
puntu bat: Sendian azkena nintzalako, ez nengoan
oituta gauzak neurez egitera. Zelina 'k apaintzen
eban biok lo egiten genduan gelea, eta nik ez
neban etxeko lanik txikienean be eskurik jarten.
Maria Karmelo 'n sartu zanean, bein eta barriz,
Jainkoari eder izatearren, oia egin edo-ta, Zelina
kanpotik zanean, illun-abarrez lorontziak barrura
sartzen saiatu oi nintzan. Esan dodanez, Jainkoa-
rren soil-soilki egiten neban au, eta ez neban beraz
izakien esker onik itxaron bear. Ail, alan be bestera
jazoten zan; Zelinak erakusten ez ba eustan arri-
mena neure zerbitzu pitiñakaitik, ez nengoan pozik,
eta neure negar-anpuluz erakutsi oi neutson...
Gogaikarria nintzan egi-egiaz, neure sentikorta-
sun geiegia zala-ta. Olan, maite neban pertsona bat
nai-ezta naigabetzen ba'neban, neure buruaz
nausitu ta *negarrik ez egin* bearrean, onek nire utsa
ez meetu aunditu baiño, Magdalena batek lez ne-
gar egiten neban, eta apur bat baretzan nin-
tzanean, negarrez, *negar egin* oi neban *negar egin*
nebaleko... Alperrik ziran errazoiketa guztiak eta
ez neban jadesten akats itsusi ori kentzea.

Ez dakit zelan indar-azo neinkean Karmel ilusiñoa, *aurtzaroko zapietan* nengoala oraindik!... Jainkoaren mirari txiki bat bear zan, beingo baten ni azi-azteko, eta mirari ori egin eban Gabon-Gabeko egun aitzu-eziñean. Gau argitsu onetan, Irutasun Santuaren atsegiñak dizdizka jarten diranean, Jesus, Umetxo eztiak, aldatu eban bertatik nire arimea gau zana argizko uiol biurturik... Bera neure maitasunarren aul eta minkor egin zan gau onetan, *sendo* ta kementsu egin nindun ni, bere armaz jantzi ninduan eta gau zoriontsu ontatik ez nintzan garaitua izan burrukaldi baten be; bestera baiño, garaipenez garaipen joan nintzan, eta asi neban, zelanbait esan, *erraldoi-karrera!*... (Sal. 18, 5). Itsu geratu zan nire malko-iturria eta aurreran-tzean bein edo bein ezikez eban emongo, eta neke aundiz, olako urik; olan, errazoia euken au esaten ebenak: "Ainbat negar dagizu umetan, geroago ez bait dozu malkorik jario bearko!..."

Biurpena

1886´ko abenduaren 25´ta izan zan umezarotik urtetako grazia artu nebana; berba baten, neure biurpen osoaren grazia. Gau-erdiko mezatik gentozan, bertan euki neban nik Jainko *sendo ta altsua* artzeko zoriona. Buissonets´era eldu giñean, pozgarri jatan tximinian naukazan zapatak artzera joatera. Antxiñako oitura onek ainbat pozaldi ekarri euskuzan ume gintzazala, Zelina´k, ni gazteena nintzalako antza, umetxo bat lez artuz jarraitu nai izan eban ni... Poz-eztitan egoan gure aita, nire pozkario oiua entzunik eta banan-banan *nire zapata birloratutik* aterarik ustekabeka etozan zerak. Nire errege laztanaren zoriontasunak oin-diño geiago aunditzen eban nirea; baiña Jesus´ek,

umezaroko akatsetatik ni askatzea nai ebala adierazo gurarik, kendu eustazan baita bere poztasun lauak; berak nai izan eban, aitak, gau-erdiko mezatari nekaturik, gogaikarri izan jakon nire zapatak tximinian ikustea eta biotza zearkatu eustan berbok esatea: "Azkenez be, Jainkoari eskerrak, azkenengo urtea da"... Mailletan gora igon neban neure kapelea izteko. Zelina´k ba-ekian zein sentikorra nintzan eta negar anpuluak ikusiz nire begietan ñirñirka, negar-gura zan bera be, asko maite bai nindun eta ulertzen eban nire atsekabea: "Oi, Teresa!", esan eustan, "ez zaitez jatsi, zeure zapatak bereala ikusteak naigabe geiegi ekarriko leuskizu". Teresa, baiña, orain etzan lengoa. Jesus´ek jada aldatu egin eutson biotza!

Anpuluak eukiz, bereala jatsi nintzan bera eta neure biotz-taupada eutsiz, neure zapatak artu ta aitaren aurrean ipiñirik, atera nebazan poz-pozik bertan egozan gauza guztiak, erregiña bat baizen alai. Barre egian aitak, bera be ba pozik jarri zan eta Zelina´k amesetan egoalakoan!... Zorionez, egia bera zan, Teresatxok barriro aurkitu eban lau urte t´erdiko zala galdu eban gogo-sendotasuna, eta onezkero beti iraun-azoko ebana!...

Argi-gau onetan asi zan nire bizitzako irugarren aroa, danetatik ederrena, zeruko graziaz be-teena... Beingoan egin eban Jesus´ek nik amar urtean burutu ezin izan nebana, nire *nai onagaz* naiko izanik, iñoiz be falta izan ez jatana nunbait. Bere apostoluak lez nik be esan neinkean: "Jauna, gau osoan lan egin arren, ez dogu ezer artu" (Lk. 5, 5). Jesusék, nigaz apostoluakaz baiño be errukitsuago, *berak artu eban* sarea, bota ta arraiñez beterik eskuratu eban... Arima arrantzale bat egin nindun ni. Gogo bizi-bizia sentidu neban

arimen onez alan egiteko, pekatarien onerako batez be, lendikain bizi sentidu ez neban guraria... Sentidu neban, labur esanda, goi-maitasuna sartzen jatala biotzean; neure buruaz aztu bearra neukala besteai atsegin izateko, eta geroztik doatsu izan nintzan!...

Domeka baten, Gure Jauna Gurutzan antzeztuten eban argazki bat begiratzean, bere jainkozko esku batetik erion odolak eragin eustan. Errukiz bete nindun, odol ori iñor be jasoten alegindu barik lurrera jausten zala uste izanik. Espirituz gurutz ondoan egotea erabagi neban, bertatik jausten zan jainkozko iruntza artzeko, gero berau arimai banandu bearko neutsela ulerturik... Jesus'en gurutzeko garrasia durunduz neukan atertu barik neure biotzean: "Egarri nazi!" (Jn. 19, 28). Itz oneik ixiotzen eusten barnean su bizi ta ez ezagun bat. Edaten emon nai neutson neure Maiteari eta neu be *arimen egarriz* sustatua senti du nintzan... Etziran oindiño abadeen arimak erakarten ninduenak, *pekatari aundienak* baiño; bizi-bizi opa neban betiko sutatik areik ateratea...

Pranzini

Neure goi-garra sustatzearren, Jainkoak erakutsi eustan atsegin jakozala nire gurariak. Gaizkin izugarri batez berba egiten entzun neban, dongakeri aundiakaitik eriotzara epaitua izan zana. Ilxura zanez damutu barik ilgo zan. Danez gaiñetik nai izan neban a infernura ez joatea. Ori lortzeko iruditu daitekezan bide guztiak erabilli nebazan. Neurez bakar ezin nebala ezer jakiñik, Jainkoari eskiñi neutsozan Gure Jaunaren merezimentu azken-bakoak, Eleiz-Ama Deunaren ondasunak;

Zelina'ri eskatu neutson agindu egiala meza bat neure asmoz esateko, ez nintzan ba ausartzen neure izenean eskatzen, Pranzini, gaizkille aundiagaitik zala esateko bildurrez. Zelina'ri be ez neutson esan nai; baiña itaun samur eta ekin-estuak egin eustazan lez, iragarri neutson azkenez neure ixilla; barre egin ordez, lagunduko eustala eskatu eustan neure pekataria bide oneratzen. Benetan eskertu neutson bere naia, orduan bada nai izango neban izaki guztiak neugaz izatea errudunaren parkamena leia baten eskatzen. *Ziurtzat* neukan neure biotz-ondoan gure gurariak entzunik izango zirala; baiña, pekatarien alde otoitzean jarraitzeko bizkortu nendin, seguru nengoala esan neutson Jainkoari parkatuko eutsola Pranzini gizagaixoari; eta nik olan uste izango nebala, baita autoritzen ez ba'zan be, *damuzko ezaugarririk* emon ezta be; konfiantza oso-oso neukan Jesus'en erruki mugabagean, baiña soil-soil eskatzen neutson damuzko "*ezaugarri bat*", neure poztasunerako... Oso-osoa bete zan nire otoitza!

Eguneroko bat bera be irakurtea aitik galazo euskun arren, ez neban uste aren esana austen nebanik Pranzini'ren barriak ekazan orriak irakurriaz. Illa izan zan urrengo egunean artzen dot "*La Croix*". Zabaltzen dot ito-itoka eta zer dakust?... O!, nire malkoak salatu eben nire barru-eragiña eta gorde egin bear izan neban neure burua... Pranzini etzan autortu, urkamendira igon eta burua zulo baltzetik igaroteko gertu egoala, bat-batez goi-argi batek jota biurtu, apaizak urreratzen dautson *Gurutzea* artu, eta *iru bider mosukatzen ditu zauri doneak!*... Gero, aren arimea, poz aundia goa izango da zeruan, damu-bearrrik ez 99-gaitik, baiño damutu daiten pekatari bategaitik! (Lk. 15, 7) esan ebanaren epai errukitsua artzen joan zan.

Jadetsia neban eskatutako "ezaugarria" eta ezaugarri au pekatarien alde otoitz egiteko ni bizkortu nendin Jesus'ek egin eustazan doe ta grazien antz-alda zintzoa zan. Leen ez ete ziran izan *Jesus'en zauriak*, bere jainkozko odola ixurtzen ikusiz, nire biotzean arimen egarria sartu zanekoa? Edaten emon nai neutsen euren mixerietatik garbitu bear ebazan *odol garbi-garbia* au, eta *nire lenengo semearen* ezpanak joan ziran zauri donetsi orrein gain jartera!... O erantzun esan-eziñezkoa!... Al, grazi txit berezi onen ondoren, egunetik egunera azi jatan arimak zeruratzeko guraria. Jesus'ek samaritar emakumeari esana entzuten dodala deritxat: "Emoidazu edaten!" (Jn. 4, 7). Egiatzko maite-trukea zan; arimai emotsen Jesus'en *odola*; Jesus'i eskintzen eutsozan arima oneik eurok *bere jainkozko* iruntzez ozkirrituta; olan uste neban nik arein egarria arintzea ta zenbat geiago *edaten* emon, geiago azten zan nire arima gaixoaren egarria eta egarri bizi auxe zan. Berak emona, bere maitasun edari atsegingarriena...

Giza-zientzia ta Jainko-zientzia

Epe laburrean ni ateraten jakin eban Jainkoak, bira ta bira zelan urten ez nekiala nenbillen inguru estutik. Ibilli-eragin eustan bideari begiratz, aundia da nire esker ona; baiña au be gogotan artu bearra dago; oinkada gatxena emona ba dago be, oindiño gauza asko geratzen zirala gainditu barik. Kezketatik aske onezkero, bere sentikortasun geiegitik, garatz joian nire espiritua. Aundia, ederra maite izan eban aldioro, eta aldikada ontan *jakiteko* gogo ezin-aseak jo nindun. Ez jatan naikoa neure maistreak ipinten eustazan ikasgai ta eginbearrakaz, eta bakarrik nifiarduan ikasten, batez be *edestia*

eta *zientzia*. Beste gaiak ez eusten ardurarik emoten, baiña ikasgai bi oneik nire zer guztia ekarren. Olan, epe laburrean, neure ikas-urteetan baiño ezagutza geiago lortu neban.

Al, espirituarentzat etzan besterik uskeria ta naigabea (Qo, 2, 11). Kristoren Antz-Bideko *zientziaz* diarduan atala (17) sarri etorkidan pentsamentura, baiña alan be laster aurkitzen neban aurrera jarraitzeko errazoa, ikast-arroan nengoala ta ez ebala kalterik egiten neure buruari esanaz. Ez dot uste Jainkoa iraindu nebanik (ezagutzen dodan arren, onetan alperreko denporea urtu nebala), ez nebazan ontan emoten ba ordu batzuk baiño; ez neban larregira jo, neure jakin-gurea ilduratzeko... Sasoirik arriskutsuenean nengoan gazte batentzat; baiña Jainkoak egin eban nigaz Ezekiel'ek bere iragarkietan diñoana: "Neure ondotik igarotean, Jesus'ek ikusi eban *ni maitatzeko* garaia eldu zala, alkartea nigaz egin eta *berea* izan nintzan... Bere soingaiñezkoz estaldu nindun, usain gozoz igurtzi, jantzi guruz ornidu, balio aundiko samestunak eta bitxiak emonik... Urun utsez janaritu nindun, eztiz eta orio *ugariz*... Ederegin naz geroztik Aren begietan, Berak egin nau ni erregiña aaltsu!... (Ez. 16, 8-16).

Bai, guzti ori egin dau Jesus'ek neugaitik. Aitatu ditudan berba guztiak, banan-banan, artu neikez eta ikusi zelan bete diran, danak bete be, zeatzmeatz nigan; itz-egingo dot bakar-bakarrik "ugari"eralgi dauan janariaz. Aspalditik janaritzen nindun "urun utsez", Kristoren Antz-Bideak daukanez; auxe zan niri on egiten eustan liburu bakarra, ez nekizan ba oraindik Ebanjelioetan

(17) Kristoren Autz-Biden, 3.gn liburua, 48 atala.

gorderik dagozan ondasunak. Buruz nekizan neure Antz-bide maitearen ia atal guztiak, liburu txiki ori egundo be izten ez nebana. Udan neure ziskuan eroan oi neban, neguan maukerdian; itxi-eziña jatan. Izekoren etxean jolasgarri jatan oso. Nun urtengo edegi eta aurrean neukan ataltxo buruz esateko eskatzen eusten. 14 urtekin, neure jakin-guraz. Ondo eritxon Jainkoari bear zala, oindiño, "urun utsari", "eztia ta orioa ugari be". Ezti eta orio au Arminjon abataren itzaldiak eskuratu eusten, "*oraingo munduaren azkena eta geroko bizitaren ezkutua*" gaiari buruz. Nire karmeldar maiteak aitari itxi eutsoen liburu au irakurteko; olan neure oituraz beste (nik ez neban aitaren libururik irakurten) baimena eskatu neutson au irakurteko.

Irakurte au be, neure bizitzako grazi aundinetariko bat izan zan. Neure ikas-gelako leio ondoan irakurri neban eta barruan itxi eustan zauskada esateko baiño barrukoi ta gozoegia jat.

Erlejiñoko egi aundiak, geroko bizitzako misterioak, murgildurik izten eusten arimea lurrekoa etzan zorionean... Zanak emoten eustan dagoneko Jainkoak maite dabenentzat daukana (ez giza-begiz gero, biotzekoaz baiño) (1 Kor. 2, 9), eta betiko sariak ez daukela zer-ikusirik bizi-opari pitiñakaz ikusiz (Err. 8, 18), nik *maiatu* gura neban, *Jesus maite* izan gartsu, al nebanez milla maite-agiri emon... Itz asko kopiaitu maitasun oso ta Jainkoak bere autatuai Jainkoa berbera sari aundi ta betikoa izango jaken momentuko arrera. Asper-tu barik bir-esaten nitun nire biotza ixetu eben maitesunezko berbak...

Teresa eta Zelina, biotzeko aitzak

Zelina, nire pentsamentuen ixil-barne egiña zan. Gabonak ezkerok alkar ulertzekoak gintzazan; adin-alderik ez egoan onezkero, luze-laburrean azia nintzan, eta batez be grazian... Aro au baiño baiño leen, penaz nengoa sarri Zelina'ren ixillak ezagutzen ez nebazalako; oso txikia nintzala esaten eustan berak, "aulki baten parera" eldu bearra neukala, berak nigan konfiantza izateko... Atsegin jatan aulki txairo orren gaiñera igotea, bere alboan nengoala, eta zentzunez berba egiten neutsan; baiña alperrekoak ziran nire maiñak, aldea egoan oindiño bion artean!...

Jesus'ek, guk biok batera aurrera egitea nai izanik, odolaren lokiz baiño gogorragoz alkartu ebazan gure biotzak. *Biotzeko aitzak* egin ginduzan. Gudan osotu ziran Gurutzeko Juan Deunaren *Maite-kantako* itzok (emazteak senarrari esanetan):

Zure lorratz atzetik
bidean dabilta neska gazteak,
txinpartak ikututa,
ardao onduaz txerbel
Jainko-lurrunetan bizkor barneak (18).

Bai, leiatsu jarraitzen ditugu Jesus'en oiñatzak; Berak esku-beteka gure arimetan ereiten zituan maite-txinpartak; ardao atsegintsu ta sendoa, edaten emon oi euskuna; gure begien aur ean desager-tzen zituan iraizeko gauzak eta gure ezpanetatik erneten Berak bizt-azoten euskuzan maitasunezko arnas-artzeak.

(18) *Gurutzeko Juan Deuna, Maite-kanta, 25 aapaldia.*

Begitu-lekuan gabero geunkazan autuak bai zirala samurrak Begiradea urrunean murgil, begira genkargun itargi zuria zelan joian gorantz, astiro-astiro, zugatz aundien ostetik...; izadi lokartuaren gain ixurtzen zituan zidarrezko dizdizak... izar distirantak ñirñirka zeru sakon urdiñean... gau-aizeñoaren bafada neia, laiño zuriak kulunkan jarritz; guzti onek gure arimak zerurantz jasoten zituan, oindiño "gibelalde aratza" besterik ikuska-ten ez geuntson zeru ederra...

Ez dakit oker nagoan, baiña uste dot gure ari-men jarioa Santa Monikak bere semeagaz izan ebanaren antzekoa zala Ostia'ko portuan konorte barik geratzen zanean Egilleak sortutako gauza arrigarriak ikusiz... Uste dot goi-goiko graziak artu genduzala, santu aundiai emondakoen antzekoak. *Antz-Bideak* diñoanez, Jainkoa batzutan emon oi da dizdiz izugarri artean, beste batzutan "gozaro ezaugarri ta irudiakaz" (19). Orrelaxe agertzen zan A gure arimetara, baiña zein leun gardena zan Jesus gure begietatik estaltzen eban zapia!... Ez egoan ezpairik, onezkero etziran bearrezko fedea ta itxaropena, maitasunak izten euskun lurrean billatzen genduna aurkitzen. "Bakarrik aurkituz, mosutu ginduzan, *aurrerantzean inok be ez gindu-kez ezetsiko* (Zt. 8, 13).

Sarri Jaunartzen

Grazi ain aundiak ez ziran frutu barik geratu-ko. Oneik be ugariak izan ziran. Birtute-jarduna errez eta berezko egin jakun. Lenengotan, nire be-tarteak salatzen eban burrukea, baiña apurka apurka

(19) *Kristo'ren autz- Bidea, 3.gn liburua, 45, 4 atala.*

ostendu zan zirriada ori eta ukapena errez egin jatan lenengo unetik Jesus'ek esan eban: "Dauka-nari geiago emongo jako eta ugaritasunean igeri egingo" (Mt. 13, 12). Leialki artutako grazi bat-gaitik, beste asko emoten jatazan... Berbera emo-ten jatan Jaunartzean, ni itxaroten ausartzen nint-zan baiño sarriago... Legetzat lez arturik neukan neure autor-entzuleak izten eustazan Jaunartzeak egiteko oitura, bat bera be laga barik, baiña berak esaten eustan bestetan, nik geiago iñoiz be eskatu barik. Garai ontan ez neukan orain daukadan *ausartzia*, bestelan be beste modu batera jokatuko neban; nik uste dot, izan be, arima batek bere autor-entzuleari adierazo bear dautsola Jauna artzeko daukan guraria; A ez da egunero zerutik jasten, kopoian geratzeko, beste zeru bat, lenen-goia baiño askozaz be maiteago dauan beste zeru bat aurkitzeko baiño; geure arimako zerua, bere irudira egiña, Irutasun gurgarriaren jauretxe bi-zia.

Neure naia ta neure biotzaren asmo zuzena ikusten eban Jesus'ek, gura izan eban, maitetzi-llaren barruan, autor-entzuleak ni astean lau bi-der Jaunartzen iztea eta, illabete eder au igarota-koan, bostgarren bat geitu eutson jai bat osoatzen zan bakotxean. Negar-malko gozoak erioen nire begiai autortegitik urteten nintzanean; Jesus ber-bera zala begitanduten jatan niri emon nairik ebillena, oso labur egoten bai nintzan autortegian eta ez neban iñoiz neure barruko sentimenturik iragarri. Nenbillen bidea zuzena ta argia bait zan, ez neban bear Jesus ez beste gidarik... Arima-zuzentzailleak ispillu kirmen jatazan niri, arime-tan Jesus diztiratzen ebenak, eta esan oi neban, neure barrurako, Jainkoak ez ebala bitartekorik erabilten, zuzenean jokatuta baiño.

Baratz-zaiñak frutu bat arduraz bete ta sasoi aurretik umotzea nai dauanean, ez da zugatzetik dingilizka izteko, mai guri-guri atondu baten gainean jarteko baiño. Asmo bardiñagaz Jesus'ek be bere graziz bete eroian loratzea... Bere bizitz ilko-rreko egunetan, pozez zoratua, esan ebanak. "Aita, eskerrak Zuri, gauzok jakitunai eta zuurrai estaldū ta txikitxoai agertu dautsezuzalako" (Mt. 11, 25), bere errukia dizdirazo nai izan eban niregan; ni txikia ta makala nintzalako. Bera jasten zan niganuntz; ixillik eskolatzen nindun bere *maita-sun-gaietaz*. A! euren bizia ikasten egin daben jakitunak, niri itaunka etorri ba'litaz, arriturik geldituko ziran amalau urteko neskato bat ikusiz osotasunezko ezkutuak ulertzen, euren jakituriak ezin iragarri dautsezan ezkutuak nunbait, orreik eukitea gogoz txiroak izan bear dalako!...

Juan Gurutzekoak, bere *Maite-kantan*, diñoa-nez:

Ez argi ez gidaririk,
biotza sutan eukana ezik.
Gau onek zuzentzen nindun
eguerdi-argiak baiño be obeki,
jakin bere nik ederki
ba nekian Arengana (20).

Karmeldegirako deia

Karmeldegia zan toki ori; baiña "nik maite neban Aren kerizpean atsedendu aurretik", (Abest. 2, 3), proba askoz igaro bearra neban. Baiña Jain-

koaren deia premiña premiñazko zan ezkerro, *su-garretik igaro bearra* izan ba neu be, egingo neban Jesus'egaz zintzo izatearren. Neure goi-bidean bizkortzeko, *arima bat bakarra* aurkitu neban, *neure Ama maitearena*... Nire biotzak arenean oiartzun leiala idoro eban eta beronen laguntza barik ez nintzan elduko bost urte lenago bera zeru-intzez bustitako lur gainean artu eban ur-ertz onetsiara... Bai, bost urte ziran zugandik, *Ama maite*, banandu nintzala. Galdu zindudazala uste neban, baiña proba-unean zeure eskua izan zan jarraitu bear neban bidea erakutsi eustana... Poz ori bear neban, Karmeldegiko iztokiko alkar-izketak gero ta penagarriagoak egiten jatazan-eta; neure guraria ezin aiatu, moja sartzekoa, norbait ezezko euki barik. Mariari eritxon gazteegia nintzala eta alegin guztia egian nire sarrera galazoteko. Zeuk be, ene Ama, ni aztertu naiez, alesiñak egin zinduzan iñoiz ni baketu nendin. Beraz, benetako bokaziño-rik euki ez ba neu, lenengotik atzeratuko nintzan, Jesus'en deiari erantzun gura neutson baizen arin eragozpenak aurkitzen nebazan. Zelina'ri ez neutson iragarri nai izan ain gazte Karmelo'n sartzeko neure guraria, eta geiago naigabetzen nindun orrek, ari ezertxo be ixiltzea gogor be gogor jatan-eta... Atsekabe onek ez eustan luzaro iraun. Laster izan eban nire aizatxoz laztanak nire asmoaren barri eta niri neukan asmoa burutik kentzen ibilli bearrean, sen txalogarritz onartu eban Jainkoak eskatzen eutson buru-ukapena. Aren ukapenaren aunditasuna ulertzeko, noraiñokoa zan gu bion alkartasuna ezagutu bear da... Arima bat bera zan, zelan edo alan esateko, gu alkartzen ginduzana, bizia emonik. Ilabete batzuk zirane-tik, alkarrekin gozatzen genduan neska gazte batzuk amestu daikeen baizen bizitzarik gozoena; dana,

(20) *Guurutzeko Juan Deuna, Arimaren Gau alluna, 3-4 aalpal-diak.*

gure ingurumari, geure atsegiñetan joian askatasun aundiz genbiltzan; itz baten, nik esan oi neban gure bizitza *zoriona bera* zala, eta au askatasun osoz itxi egin bear genduala, eta nire Zelina kutunak etzan bape asarratu.

Kejaz egon daitekean bera be, Jesus'ek berari dei ez eutsolako aurren... Dei bardiña izanik berak joan bear eban lenengo!... Baiña martirien denporan lez, espetxean gelditzen ziranak euren anaia bakezko mosua poz-pozik emoten, arean burrukatzera lenengo joiazanai eta alaitu oi ziran, bear bada, eurak liskar gogorragoak eukiko ebeza la pentsaurik. Zelinak be era berean pozik itxi eban TERESA eta bakarrik geratu zan burruka gogor aintzatsurako, bere maitasunaren bitxi autatu legez Jesus'ek eroiana...

Teresak bere goi-deiaren barria, aitari iragarten

Zelina egin zan nire burruka ta sufrimentuen jakitun. Bere bokaziñoa lez artu eban nirea. Ez eukan onen kontrakoen bildurrik; ez ekian alan be zelan aitari esan... Zelan adierazo itxi egiala bere erregiña, orduko be iru nagusiak opetsi ebananari?... Al, zenbat barru-zauskada sufridu bear izan nituan ari esatera orduko!... baiña erabagi bearra neukan!... Amalau urte ta erdi beteko nitun. Sei illabete geratzen jatazan *Gabon* gaberako; nik orduantxe sartu nai neban, aurreko urtean "neure grazia" artu izan neban ordu-orduan. *Pentekoste* eguna aukerau neban neure ezkutu aundia ari esateko. Apostolu Santuai eskatu neutsen egun osoan neure alde eskatzeko, buruan jarri eidezala esan bear nebazan berbak... Eurok etziran bear bada neskato bildurri bati lagundu

bear eutsoenak, otoitzez eta ukapenez apostoluen apostolu Jainkoak aukeratutakoari ain zuzen be?...

Arratsaldean izan zan, bezperetatik gentozala, neure aita maiteari itz egiteko erea eskuratu jana. Potzu-aora joan nintzan jarten, eta antxe, eskuak alkar, izadiko arrigarriak ikusten nengoan; eguzkiak, bere izpiak orduko euren su-indarra motel, zugatz tantaen goiak urreztatzen ebazan, berton ziarduen oindiño kantari txoritxoak euren arrats-otoitza. Aitaren irudi ederrak zeru-itxuraz egoan; bakez aseta eukala biotza, iruditu jatan. tautik esateke, albora joan nintzakon jartera, begiak orduko negar-malkoz beteta. Samur-samur begiratu nindun eta neure burua arturik bere biotz-gaiñ jarri eban, au ziraustala: "Zer jazoten ete jako nire erregiñatxoari?... Esan...". Gero, bere biotz-eragiña gorde nairik jagi egin zan, eta ibiltan asi astiro, bere biotz-gaiñ eukala beti nire burua. Negar artean iragarri neutsan neure Karmelo'n sartu naia. Aren malkoak orduan neureakaz nastatu ziran; baiña ez eban itzik be esan neure bokaziñotik okertu neikeanik; oraindik oso gazte nintzala esan eustan erabagi ain astuna artzeko. baiña nik ondo eutsi neutson neure asmoari, eta gauza errez zuzena zan ezkerro, laster konturatu zan nire guraria Jainkoarena berarena zala eta, bere fede aundiaz, Jainkoak, berari alabak eskatuz ohore aundia egiten eutsola esan eustan. Luzaro ibilli giñan ara ta ona pasiatzen.

Nire biotza, aita bardingabeak ontasan gozoz artu ebazalako nire barru-ixillak, arindu ta poztua, atsegin aunditan aurkitzen zan bereaz. Aita, zirudianeaz, oparo beteak dakarren zorion baketsuan egoan. Santu batek lez berba egin eustan eta bere

itzak gogoratu nai neukez eurak emen idatzi dagidazan, baiña euretatik ez dot iraun-azo gomuta lar usaindu bat baiño, adierazo dagikedan.

Ondo be ondo gogoratzen dodana nire errege maiteak konturatu barik egin eban *sinboluzko* egintza au izan zan. Ain goi ez egoan orma baten albora urreraturik, *loratxo zuri* batzuk erakutsi eustazan, lirio pitin batzuen antzekoak, eta lora oneitatik bat arturik, emon eustan, Jainkoak zelako arduraz berau erneazo eta iraun-azo eban egun ortara arte, azaltzen eustala. Berari entzunaz, neure istoria entzuten nebala uste neban, antz-antzekoa bait zan Jesus'ek *loratxoagaz* eta *Teresatxogaz* egin-dakoa... Erreliki bat lez artu neban *loratxo* au eta konturatu nintzan, aita, berau artukeran, sustrai guztiakaz, bat be ausi barik, atara ebala; bizirik jarraitu bear ebala zirudian beste lurralde baten, bere lenengo goizaldeetan bizi izan zan baiño emokorrangoetan. Aita nigaz une batzuk lenago egiña bera zan, Karmel mendira igoten itxi, nik bizitza emon nitun len-oinkaden testigu zan ibar joriari agur egiñik.

Neure Antz-Bidean jarri neban neure *loratxo* zuria, onela iñoan ataltxoan; "Gauza guztien ganez Kristori izan bear dautsagun maitasuna dala-ta" (21), eta ortxe dago oraindik; gara ausi jako bakar-bakarrik suster ondolik. eta onekin Jainkoak adierazo nai daustala dirudit laster ausiko ditula bere *loratxoaren* lokiak eta ez dautsola lurrean zimeltzen itxiko.

(21) *Kristoren Autz-Bidea*, 2.gn liburua, 7 atala.

Isidoro Guerin'en jazarketa

Aitaren baietza lortu ondoren, uste izan neban ezeren bildur barik egaz egin nengiala Karmeldegira, baiña nire goi-deiak oindiño proba gorriak izango ebazan. Izu-izuz neure osabari iragarri neutson artutako erabagia. Asmatu leikezan txerasamurrak egin eustazan, baiña joateko baimenik ez eustan emon; bestera, 17 urte bete arte bokaziñorik aitatu be ez egiteko esan eustan. Giza-zuurtasunaren kontrakoa zan, iñoan berak, 15 urteko neskato bati Karmelo'n sartzen iztea. Karmeldar mojen bizitzea, munduaren begi-aurrean, filosofu baten bizi-modua zan, eta erlijioari zerbitzu txarra egitea litzakean experientzi bako neskato bati berton sartzen iztea... Mundu guztiak txarto ikusiko leuke, ta abar. Esan eustan baita, berak niri joaten izteko *mirari* bat bearko litzakela. Argi ikusi neban nire errazoiketa guztiak alperrik izango zirala, beraz alde egin neban andik biotz garratz urratua. Otoitza zan nire pozbide bakarra; egin egiala eskatzen neutson Jesus'i eskatzen zan *miraria*, orrelaxe bakar-bakarrik erantzun nengikidolako bere deiari.

Aldikada naiko luzea igaro zan neure osabari barriro itz-egiten ausartu nintzaneko. Gogor egiten jatan, oso gogor, bere etxera joatea. Bere aldetik, barriz, aztu zala emoten eban nire bokaziñoaz; baiña geroago jakin neban, nire atsekabeak aldeko frutua ekarri eustala. Itxaropenezko erraiñu batek nire erimea argitu baiño len, Jainkoak nai izan eban, nik *iru eguneko* martiritza gogor-gogorra niri bailtzea. O!, proba ontan baiño obeto ez dot iñoiz be ulertu Andra Mariaren eta San Jose'ren samintasuna, Ume Jesus'en billa... basamortu its baten aurkitzen nintzan, edo obeto, nire arimeak

lemazain bako itxas-ontxitxo bat zirudian, ekatxaren mende itxia... Ba dakit, lo egoan Jesus neure ontzítóan, baiña gaua illuna zalako ezin ikusi, ez egoan argirik arean be, tximista batek ez egian dizdizik odei baltz-illunak... Ziur asko, tximisten argia, argi trístea da; baiña, alan be, ekatxa lertu balitz bete-betean, Jesus ikusi neikéan une baten... Arimearen *gau* sakon illuna zan... Jesus lez ortuan bere il-egíñean, bakarrik nengoan poz-izpi barik ez lurrean ez zeruan, Jainkoak bertan beera itxi ninduala zirudian!... Izadiak parte artu ebala emoten eban nire garraztazun goibelean; iru egun onein barruan, eguzkiak ez eban itxi bere izpietatik bat be ikusten eta euri-jas ikaragarriak jausi ziran. (Konturatu naz, nere bizitza gorabera garra tzi-tsuetan, izadia beti zan neure arimearen irudia. Malkozko egunetan, zeruak negar egiten eban neugaz; pozezko egunetan, eguzkiak bere izpi alai guztiak bialtzen zituan eta zeru urdiña ez eban odei batek be illuntzen...).

Azkenez, laugarren egunea, larunbatez, zerue-tako Erregiña eztiari sagaraturiko eguna zala, neure osaba ikusten joan nintzan. Nire ez-ustekoa bai aundia begiratu ta bere lan-gelara eroan nindunean, nik eskatu be egin barik!... Agirakaz asijatan maitekiro, nik bildurra ba neutso legez. Gero esan eustan, ez egoala zetan *mirari* bat eskatu, Jainkoari eskatu eutsola lau-lau "mobidu egiola biotza" eta entzuna izan zala... Al, ez neban izan *Miraria* zetan eskaturik, *miraria* niretzat *eginda egoan onezkeró*. Nire osaba etzan lengoa. "Giza-zuurtasuna" aitatu be egin barik, *ni loratxo bat nintzala*, esan eustan, *Jainkoak artu nai ebana* eta bera etzala geiago orren aurka agertuko...

Azken erantzun au egi-egiaz zan berari egokio-

na. Beste denporetako kristiñau onek bere biotzeko alaba orde bati izten eutson mundutik urrin barrutzen. Nire osabak samur eta zuur jokatu eban. Neure proba bitartean ez dot uste berari buruzko barbarik aitatu nebanik; konturatzen nintzan Teresatxo gaixori eutson errukiaz; olan, osabaren baimena lortu nebanean, arek emon eustan berea, baiña nire joateak naigabetu egingo ebala adierazorik... Ai! Gure senidarteko maiteak ez ekian oindiño opari bardiña beste bi bider barriztu bearko ebenik... Baiña, eskatzeko eskua beti luzatu oi dauan Jainkoak, ez dauala utsik luzatzen; bere adiskiderik maiteenak idoro leikee bertan eta bear daben indarra ta kemena atara ugari be ugari... Neure istoritik urruti narioia bio-tzak; bertara biurtzen naz ia-ia alaz. Osabaren erantzun ondoren, zuk, Ama, ulertuko dozu zein pozik biurtu nintzan Buissonets'erako bide artzen, *zeru eder baten* azpian, odeiak oso-osorik urtuak ziran... Urtua zan baita nire arimako gaua. Jesus'ek, itxartzean, poztasuna biurtu eustan barriro, olatuen otsa baretua zan; probaren aizearen orde aizeño arin batek asetzen eban nire oiala ta uste neban beingoan elduko nintzala neugandik ur-ur ikusten neban ur-ertz bedeinkatura. Egon be neure ontzitik ur nengoan, baiña akatz bat baiño geiago narrastu bear neban eta bere argi-torre dizditsua ezkutatuz, andik, kaia sutsu be sutsu opa izanetik, itzulera barik, urrin arriskuz izutu.

Nagusiagaz eragozpenak

Neure osabaren baimena jadetsi ta egun batzuetara, zeu, ene Ama maite, ikusten joan nintzan eta neure poztasuna iragarri neutzun, nire

proba ta naigabe guztiak joanak ziran-eta. Baiña aundia izan zan nire naigabea, zuk esan zeustanean, Nagusiak ez ebalatzen nai ni sartzerik ogetabat urte bete arte... Iñok be ez eban uste onako aurkakorik, danetatik garaitu eziñena; alan be, bildurtu bage, neu joan nintzan aita ta Zelina'gaz gure Aita ikusten, ia au zuzitu ta geurera ekarten genduan, nire Karmelo'rako goi-deia zala argi erakutsirik. Guztiz otz artu ginduzan. Nire aita *bardinbakeak* egoki zala uste izan eban, bere erreguak nireakaz batzea. Ezek be ez eban aldatu al izan aren aria. Itxaron arren ez egoala arriskurik, esan eustan; eroan neinkela karmeldar bizitza etxean, gorpuzta zigortuz disziplina artu ezagaitik, ez egoala dana galduta... eta abar, eta ebar. Bera etzala Gotzain jaunaren ordezkoa baiño esanaz amaitu eban, eta ak izten ba eustan Karmelo'n sartzen, berak ez ebalatzen zer esanik izango... Negarrezko itxaso egiñik urten nintzan aren etxetik; aterkiak estaltzen nindun zorionez, euria upelka etorren-eta: Aitak ez ekian ni zelan poztu... Bayeux'era eroango nindula egindu eban eskatzen neutson baizen laster, *azkeneraño eltzeko* gertu negualako. Baita esan neban *Aita Santuagana* be joango nintzala, Gotzain jaunak Karmelo'n sartzen izten ez ba eustan amabost urtekin...

Gu Bayeux'era joan aurretik gauza asko ziran, Nire bizitzea, azaletik, bardiña zirudian; ikasi, marrazkiklaseak Zelina'gaz eta nire irakasleak ari oneko aurkitzen ninduan bere ikasgairako. Aurrea niñoian, batez be, Jainkoaren maitasunean; biotzean sentitzen nitun ordurarte ezagutzen ez nebazan zauskadak; noizik bein egiazko maitezorraldiak. Gau baten, Jesus'i bene-benetan maite nebala eta maitatua ta goretsia izan eitela toki guztietan zelan esan ez nekiala egonik, min aun-

dia nerabillen buruan inpernutik iñoiz be ez ebalatzen artuko maitasunezko egintza bat bakarra; orduan Jainkoari esan neutson, pozgarri izan ekion, onartuko neukela leku ortara egotzia izatea, beti-betiko *maitatua* izan zedin biraozko toki orretan... Ba-nekian onek ezingo eutsola aintzarik emon, geure zoriona besterik ez dau gura-ta; maitatzen danean, baiña, milla zorakeri esan bear izaten dira. Nik olan berba egiten ba neban be, etzan zeruak erakarten ez nindualako; zerua orduan niretza maitasuna baiño etzan eta barruan sentitzen neban, Paul deunak lez, erausi nindun Jainkoagandik ezek be ezingo nindula bereizi...

Umetxoan arimea

Mundua laga aurretik, Jainkoak umetxoan ari-mak urretik ikusteko poza emon eustan. Familiko txikiena nintzan lez, iñoiz be ez neban izan zorion au. Ona zelako jazoerak sortu eben ori niregan. Emakume gaixo bat, geure senidarteko baten neskamea il zan oindiño gazterik, iru ume oso txiki itxirik. Bera gaixorik egoan bitartean, neskatu biak geure etxean artu genduzan; nagusienak sei urte besterik ez eukazan. Eurakaz nengoa ni egun guztian eta atsegin jatan zein zindo siñisten eusten esan oi neutsen guztia. Naitaezkoa da Ba-teo santuak arimetan jarrea teologi-birtutezko azi oso sakona, eurok agertzen bait dira ume-umetatik eta geroke ondasunen itxaropena naikoa jake buru-ukapenak onartu al izateko. Neure alabatxo biak pozik euki nai izaten nebazanean ulertu neban, lilluratu leikezan jostaillu ta gogokiak eskiñi bearrean, itz-egin oi neutsen Ume Jesus'ek zeruan ume onai betiko sarietaz. Eurretatik aundienak, errazoa garatu-berri eukanak, pozezko begi

dizditsuakaz begiratzen ninduan, milla itaun zoragarri egiten eustazan Jesus umeari buruz, eta bere zeru ederrez, eta agintzen eustan bere arrebari men egingo eutsala beti. Nire esaten eustanez, "andereñoak" erakutsitakoa bere bizitza guztian ez ebala aztuko, iñoan...

Arima errubako oneik urretik ikusiaz, ulertzen neban, zelako zoritxarra zan eurentzat euren adimen-itxartzetik ondo ez aztea; emen daukagu euki be argizagi leuna, birtuteen sellua naiz txarrarena itsatsita itxi geinkena... Ulertu neban Jesus'ek Ebanjelioan esan ebana: "txikitxo oneitariko bati gaiztakeria erakutsi dagionak, obe leuke itxas-ondarrera jaurtia izatea" (Mt. 18, 6). Al, zenbat arima elduko ziran santutasunera, ondo zuzenduak izan ba litzaz!...

Ba-dakit, Jainkoak ez dau iñor be bear bere egiña burutzeko, baiña baratz-zain trebe bati indarra damotsan lez landara bitxi ta samurrak jagoteko, ortaz bear dauan jakituria emonik, naiz-ta Beretzat gorde eurak ernemintzeko ardurea, Jesus'ek be olantxe gura dau, guk Berari laguntzea, arimen Jainkozko lanean.

Zer gertatuko litzake baratz-zain trakets batek landarak ondo iñausiko ez ba litu? Bakotxaren izaera ezagutu barik, mertxikondo batetik larrosak atara nai ba leuz?... Zugatza il-azoko leuke, beste aldetik ona ta frutu onak ekarteko gai zana.

Ume-arotik jakin bear da ezagutzen Jainkoak zer eskatzen dautsen arimai, aren graziaren eragiñari gero lagundu al izateko, egundo be ez aurretatu ez berari galgarik ipiñi bage.

Txoritxoak gurasoai entzunez ikasi oi daben

bezela abesten, umetxoak be antzean ikasten dabe birtute-zientzia, Jainko-maitasunaren kantu eder-ederra, eurak bizitzan eratuten arduraten diran arimen ondoan.

Kanario eta papo-gorria

Gogoratzen naz: kanario bat neukan neure txorien artean zoragarriro abesten ebana, eta baita papo-gorri bat be, ama batek lez zaintzen nebana, aske izan aurretik kaiolatua. Giltzapetu gaixo onek ez eukan gurasorik abesten erakutsi egioenik, baiña goizetik gabera laguna eban kanarioaren txorrotxio alaiak, abestu nai izan eban... Au etzan erreza papo-gorri batentzat; onen abots bigunak berea sufridu eban bere musika-maisuaren abots ozenera egokitzeke. Bitxia zan ikustea txoritxo gaixoa-ren indarketak, baiña azkenik lortu eban nai ebana, bere kantua ba, me-bigunago zalarik be, kanarioaren antz-antzekoa genduan.

O, ene Ama maitel, zeu izan ziñan niri kantetan erakutsi zeustana... Zeure abotsa izan zan ni umetatik birloratu ninduna, eta orain pozgarri jat, zeure antzeko nazala!, esaten entzutea. Ba-dakit oindiño urruti nagoala, baiña, aula nazan arren, itxaroten dot, beti-betikozeuk lakoxe kantua bir-esatea...

Karmeldegian sartu nintzan aurretik, neure bizitzaz eta munduko mixeriai buruz ainbat esperientzi izan nebazan, baiña zeaztasun orreik urrin eroango nindukie; nere bokaziño kondaira biurtu gura dot.

Bayeux'era

Urrillaren 31 izentatu zan Bayeux'era egin bear neban osterarako. Bakarrik joan nintzan aitagaz, biotza itxaroz gaiñezka; baiña biotz-jota be bai oso, gotzaiñaren aurrera niñoiata. Lenengo neure bizitza egingo neban ikustaldi bat neure aitzak lagundu barik, eta bizita au *Gotzain bati!* Nik, egiten eustezan itaunai erantzuteko izan ezik berba egin bearrik izan ez neban, onek, zetara giñioiazan azaldu bear neban, errazoiak ipiñi Karmeldegian sartzeko zergaitik niñoiain baimen eske, berba batean, neure goi-deiaren tinkotasuna erakutsi bear neban. Al, aldatz-gora bai egin jatala juan-etorri au! Jainkoaren grazi berezia bear izan zan neure lotsa menperatzeko... Baita egia da, "*maitasunak ez dau iñoiz eziñik aurkitzen, al dana uste dau oro, eta daikena*" (22), Jesus'en maitasunak bakar-bakarrik gaindutu leikedazan eragozpen oneik eta ondoren etorri ziranak, Berak nai eban, ba, nire bokaziñoa onartua izan zedin opari aundien bidez...

Orain, Karmeldegiko bakartadean gozatsu nagoalarik (ain gartsu opa izan nebanaren keriz-pean nare) (Abest. 2, 3), neure zoriona, uste dot, erosi dodala guztiz merke eta proba aundiagoak be eroateko gertu nago oraindik eskuan ez ba neuka.

Itxasoka jausten zan euria Bayeux'era eldu gintzazanean. Aitak, ez eban ikusi nai izan bere erregiñatxo gotzaintegian bere *jantzi ederra* dana bustita, omnibus batera igon-azo ta katedralera eroan eban. An asi ziran nire zoritxarrak. Jaun txit

(22) *Kristoren autz-Bidea*, 3.gn liburua, 5, 4 atala.

aundia, eta bere apaiz-andana guztia, illeta garrantzitsu baten aurkitzen ziran. Eleizea lutuz jantzitako andraz beterik egoan eta mundu guztiak begiratzen zituan nire soiñeko argia ta kapela zuria. Pozik urtengo neban eleizatik, baiña pentsatu bere ez, euria zan-eta. Ni geiago apalasteko, Jainkoak nai izan eban, aitak ni lau-lau katedral-eko aurrenengo jarlekuetaraiño eroatea; naigaberik ez emotearren, onez artu neban au, Beyeux'ko jente onari, nik emon ez gurago neban distraziño —bidea emonik... Azkenik atsegiñez arnasa artu al izan neban alboko kapilla baten, altara nagusiren ostean aurkitzen zanean, eta an egon nintzan luzaro, erreza u ta erreza u, euria atertu ta urten al izan arte.

Urtetean, aitak ango edertasunak miretsi eragin eustazan, utsik zan baiño askoz aundiagoa zirudianekoak; baiña pentsamentu bat bakarrik nenkarren buruan eta besteak ez ninduan kezkatzen. Zuzenean joan giñean Révérony Jaunaren etxera; ba-ekian zelan giñioiazan eta berberak izentatu eban gure juan-etorriaren eguna; baiña kanpotik zan; denpora egiñez kaleetan zear ibilli bear izan genduan; *oso tristeak* iruditu jatazan oneik. Azkenean, gotzaintegi ingurura ta aitak otel polit baten sar-azo ninduan, emen nik ez neutson omen aundirik egin sukalde onari. Aitatxo gaixo au nigaz portatzen zan ia siñistu-eziñeko samurtasunez; ez atsakabetzeko esaten eustan, Gotzain Jaunak ziur asko emongo austala eskatzen ñoiana. Pizkat atsedendu ondoren, itzuli giñan Révérony Jaunaren etxera; beste jaun bat eldu zan ordu berean, baiña bikario orokorrak maitekor eskatu eutson itxaroteko eta lenengo artu ginduzan bere bulegoan (jaun gaixo arek izan eban aldirik gogait egiteko be, gure bisitea luze joan zalako).

Révérory Jauna oso maitekor agertu zan, baiña gure ikustaldia ondo arrigarri izan jakola, uste dot. Irribarrez begiratu nindun itaun batzuk egiñaz; gero esan eustan: "Gotzain Jaugana eroango zaituet; jarraituko, mesedez". Nire begietan negarra ikusiz, gaiñeratu eban: "A!, arripitxiak dakustaz... ez da egoki Gotzain Jaunari erakustea!..."

Saloi aundiak zearkatu genduzan, gotzain-argazkiz jantzita; areto aundi oneitan neure burua ikusirik, txiñurri txiki antzera sentitzen nintzan eta neure buruari itaunez nenbillen zer esango ete neutson Gotzaiñari. Apaiz bigaz ebillen egurasten galeri baten; Révérory Jaunak itz batzuk esan eutsezan, eta neuganantz etozan; gu bere zain gengozan bere bulegoan. Iru jarleku izugarri egozan emen, tximini aurrean, su ederrez epel. Gotzaiña sartzen ikusiz, aita belauniko ipiñi zan nire ondoan, aren bedeinkapena artzeko; Gotzaiñak gero aita jarri-azo eban beaso-aulki baten; aren aurrez aurre jarri zan eta Révérory Jaunak nai izan eban ni erdian jartea, nik ondo-aziz-eza erakutsiz; baiña a barriro lenean, esana egiteko gai nintzanez erakusteko esanik; beingoan jarri nintzan geiago pentsatu barik eta arrituta jarri nintzan, bera aulki baten jarten ikusiz, ni neure antzeko lau jarri eikezan jarleku aundian ondatzen nintzala (a ziur asko ni baiño gogotsuago, ni ez nengoan ain gozo-ta...). Uste neban aita asiko zala berbaz, baiña ak eskatu eustan neuk neurez Gotzaiñari azaltzeko gure bisita aria. Alik eta *ondo*en egin neban; Gotzain Jauna, izketa argi-gozora egiña, etzan askorik zurtu nire errazoiakaitik; Nagusiaren berba bat lagungarriago izango jatan; tamalez ez neukan itz ori ta aren ezetza etzen niri lagundu leikedana...

Gotzaiñak itandu eustan antxiñatik nai eta neban Karmelo'n sartzea. "Bai, bai, Gotzain Jauna, antxiñatik...". "Ikus daigun —jarraitu eban, irribarrez, Révérory Jaunak—, ez dozu esango gogo au amabost urte dirala daukazunik". "Egia da —erantzun neban, neuk be barreka—, baiña ez dira urte asko kendu bear, errazoidun nintzanetik moja izatea gura izan dot, eta Karmel gura izan dot ezagutu nebanetik, Ordena onetan uste neban, ba, beteko nebazala neure arimearen gurariak". Ez dakit, ene Ama, oneik izan ziran nik esandeko itz zeatzak; uste dot oindiño ganora-bakoago esan nebazala; dana dala, zentzuna orixe dozu.

Gotzain Jaunak, aitari eder izango jakola-ta, urte batzuk geiago beragaz geratzeta nai ebala erakutsi eben; beraz, nire alde egoala ikusirik, *arriturik* eta *oneraturik* geratu zan; emon egistala baimena iñotsan amabost urtegaz joateko. Dana izan zan, baiña. alperrik. Esan euskun, erabagi aurretik, Karmelo'ko Nagusiaz alkar-ikuste bat euki bear ebala. Nik ezin neinkean entzun beste gauza penagarriago bat, ezaguna bait neban gure Aitaren aurkako erabagia. Beraz, Révérory Jaunaren goraintzi-berbakaitik, Gotzain Jaunari arri-pitxiak *erakutsi* baiño geiago egin neban, emon be bai!... Argi ikusi neban biotz-eraginda egoala; samatik oratu nindun, eta nire burua bere bizkar-gaiñ ipiñiz, egundo ez legez eregututu nindun, iñogaz iñoiz egin ez ez eban moduan, nik uste. Dana ez egoala galdurik, esan eustan; ondo eritxola nik Erroma'ra ostera ori egitea neure bokaziñoa sendotzeko, eta negar egon ordean poztu bearra neukala. Urrengo astean Lisieux'era joan bearra eukala, Santiago'ko erretoriaz berba egingo ebala eta nik Italia'n artuko bere erantzuna. Alperrik zala ikusi neban, geiago ekitea, beste aldetik ez

neukan beste zer esanik, neure *itz-esanaren* elpide guztiak agortuak nebazan.

Gotzain Jaunak barriro eroan ginduzan baratzeraiño. Aitak asko *jolas-azo eban* gauza batzuk esanik, nik adibidez aundiago emotearren, ulea batu egin nebala. (Gozain Jaunak ez dau aztu eta "bere alabatxoa" aitatzen daben bakotxean, ulearen ipuiña dakar gogora...) Révérony jaunak, gotzaintegiko baratzaren azkeneraiño lagun egin nai izan euskun, eta aitari esan eutson berak ez ebala egundo olako gauzarik ikusi: "Aita bat erabagia benetan Jainkoari bere alabea emoteko, eta neskato au bardin bere burua Jainkoari eskintzeko!".

Aitak zeaztasun asko eskatu eutsozan Erroma'rako peregrinaziñoa zala-ta; beste batzuen artean, zelan jantzi bear eben Aita Santuaren aurrerako. Ikusten nagoala deritxat Révérony Jaunaren aurrean jarri ta au esaten: "ondo nago onela?..." Gotzain Jaunari au be esan neutson berak izten ez ba eustan Karmelo'n sartzen, Aita Santuari eskatuko neutsala mesede au. Nire errege maitea, itzez eta eraz, lau-laua zan, baiña ain egoan *eder...* Berrezko itxura bipilla eukan, eta au atsegin izan jakon antza Gotzain Jaunari, saloietako etiketa arau guztiak ezagun ebezan jentez inguraturik egotera oituari, baiña ez *Frantzia'ko* ta *Naparroa'ko erregeaz*, bere *erreginatxoaz* batera.

Kalean aurkitu nintzanean, nire negar-malkoak barriro asi ziran erioten, ez gero neure naigabez, nire aitatxo laztanak alperreko osterea egin ebala pentsatuz baiño... Karmelo'ra dagoneko, Gotzainaren erantzun zorientzua iragarriaz meza bat bialtzeko poz aundi-aunditan egoana, ezelango erantzun barik biurtu bear eban... Nire geroa iru-

ditzen jatan austurik egoala betiko; azkenerago ta nastuago aurkitzen nitun neure gauzak. Mindura izugarrian murgil egoan nire arimea, baiña baita bakea-pozean be, ez bait neban billatzen Jainkoaren naia besterik.

Lisieux'era eltzeaz batera, Karmelo'ra joan nintzan pozaren billa eta zeure ondoan, ene Ama maite, aurkitu neban. O!, ez!, ez dot egundo aztukoz nīgaitik sufridu dozuna. Alperrik esanda ezaindu bildur ezpa-nintz, Jesus'ek bere apostoluai, bere Pasiño arratsaldean, zuzendutako berbak esango neukez: "Zuok nire larrialdietan beti iraun dozue Neugaz..." (Lk. 22, 28). Neure *aizta txit kutunak be poztasun atsedengarriak* eskiñi eustezan.

VI ATALA

ERROMA'RA

Bayeux'era joanda iru egun geroago, beste ostera bat egin bear neban askoz luzeagoa, betiko urirakoa... A!, a bai osterea!... Berak bakarrik erakutsi daust urte luzeetako ikasketak baiño geiago; jazoten dan guztiaren uskeria dala erakutsi daust, eta eguzkipean dana dala barru-naigabea... Alan be, gauza oso bikaiñak ikusi nitun, artezko ta erlejiñozko gauza miragarri guztiak ikuskatu nebazan; guzti onein gaiñez Apostolu Santuk zapaldutako lurra bera zapaldu neban, martirien odolez gorritutako lurra eta nire arimea azi egin zan gauza santuen ikutuz.

Poztuten naz Erroma'n egon nintzalako, baita ulertzen dodaz munduko pertsonak, aitag joan-etorri luze au, erlejiño bizitza niri burutik kentzeko eragin eustala uste dabenak. Ba ziran an egi-egiaz errazoiak ain segurua etzan borondate bat ausi-azteko.

Zelina ta biok, gizarte aundian egundo bizi ez giñanok, jente prestu artean gertatu gintzazan, onakoak osotzen bai eben ia peregrinaziño guztia. A!, lausotu bearrean, titulu guren areik kea zirudiegun... Urrifetik, lilluratu ninduen batzutan, baiña urretik, "diz-diz dagian guztia ez dala urre" ikusi neban, baita ulertu nebazan *Antz-Bideko* itzok: "Etzaite arduratu aginpidez eta izen aundiz,

ezta ezagutua ta askoren adiskide, edo-ta gizaseme ugaziz inguratua" (23).

Antxe ulertu neban benetako aunditasuna ariman dagoala eta ez izenean Isaias igarleak diñoanez, ba, "Jaunak BESTE IZEN bat emongo dautse bere autatuai" (Is. 65, 15) eta Juan deunak gaiñetatu: "garailleak arri zuri bat artuko dau, berak bakarrik dakian izen bat idatzita daukan arria" (Apok. 2, 17). Zeruana, bada, ezagutuko doguz geure leiñargi-tituluak. Orduan jasoko dau bakoitzak aintza Jainkoaren aldetik (1 Kor. 4, 5) eta lurrean Jesus'egaitik ez-eukiena, aztuena, axe izango da leenengoa, gurenena eta aberatsena!...

Bigarren esperientzia eleiz-gizonari buruzkoa izan zan. Iñoiz be euren barrukotasunean bizi barik nengoan ezkerro, ezin ulertu izan neban Karmel barriztearen elburu nagusia. Pekatarien alde errezatzeak lillurutzen nindun; baiña abadeen alde, nik kristala baiño garbiagoak uste nebanakaitik otoitz egitea, arrigarri iruditzen jatan!... Al, Italia'n ulertu neban ondo neure bokaziñoa; urrun zetan joan bearrik ez egoan ezagutza ain onari billa...

Illa betean abade santu askorekin bizi izan nintzan eta ikusi al izan neban euren duintasun gurenak aingeruen gaiñetik ipinten ba'ditu be, origaitik bai dirala gizaseme makal eta euskorrak... Jesus'ek Ebanjelioan "lurreko gatza" deitzen dautsen apaizak euren bizibidean erakusten ba dabe otoitz bear-izan aundia, zer esango epelakaitik? Jesus'ek gaiñera ez ete eban esan: "Gatza geza biurtzen bada, zerez gazituko" (Mt. 5,13).

(23) Kristoren Autz-Bidea, 3.gn liburua, 24, 2 atala.

O, ene Ama, ederra bai dala arimentzako dan gatza iraun-azteko dan goideia! Auxe da Karmelo'rako deia, gure otoitz-erreguen eta oparien elburu bakarra da apostoluen apostolu izatea, eurak euren berbaz eta batez be euren ikasbide onez arimak Ebanjelioan eskolatzen dabezan bitartean... Emen gelditu bear dot, ostantzean, ba, gai onetzaz jarraituko ba'neu berbaz, ez neunke iñoiz amaituko!...

Zeaztasun batzukaz neure joan-etorria edestu bear dautzut, ene Ama maite, parka egistazu luegi ba noa; ez dot gogoetarik egiten idatzi aurretik, eta ainbat eten-unegaz egiten dot, askerik denpora gitxi dodaleko, eta nire istoria bear bada pizkat gogaikarri begitanduko jatzu... Pozgarri jat pentsamentu au: zeruan itz egingo deutzudala barriro artu ditudan grazietaz, eta orduan egin al izango dodala itz atsegin eta zoragarritz... Ezek be ezingo ditu eten gure barrutiko nasaialdiak eta, begirakun bakar bategaz, zuk dana ulertuko dozu... Ai!, oindiño lurralde triste onetako izketa erabilli bear dodan ezkerro, bere amaren maitasuna eza gutzen dauan ume baten salo-lautasunez egingo dot!...

Lisieux-Paris

Iraillaren 7'an urten zan peregrinaziñoa Paris'tik, baiña aitagun batzuk lenago eroan ginduzan uri ontara, ikusi gengian.

Goizeko iruretan zearkatzen eban oraindik lo egoan Lisieux'ko uria. Zarraztarik asko igaro ziran orduan nire arimatik. Ba-nekian ezagun-niñoiana eta zain neukazala an gauza aundiak... Pozik egoan aita. Bultzia ibiltzen asi zanean, kantu zaar au abestu eban berak: "Ibil, ibil, ene burdi ori, bide

luzean bai gagoz". Goizean eldu gintzazan Paris'era, eta beingoan asi zan gure ikusketa. Aitatxo gaixo au asko nekatu zan guri atsegin emotearren, laster ikusi genduzan beraz uriburuko edertasun guztiak. Niretzat bat egoan bakar-bakarrik zortzen ninduna, arrigarri au "Garaietako Andra Maria" zan. Al, ez neuke jakingo esaten bere oiñetan sentidu nebana... Eskiñi eustazan graziak barru be barru eragin eusten eta neure negar-malkoak bakar-bakarrik adierazo eben nire zoriona, neure lenengo Jaunartze egunean lez... Andra Mariak ulertearagin daust *bera izan zala egi-egiaz irribarre egin eta osatu ninduna*. Ulertu neban, baita, berak zaintzen nindula, ni *bere alaba* nintzala, eta ezin nengiola "Amatxo" izena besterik emon, Amarena baiño be txeratsuago zala-ta... Zelako garrez eskatu neutson beti-beti jagon nengiala eta laster burutu nengiala neure amesa, *bere birjin mantu-pean gordeten nindualarik!*... Al, au zan nire umeosteko neure lenengo gurarietatik lenengoa... Aunditu nintzanean, ulertu neban, Karmelo'n aurkitu neinkena izango zala Andra Mariaren egiazko mantua, eta mendi jori ortara zuzentzen ziran nire gurari guztiak...

Garaietako Andra Mariari baita eskatu neutson berak urrindu egiala nigandik nire garbitasuna ezaindu eikean guztia; ba nenkian onango osterabaten Italia'ra, kezkatu nengikeen gauzarik asko aurkituko nebazala, batez be, gatxa zer zan ez nekialako, bildur nintzan bera aurkituaz, oraindikez neban somatu ba *garbientzat dana zala garbi* (Tt. 1, 15) eta arima lau ta arteza ez dala loitzen ezetan be, gatxa ba biotz loietan dago bakar-bakarrik eta ez sentikor ez diran gauzetan... Jose doneari be eskatu neutson zaindu nengiala; umetatik neutson deboziño aparta, Andra Mariaganako

maitasunaz nastutzen zana. Egunero esan oi neban otoitz au: "O, Jose deuna, birjiñen aita ta babesle!"; bildur barik asi neban orrela neure joan-etorri luzea; ondo zaindua nengoan ezkerro; eziña jatan bildurra.

Paris-Milan

Montmartre basilikan guztiok Jesus'en Biotzari eskiñi ondoren, astelenean, 7'garrenean, goizez urten gintzazan Paris'tik. Laster ezagutu genduzan ibildeunean etozan pertsonak. Ni, izuti oso, geienez iñogaz berba egiteko lotsakor nintzana, guztiz nasai aurkitu nintzan gaitz nekegarri ontatik; neu be arrituta nengoala, askatasun osoz itz egiten neban andra guren guztiakaz, abadeakaz eta baita Coutances'ko Gotzaiñagaz be. Giro onetan bizi izan nintzala beti uste neban. Mundu guztiak maite ginduzala, nik uste, eta aita pozik egoan bere alaba biakaz eta bera pozik eta arro ba'egoan be gugaz, gu geiago gengozan beragaz, peregrinaziño guztian ez egoan ba gizaseme doto-reagorik, ezta nire errege kutuna baiño prestuagorik; Zelina ta nigaz inguratuta, pozik aurkitzen zan. Batzuetan, kotxean ez giñoiazanean, eta ni beregandik zerbait urrindu, dei egiten eustan Lisieux'en lez besoa emon nengion.

Révéróny abadeak arduraz jasoten zitun nire egite guztiak; sarri ikusten neban urriñetik begiratzen; maian, ni ezpa-nengoan beraren aurrez-aurre, alegiñak egizan berak ni ikusi ta nire itzak entzuteko moduan jarteko. Ezbai barik, ezagutu egin nai izan eban egi-egiaz karmeldar izateko balio neban ala ez; pozik geratu zala, uste dot, bere

azterketaz, *ostera azkenean*, ba, neure alde agoala esan eitekean; Erroma'n, alan be, esango dodanez, urrin egon zan niri laguntzetik.

"Uri betierekora" eldu baiño leen, orixe bait zan gure ibillaldiaren jomuga, gauza miresgarri asko ikusteko tartea izan genduan. Lenengo, Sui-za, bertako mendi odeietan galtzen diran gaillur-
rakaz, milla eraz urjarioka turrusta alaiakaz, bere aran sakon, ira eskerga ta larrosa kolorezko zugaz-
ñoakaz. O!, ene Ama maite, zenbat on ekarri eutsoen nire arimeari *ain ugari* or-emen ereindako izadi-edertasunok! Zelan jasoten eben, egun bat besterik iraungo ez dauan erbeste-leku baten gauza bikaiñak banatuz alaitu izan dan Arengana... Neure begiakaz ez neukan naiko begiratzeko. Zutik, ete ondoan, arnasa ia galdurik; bultziaren alde bietan pozik nintzan, bira egitean ba itxura zoragarritzko ikuspegi bat nekusan, aurrez neukazanetik bestelangoa euki be.

Batzuetan mendi baten tontor-tontorrean aurkitzen giñan; amiltegi ta jaus-lekuak geure oinetan, begiakaz ondo ezin neurtu leikezanak, gu iruntsi guraz zirudien... Bestetan aran txiki bat zan zoragarria, txalet politakaz eta euren kanpai-
torreakaz, odei zuri dizditsu batzuk gaiñez kulunka ebezala... Gero zan zingira aundi bat, eguzkiaren azken izpiz urreztatua; olatu nare garde-
nak zeru urdiña islatuz, eta arrats-su dizditsuakaz naste, gure begi zurtuen aurrean, ikusi daiteken ikuskizunik eder lilluragarriena jarten eban... Osertz zabal urriñean ikusten ziran mendi-gaiñak eta onen inguru zeatz-ezak gure begiak ez ebezan artuko, eguzkiak ñirnirtzen zituan euren erpin edurtuak, zoratzen ninduan zingirari lillura bat geiagio ezarri ezik.

Edertasun guztiok ikuskatuz oldozkun oso sakonak jaioten ziran nire ariman. Dagoneko ulertzen nituza uste neban Jainkoaren aunditasuna eta zeruko miresgarriak... *Dan legez* agertzen jatan erlijio-bizitza, bere agindupe egotez, *buru-ukapen txikiakaz*, ixilpean egiñak. Ulertzen dot erreza dala nobere kautan gordetea, goi-deiaren elburu gurena aztutea, eta neure buruari esaten neutson: geroago, proba orduan, Karmelo'n atxilotua, izartutako zeru zatitxo bat besterik ikusi ezingo dodanean, gaur ikusten negoan au gogora etorriko jat; gomutaki onek bizkortuko nau, neure interes gaixo ta txikiak errez aztuko ditut, Jainkoaren Aunditasuna ta aalizatea, berau bait dot nik bakar-bakarrik maite gura dodana. Ez dot *lastotxoai* biotza josteko zoritxarrik izango, orain NIRE BIOTZAK, Jesus'ek maite dauanetzat gertu daukala IKUSI DAUANEAN. (1 Kor. 2, 9).

Jainkoaren aalizatea goretsi ondoren, goretsi al izan neban Berak izakiai emon dautsena be. Milan izan zan Italia'ko urietatik lenengo ikusi genduna. Bertako katedrala, dana marmol zurizkoa, kontaezin-ala irudiz, erri aundi-aundi bat egiteko laiñez; zeatz-meatz arakatu gendun. Zelina ta biok giñan adoretsuenak, beti aurrenenak eta Gotzaiñaren ondo-ondoan ginoizanak santuen erlikiai buruzko guztia ikusi eta azalpen guztiak be entzuteko. Olan, arek mezea esaten eban bitartean San Karlos'en illobi gaiñean, gu aitagaz gengozan aldara ostein, santuaren gorpua barruan daukan kutxa gaiñean buruak genduzala. bere gotzain jantziakaz apainduta. Toki guztietan egiten gendu bardintsu... (gotzain baten duintasunari egoki ez jakon toki batera igon bear izaten gendunean izan ezik, orduan ba genkian eta Agandik urrutiratzan)... Andra bildurtiak eskuekaz arpegia estal-

tzen itxirik, katedrala koroatzen daben lenengo erpiñekara egiñik; erromes ausarteenei jarraika joan giñan, marmolezko *azkenengo* ezkil-torrera eldurik; emendik ikusi al izan genduan geure oiñetan Milan'go uria, emendik ikusiz bertokoak *txiñurritegi pitin* bat zirudiana... Jatsi gintzazan geure agarritik eta asi ziran illabete iraungo eben gure kotxe-ibillaldiak, eta aseko jatazan betiko nekatu barik *ibilteko* gogo.

Katedrala bera baiño be atsegiñago izan jakun kanposantua. Bere irudi atxurdirin zurizkoak, argiduaren zizelak bizi-azi zituela zirudienak, obitegi zabalean zear banandurik dagoz, ardurarik-ezean lez, nire ao-gozorako bere lillura geituz... Ingu-ruan ditugun alegorizko pertsonai areik poztu-azteko zirikatua sentitzen zara berton. Itxaro ain bizia dabe, euren oiñazea ain baketsua ta etsia; nai ta ez aintzat artu bear egintza bikain burutu dabe-zan artisten biotza bete bear eben ezilkortasunez-ko fedea. Emen aurtxo bat lorak jauritzen bere gurasoen illobi gaiñera; marmola bere pisu-izate galdu ba leu lez, eta loren buru-erbatz guriak aurtxoaren atz-artean labanka lez; aizeak sakaba-natzen zituala zirudian; orobat, alargunen zapi ariña zabu-zabu erabilli eta neskatxen uledia apaintzen daben zintak aizatu. Aita oso su eta gartua egoan geu beste edo geiago. Nekatuta egoan Suiza'n, baiña orain, lengo pozez seneraturik, guri be pozgarri jakun ikuspegia pozgarri jakon berari be. Bere arima eder-zalea arpegikeraz agertzen zan, fede ta mirets-aldi adieraztez. Jaun urtetsu bat (frantsesa bera), ain eder-zale etzana ziur asko, begira geunkan zearretara, eta umore txarrez iñoan, gure arrimenakaz bat ez etorrela erakutsiz: "O!, frantsesak bai dirala buru-beroak!" Gizaseme gai-xo onek, uste dot nik, obeto egingo ebala bere

etxean geratuaz osteria au ez jakolan ain gogoko adierazoten bai eban. Sarri aurkitzen genduan geure ondoan eta beti ebillen uluka; kotxeakaz, otelakaz, pertsonakaz, uriakaz, itz batez, beti egoan txarto esaten... Aitak, bere arima aundi-aundi oi-tuaz, alegiñak egiten zitun ari poza emoten, bere lukua itxiaz eta abar. Aita ondo aurkitzen zan an naiz emen; onen izaera ez etorren bat bere auzo ozpiñagaz, guztiz bestera baiño... Al, zelako pertso-na ez bardiñak ikusi doguzan mundu ezagutze in-teresgarria bene-benetan laster berau izteko gago-zala!...

Venezia-Erroma

Venezia'n, oso-osorik aldatu zan apainketa; uri aundietako zaratots iskanbil orde, ixiltasunaren erdian entzuten dira gondola-larien oiua eta erramuz jotako uren ixubilloa. Badau lillurarik Veneziak, baiña nik triste aurkitzen dot uri au. Dux'en jauregia eder-ederra da, au be baiña tristea iruditzen jat, bere urrez apaindutako areto aundi, zur, atxurdirin aberats eta maisu aundien lauki-irudiakaz. Antxiña samarretik bere zeru-azpi oze-nakez dabe entzuten, guk ikertu genduzan aretoe-tan, ango jaurliaren abotsa, bizi edo eriotzako epaia emonez... Atxilotu doakabeak, Dux'eak pre-sondegietan sartuak eta lurpeko leotzetan, orain ez dabe sufritzen... Espetxe ikaragarri oneik ikusiz martirien denporan bizi nintzala uste neban eta bertan geratu nai neban euren antzeko izan gura-ta... Baiña laster urten bear genduan andik eta zuzpiruen zubia zearkatu, olan deiturik zubi oni, eriotzea bera be gurago eben, lurpe izugarri onei-tatik aske ikusiz, preso egozanak bota oi ebezan antsi ta zizpuruak...

Venezia'tik Padua'ra joan gintzazan, emen gurturik Andoni deunaren miiña; gero Bolonia, emen Santa Katalina'zen gorputza ikusirik, arpegian oindiño Ume Jesus'en mosuaren ezaugarria daukana. Zeaztasun asko guztiz interesgarriak emon neinkez ikusitako uri bakotxari buruz eta geure ostereaz milla txikikeriz; baiña ezneuke egundo amaituko, beraz ez ditut eralgi nai zertzaladarik garrantzitsuenak baiño.

Pozik itxi neban Bolonia; eroan-eziña egin jatan uri au, bertoko ikasleakaitik, orduantxe erreskadan egozanakaitik; oiñez urten bear izan genduan, eta euretako bategaz zer txiki bat be jazo jatan. Pozarren artu genduan Loreto'rako bidea.

Ez jat arrigarri Andra Mariak leku au aukeratzeara bere etxe donetsia ara eroateko; emen dagoz ñirñirka bakea, poza ta txirotasuna. Dana dozu emen antxiñakoa ta laua; bertoko andrak italiar soiñeko alaiak daroez, ez dabe artu, beste uri batzuetan lez, *Paris'ko modea*. Loretok lilluraturik itxi ninduan! Zer esan nengike etxe doneaz?... Al, benetan zirraratu nindun Famili Santua egon zan aterpe berberean aurkitzeak, Jesus'ek bere jainkozko begiak ipiñi zitun ormak ikusi, San Josek bere izerdiz busti eban lurra zapaldu, Mariak Jesus, bere errai garbietan eroan ondoren, bere besoetan eroan eban lekuan... Ikertu neban Andra Mariari aingerua agertu jakon gela txikia. Ume Jesus'en katilluan jarri neban neure errosarioa... Oneik biak gomutaki zoragarriak!...

Baiña guretzat poztasunik aundiena izan zan *Jesus bera* bere etxean artzea, eta bere jauretxe bizia izatea. Berak bere pertsonaz omendu eban tokian bertan. Italiar oitura bati jarraituz, kopoia altara baten bakarrik gorde oi da, eta antxe baka-

rrik artu leike Gure Jauna; altara au Etxe Donea dagoan basilikan aurkitzen zan, marmol zurizko kutxa baten diamante bikain-bikain bat legeztia. Au ez jakun atsegin! Guk *diamantean* bertan Jauna artu nai genduan, ez kutxan... Aitak, beti otzan eta onbera, beste guztiak lez egin eban, baiña Zelina ta ni apaiz baten billa joan gintzazan, ara ta ona geugaz ebillaren billa, orduantxe ain zuzen be, baimen bereziz, Etxe Donean meza esateko gertetan egoana. *Osti txiki bi* eskatu ebazan eta patenan ipiñi zitun aundiaren ondoan, eta ulertuko dozu, ene Ama maite orrek, zelakoa izango zan gure poz-betea *biok* etxe santu onetan Jau-nartzean!... Zerutar poza guretzat, itzez adierazo eziña. Zer izango ete da, ba, zeruetako Erregearen betiko bizilekuan Jaunartuko dogunean?... Orduan ez dogu ikusiko geure pozarren amaia, ez dogu izango agur egitearen goibela eta, oroitzapen bat, ez dogu izango *ezkutuka txergo* egin bearrik Jainkoaren presentziz doneturiko ormak, bere etxea betikotasun guztian geurea izango da-ta... Lurrekoa ez dausku emon gura, bera guri erakutsiaz naiko jako; guri txirotasuna eta bizi ezkutua maite izaten erakusteko. Bere aintzazko Jauregia dauko guretzat; an onezkero ez dogu ikusiko gordeta aurtxo baten edo osti zuri baten itxurapean, dan legezt, bere erla lantz muga bakoaren argitan baiña!...

Erroma'n

Erroma'z mintzatuko naz orain; gure joan-etorriaren amaia zan Erroma'z emen nik uste neban poza idoroko nebala eta gurutzea aurkitu neban... Gaba zan eldu giñanean eta lo gengozan. Geltokiko langileak, itxartu ginduezan, "Erroma, Erro-

ma!" deadarka egozanak. Etzan amesa, Erroma'n gengoan!...

Lenengo eguna arresiz kanpo emon genduan, berau izan zan bear bada gozoena, emengo monumentu guztiak daukie oraindik euren antziñako kutsua, Erroma erdian bada batek uste izan daike Paris aurkitzen dala, bertako otel eta denda oso ederrak ikusiz.

Erromar zelaietan zear egindako txangaok gomuta ezia itxi daustie. Ez dot ezer esango ikusi genduzan tokietaz, liburu asko dagoz ederto azaltzen dabezanak, artu dodazan biotz zauskada nagusienak aitatuko ditut bakar-bakarrik... Oneitatie gozoenetariko bat Koliseo'ra egin genduna izan zan, dardaratu ninduna. Ikusten neban azkenez aretza au, ainbat martirik Jesus'egaitik euren odola ixuri ebena; eurak sagaratu eben lurrari mun-egitekotan nengoan, eta zelako tankartal... Erdia ez da besterik sastegi aundi bat baiño, eta erromesok begitu egin bear bakar-bakarrik; esi bat dago tartean sarrera galazoten dauana; beste aldeitik inor ez da ausartzen lurmen orretan oiñak ipinten... Erroma'ra etorri ta Koliseo barrura jatsi ez? Eziña iruditzen jatan; ez neban geiago entzun gidariaren azalpenak; gauza batek bakarrik kezkatzen nindun: are artera jatsi... Eskillara bategaz joan langille bat ikusirik, itandu nai izan neutson, baiña zorionez ez neban egin, osterantzean zorotzat artuko nindun... Ebanjelioak diñonez, Magdalenak, illobi ondoan luzaro egon eta barrura begiratzeko askotan makurturik, aingeruak ikusi ebazala azkenez (Jn. 20, 11-12). Arek lez, nik be lurmenerantz begira nengoan, jatsi nai neban lekurantza, ara jastea eziña zala ulertu arren; azkenez, ez neban aingerurik ikusi, baiña

bai billa nenbillena; deadar aundi bat bota neban, pozezkoa, eta Zelina'ri esan neutson: "Zatoz arin, emendik igaroko gara!..." Berealaxe zearkatu gendun esia, emengo aldean saskaraz eztalduta egoana eta sasiz sasi igon genduan gora, gure oinpean abailtzen ziran lar-mordo mordoetan zear.

Begira geunkan aita, gu ausardiak giñala ikusiz; bertatik itzultzeko esan euskun, baiña igeskari biak orduko ez eben ezer entzuten. Arrisku artean sendoago egin oi diran gudariak lez, olaxe geitzen zan gure poza be, gure gurariak jadesteko oztopo geiago ta biziago egiñik. Zelina, ni baiña aurrez ikusleago, gidari or egoala gurutzean jarritako bigarri bat, martirien burruka lekua nunbait, asi zan beronen billa eta beingoan idoro gendun; belaunikotu giñan lur done onetan eta gure ari-mak otoitz bat-bardiñean urtu ziran... Taupada gogorreuz neukan biotza, nire ezpanak leenengo kristiñauen odolez bustitako lurrera urreratu ziran; neu be Jesus'gaitik martiri izateko grazia eskatu neban, eta neure biotz barrenean uste izan neban entzuna izan zala nire eskaria!... Guzti au epe laburrean egin genduan. Arri-koskor batzuk arturik, jausitako arresietara biurtu giñan, barriro asteko geure lan arriskutsua. Aitak, gu ain pozik ikusiaz, ezin euskun asarrerik egin, ta argi ikusi neban pozik egoala gure kemenaren ausartaz... Argi-argi lagundu ginduzan Jainkoak erromesak bada etziran konturatu gure ibilliakaz, urrin samar egozalako bear bada an inguruetako arku ederrez lilluraturik, "LAKATZ txiki gaiñ jarritako MAITAGARRIAK gidaria erakusten ebillen artean; beraz, ez arek ez "abade jaunak" ez eben ezagutu gure biotzak asetzen eben poztasuna...

Atsegin izan jatazan katakunbak, eta asko izan be, iruditurik neukazan lege ziran, martirien

bizitzetan irakurrita neukanez. Arrasti erdia lez euren igaro ta gero, unetxo batzuk egin nebazala uste neban, an artzen dan arnasa bai da atsegiña!... Gomutakiren bat eroan bear genduan katakunbetatik, eta olan erromes-taldea gugandik apur bat urrintzen itxirik, Zelina ta Teresa Santa Zezilia´ren antxiñako illobian sartu ziran eta aren irudiz donetariko lur santua artu eben. Nik Erroma´ra osterea egin aurretik Santa oni ez neutson iñundiko eraspelik, apartekorik beintzat; baiña bere etxea eleiza biurturik ikusita, bere martiri-lekuz gaiñera, berau izan zalezteres edo armoniaren erregiña aldarrikatua, ez bere abots ederragaitik, ezta bere musikarako eukan egokitusuna gaitik be, bere biotzaren barru-barrutik bere Zeruko Senarrari abestu eutson *gizkarbien kantuaren* gomutaz baiña, deboziñoa baiño geiago sentidu neban beragaitik; benetako *adiskideler...* Neure santa kutun egin zan, neure ixilgordelari barru-barruko... Aren edozek zorabiatzen nindun, batez bere *itxitasuna*, bere mugarik bako *uste ona*, munduko ontako poz-atsegiñak baiño gura izan ez ebezan arimak *gizkarbitzeko* gai egin ebana.

Santa Zezilia, abestietako emaztea dirudi. Nik dakust aregan "Dantza talde bien erdian diardue-na" (Abest. 7, 1). Bere bizia etzan izan besterik eresi ta melodi bat besterik proba audienen artean, eta ez nau arritzen "Ebanjelio santua *bere biotz gaiñ bai egoan eta bere biotzean egoan etzunik Gizkarbien Senarra!*...

Zoragarri izan jatan baita Santa Inese'n eleizea be, neure umezaroko adiskide bat neban, bere etxean ikusten joan naiakona; luzaro itz egin neutson orren duinkiro aren izena daroanari buruz

eta ala egin neban neure Ama kutunaren Aingeru-zaindariaren erliki bat lortzeko, berari eroan nai neutson-eta; baiña ez genduan jadetsi al izan mosaiku jori batetik askatu zan arri-koskor gorri bat besterik; berau Santa Inesen denporakoa, ak sarri ikusitakoa. Ez ete da zoragarri billatzen genduna ta artzea galazorik geunkana Donek berak guri maitekor eskuratzea?... Beti euki izan dot maitasun erakutsi lez eta nire Ama Kutuna Santa Inesek zelan zaindu ta babesten dauan ezaugarritzat...

Aita Santuagaz mintzaldia

Sei egun emon genduzan Erroma'ko edertasunak ikusten eta zazpigarrenean ikusi neban danetatik aundiena: "Leon XIII'garrena". Nik gura neban, eta batera bildur neutson egun orri, ortik dindil bai egoan nire bakoziñoa; Gotzaiñaren erantzuna bada, nik artu bear nebana etzan eldu oraindik eta *zeure karta* baten bidez, Ama, jakin neban ez egozala nire alde, olan nire gaizka-ol bakarra Aita Santuaren baimena zala... Alan be, berau lortzeko eskatu egin bear neban, *Aita Santuari itz egiten-azartu* mundu guztiaren aurrean; pentsamentu onek dardarka jarten nindun. Jainkoak bakarrik eta nire Zezilia maiteak dakie zelan sufridu neban Aita Santuaz egon aurretik. Ez dot egundo aztuko zenbat lagundu nindun berak neure estualdi guztietan; nire bokaziñoa berea zala zirudian (pergriñaziñoako apaiz guztiak konturatu ziran zenbat maite genduan alkar; gau baten, asko giñean eta jarlekurik ez danontzak, Zelinak bere belau-netan jezar-azo nindun, eta guztiz maitekor alkarri begiratu geuntsolako, apaiz batek esan eban: "Oneik bai alkar maite! O!, Aizta bi oneik ezingo

dira iñoiz banatu!" Bai, maite gintzazan, baiña gure maite-lera guztiz *garbi* ta gogorra bait zan, ez ginduzan kezkatzen banandu bearrak, ba gengan bada ezek bere ez, ezta itxasoak be bata-besteagandik ez ginduzala urrunduko... (Zelinak baketsu ikusten eban nire ontzitxo zelan joian urreratuaz Karmel'go ur-ertzetara; etsikorik egoan mundu itxaso ekaiztian geratzeko Jainkoak nai beste denporan, elduko zala-ta, bere denporan, ur-ertzero, geure gurarien elburua...).

Domekan, azillaren 20'an, Batikano'ko oiturak eskatzen ebenez jantzi ondoren (au da, baltzaz, goratxo lez puntillazko mantilla bat) eta Leon XIII'garrenaren domiña aundi bat, zinta urdin-zuritik dingilizka, Batikano'n sartu giñan, Aita Santuaren kapillan. Zortziretan asko urduritu giñan, Meza Santua ospatzeko sartzen ikusiaz... bere inguruan alkarturik gengoan erromesok, asko gintzazanok bedeinkatu ondoren, igon zan altarako mailletan gora eta erakutsi euskun, bere eraspenez, Jesus'en Ordez kariari egokionez, egi-egiaz "Aita Santua" zala. Nire biotza taupa-taupaka egon gogor eta nire eskariak sutsuak ziran, Jesus bere Ordezkoaren eskuetara jasten zalarik; konfiantzaz beterik negoan. Eguneke Ebanjelioak itz zoragarriok eukazan: "Ez bildurtu, artalde txiki, nire Aitari eder jako-ta zuoi erreñua emotea" (Lk. 12, 32), nikez neukan bildurrik, Karmelo'ko erreñua laster neurea izango zala-ta nengoan; ez neban orduan pentsatzen Jesus'en beste itz oneitan: "Neure erreñua gertatzen dautzuet Aitak neuri gertatu daustan lez" (Lk. 22, 29). Au da, gurutzeak eta ildurak daukazuez ondoren, eta olan opa dozuen erreñuaren jabe; bearrezko izan zan, ba, Kristok sufritzea eta sufriduz bere aintzan sartzea (Lk. 24, 26), bere ondoan ezarri nai ba' dozue. Berak le-

nengo edan dauan kaliza edan bear dozue!... (Mt. 20, 21-23). Aita Santuak aurkeztu eustan kaliz garratz ori eta nire negar-malkoak edari mergatz orrekin nastu ziran. Aita Santuak emondako meza ondoren etorri zan eskerrak emotekoa, eta onen ostean asi zan mintzaldia.

Leon XIII'garrena jaur-aulki aundi baten ezarrita *egoan*, sotana zuri bategaz lau-lau jantzirik, kolore bardiñezko muzeta eta buru-gaiñ txanoa. Bere alboetan egozan kardenalak, gongotzaiñak eta gotzaiñak, baiña nik ez nebazan neure begiak oneikan ezarten, Aita Santuagan bakarrik baiño; onen aurretik igaro giñan erreskadan; erromes bakotxa bakarka belaunikatzen zan, Leon XIII'garrenaren oiñari ta eskuari mun-egiñik; onen bedeinkapena artu ta zaintzaille jator bik ikutzen eutsoen zeremoni aundiz erromesari jagiteko adierazoz. Aita Santuaren egonlekuan sartu aurretik berari *itz egitera* erabagita nengoan oso, baiña nire kementa motelduz joian Aita Santuaren eskuman "Révéröny Jauna" ikustean!... Une one-tan iragarri jakun, *aren aldetik, galazorik* egoala Leon XIII'garrenari *itz egitea*, mintzaldia luzeegi joiala-ta... Zelina neure kutunagana biurtu nintzan zer iñoan jakin gurarik. "Mintza!", esan eustan arek. Amen baten, gero, Aita Santuaren oiñetan nengoan ni; bere sandalia mosukatu ondoren, eskua aurkeztu eustan, baiña bera mosukatu bearrean, neureak alkartu ta adi-adi berari begira, neure begi malkoz beteakaz, esan neutson: "Aita txit Santu grazi aundi bat eskatu bear dautzut..."

Aita Santuak burua makurtu eban neuregana, neure arpegiak ia bereaz joteraño, eta bere begiak, *baltz eta sakonak*, ikusi nebazan, neuri begira ta neure arimearen barru-barruraiño sartzen zirala.

"Aita Santu-santua —esan neutson—, zeure jubileu urtea dala-ta, itxi egidazu amabost urtetan, Karmelo'n sartzen!...

Zirriadak, antza, dardaraz jarri eustan abotsa; beraz, Révérony Jaunagana, arriturik eta asarre samar begira neukan Révérony Jaunagana itzulirik, Aita Santuak esan eutson: "Ez dot ondo ulertzen". Jainkoak laga ba leu, errez izango zan Révérony Jaunak nik nai nebana jadestea, Ak baiña gurutzea emon nai eustan, ez poza. "Aita txitsantua, erantzun eutson Bikari Orokorrak, *neskato bat* da, Karmelo'n sartu nai dauana amabost urtegaz, baiña nagusiak ikasten dabiltz auzia momentu ontan". "Ondo, alaba, Aita Santuak jarraituz, maitekor begira, egizu nagusiak diñotzuen". Orduan neure eskuak bere belaun gain ipiñirik, azken-saioa egin eta errukizko aotsez esan neutson: "O, Aita txit Santu, zuk baietz ba diñozu, mundu guztiak ikusiko dau ondo..." Adi-adi begiratu nindun eta itzok ebagi zituan letra bakotxa sakatuz: "Tira... tira... Sartuko zara, Jainkoak nai ba dau!..." (Beraren itza ain zan sarkorra ta erabagitsu, oindiño entzuten nagoala uste dot). Aita Santuaren ontasunak bizkortu nindun eta aurrera jarraitu nai izan neban berbaz, baiña jagole guren biak *txeratsu ikutu ninduen* jagi nendin, baiña ori etzala naiko ikusirik, besoetatik eldu eta Révérony Jaunak be lagundu eutsen ni zutik jarri nendin, nik ba eskuak alkar, Leon XIII'garrenaren belaun gainean jarraitzen neban, eta indarrez banandu bear izan ninduen aren oiñetatik... Orrela neroielarik, Aita Santuak nire ezpan-gaiñean jarri eban bere eskua, ondoren gora jasorik ni bedeinkatzeko. Nire begiak orduan negar-malkoz bete ziran eta Révérony Jaunak *diamante* asko Bayeux'en

beste bai beintzat ikusi al izan ebazan... Jagole guren biak eroan ninduan, olan esateko, ateraiño eta an, irugarren batek Leon XIII'garrenaren domiña bat emon eustan. Jarrai etorkidan Zelinak jazo zan guztiaren testigu izan zan. Ia-ia neu bai-
zan biotz-eragiña, adoretzu aurkitzen zan oraindik Aita Santuari eskatzeko bedeinkapen berezia Karmeldegirako. Révérony Jaunak, abots muker samarrez, erantzun eutson: "Karmeldegia ba-dauko bere bedeinkapena". Aita Santuak erantzun eban maitekor: "O!, bai, bedeinkatu dot". Aita Leon XIII'garrenaren oiñetan gu baiño baiño lenago (gizonezkoakaz). egona zan; Révérony Jauna guztiz txeratsu egon zan beragaz, Karmeldar biren aita lez aurkezturik. Aita Santuak, ondo-nai berezia erakutsi nairik, neure errege maitearen buru gainean ipini eban bere eskua, *misteriozko selluz* markatzen ebala emonik, egiazko ordezkari dan Aren izenean ain zuzen...

Al. *lau karmeldarren* aita au zeruan dagoalarik, orain, ezta Aita Santuaren eskua bere buru gain dakana martiritza iragarten dautsona bere zerbitzari leialaren burua, eta esku gurgarri onek iñoiz be itxiko onezkero berak aintzaldau dauan beko-kia!...

Asko sufridu eban nire aitag mintzalditik urte-tean, ni negarrez ikusirik; alegin guztia egin eban ni pozeratzeko, baiña alperrik... Biotz barruan bake betea nabaitzen neban, bere eskuan egoan guztia egin bai neban Jainkoak eskatzen eustanari erantzuteko; bake au, baiña, barru-barruan egoan eta garraztasunak *asetzen* eustan arimea, ixillik egoala sentitzen nebalako. Urrin egoala zirudian; aren egoterik ez eustan ezek adierazten... Egun onetan be eguzkiak eban dirdir egin eta Italia'ko

zeru eder urdiña, odei goibelez betea, euri ta euri egon zan neugaz batera... Al Amaitua zan! Nire joan-etorriak ez eukan onezkero nire begientzat bape pozik, azkenak uts-egin eban-eta. Alan be, Aita Santuaren azkenengo berbak poztu bear ninduen: ez ete ziran egiaz benetako iragarkizun? Eragozpen guztiak gora-bera, Jainkoak nai ebana bete da. Izakiai ez dautse itxi nai ebena egiten, Berak gura ebana egin baiño.

Egun batzuk ziralarik, ni Ume Jesus'i eskiñita nengoa, bere *jostallutxo*, eta Berak erabagita eukan ni jostallutzat artzea; ez gero jostallu garesti lez, au da, umeak bera ikutzen azartu barik, begiratzu bakarrik pozez dagozanen antzera, balio bako pelotatxo baten antzera, lurrera bota, ostikoka erabilli, *zulotu*, zokondo baten itxi edo-ta, au eder ba'jako, biotz ondoan estutu; berba baten, Ume *Jesus'egaz* jolastu nai neban, atsegiña emon Berari, Bere *ume-jolasetan* parte artu... Ak entzun eban nire erregua...

Erroma'n Jesus'ek *zulotu* eban bere jostallutxo; barruan zer eukan jakin nai izan eban eta ikusi ondoren, bere aurkitzeaz pozik, jaurtirik itxi eban bere pelotatxo, eta loak artu eban... Zer egin eban Ak bere lo gozo bitartean eta zer jazo jakon bertan-bera lagatako pelotatxoari?... Jesusek ames egin eban *jolasean* ziarduala bere jostailluaz, orain artu, gero itxi, eta, gero, urrin bota ondoren, bilinbolaka, bere biotzean estutzen ebala, aurreran-zean bere eskutik urrintzen izten ez eutsola...

Zuk ulertzen dozu, ene Ama maite, zein naigabetua aurkitzen zan pelotatxo, lurrean narras... Alan eta guzti be, uste osoaren aurka (Errom. 4, 18), itxaropentsu jarraitzen eban. Aita Santuaren mintzalditik egun batzuetara, aita Anai Simeon

ikusten joan zalarik, an aurkitu eban Révérony Jauna, guztiz maitekor egon zana. Aitak arpegira bota eutson zergaitik ez eustan lagundu neure *auzi zaillean*. Gero, bere *erregiñaren* kondaira edestu eutson Simeon Anaiari. Zaar agurgarriak adi-adi entzun eutson esana eta azkenez bota eutson bir-loraz: "Itali'n ez da onakorik ikusten!".

Alkar-ikustea, uste dot, eritxi onekoa izan zala Révérony Jaunarentzat. Ordutik, beti erakutsi eustan, azkenez, siñisten ebala nire bokaziñokoa egia zala...

Aita Santuaz eukitako mintzatze urrengo egu-nean, goizetik urten bear genduan Napoles eta Ponpei'rako txangoan. Besubio, gure omenez edo, egun osoan ots batean egon zan, bere erraietatik, bere kañoi-danbadakaz batera, ke-adar lodia jaurtirik. Ponpeia'ko ausiabantzetan itxi dabezan az-tarnak izugarriak dira; Jainkoaren al-izatea era-kustan dabe, "lurra begitzu dardar daragiona, mendiak ikutu ta ke biurtzen dabezana"... (Sal. 103, 32).

Eder izango jatan ango ondakiñetan zear baka-rrik ibiltea, giza-semeen auskortasuna gogoratuz; baiña erromes-aldeak kendu egiten eutson onda-turiko uriari bere lillura goibelezkoaren zati aun-di bat...

Napoles'en oso bestera jazo zan. Zaldi biko zalpurdi pillo batek oso ikusgarri egin eban gure ibillaldia, San Martin monastegirako bidean, uri osoa azpian artzen dauan guren garai baten bizka-rrean dagoanera; burdia eroien zaldiak pitean potean gairi egiten eben eta baten baiño geiagotan uste izan neban neure azkena eldu zala zalpur-di-zaiñak alperrik esaten eban bein eta barriro

italiar gidariak esan oi daben berba miragillea: "Appipó, appipó!". Zaldi gaixoak etsita egozan burdia iraultzen. Azkenez, eskerrak gure aingeru jagolak babestu ginduezala, eldu al izan genduan ondo geure otel ederrara. Geure osteria guztian ostatur otel nagusiak euki genduzan. Inoiz be ez neban ikusi neure burua ainbeste edertasunez inguratuta. Egiaz esan bear dot, aberastasunak ez dagiela zoriona; ni beintzat askozaz be zoriontsuago sentiduko nintzan lastozko aterpe baten, karmeldar izateko itxaropenez, urrezko goi-apain artean, marmol zurizko mailladi ta sedazko tapiz artean, biotz garratz baiño.

Al! Ondo ulertu neban poz-atsegiña ez dala aurkitzen biran daukaguzan gauzetan, arimearen barren-barrenean baiño; bardin-bardin euki leike espetxe baten naiz jauregi baten. Or ezaugarri bat, ni gaur zoriontsuago naz Karmeldegian, neure barruko ta kanpoko sufrimentuakaz, orduan munduan, bizitzako erosotasun guztiakaz inguratutik eta, batez be, aitaren sukaldeko gozotasunakaz nengoanean baiño!...

Naigabea murgil neroian arimea. Alan be, bardiña nintzan kanpotik, uste neban ba iñok ez ebala ezagutzen Aita Santuari egon neutson eskabidea. Laster igarri neutson etzala olan. Bagoian Zelina'gaz bakarrik geratu nintzan baten (beste erromesak ostatura zer bait artzera jatsiak ziran, geltokiko geldi-unean;), Legoux Jauna, Coutances'ko Bikari Orokorra ikusi neban, ataka edegirik, begira neukan, eta barreti esaten eustala: "Ondo! Zelan jarraitzen dau gure karmeldar txikiak?...".

Orduan ezagutu neban erromes guztiak ekiela nire ixilla. Egiazki iñortxok be ez eustan itz-egin orretzaz; baiña danak ain txeratsu begirutzen

eustelako, ortik atera neban nire eskabidea etzala jausi txarto, ondo baiño...

Asis'ko uri txikian Révérony Jaunaren kotxera igoteko eretia izan neban, joan-etorri guztian andra bati be emon ez jakon mesedea. Ona zelan eldu jatan omen ori. San Frantzisko ta Santa Klara'ren birtutez lurrundutako lekuai agur egin ondoren, azkenez Santa Ines, Santa Klara'ren aiztearen komentua ikusi genduan. Ni naikoa luzatu nintzan, neure naierara, deunaren burua ikusten, andik alde egitean, azkenengoetako bat nunbait, gerrikoa galdu nebala konturatu nintzan. *Billatu* neban jentearen artean. Apaiz batek, nitaz errukiturik, lagundu nindun. Baiña aurkituta gero, andik alde egiten ikusi neban, eta ni geratu nintzan oraindiño *billa*, gerrikoa neure eskuetan egoan arren, ezin neban ipiñi, belarria falta zalako... Atzenez, egal baten ikusi neban dizdizka. Jaso ta gerrian jartea etzan arazo luzea izan; baiña bai aurreko lana, luzeegia izan zan. Orixegaitik izugarria iruditu jatan, eleizatik urtekeran bakarrik aurkitzea. Kotxe guztiak joanak ziran, Révérony Jaunarena ezik. Zer egin? Orain ikusten etziran kotxeen atzetik ariñeketan asi, tren galtzeko arriskuan sarturik, gure aita maitaren kezka aunditu, edo-ta Révérony Jaunaren zalburdian lekutxo eskatu?...

Bigarren au onartu neban. Al izan neban eta ondoen, estu ta larri lauskiturik nengoan arren, esan neutson zelan aurkitzen nintzan, eta bera be *kinka* baten ipiñiaz, bere kotxea peregraziñoko zaldun jatorrenakaz beterik bai joian; etzan errez jarleku bat geiago aurkitzen. Zaldun bat, baiña, oso eziketa onekoa, niri lekua, ni jarri-azo nindun

beren lekuan eta bera guztiz eratsu burdin-zaiñean ondoan artu eban lekua.

Nik lakioan jausitako katamixarra emoten neban, eta ez nengoan neure gogora, pertsona aundi guzti areikaz inguratua, eta, batez be, aurrez aurre jarriarik niñoiaren ondoan... Alan be, bera oso maitekor agertu zan nigaz, noizik bein jaun areikin eroian alkar-izketa, Karmeloaz niri itz egiteko, etenaz. Geltokira eldu aurretik, pertsona guren guzti areik euren diru-zorroak atera ebezan, zaldizaiñari (aurretik ordainduta egonda be) eskupeko bat emoteko. Nik be bardintsu egin neban, eta neure zisku *txiki-txikia* artu neban, baiña Révérony Jaunakez eustan itxi bertatik ateratzen neure *dirudi politak*, naiago izanik bion ordeztz aundiago bat emotea...

Beste bein be bere ondoan aurkitu nintzan autobusean, eta besteetan baiño be maitagarriago, *ni Karmelo'n sartu nendin al eban guztia egingo euala agindurik*... Miritza gozo apur bat alkar aurkitze oneik neure zaurietan jarrita be, onuzkoa aruzkoa baiño naikoa mergatzagoa izan zan, orain ez neukan ba "Aita Santuaren" itxaropena. Lurrean ez neban aurkitzen ezerean laguntzarik, eta eremu legorra iruditzen jatan berau, eta ur bakoa. Jainkoagan ipiñita neukan bakar-bakarrik ipiñita neure itxaropen guztia... Argi ikusi neban, bai, oba dala Beragana zuzentzea santuekana baiño... Nire arimearen tristura, etzan alan be, eragozpen izan bidez bide ikuskatzen genduzan tokietan interes aundia ipinteko.

Florentzia'n Pazis'ko Magdalena deuna begi aurrean eukiteko zoria izan neban karmeldar lekaimen eleizako koru erdian jarria, eurak bertako burdin-sarea edegi euskuen. Ez gendula olako

baimenik izango ta jente askok euren errosario-kaz Deunaren illobia ikutu gura-ta, neuk bakar-bakarrik eskua igaro al izan neban agandik urritzen ginduzan sare artetik. Beraz, danak ekarstezan errosarioak, eta ni arro nengoan ofizio ori egiñaz...

Beti aurkitzen neban dana ikutzeko erea. Olan, Jerusalem'go Gurutz Done eleizan (Erroma'n) egiazko Gurutzearen pusketa batzuk gurtu al izan genduzan, arantza bi eta untze sagaratuetatik bat, guztia au urre landuzko erliki-kutxa eder baten gordeta, baiña *kristal* barik, orrela erliki bikaiña gurtzeko txanda eldu jatanean, erliki-kutxaren zuloa batetik neure atzamar txikia igaroteko madua aurkitu neban olan Jesus'en odoloz asetua izan zan untzea ikutu al izanik...

Egiatz, ni ausartegia nintzan!... Eskerrak, biotz-barruak ikusten dabezan Jainkoak ba-dakiala nire asmoa garbia zana eta munduko zertxogaitik be Ari naigaberik emoterik gura izango nebala. Beragaz jokutzen neban dana eskuko daua uste dauan umetxo baten antzera, eta bere aitaren ondasunak bereak lez begitzen dauazana.

—Oraindik ezin dot ulertu emakumeak zergaitik Italia'n ain exkomulgatuak diran. Pitean poetan esaten euskuen: "Ez zaiteze emen sartu"... "ez sartu ar, exkomulgatuak geratuko zarie-ta!...". Al, emakume gaixoak! Ezetsiak bai dirala!...

Alan be, eurak, gizonak baiño naiko geiago dira Jainkoa maite dabenak, eta Jaunaren Nekaldian apostoluak baiño adore geiago agertu eben, soldaduen iraiñak, ba, eroan ebezan eta Jesus'en Arpegi gurgarria txukatzen azartu ziran...

Jaunak gurako dau bear bada gitxi-eristea izatea lur gaiñean euren erentzia. Berak be beretzat orixe aukeratu ebalako... Zeruan erakutsiko dausku argi bere pentsamentuak ez dirala gizonen pentsamentuen antzekoak, orduan bada *azkenengoak* izango dira *lenengoak*...

Ostera bitartean, baten baiño geiagotan falta izan jatan pazientzia, zeruari itxaroten aurrena izan nairik... Karmeldar lekaideen komentu baten ikusle genbiltzan egun batean, kanpoko bebarruetan zear beste erromesai jarraitu orde, *barruko* klaustroetan zear sartu nintzan... Bat-batean, ikusi neban karmeldar zartxo bat, urrundik, andik alde egiteko, kiñuka iñostana; baiña ni, alde egin bearrean, oraindik geiago urreratu nintzan beragana, eta klaustroko laukiak erakutsirik, politak zirala adierazo neutson. Lekaide arek ezagutu eban, antza, neure ule-adatsa bizkar gaiñ eta neure gazte-itxuraz, ume bat nintzala, eta, maitaro irribarrez, urrindu zan andik, bere aurrean arerio bat ez eukala-ta. Italieraz berba egiten jakin ba neu, laster karmeldar moja izango nintzala adierazoko neutson; baiña Babel torrea jasoten ebiltzanen erruz, eziña litzakidan ori.

—Pisa ta Genoba be ikuskatu ondoren, itzuli giñan Frantzi'ra. Onuzkoan, ikuspegi benetan ederrak izan genduzan. Batzutan itxas-egaletik gentozan, eta trena ur-egal-egaletik ebillen eta olatuen urak geuganaño eldu bear ebela uste genduan (ikuskari au ekaitz batek sortua izan zan; illun-abarra zan, eta onek oindiño izugarriago biurtzen eban gauzea).

Beste batzutan zelai zabalak ziran, laranja-sailak ziran frutu umotuakaz, osto jorizko olibo berdez edo-ta palmera txanbeliñez... Arrats apa-

lean, itxas-egaletako portu txiki asko ikusten genduzan, argi asko ta askoz dizdizka, zeruan lenengo *izarrak* ixioten ziralarik...

Al, zenbat olerki ta ederrek beteten eustan ari-me, nik neure bizitzan legengoz eta azkenez aundiesten nebazan gauza guzti areik begipean izanik!... Pena barik, alan be, ikusten nebazan ostenduten. Beste arrigarritasun batzuk opa ebazan nire biotzak. Naiko ikusirik neukazan *lurreko edertasunak zerukoak* ziran nire gurarien jomuga. Eta arimai be eurotatik goza-azo nairik *atxillo* bizi nai neban! Nik egi-egiaz nai neban presondegi bedeinkatuko ateak niretzat edegi baiño gogor jokatu ta sufridu bear neban oindiño: aurrez neian, Frantzira itzultzean batez be.

Baiña, uste oso-oso neban nik eta orretan nengoan, abenduaren 28'an Karmelo'n sartzeko baimena jadetsiko nebala...

Lisieux'era elduaz batera, gure lenengo ikustaldia Karmelo'ra izan zan. A bai alkar ikustea! Illabete alkar ikusi barik, eta guk bai geunkazala gauza asko alkarri esateko!; eta joan-etorri orretan, urte askotan baiño geiago, nik ikasia!...

O!, ene Ama maite! Ze gozoa niretzat zu barriro ikustea!, neure arima gaixoa, zauritua! Zuri, ni ain ederto ezagutzen dakizun orri, berba bat, begirada bat, dana igarteko, naikoa dozun orri! Oro itxi neban zeure eskuetan. Neure mende egoan guztia bete neban; guztia, bai, Aita Santuari be itz egin neutson. Egiaz, ez nekian onezkero zer falta jatan egiteko. Gotzain Jaunari idatzi nengiola esan zeustan, bere agindua gogoraturik. Orrela egin neban beingoan, al nebanik ondoan, baiña gure osabak nai izan eban lez, erabagitsuegi. Berak ber-

egin eban nire eskutitza. Eta korreora botatera niñioian unean zeure bat artu neban ez idazteko, egun batzuetan itxaroteko esanaz. Zuk esana egin neban osorik, ba nekian-eta auxe zala biderik onena oker jokatu ez nengian.

Azkenez, Gabon eguna baiño amar egun lenago, joan zan nire karteal Erantzuna laster izango nebalakoan, goiz guztietan, meza ondoren, korreotara joan oi nintzan aitagaz, egaz egin al izateko baimena an aurkituko nebala-ta. Baiña goiz bakotxean etsipen barri bat nenkarren, alan eta guzti be nire fedea austuten ez ebana... Jesus'i eskatzen neutson Berak ausi egizala nire loturak; eta Berak eten zituan, baiña ez nik itxaroten neban legeaz, modu diferentean baiño...

Eldu zan Gabon jai ederra, eta Jesus etzan esnatu... Zelaian itxi eban bere pelotatxo, poztasunezko begitu bat be gaiñ bota bagarik... Austuta neroian biotza, Gaberdiko mezatara joan nintzanean. Ondo janaritua neukan ames bat, ots, gaberdiko mezea Karmelo'ko burdin-sare ostetik entzungo nebala!...

Proba aundia izan zan au nire fedeaerentzat. Baiña lo dagoala itxarrik dagoanak, ulertu-azo eustan. Berak mirariak egin oi dauazala, eta mendiak aldatu be bai, mostaza-garau baten antzeko fedea daukenen onerako, fede pitin ori geiago sendotzeko; baiña kutunakaz, bere Amagaz, Ak ez dau miraririk egiten *amaren fedea ondo aztertu arte* (Mat. 17, 19).

Lazaro ez eban bear ilten itxi Marta ta Mariak iragarri eutsoen arren illa zala? (Jon. XI, 8)... Kana'-ko ezteguetan, Andra Mariak Jesus'i etxeko jaubea lagundu egiala eskatu eutsanean, ez eutson eran-

tzun, bear bada, oraindik etzala eldu bere ordua? (Jon. 11, 4)... Baiña proba ostean zelako saria! Ura ardo biurtu zan!... Lazaro berbizten da!... Olaxe egin eban Jesus'ek be Teresatxogaz. Denpora luzean aztertu ondoren, bere biotzeko gurari guztiak bete ebazan...!

Jai-egun gozatsu aretako arratsaldean, niretzat malko artean igaro ondoren, Karmeldar monjak ikusten joan nintzan, iragarria izan zan nire poza sarea zabaldu ta neure izena idatzirik eukan pelotat bat bere eskuan eukan Jesus Umea zoragarri bat agertzen ikustean. Karmeldarrak, oraindik berba egiteko txikiegia zan Jesus'en ordeaz, neure Ama maiteak ondutako kantu bat abestu eusten. Berba areitako bakotzak poztasun bete ixurtzen eben nire ariman. Ez dot sekula aztuko ama-gozotasun samurrez beti ase nauan bigun ezti...

Negar-malko gozoak jarioka eskerrak emon ondoren, kontatu neban Zelina laztanak emon eustan pozkarioa gau-erdiko mezatik biurtzerakoan. Azpil oso polit bat aurkitu neban neure gelan; erdian untzitxu bat eukan, Jesus *txikia* lo eroiana, alboan *pelotatxo* bat eukala. Oial zurian Zelinak berba oneik idatzi zituan: "Lo nago, baiña ernai nire biotza" (Abest. 5, 2). Eta untzian itz bakarra: "Itxiera!" A!, Jesus'ek oreindik bere emaztegai txikiari itzik egiten ezpa-eutson, bere Jainkoak begiak itxirik be egozan, berari iragarten jakon beintzat samur eta bigun ziran arimen eta bere biotz maitekorrenen bitartez...

1888'ko urteko lenengo egunean, Jesus'ek egin eustan barriro be bere gurutzearen atsegin-saria. Oraingoan, baiña, neuk bakarrik eroan neban, niretzat ulert-eziñago ta oiñazetsuago izan zalako. Maria Gonzaga Amaren karta batek jakitun jarri

nindun Gotzaiñaren erantzuna 28'an eldu zala, Ume Errubageen egunean; baiña ez eustala iragarri nai izan, berak erabagi ebalako nire sarrera etzala ospatuko Garizuma osterarte.

Ezin izan neutsen negar-malkoai eutsi etxaite ain luzea gogora ekarriz. Proba au guztiz garrantzitsua izan zan niretzat. Nire lokiak ausita ikusten nebazan munduaren aldetik; baiña oraingoan inguru santua zan usotxo gaixoari sarrera galazoten eutsona...

Autortzen dot ez nintzala errazoi aundiko agertu neure erbesteko iru illabeteak pozik artu ez nebazalako. Uste dot, baita, agertu ezta be, proba a guztiz aundia izan zala, eta gorantz eragin eustala, ez gitxi be, Jainkoagan itxitean eta beste birtuteetan.

Zelan joan ete ziran iru illabete oneik, grazitan ain oparoak nire arimearentzat?... Lenengotan izan neban tentaldiaren zirikadea: ez neban eroango oituraz neroiana baizen bizitza zeatza. Baiña laster konturatu nintzan emoten jatan denpora aren balioaz, eta leen baiño bizi-modu zintzo ta ilduratuagoa egitea erabagi neban. Ilduratu edo mortifikadua diñodanean, ez dot esan nai penitentziak egiten nebazala... Ai!, *iñoiz be ez neban* olakorik egin! Ainbat eratako ildura ta mortifikaziñoak umetatik egin oi ebezan arima aundi arein antzeko izan bearrean, nik ez neban olakoen lillurarik sentitzen. Bear bada, ni zabar nintzalako jatzun ori, billatu neikezan, ba, milla maiña. Zelina'ren antzera, sufridu al izateko.

Orrela egin bearren, beti samur erabilla ninduen neuk naita, eta loditu penitentzi egin bearrik ez daukan txoritxo baten antzera.

Nire buru-ukapena izan oi zan, beti bereaz urten gura izaten eban borondatea austea; edozein itzi ez erantzutea, balio barik zerbitzu txikiak egitea, jarrita egoanean sorbaldea ez zutikatzea, eta abar, eta abar... *Ezereztxo* oneik egiñaz, gertatu nintzan Jesus'en kutuna izateko, eta eziña jat esatea, zenbat gomutagarri gozo itxi eustazan itxarote onek...

Iru illabete arin doaz, Azkenez, eldu zan ain biziro itxarotako eguna.

VII ATALA

KARMELDEGIAN (1888-1890)

Jorraillaren 9'an, astelenez, Karmelok, garizuma zalako aldatuta, Andra Mariaren Iragarkundea ospatzen eban; auxa izan zan, ni sartzeko, egun izentatua.

Bezperan, famili osoa aurkitzen zan mai inguruan; ni azkenengoz jarten nintzan. Al, erdiragarrak bai dirala onako sendi-batzarrak!... Iñor konturatu barik joan nai leuke batek, eta orduantxe zuzendu oi dautsez bati berbarik samurrenak eta txerarik bizienak, olan sentikorragoa egiñik banatzerako sakrifizioa...

Aitak ez eban ia-ia berbarik ebagiten, baiña neugan eukazan maitati bere begiak... Gure izekok negar egiten eban noz-edo-nozean, eta nire osabak milla eregu eztiz beteten nindun. Juana ta Maria be zurikeri ta gozotasunez gafiñezka agertzen jatazan. Maria, batez be, banazean eroanik, bere ustez emon eustazan atsekabe parka eskatu eustan. Nire Leonia kutunak, azkenez, Bizitaziño-Ikastetxetik illabete batzuk zirala itzuli zanak, besteak baiña be gogotsuago, mosuz eta txeraz beteten nindun. Zelina'z bakarrik ez dot ezer esan; baiña zuk igarten dozu, ene Ama maitea, zelan igaroko genduan, biok, azkenengo gauda, lo egin genduna...

Egun oroigarriko goizean, Buissonets'ei, geiagoko ikusiko ez neban neure umearoko kabi txar-mantari, azken begirada zuzendurik, abia nintzan neure errege maitearen eskuz, Karmel mendira igon nendin...

Bezperan lez, famili osoa alkartu zan mezea entzun eta bertan Jaunartzeko. Nire senidarteko maiteen biotzetara Jesus jatsi zaneko, negar-zotiñak besterik ez neban entzuten neure inguruan. Neu izan nintzan soilki negarrik egin ez ebana, baiña zauskada *zakarrak* somatzen nebazan biotzean, eta komentuko aterantz urreratuz giñoizala esan euskuenean, beste oinkada bat ezingo nebala emon, uste izan neban. Alan be, ara zuzendu nintzan, neure buruari itanduz ez ete nintzan ilgo, nire bitzaren taupadak gogor-gogorrak baitziran... Al, a unea al Bera bizi bear, ulertzeko!...

Nire biotz-erasoa etzan agertu kanpotik. Neure familiko maite guztiak besarkatu ondoren, belau-niko ipiñi nintzan gure aita bardin-gabekoaren aurrean, bedeinkapena eskatuz berari. Berau niri emoteko, *bera be belau-niko ipiñi zan*, eta negarrez, bedeinkatu nindun...

Aita zaar a, bere alaba Jaunari eskeinka, bizi udabarrian oindiñokarren, aingeruak be irri-barreka ipiñiko zituan!...

Une batzuk geroago, Kutxa Santuko ateak zarratu ziran neure atzetik, bitartean nik barruan niretzat ama-papera egin eusten *aizta maiteen* besarkadak artzen nebazan, eta aurrerantzean eurok neure egitadeen ikasbide lez artuko nebazan...

Azkenean be, nire gurariak, beterik. Nire arima bake ezti sakonean; eziña jat bera bear lez adieraz-

tea. Eta zazpi urte ta erdi diranetik, bake onak bizi-bizi irauten dau nire ariman, ez nau egundo be laga, ezta atsekaberik izugarrienen artean be.

Sar-barri guztiak lez, sartu ta bertatik, korura eroan ninduen. Erdi-illunean egoan au, gure Jau-na agirian egoalako, eta nire begiak lenengo erakarri ebazana, gure Ama Genobeba donearen begiak izan ziran, neugaz tinkatu ziranak. Aren oiñetan egon nintzan une baten belauniko, Jainkoari esker-rak santa bat ezagutzeko mesedea egin eustalako, eta ondoren Maria Gonzaga Amari jarraitu neutson, lekaimetxe tokiak erakusten eustazalarik. Zoragarria iruditu jatan guztia. Eremu batera eroana izan nintzala begitandu jatan. Nire gelatxoa, batez be, su ta gartzen ninduan.

Sentitzen neban poza, baiña, ezti-narea zan. Aizeño bigunenak be ez ebazan kulunkatzen nire ontzitxoa zoian ur zabalak, odei batek be ez eban illuntzen nire zeru oztiña... Al, ondo ordaindua sentitzen nintzan neure atsekabe ta oiñaze guztietatik!... Nik bai poz betean bir-esaten nebazala itzok: "Emen nago betiko, betiko?... Poz-atsegin a etzan egun batekoa, etzan urtuko "lenengo egunetako ames-lillurakaz". Amesak! Jainkoak nai izan eban, Karmelo'n sartzean bat be ez egitea. Neuk iruditu neban bezelaxe aurkitu neban lekaime bizitza Sakrifizio bat be ez jatan arrigarri egin. Eta alan be, zuk ba-dakizu, ene Ama maite, nire len-pausoak larrosak baiño arantza geiago aurkitu ebezala!...

Bai, sufrimentuak luzatu eustazan bere besoak, eta nik eurotan murgildu nintzan maitasunez... Jesus Ostiaren oiñetan, neure profesa aurreko azterketan, azaldu neban zer egiten etorri nintzan

Karmel komentura: "Arimak salbatzera etorri naz, eta batez be, eleiz-gizonakaitik otoitz egiten".

Elburua jadetsi nai danean, bera eskuratzeko bearrezko diran bideak artu bear dira. Jesus'ek adierazo eustan arimak emon gura eustazala gurutzearen bitartez. Eta nire sufritzeko guraia geituz joian sufrimentua bera aziaz joian neurrian.

Bost urtez auxe izan zan nire bidea; baiña kanpotik ezek be ez eban erakusten nire sufrimentua, neuk bakarrik ezagutua zalako naigabetsuagoa bazan be. Al, munduaren azkenean bai izango doguzala uste bako zera, arimen kondaira irakurtean!... Zenbat pertsona geratuko dira arriturik, nireia eroana izan zan bidea ezagutzean!...

Au egi-egia bait da, ni komentuan sartuta illa bira, Aita Pichon, Jesus'en Biotzaren Maria aitzari profesa emotera etorririk, txunditua geratu zan Jainkoak nire ariman egiten ebana ikusiz, eta esan eustan, bezperan, koruan otoitzean ikusi ninduean, nire errezu-beroa umeena zala oso uste izan ebala, eta guztiz leuna nire bidea.

Aita onegaz euki neban alkar ikustea, pozaldi ikaragarria izan zan niretzat, naiz-ta negar-mal-koz lausotua, neure arimearen barnea adierazteko neukan eragozpena zala-ta. Alan be, autortza orokorra egin neban, iñoiz egin ez neban lakoxea. Azkenean, nire arimearen entzumenean egundo otsik egin ez daben itzik pozgarrienak, esan eustazan: "*Jainkoaren, Andra Mariaren eta santu guztien aurrean, DIÑOT IÑOZ EZ DOZULA PEKA-TU ASTUNIK EGIN*". Gero gaiñeratu eban: "Emon eskerrak Jainkoak zugaz dagiana gaitik, Berak izten ba zaitu, ba, aingerutxo bat izan bearrean, dea-brutxo bat izango zara".

Al, bai siñesten neban, eta erre; ba-nekian zein deus-eza ta makala nintzan, baiña esker onez beterik neukan arimea; ez neban nai ezetara be neure bateoko jantzi zuria loitu nai, au lango esakun bat, artezkari baten aotik, gure Teresa Amak, gura ebazan langoen, au, da, *jakituria ta birtutedunen* aotik urtenak, Jesus berberaren ezpa-netatik urtena iruditzen jatan... Aita onak, neure biotzean josirik geratu diran itzok be esan eustazan: "Ene alaba, Gure Jauna izan bedi beti zure Nagusi, eta sartu-barrien Maisu". Olan izan zan egiaz eta baita "nire zuzendari" be.

Orrekin ez dot adierazo nai neure nagusiai zarratu dautsedala neure arimea, oi, oso-osorik bestera; eurentzat *liburu argi* izaten alegindu naz beti; baiña gure Amak, gaixorik sarri, ez eban denpora askorik nigaz arduratzeko; alan be, Jainkoak nai izan eban, berak jakin-ezean, nigaz OSO GOGORRA izatea. Ezin nintzan beragaz aurkitu lurrari mun emon barik, eta bardin jazoten zan berarekin euki oi nebazan alkar-izketa bakane-tan... Esker gai-gaiñekoa! Argi be argi lan egian Jainkoak bere lekua eukanarekin!... Zer izango ete zan nitaz, munduko pertsona batzuk uste eben lez, "lekaimeen jostaillu" izan banintz?... Bear bada, Nagusietan Gure Jauna ikusi bearrean, pertsonak baiño ikusi ez ba nituela nire biotza ain *babestua* munduan, komentuan gizaki lotua izan balitz?... Ezbear ortatik zorionez urrindu ninduen. *Asko maite* neban, ziur asko, gure Ama, baiña *txera garbiz*, neure arimearen Senarragana jasoten ninduaneez...

Gure maistrea *santa* bat zan bene-benetan, lenengo karmeldar mojen eredu-eredua; beronegaz emon oi neban eguna, beronek erakusten bai

eustan lanean. Ona zan nigaz, muga bagarik, eta alan be nire arimea etzan azaskatzen... Askokos-tatzen jatan zuzendaritza, ez nengoalako neure arimeaz itz egiten oiturik, ez nekian zelan adierazo bertan jazoten jatana. Ama zaartxo batek goiz baten igarri eustan zer jazoten jatan, eta jolasaldian esan eustan irri-barreka: "Alabatxo, zuk ez dot uste gauza askirik daukazunik Nagusiei esateko".—"Zergaitik diñozu ori, Ama?"—"Zure arimea oso *laua* dalako, eta santa izatera eltzen zareanean, *lauago* izango zara oindiño". Egia iñoan Ama onak; bitartean neure arimea edegiteko neukan zailtasuna, neure lautasunetik etorria izanik be, egiazko kosta jatan; orain ulertzen dot; lau izatea itxi barik, ba, erreztasun osoz adierazten ditut neure sentimentuak.

Jesus izan zala, esan dot, "nire zuzendaria". Karmelo'n sartu nintzanean ezagutu neban izango nebana, baiña bereen artean artu ninduneko erbesterako bidea artu eban... Ez neban ezagutu arin baiño ariñoago saltzeko baiño... Berak idatzita urtean karta bar artu oi neban bakar-bakarrrik, nik idazten neutsozan 12'akaitik; nire biotza, beraz, laster biurtu zan zuzendarien Zuzendari danagana eta Beronek eskolatu nindun jakitun eta zuurrentzat estaldurik dagoan eta Berak txikienai iragarri oi dautsen jakituri onetan (Mt. 11, 25).

Karmel mendira aldatutako loratxoa gurutzearen kerizpean edegi bearra eukan; malkoak eta Jesus'en odola izan ziran iruntza, eta eguzkia, aren Arpegi gurgarria, negarrak lausotua... Ordu-rarte ez neban barneratu Arpegi Donean gorderik egozan ondasunen sakontasuna. Zeu izan ziñan, ene Ama maite, eurok aztertzen erakutsi zeustana. Zeu beste ordutz, Karmelo'n be, gure aurreti-

koa izan zintzazan, olantxe orain be zeu izan ziñan lenengo gure Senarraren Arpegian gorderik egozan maitasun misterioak sakontzen; zuk orduan dei egin zeustan eta nik ulertu... Ulertu neban zer zan *egiazko aintza*. Arek bere erreñua mundu ontakoa ez dauanak (Jn. 18, 36), erakutsi eustan, benetako jakituria dala, "ez-ezaguna izatea" ta "ezer-eztzat" eukitea, nobere destaiñean eukitea"... (24). Al, Jesus izan zan legez, nik nai neban "Nire arpegia egon eitela egi-egiaz gorderik, iñok be lurrean ezagutzen ez ebala" (Is. 53, 3). Sufridutea nai neban, danak azturik euki nengielea...

Zein errukitsua izan zan Jainkoak ni beti zuzendu nauan bidea; *iñoiz be* ez daust nai izan-azoz emon ez daustan gauzarik! Orixegaitik Aren edontzi garratza beti iruditut izan leuna...

Maiatzeko jai zoragarrien ostean, profesajai eta geure Maria maite, familiko *len-alabaren* bere eztegu egunean, zorion aundiz azkenengoak, koroatu ondoren, naigabe-pena etorriko jatan atera oleska...

Aita gaixorik

Aurreko urtean aita, maiatz illean, anketako elbarri edo perlesiak jota geratu zan. Askok kezkatu giñan orduan, baiñan nire aita gorputz sendoko zalako, laster etorri jakun bere onera eta uxatu ziran gure kezka. Alan be, baten baiño geiagotan, Erroma'rako osteran, errez nekatzen zala konturatu giñan, ez egoala beti baizen alai... Nik batez be

(24) Kristoren Autz-Bidea, 1. gn liburua, 2, 3 atala.

ikusten nebazan aítak zelako aurrerakuntzak egiten ebazan Jainkoaren zerbitzuan. Sales'ko Franzisko deunaren antzera bere berezko bizitasuna oso-osorik azpiratzera eldu zan, munduko gizasemerik otzanena lez agerturik... Lurreko gauzak, itxura zanez, ez eutsen ikuturik be egiten; bizitz ontako inki-makoen gaiñetik erre jarri oi zan. Azkenik, *poz-atsegiñez ase* oi eban; Jesus Sakramentaduari egunero egiten eutsozan ikustaldietan, aren begiak sarri malkoz bustiten ziran eta zeru-zoriona erion aren arpegiari... Leonia Bisitaziño konbenturik urten zanean, etzan naigabetu, ezta Jainkoari alaka egin be, bere alaba maitearentzat bokaziñoa eskatuz; bere billa joan zan, eta alai samar joan be...

Ona zelako siñismenez aítak onartu eban bere erregiñatxoaren banaketa. Barri au onela iragarri eutsen Alenzon'go bere adiskideai: "Adiskide maiteak. Teresa, nire erregiñatxo, atzo sartu zan Karmelo'n!... Jainkoak bakar-bakarrik eskatu leikit olako oparia... Ez eidazue errukirik izan, nire biotza pozez gaiñezka dago-ta".

Ordua zan onezkero, zerbitzari ain zintzoak bere lanen saria artzeko; bidezko zan bere alogera, Jainkoak Zeruko Errege, bere Seme Bakarrari egin eutsonaren antzeko izatea... Aítak, *Altara* bat eskiñi barri eutson Jainkoari eta berau izan zan aukeratua opari lez bertan Bildots orbanbakoz eskiñia izateko. Zuk ezagutzen dozu, ene Ama maite, *bagilleko* gure atsekabeak, eta batez be 1888'ko 24'koak. Gomuta oneik barruegi josita dagoz gure biotzen ondo-ondoan, eta ez dago eurok zetan idatzirik... O!, ene Ama, zenbat sufridu dogun!... eta au etzan gure proba ta larritasunen asiera baiño...

Teresak abitua jazten dau

Bitartean eldua zan nik abitua jazteko eguna; komentuko batzarrak onartuta nengoan, baiña zelan eratu beronen zeremonia? Kanpora urten barik niri jantzia emotekotan ebiltzan; baiña oba zan pizkat itxarotea. Eta bape itxarokizun barik, gure aita maitea onez urten zan bere bigarren kolpetik eta Gotzaiñak zeremonia egiteko eguna jarri eban urtarrillaren 10-a. Luzaro egon bearra izan neban, alan be bai jaikizun ederra!... Ez neban ezek be uts-egin, ezek bere ez, ezta edurrak be... Ez dakit itz egin dautzudan jadanik edurrari dautsodan maitasunaz...

Oso txikia nintzanean, aren zuritasunak birlo ratzen nindun; atsegingarri jatan bene-benetan edur —malutapean ara ta ona ibiltea. Zergatik ete edurra atsegin? Bear bada, *neguko loratxo* bat izanik, nire ume-begiak izadia, lenengoz apain, zuriz jantzita ikusi ebelako... Au da, nik opa izan neban, neuk abitua jazten neban egunean, izadia be neu lez zuriz jantzita egotea. Egun eder onen bezperan tristuraz begiratzen neban zeru urdiña, noizik bein euri-tanta batzuk erioka egoana; giro leunez, aldatzeko itxura barik, beraz edur bage. Urrengo goizean, zeruan ez egoan aldakuntzarik; alan be, zoragarria izan zan jaia, eta ederrena; lorarik zoragarriena neure errege maitea izan zan. Iñoiz etzan egon izan, ez *ederrago*, ez *duiñago*... Danak goratua izan zan, egi-egiaz *garaipen-eguna*, bere azken-jaia emen beian. Jainkoari emon eutsozan seme-alaba guztiak, Zelinak be ba iragarri eutson bere bokaziñoa eta berak (aítak) *negar egin eban pozez*, zeruari eskerrak beragaz joanik, "alaba guztiak eskatuaz omentzen ebalako".

Zeremoni ondoren, Gotzaiñak Te Deum asi eban; abade batek esan eutson ereserki au profesa egunetan bakarrik abestuten zala, baiña asita egoan eta eskerrak emoteko kantu au azkeneraiño abestu zan. Ez ete zan izango jai oso-osea, berton batzen ziralako beste guztiak be?... Neure erregea azkenengo besarkaturik, barruan sartu nintzan ostera be. Itxitu barruan lenengo ikusi nebana "neure Ume Jesus larrosa" izan zan, argi ta lore artean irribarrez, eta bat-batean edur-txingoak begitu nebazan... Larriña zuri aurkitzen zan, neu legez. Jesus'en ondo-naia. Bere emazte txikiaren gurariak aurrez beterik, edurra eskintzen eutson... Edurra, zer illezkor da, aaltsu izan arren, bere maiteari atsegiña emotearren zerutik jatsi-azo leikena?... Mundutarrak, bear bada, itaun au egin eutsoen alkarri; au bai ziurra da, neure abitu artze eguneko edurra mirari txiki bat begitandu jakela, eta uri osoa zurturik geratu zala. Bakantzat jo eben nire edur-zaletasuna... Obeto! Onek nabarmenduago egin eban birjiñen Senarraren *lerrokortasun ulertu-eziña*... zitori zuriak EDURRA lez maite dauan Arenak lez!

Gotzain Jauna sartu zeremoni ostean eta aita samur bat lez egon zan nigaz. Arro egon zala uste dot, nik nai nebana jadetsi nebalako. Mundu guztiari esaten eutson ni "bere alabatxo" nintzala. Jai eder onen ondoren, etorri dan guztietan, Gotzain Jauna beti egon da nigaz oso txeratsu. Gogoan dot batez be. Gurutzeko Juan deunaren eun-urte-burua zala-ta egin eustan ikustaldia. Artu eustan burua bere esku artean, eta milla eregi egin eustazan... Ni ez nintzan iñoiz ain ooretua izan! Bidena-bar Jainkoak gogora ekarri eustan, aingeru ta santuen aurrean emon nai izango leuskidala orren

irudi aul bat mundu onetan; origaitik artu neban poza izugarria izan zan...

Benetako proba

Oraintxe berton esan dodanez, urtarrillaren 10'an, neure erregeren garaipena izan zan, niretzat Jesus'ek Erramu egunean Jerusalem'en egindako sarreraren antzekoa; Gure Jainko Maisuarenean legez, bere *egun bateko* aintza ondoren Pasiño naigabetsua etorri zan, eta Pasiño au etzan beretzat bakarrik izan Jesus'en oiñazeak lez bere Amaren biotz donea be ezpatak zulotu ebezan; bardin-tsu gure biotzak be lurrean samurkiroen maite genduarien sufrimentuak sentidu genduzan... Gogoan dot 1888'ko bagillea, gure lenengo probetan, nik esaten neban: "Asko sufritzen dot, baiña ba-dakit oindiño proba aundiagoak eroan neikezana". Orduan ez nekazan gogora gaiñean neukazanak... Ez nekian otsaillaren 12'an, neure abitu artzetik illabetera, gure aita maiteak, bere *edontzirik garratzena*, guztietatik lots-erazleena edango ebana...

Al, Egun orretan ez neban esan geiago sufridu neikeanik! Itzak ez dira gai gure naigabea adierazteko, ez noia, beraz, eurok azaltzera. Egunen baten, zeruan, eder izango jaku *geure proba aintzatueta*z berba egitea, ez gagoz emen pozik eurak sufridu doguzala-ta?... Bai, aitaren martiritza iru urteak, maitagarrienak iruditzen jataz, geure bizitzako ekar-jorienak; ez neuhez trukatu ko santuen extasi ta agerkari guztiakaitik. Esker onez gaiñezka daukat biotza, zeruko aingeruak indibiz beteta izten dauazan ondasun tajutu-ezin onetan pentsatzean!...

Aserik egoan nire sufritze-gogoa, alan be tira egistan; nire arimeak olan laster ulertu ebazan neure biotzaren sufrimentuak. Liortasuna zan nire eguneroko ogia eta, ezetariko poz-izpi bagarik, ni nintzan alan be izakirik zoriontsuena, neure gura-ri guztiak aserik neukazalako...

O!, ene Ama maite, gozoa bai izan zala gure proba ikaragarria, gure biotz guztietatik ba etziran urten maitasunezko ta esker onezko intziarik baiño... Ez giñoiazan onbide-zidorretik, egaz giñoiazan bostok. Caen'go erbeste gaixo biak, munduan jarraitzen eben arren, etziran munduko... Al, arrigarriak bai egin ebazala naigabeak neure Zelina maitearen ariman!... Garai ontan idatzi zituan karta guztiak etsipenez eta maitasunez kutsuturik dagoz... Eta nok adierazo leikez alkarregaz geunkazan autuak?... O!, banandu orde, Karmeloko burdin sareak indar aundiagoz alkar-tzen zituan gure arimak. Pentsamentu bardiñez sututen ziran, gurari bardiñez, *Jesus'egazko* ta *arimakanako* maitasun bardiñez... Zelina eta Teresa mintzatzen ziranean, euron alkar-izketan etzan egundo be munduko gauzen itzik sartzen, danak ziran zerukoak... Beste orduz bezela begira-tokian, *betiko* gauzak ziran arein ames-gai eta, al bait ariñen azken-bako zoriontasun ori gozatu al izateko, emen beian aukeratzen eban, erentzi bakar lez, "sufrimentua eta destaiña".

Itxaron aldia

Orrela joan zan nire ezkontz-aurreko aldia... Luzea ziur asko Teresatxo gaixoarentzat! Nobizia-duko urte azkenean gure Amak esan eustan profe-sa eskatzerik ez pentsatzeko, Nagusiak ez ebal

ontzat artuko ziur asko nire eskabidea illabeteko itxarotea neukan... Lenengotan neketsu egin jatan buru-ukapen au onartzea, baiña laster argitu zan nire arimea. Nik orduan Surin Aitaren "Gogo bizitzaren Sustraiek" liburua neban gogarte-gai. Egun batez, otoitz bitartean, ulertu neban, profesa egiteko gurari bizi ori, neure buruari neutson maitasun geiegiz nasteen egoala. Jesus'i emona nintzan ezkerro, Berari atsegiña ta poza emotea-rren, bere borondatea barik neurea egitera, ez nebala beartu bear. Baita ulertu neban, emazte batek bere burua apaindu bear ebal bere eztegu egunerako eta nik ez nebala ontarako ezertxo be egin... orduan Jesus'i esan neutson: O!, ene Jain-kol, ez dautzut eskatzen neure botuak aldarrika-tzea; itxarongo dot Zeuk nai dozun bestean; auxe nai dot bakar-bakarrik, nire Zugazko alkartzea nire erruz ez daitela luzatu; orixegaitik, alegin guztia egin bear dot soiñeko eder bat gertetan, arripitxi bikaiñez edertua; naiko aberats aurkit-zen nozunean, ziur nago, izaki guztiak ez dautzue galazoko nigana etorten, betiko Zeugaz alkartzen, o ene Maite!..."

Txirotasun eta buru-ukapen

Neure abitu-artze garaitik, naikoa argi artu neban lekaime-bizitzeari buruz, txirotasunaz batez be. Sar-barri nintzala, eder jatazan gauza politak, neuk erabilteko ziranak, eta eskura eukitea gura izaten neban bear nebana beti. "Nire zuzendariak" pa-zientziz eroan oi eban au, dana batera ez eutsen arimai erakutsi nai eta. Geienik, apurka apurka emoten dautse bere argia. (Neure gogobizitzaren asieran 13 edo 14 urte neukazanean, neure burua-ri itanduten neutson, zer irabazi bearko neban

geroago, uste neban ba eziña zala osotasuna obeto ulertzea; baiña laster ulertu neban, zenbat eta geiago aurreragotu bidean azkenetik urrunago sentitzen zarala; orain, ba, neure burua ez-oso beti ikustera egin naz eta onetan idoro oi dot neure atsegiña...). barriro nator "Neure Zuzendariak" emoten eustazan ikasgaietara.

Gau baten, orduak amaitu ondoren, alperrik ibilli nintzan neure argi-ontziaren billa, onetarako diran apaletan; ixil gogorreko ordua zan; ezin neikean bera eskatu... Konturatu nintzan Aiztaren batek, berea zalakoan, nirea artu ebal, premiña larria ebalako. Argi bage aurkitzen nintzalako atsekabetu bearrean, zoriontsu nabaitu nintzan, txirotasuna ez dala bakarrik gauza atsegiñez gabe izatea, baita bear-bearrezkoz be; orrela, *kanpoko illunpeen* erdian barne-barne argitua izan nintzan...

Gauza motzenak eta erosorik ezenak, izan ziran orduan, niretzat, benetako txera-gai. Olantxe, poztu egin nintzan, gelatik *pitxartxo ederra* kendu ta beronen orde bestea bat, *aundiagoa* ta *maillatua* ipiñi eustenean... Atxakika ez ibilteko, baita, alegiñak egin nebazan, aldatz-gora egiten jatan arren, batez be gure Maistriaz, oni ez bait neutson ezer be ezkutatu gura. Ona nire lenengo garaipen; etzan aundia izan, baiña asko kostatu jatana bai.

Edontzi bat, txikia, leio baten atzean jarria, apurtuta agertu zan. Gure Irakasleak, nik itxi neutsole jausten uste izanik, erakutsi eustan bera, aurrerantzean ardura geiago euki nengiala adierazorik. Mun emon neuntsan lurrari ezer esan barik ondoren arduratsua izango neintzala agindu neutson. Birtute gitxikoa nintzalako, ekin-tza txikiok aldatz-gora egiten jatazan, eta gogora

ekarri bear neban, azken epai-egunean, dana jarriko zala agirian, oarpen au egin oi neban-eta: norbaitek bere bearra beteten dauanean, eta ez da atxaki billa iñoiz ibiltzen, ori ez daki iñoik; alderantziz, uts-egiteak bertatik agertzen dira...

Zalea nintzan, batez be, birtutezko egintza txikiak egiten, aundiak ezin bai nebazan egin; edu orretan, atsegin jatan Aiztak azturik izten ebezan kapak tolostutea eta al nebazan mesede guztiak egitea. Baita laga eusten buru-ukapenak egiteko zaletasuna, nik berau ezin egiñago ta aundiago zana... Munduan egin oi neban buru-ukapena auxe zan, jarrita nengoanean neure sorbalda etzean ez jartea; galazo jatan au lepo-makur izan ez nendin. A!, nire naiak ez eban luzaro iraungo penitentzi asko agindu ba'leusten... nik eskatu barik izten eustezanak, neure burua eztekoak ziran, eta onek gorputz-penitentzi guztiak baiño on geiago egin eusten...

Jantokia, au bait zan izan nire zeregiña abitua jantzi ondoren, ereti bat baiño geiago emon eustan neure buru-eritxi geiegia bere lekuan ipinteko, au da, ankapean. Poz aundia neukan, egia esan, zu be, ene Ama maite, eginkizun bardiñean zengozalako, eta urretik ikusi al izan zenduzan nire birtuteak; urtasun au, baiña, motibu bat jatan sufritzeko; ez nintzan aske *beste orduz lez* zeuri berba egiteko; arau bat bete bear zan; nire arimak ezin eutzun berba egin; azken baten, Karmelo'n nengoa eta ez *Buissonets'etan* aitaren teillatupEAN...

Bitartean Andra Mariak laguntzen nindun neure arimearen jantzia atonduten; amaitua egon zane-ko, berez uxatu ziran eragozpenak. Gotzain Jau-nak bialdu eustan eskatu neutson baimena. Lekai-

meak onartu ninduen eta *iraillaren* 8 geratu zan izentatua nire profesa eguna lez.

Itz gitxitan idatzi barri dodan guztiak, orrialde zeaztu asko bearko leukez, baiña orri oneik ez dira iñoiz irakurriko lur gaiñean. Laster, ene AMA maite, itz egingo dautzut *geure aitaren etxean*, zeru ederrean, orren gurariz intzirika bait dauka-guz geure biotzak!...

Nire eztegu-soiñekoa gerturik egoan; neure Senarrak emon eustazan *arripitxi zarrakaz* apainduta; baiña ori etzan naikoa aren esku zabalarentzat. Diamante barri bat emon nai izan eustan, dizdiz askoduna. Aitaren proba izan zan, bere zertzelada guztiakaz, *pitxi-kutxa zarra*; barria izan zan beste bat, itxuraz txikia; baiña atsekabe aundia ekarri eustana. Aldikada bat zala, obetoago aurkitzen zalarik, kotxean ibilli oi zan. Baita pentsatu zan trenez oster bat egin egiala be, gu ikusten etorri zedin. Zelinak beingoan pentsatu eban neure zapi-artze egunean ori egitea. "Baiña, esaten eban ak, ez dautsat itxiko zeremoni osoan egoten; azke-nean bakar-bakarrik joango naz bere billa eta arretaz eroango dot sareraiño, Teresak bere be-deinkapena artu dagian". Al, ondo dakust emen Zelina neure maitearen biotza... Egia da, bai, "maitasunak ez daukala eziñik aurkitzen, dana egin daitekena uste daualako, eta dana egin — errez uste daualako"... (25). *Giza-zuurtasunak*, barriz, dardar dagi askotan eta ezta azartzen, olan esateko, oinkada bat be emoten; Jainkoa orixegaitik, aztertu nai ninduelako, bera artu eban tresna esaneko lez, eta neure eztegu egunean, umezurtz aurkitu nintzan egi-egiaz, aitarik ez neukan ba

(25) *Kristoren Autz-Bidea*, 3.gn, 5, 4 atala.

lurrean, gauza nintzan alan be zerura begitu konfiantza osoaz eta egiaz esateko: "Gure Aita, zeruetan zarana".

VIII ATALA

PROFESATIK OPARI-EGINTZARA

Azterketa onetzaz itz-egin aurretik, ene Ama Maite, neure profesa aurreko erretiruaz berba egin bear neutzun. Poz-atsegiña ekarri bearrean, legorte soil-soilla eta ia-ia bertan-bera izte osoa izan ziran nire saria. Lo egoan Jesus, betilez, neure itxas-ontzitxoan. Al; ulertzen dot, arimak noizik-bein bakarrik izten dautsoe lo egiten gozoro. Jesus oso nekaturik dago eralgiak eta aurreratuak ordaintzen, nik eskintzen dautsodan atsedena artu nai dau ortarako. Bear bada ezta itxartuko nik betierean egingo dodan erretiro aundirarte; baiña onek atsekabetu ordezt, atsegin aundia dakarst...

Ziur asko santa izatetik urrin nago eta proba bat jat au; neure leortasunaz poztu bearrean, gaitz au neure barru-berotasun urri ta zintzotasun exkasari ezarri bear neuskio; biotz-urratu bear nintzake (7 urte oneitan) otoitz aldian loak artzen naulako, eta eskerrak emokeran. Ez naz, ba, biotz-urratzen...

Uste izaten dot, *ume txikiak* pozgarri jakezala gurasoai lo dagozanean lez itxarrik aurkitzen diranean be; oldozten dot, osagilleak, euren ebaketak egiten dabezanean, gaixoak lo-erazten dabezala. Azkenez, uste dot, "jaunak ikusten dauala gure makaltsuna; oroitzen dauala gu ez gareala auts baiño" (Sal. 102, 14).

Neure profesa aurreko bakar-egotea ondoren etorri ziran guztien antzekoa izan zan, legortasun aundikoa. Jainkoak bitartean argi be argi erakutsi eustan, ni konturatu barik, zelan Berari atsegin izan eta nik zelan jadetsi birtuterik gorenena. Sarri konturatu naz Jesusek ez daustala emendiorik emon nai, une bakotxean janaritzen nau alimantu barriz; neugan aurkitzen dot ona zelan etorri jatan ez dakidala... Uste dot bakar-bakarrik Jesus bera dala, neure bioztxo gaixo onen barrubarruan gorderik, niregan lan dagiana eta pentsatu eragiten daustana momentu orretan nik egitea gura dauana.

Neure profesa eguna baiño aurreragotxoago, Aita Santuaren bedeinkapena artu al izan neban, zorion aundiz; eskaturik neukan, Simeon Anaia-ren bitartez, aitarentzat eta neuretzat, olan ordaindu nai izan neutson neure aita laztanari Erromarra eroanaz egin eustan mesedea.

Profesa

Atzenez be, eldu zan neure *eztegu-egun ederra*; odei bako eguna, benetan; bezperan, alan be; iñoiz ezagutu ez neban lakoxe ekatxa jagi zan nire ariman... Egundo ez jatan etorri burura neure bokaziñoari egokion dudarik; ziltzaldi au be ezagutu bear neban. Illuntzean, maitin ostean, gurutz-bidea egiten nenbillela, *amesa* iruditu jatan neure goi-deia, txakur-amesa... Karmelo'ko bizitza oso ederra, baiña deabruak buruan sartu nai eustan etzala niretzat; ziria sartuko neutsela nagusiai, deitu bako bidetik aurrera jarraitzen ba neban... Aundiak ziran nire illunpeak, eta ezin neban ezer ulertu: *Ez neukan bokaziñorik!...* O!, zelan adierazo



Teresatxo, karmeldar komentuan sartzeko baimena eskatzen Gotzaiñagana joan zanean.

neure barruko naigabea?... Ama irakasleari esaten ba' neutson jazoten jatana, iruditzen jatan, ez eustala itxiko Botu Santuak egiten (lelokeria, argi bene-benetan deabruaren tentaldia zana); baiña ni prest nengoa Jainkoaren naia egiñik mundura biurtzeko, neure griña egiñaz KARMELO'N GERATU BAIÑO. Urten eragin neutson, ba, neure maistrearri eta, *naas-maas* eginda, neure arimaren egoera azaldu neutson... Zorionez ak nik baiño argiago ikusi eban gauzea eta trankil-trankil itxi ninduan; beste aldetik, egin neban apaltasun-egintzak igesean ipiñi eban deabrua, onek bear bada ez eban uste, ba, ni ez nintzala azartuko neure tentaldia agertzen. Izketa amaitu nebaneko, urtu ziran nire dudak; alan be, nire apaltasun-egintza betea izan eiten, gure Amari be iragarri nai izan neutson neure tentaldi bakana, neure lepo barre egiñaz pozturik.

Iraillaren 8'ko goizean, pozezko uiol batek *joa* nabaitu nintzan eta poztasun orretan murgil, "asmatu-ala baiño geiago dan" (Fil. 4, 7) orretan, egin nebazan neure Botu Santuak... Nire Jesus'egazko batasuna etzan izan tximiste ta trumoi artean, au da, oi ez lako grazi artean, *aizeño bigun* Elias deunak mendian entzun ebanaren antzekoa baiño (Ir. 19, 12-13). Zenbat mesede eskatu neban egun orretan!... Bene-benetan ERREGIÑA sentitzen nintzan, orixegaitik neure tituluz baliatu nintzan katiguak askatzeko, Erregearen ontasunak jaritxi beronen menpeko esker-bakoentzat; bai, azken baten, *garbitokiko arima guztiak* andik atera nebazan eta pekatariak bide onera ekarri... Luzero jardun neban otoitzean neure *Amaren* alde, neure aizta maiteen alde... Famili guztiaren alde eta batez be neure aitatxoaren alde, ain aztertua ta ain santuaren alde... Jesus'i eskintzen neutson

nintzan guztia, nigan oso-osorik egin zedin bere borondatea, izakiak iñoiz be katigutasunik aurrean jarri barik...

Egun eder au goibelen antzera joan zan, argitsunak be biar bat daukie-ta, baiña tristura barik itxi neban neure koroia Andra Mariaren oiñetan; ba-nekian denporeak ez nindula lagako neure zoriontasun barik... Mariaren jaiotz-egun bai jai-egun bikaiña, ni Jesus'en emazte biurtzeko!. Aldi bateko Birjiña txikia zan bere *loratxo*a Jesus *umeari* aurkezten eutsona... Egun onetan dana zan txikia, artu nebazan bake-graziak izan ezik, gabaz gozartu neban poz-atsegin ezitia izan ezik, zeru urdiñean ñirñir egien izarrak begira, zeru eder au laster zabalduko zala neure begi lilluratuena aurrean, neure Senarragaz alkatuko nintzala betiko zoriontasun pozean...

Zapia artzen dau

24'an izan zan nire zapi-artzea; malkoz oso lausoturiko eguna izan zan... Aita ez egoan an bere erregiña bedeinkatzeko. Pichon (aita) Kanada aldetik zan... Etorri ta neure osaben etxean bazkaldu bear eban Gotzain Jauna, gaixorik aurkitzen zan eta etzan etorri; beraz, dana goibel mergatza... bakea, alan be, beti bakea, kaliz-ondarrean... Jesus'ek nai izan eban nik, egun orretan, neure negar-malkoai eutsi al ez izatea, eta etziran ulertuak izan nire negar-malkoak... Egia esateko, naigabe aundiagoak be eroan nitun nik negarrari emon barik, baiña orduan laguntzen ninduan indar berezi sendoak; 24'an, barriz, neure indarrakaz itxi nindun Jesus'ek eta agirian ipiñi nebazan zein makalak ziran eurok.

Neure zapi-artzetik zortzi egunera izan zan Juanaren ezkontza. Bere jokabideak zenbat erakutsi eustan zuri, ene Ama maite, emazte batek bere senarrari zenbat txera eskiñi bear dautsozan adieraztea, eziña izango litazkit; gogo zoliz entzuten nebazan ikasi al neban guztia; beste ezer ezin bait neban egin neure Jesus maiteagaitik, Juanak Franzisko-gaitik aiaña, izaki bat dudarik bage osoa, baiña izakia bakar-bakarririk!

Baita alaitu nintzan, dei bat idatziaz, bereagaz bardiñean jarteko. Ona emen zelan asmauta egoan:

Dei eskutitza, Jesus Umearen eta Arpegi Donearen Terese Aiztaren Ezteguetara:

Jainko Guzti-alduna, Zeru ta lurraren Egille, Munduaren Jaube eta Garaille, eta Maria Birjiña txit Aintzatsua, Zeru-Jauregiko Erregiña, poz-eztitan dagoz, zuei egitean, euren Seme txit garaiaren, Erregeen Erregek eta Jaunen Jaunak, Teresa Martin Andereñoagaz, orain, Andra ta Prinze-emazte danez, ezkontz-sari lez, bere Jainko Senarraren Jesus'en Umearoa ta Nekaldia daroazanagaz; bere leiñargi titulu Jesus Umearena eta Arpegi Deunarena izanik.

Luis Martin jauna, Egoarriaren eta Apalduraren Jaurerrietako Jabe ta Jaun, eta Martin'en Emazte, Printseza ta Zeru-Jauregiko Ohore Andreak dedu aindiz dei dagitse euren alaba Teresa-ren ezkontzara, Jesus, Jainkoaren Itz, Irutasun Agurgarriaren bigarren Nortzu, Espiritu Santuaren egitez, gizaseme eta Andra Mari zeruetako Erregiña-ren Seme egin zana.

Ezin bialdu al izan zan dei au ezkontza bedein-kapenerako, Karmelo mendian, 1890'ko iraillaren 8'an artu ebenera, (zeru-jauregikaok bakar-baka-

rrik bertan artzen ziran), beraz betoz, mesedez, biar egingo diran Eztegu Barrietara, ots, Betiereko Egunean, Jesus, Jainkoaren Semea, Zeru-Odei gaiñ, bere Ospe aundietan, Bizia eta illak epaitzera, etorriko danean.

Ordua bada-ezpadakoa dan ezker, zain egoteko eskatzen da.

Genobeba Ama

Orain, ene Ama maite, zer geratzen jat zuri esateko? Al, Amaitu nebala, uste neban, baiña ez dautzut oindiño ezer esan, Genobeba Ama santea ezagutzeaz artu neban pozari buruz... Grazi baliotz-gaiñekoa izan da niretzat. Ondo, ainbat grazi emon daustan Jainkoak ni santaATEGAZ bizi izatea nai izan eban, ez antzetu eziña, birtute ezkutu ta egunerokoakaz santu egin zan SantaATEGAZ baiño. Baten baiño geiagotan artu nebazan bera-gandik pozaldi ikaragarriak, igande batean batez be.

Beti lez bisita bat egiten joan nintzakonean, Aizta bi aurkitu nebazan Genobeba Amaren ondoan; irribarrez begiratu ta alde egiten niñoian, iru ezin daitekez geratu gaixo baten andoan, eta arek, goi-argiz begiratzen nindula, esan eustan: "Itxaron, alaba, berba bi esan nai dautzudaz. Zatozen bakotxean gogozko lora-txorta bat eskatzen daustazu; gaur, bada, auxe emon bear dautzut: "Serbidu eizu Jainkoa, bakez eta pozez; gogora eizu, alaba, *gure Jainkoa, bakearen Jainkoa* da-ta (I. Kor. 14, 33). Eskertu neban, biotz-ikutua urten nintzan, negar egiteraiño; baita siñistua be, Jainkoak iragarri eutsola nire arimearen egoera. Egun

orretan ni gogor aztertua nengoan, ia-ia triste, illunaldi osoan, Jainkoak maite ninduan ala ez, ez nenkiala. Igarri zeinke, ene Ama maite, zelako poza ta atsegiña niretzat!...

Urrengo igandean Genobeba Amak ze ikuski-zun euki eban, jakin nai izan neban; ez ebala bat bera be euki, bailestatu eustan; nire arrimena orduan aundiagoa izan zan, Jesus zelan bizi zan aregan, itz eta lan eragiten eutsola. O!, santutasun au egiazkoena dala iruditzen jat, *santuena*, eta neutretzat opa dodana, onetan ez bai dago idurikizunik...

Profesa egunean be asko poztu ninduan, Genobeba Amaren aotik jakiñaz, bera be neuk lakoxe pruebatik igaro zala, bere botuak iragarri baiño lenago... Gogoratzen zuk, ene Ama maite, aregan aurkitu dogun poz-atsegiña, geure naigabe *aundietan*. Azken baten, Genobeba Amak nire biotzean laga dauan gomutakia, gomutaki usaintsua da...

Zerutako bidea artu ebanean, bene-benetan mindua geratu nintzan. Lenengoz nengoan eriotz baten; ikuskizuna, izan be, lilluragarria zan... Il-tear aurkitzen zan santaren oe-oïñean nengoan; ondo baiño obeto ikusten nebazan bere zirkiñik ariñenak be. Uste neban nik, nire arimea, orrela emon nebazan ordu bietan, adore biziz irakiten egon bear ebala; baiña ezta, bestera, sentikortasun-ezak artua nintzan; baiña Genobeba gure Ama santea zerurako jaio zan une-unean, nire barrua aldatu zan; begi itxi-edegi baten pozez beterik sentidu nintzan, eta esan ezindako sugarrez gaiñezka; Genobeba Amak emon izan ba leust lez izan zan bere jadanik eukan gozotasunaren zati

bat, zuzen-zuzen zerura joan zala-ta, bait nago... Bizi zala esan neutson bein: "O!, ene Ama! Zu etzara joango garbitokira... "Olan uste dot, erantzun eustan berak, gozo-gozo... O!, ziur nago, Jainkoak ez ditu iruzur egin apaltasun ain betez egozan itxaropenak; erakutsiak dozuz guk artu izan doguzan mesedeak... Aizta guztiak leiatu ziran aren erlikiren bat eskatzen; zuk ba dakizu, ene Ama maite, nik poz aundiz daukadanaren jakitun zagoz... Genobeba Ama il-agiñean *egoala*, aren betazeletan diamante antzeko *negar-malko* ikusi neban ñirñirka; *negar-malko* au, ak ixuritako askoren arteko *azkena*, etzan alperrik galdu; koruan be ikusi neban iñok be bera artzea pentsatu barik. Orduan, zapitxo bat artuz, aratu nintzan gabaz, iñok be ikusi barik, *erlikia* lez jaso neban Santa baten *azkenengo negar-malkoa*... Arrezkero, neure botuak gorderik daukazan ziskuan daroat.

Ez dautset garrantzirik emoten neure amesai; beste aldetik, sinbolikuak dira amesak eta neure kautan esan oi dot, zergaitik, eguna Jainkoagan pentsatzen egiñik, zergaitik ez dot Agan be amesik egiten... Geienik, zugatzak, lorak, errekatxoak eta itxasoa dira nire ames-gai. Eta, ia beti, ume politik ikusten dodaz, eta iñoiz ikusi ez ditudan mitxeletak eta txoriak arrapatzen dodaz. Ba dakusazu, ene Ama, nire amesak itxura olerkitsua daukela, ez dira ez mistikuak... Gau baten, Genobeba Ama ilda gero, beste bat izan neban pozgarriagoa; arek bere testamentua egiten eban, Aiztetatik bakotxari berak erabillitako zerbait itxirik; nire txanda eldu zanean, uste izan neban ez nebala ezer artuko, ez bai jakon ezer geratzen onezkero, baiña pizkat jagirik iru bider esan eban azentu gogorre: "Zuri neure biotza izten dautzut".

Izurria konbentuan

Gure Ama santua joanda ille betera, izurria agertu zan lekaimetxean. Oiñean neu eta beste Aizta bi geratu giñan bakar-bakarrik. Ezingo dot egundo esan ikusi nebana, biziaz uste izan nebana eta gertatzen dana...

Emeretzi urte bete nebazanean omendua izan nintzan eriotz bategaz; laster etorri ziran beste bi. Garai onetan sakristian aurkitzen nintzen bakarrik an, lenengo sakristi-zaiña gaizoz larri egoan-eta, illetak gertatu bear nebazan, koruko sareak edegi mezarako, eta abar... Jainkoak emon eustan kemena momentu onetan. Neure buruari galdetzen dautsot orain zelan egin al izan neban bildur barik egin neban guztia. Eriotzea zan erregiña toki guztietan; txartoen egozanak zutik ozt-oztan egozanak zaintzen ebezan. Aizta batek azken arnasa emon ala, bakarrik itxi bear izaten genduan.

Goiz baten, ogetik jagitean, Magdalena Aiztea il zalako susmoa izan neban; klaustroa illun egoan, geletatik etzan iñor urteten; azkenez ausartu nintzan Magdalena Aiztearen gelan sartzen, atea zabalik bai eukan. Ikusi neban, ikusi be, jantzia ta lasto-marraga gaiñean etzunik; ez nintzan bildurtu. Argirik ez eukala ikusirik, argizagi billa joan nintzan, baita larrosazko koroï baten billa be...

Nagusi-ondorengo Ama il zan gabea, ni bakarrik gelditu nintzan gaixo-zaiñagaz; eziña iruditzea be zelan aurkitzen zan moja-alkarte a garai onetan, triste iñundikan be, zutik egozanak bakar-bakarrik adierazo daikee; baiña bertan-bera izte onen erdian, Jainkoa somatzen, zan, Berak zaintzen ginduzan. Il-agiñekoak bizitz obero joiazan neke barik; il ondoan bertatik bake ta alaitasun

zantzu bat agertzen zan euren arpegietan; ames gozo bat zirudian eta orrelaxe zan izan be, mundu ontako itxurea doanean, izan be, gordetako atsegiñetatik autatueta iga roten da betiraun osoan gozatzeko...

Izurrite onek lekaimetxean iraun eban bitarte guztian, egunero Jaunartzeak ekarri eustan pozkario esan-eziña izan neban... Oi, au zorion!... Luzaro eregutu nindun Jesus'ek, bere emazte zintzoak baiño geiago, Berak *emon eustan* ba areik artzeko izan ez eben zoriona. Zoriontsu egiten ninduen, baita, ontzi sagaratuak ikutzeak, Jesus artzeko ziran zapi deunak gerteteak; ulertu neban on ona izan bear nebala, diakono santu bati zuzendutako itzok sarri gogora ekarriz: "Santu izan zaiteze, zuok, Jaunaren ontziak ikutzen dozuezanok" (Is. 52, 11).

Maitasunaren bidetik

Ezin dot esan eskerrak emokeran mesederik sarri artu dodanik; momentu ori ba leiteke orretariko gitxien artu dodana izatea... Berezkoa dala deritxat, Jesus'i eskiña naz ba, ez bere poz-atsegiñerako Aren ikustaldia artu nai dauanak lez, Ari atsegiña emoteko baiño. Irudilzen dot neure arime a *etxe-zoru* lez eta Andra Mariari eskatzen dautsot *askatasuna* kendu legikeen saskara zakarrak baztertu dagizala; gero eskatzen dautsot berak jaso dagiala denda aundi bat. Zeruaren duin dana, bere-bere diran apaïnduraz edertu dagiala, eta ondoren santu eta Aingeru guztiai dei dagitset, konzertu aundi-eder bat emoten etorri daitez an. Jesus nire biotzera jasten danean, pozik dagoala

uste dot arrera ona aurkituz eta ni be pozik nago... Onek alan be eztau egozten nik zabartasunak eukitea eta lo-gureak be jotea; baiña eskerrak emotetik urtetea, ain txarto egin dodala ikustean, geratzen jatan egun apurra eskerrak emonaz irautea erabagiten dot...

Ikusten dozu, ene Ama maite, bildur bidez eroana izatetik urrun nagoala; ba-dakit beti aurkitzen doatsu izateko bidea eta neure mixerietatik zelan frutua atera... Au, ezpairik bage, atsegin jako Jesus'i, bide ortatik jarraitzen berak bizi-erazten nauala deritxat-eta.

Bein, neure oituraz beste, artega samar nengoan Jaunartzera joan nintzanean, Jainkoa ez egoala nigaz pozik buruak emon eustan, eta esan neban neuretzat: "A!, gaur ostiaren erdia besterik artzen ez ba dot, asko naigabetuko nau; uste izango dot, Jesus nai ezik datorrela nire biotzera". Urrerutzen naz... au poza!, lenengoz neure bizitzan, ba-dakust abadeak *osti bi artzen* dabezala, ondo bananduak, eta emoten daustazala... Ulertzen dozu zuk nire poza eta ixuri nebazan negar-malko eztiak, erruki ain aundia ikusiz...

Nire profesia ondorengo urtean, au da, Genobeba Amaren eriotza baiño illa bi lenago, grazi aundiak artu nebazan erretiro bitartean. Geienetan, bakarrik egiten dodazan erretiruak baiño neketsuagoak jatak ots-eginak; baiña urte orretan bestera jazo zan. bederatzi-urten bat egiña neban, otsegiña, eraspen aundiz, neukan uste oker ori gorabera; izlariak, uste neban, ez nindula ulertuko, batez be, pekatari larriai eta ez lekaimeai itzaldiak zuzentzen oituta egoalako. Jainkoak alan be erakutsi gura eustan, Bera zala nire arimearen zuzendari

bakarra, eta Aita onen bitartez argi erakutsi be, berau neuk bakar-bakarrik aintzat artu nebalako...

Ni orduan barruko naigabe aundikaz nenbilen, klase guztiakoakaz ibilli be (neure buruari iñoizka Zerurik ete egoan itaunka). Neure barru egoeraz ezer esateko usterik ez neukan, ez nekian zelan azaldu; baiña autortegian sartuaz batera nire arimea zabal-aziaz joiala nabari neban. Berba batzuk esan ondoren, arrigarriro ulertu, bai *Igarri eustan*... liburu bat zan nire arimea, Aitak bertan neuk baiño obeto irakurten ebana... Berak bialdu nindun zapizabal *konfiantzako* ta *maitasunezko* olatuz, indartsu erakarrita be, euretan zear ibiltzen atrebiden ez nintzan au... *Nire utsak* Jainkoa ez ebela *naigabetzen*, esan eustan, *Aren lekua* artzen ebanez, *Aren izenen esaten* eustala nigaz poz-pozik egoala...

O!, bai zoriontsu ni berba aringarri oneik entzunik!... Ez neban iñoiz entzun utsak ba leitekela Jainkoa ez *naigabetzea*, pozez bete ninduan onek, bizitz-erbestea pazientziz eroaten lagundu eustan... Ba-nekian nik neure biotz-barruan au egia zana, Jainkoa ama bat baiño samurragoa dalako; eta zu, ene Ama maite, ez zagoz beti gertu naiezta egiten dodazan adei-ez txikiak parkatzeko?... Zure agiraka batek be ez eustan eragingo zeure eregu batek baiño geiago. Izakera berezia dot nik, bildurrak atzera eragiten daust, maitasunez osteria ez noa aurrera, *egaz* egiten dot...

O!, ene Ama maitel!, zeu autatu zinduezan egun bedekaturik, egaz egin dot maitasunezko bide-tik zear... Egun orretan, Paulina egin zan nire Jesus bizi...

Ines Ama, Nagusi

Aspaldi dala, Jesusek neure Ama maitearen bitarten egiten dabezan gauza arrigarriak ikuskatzeko zoriona daukat... Ondo ikusten dot *sufrimen-tuak bakarrik* sortu leizala arimak, eta iñoiz baiño geiago Jesusen itz guren-bikaiñok iragarten dauste bere sakontasuna: "*Bene-benetan dirautzuet gal-garaua hurrera jausi ta ilten ez bada, bera bakarrik geratzen da; ilten bada, barriz, fruta ugari dakar* (Jn. 12, 24-25). Zuk bai labore ugari batu dozula!... Zuk malkoz erein dozu, baiña laster ikusiko dozu zeure lanen frutua; eta abestuz itzuliko zara, eskuetan eroanik gari-azagoak... (Sal. 125, 576). Oi, ene Ama!, azago orrein artean loraturik dago, gordea, *loratxo zuria*, baiña zeruan abestuko dauz bere *samurtasuna* eta *birtuteak*, zuke egunero egiten ikusi dozuzanak, kerizpean eta ixiletan erbesteko bizitzan...

Bai, urte bi oneitan, ordurate niretzat gordeta egozan misterio asko ulertu dodaz. Salomon'i lakoxe errukia erakutsi daust nire. Ez dau nai izan nik gurari bat be bete barik eukiterik; ez gero betetasunerako gurariak soilki, baita beste be, nik nabaritu bage uskeri zirala ulertzen nitunak.

Beti euki zindudazan, ene Ama, neure eredu-tzat, eta zer guztietan zeure antzeko izan gura neban; alkar ikusirik lauki politak eta olerki txanbeliñak, neure kolkorako esan neban. "Oi, ene zoriona margotu al ba neu, neure burutapenak bertsotan adierazo al ba neukez eta eurakaz ari-mai on egin!..." Ez nintzan ordurarte berezko doai oneik eskatzen azartu ta nire gurariok or jarraitzen eben neure *biotz barnean* gorderik. Jesusek, bera be gorderik bioztxo gaixo onetan, agertu nai izan eustan dala zala *uskeria ta barne-naigabea*

eguzkipean... (Qo. 2, 2). Ez uste aunditan, Aizten aldetik, *margozteko* agindu eusten, eta Jainkoak nai izan eban niri on egitea zeuk, ene Ama maite, emon zeustazan klaseak... Baita nai izan eban, zeure adibidea jairraituz, olerkiak be ontzea, lantxoak egitea, politak eritxi eutsenak... Salomon'en antzera *bere esku-lanak ikusten, alperreko lana egiñik, uskeria ta barru-naigabea dala guztia ikusi eban*; olantxe neuk be, *experientzi* ezagutu neban, zoriona ez dala nobere burua gordetea baiño, sorturiko gauzen ez-jakiñean egotea. Ulertu neban, bai, maitasun barik, gauza guztiak be ez dirala ezer, dizdiratsuenak bere ez, adibidez, illak berbiztu edo-ta erriak onbideratu...

Jainkoak aurrez emoten eustazan doiak, (nik eskatu bageak nunbait) arrotupuztu ta kalte egin bearrean, Beragana narioie. Bera dala ikusten dot bakar-bakarrik aldakaitz, Berak bakarrik bete leitezala nire gurari muga gabekoak.

Ba-ditut beste gurari batzuk be, beste era batekoak, Jesusek ni ase nai izan nindunekoak; umetako gurariak, neure abitu artze eguneko edurrarena lez.

Zuk ba-dakizu, ene Ama maite orrek, atsegin jatazala lorak! Amabost urtez katibu egiñik, agur egin neutson betiko udabarriko altxorrez pitxitu zelaiak zear ibilteko zorionari. Orain ba, egundo be ez neban euki Karmelo'n sartu ondoren euki dodan beste lora!... Oitura da ezkongai mutillak euren emazte-gaiai lorak eskintzea. Jesus'ek ez eban au aztu; aurrez bialdu eustazan azianoak, margarita aundiak, osto-lilia eta abar..., nik maite nebazan lora guztiak. Ba-da loratxo bat, gari arteko suge-idarra deritxona, nik Lisieux'en egon giñan arte ikusi bakoa. Neure gaztaroko loratxo au ikusi

nai zan neban barriro be, nik Alenzon'go zelaietan batzen nebana. Barriro ikusi neban. Barriro ikusi neban irribarreka Karmelo'n, Jainkoak zein gauza txikietan zein aundietan, bateko eun emon oi dautsela bizitza ontan Bere maitasunarren dana itxi daben arimai.

Zelina Karmeldegian

Baiña nire gurarietan barru-barrukoena, guztietatik aundiena, nik burutua iñoiz be ez nebala ikusiko uste nebana, neure Zelina kutuna gu lez Karmelo'n bertan sartzea izan zan... Ames au ezin betea zirudian: sapai berberaren azpian bizi, neure aurtzaroko lagunagaz poztasunak eta naigabeak alkarrekin eroan. Nik egiña neban neure opari osoa, Jesus'i eskiñia neukan neure aizta kutunaren etorkizuna, beti prest, bearrezko ba zan, munduaren azkeneraño joaten ikusteko. Auxe bakarrik ez neban onartzen, ez zedilla izan Jesusen emazte, neure izatea baizen maite izanik, eziña jaten iruditzea be ilkor bati bere biotza emoten ikustea. Asko sufridu neban munduan negoala be nik ezagutu ez nebazan arriskueta aurkitzen zala jakiñik. Nik Zelina'ri neutson maitasuna, esan neinke, Karmelo'n sartu nintzanetik, amarena lez aitzarena be ba zala...

Egun baten ak jai batera joan bear izan eban. Pena itzala emon eustan onek eta Jainkoari eskatu neutson galazo egiola dantzari egitea eta (neure oituraz kanpo) negar-malko ugariak jarion nebazan. Jesussek entzun eustan. Ez eban itxi bere ez kontzekoak gau atan dantzarik egiten (berak bear zanean egiteko jas aundia eukan arren). Gonbidatu eben berak ukatu eziñeko eran, bere zaldunak

ezin izan eban ari *dantzari eragin*; arrimen aundiz atzera eroan bear izan eban bere lekura, eta gero joan zan eta etzan geiago agertu jaialdi guztian. Gertakun onek gitxitan jazoa, nire maitasuna ta konfiantza aziago egin zituan, neure bekoki gaiñ *seillu* bat ipiñiz, aldi berean neure Zelina maitearenean be ipiñi eban Arengan...

Joan dan urteko garagarillaren 29'an, Jainkoak, bere zerbitzari bardingabekoaren lokiak ausi ta betiko sarira deitzean, apurtu ebazan baita bere ezkongei maitea munduari loturik euketak be. Ak beterik eukan bere lenengo arazoa; bera zan gu *guztiori izenean* guk ain maite genduan aita zaintzekoa, eta aingeru batek lez bete eban egiteko ori...; eta aingeruak, Jainkoaren naia bete ondoren, ez dira lurrean gelditzen, bertatik ondoren Beragana biurtzen dira; orretarako daukiez egoak. Gure aingeruak be eragin eutsen bere ego zuria; urrin joateko gertu egoan, *oso urrin* Jesus aurkitzeko, baiña Jesusen *emen urrean* egaz eragin eutson. Opari aundia onartuz pozik geratu zan. Teresatxorentzat ain atsekabetsua izan zana... Urte *biren buruan* Zelinak gode egin eutson ezkutu bat... O!, zenbat sufridu eban berak be!... atzenez, zeru goitik, nire errege maiteak, lurrean bizi zala berandutasunik nai ez izaten ebanak, arin konpondu ebazan Zelina'ren negozio nastuak, eta iraillaren 14'an, gugaz alkatu zan!...

Egun baten, eragozpenak goitu eziñak zirudien, Jesus'i esan neutson eskerrak emoterakoan: "Zuk ba dakizu, ene Jainkoa, zein bizi nai dodan jakin aita zuzen joan dan zerura, ez dautzut eskatzen itz egin daistazunik, baiña emoidazu ezaugarri bat. J'ren A. Aiztak ontzat artzen ba dau edo-ta eragozpenik jarten ez ba dau, Zelina komentuan

sartzeko, aita zeugaz zuzen zerura joan danaren ezaugarria izango da". Aizta au, zuk dakizunez, ene Ama, uste eban iru geiegia gintzala eta, orixe-gaitik, ez ebalabeste bat artu gura; baiña izakien biotzak bere eskuetan daukazan eta Berak naidauan lez makurtzen dabezan Jainkoak aldatu eban aiztearen jarrera. Eskerrak emon ostean lenengo aurkitu neban pertsona, bera izan zan, maitekor dei egin eustana, beragaz zure gelara igoteko eskatuz eta Zelina'ri buruz berba egin eustan, begietan negar-malkoak zitula...

O!, zenbat mesedegaitik eskertu bear dodan Jesus, neure gurari guztiak asetzen jakin ebalakol...

Orain, alan be, onezkero ez dot ezer gura, zoratzeraiño Jesus maite izan baiño... Nire ume-aroko gurari guztiak joan ziran egaz; oindiño eder jat, egia, lorakaz apaindu Jesus Umearen altarea, baiña nik bai neban *lorea*, neure Zelina laztana, emon eustanetik ez dot onezkero ezer geiago gura, bera da neure lora-txorta zoragarriena lez Jesus'i eskintzen dautsodana...

Gurutzeko Juan Deuna

Orain ez dot nai sufrimenturik, ezta eriotzarik be; eta alan be, biak dodaz maite; baiña maitasunak bakarrik tiratzen nau... Antxiñatik nai izan ditut. Neugaz izan dot eroapena, eta zerura eltzea uste neban, uste izan, loratxoa bere udabarrian batua izango zala... orain bertan-bera izteak zuzentzen nau, ez daukat beste zuzen-orratzik!... Onezkero ezin neike gartsu ezer eskatu, Jainkoaren naia neure ariman betete osoa izan ezik, izakiak berai galazo eziñeko moduan.

O!, ene Ama maite!, ederra da maitasunaren bidea! Dudarik bage, jausi daiteke, zintzotasunik-ezan egin be bai, baiña *erre-kerabatez* gauza guztiak egiz oi ez dabezan maitasunak, Jesus'i atseginenez jakon guztia laster suntsiten dau, biotzaren barru-barruan baketasun apal, barrenerañokoa besterik izten ez dauala...

Al, zenbat argi emon dausten Gurutzeko Juan Gure aitaren liburuak... Amazazpi ta amazortzi urtegaz ez neukan beste gauzarik gogozko janari lege. Geroago, idortasun itzala izten eusten liburu guztiak, eta orretan darrait gaur be. Espirituzko idazle baten liburu bat (ederrena izanik be, interesgarriena), jarraian biotza lotuz somatzen dot, eta ulertu bage irakurten, eta ulertzen ba dot be, nire biotza geldi geratzen da gogoznartu eziñik... Ezin onetan, Idazti Deunak eta Antz-bideak leguntzen dauste. Eurotan idoroten dot janari tinko ta garbia.

Ebanjelioa

Baiña Ebanjelioa da, danen gaiñetik, otoitzean asetzen nauana; ementxe aurkitzen dot nire ari-ma gaixoak bear dauan guztia. Argi barriak aurkitzen dodaz bertan, esangura ezkutatuak eta misterio aundikoak.

Ulertzen dot eta ba-dakit esperientziz "Jainkoaren erreiñua barruan daukagula" (Luk. 17, 21). Jesus'ek ez dau bear libururik, ez irakaslerik ari-mak eskolatzeke. Berak, maisuen Maisu dala, irakasten dau berba-zarata barik... (26). Ez daustiñoiz berba egin, baiña sentitzen dot neugan dagoala une guztietan. Berak zuzentzen nau eta aitzen

(26) Kristoren Autz-Bidea, 3.gn liburua, 43, 3 atala.

emon daust esan edo egin bear dodana. Bear dodanean aurkitzen dodaz leen ikusi ez nebazan argiak. Ez da otoitz-aldian ugarietak datozanean, egun bitarteko lan-arduretan baiña...

Jainkoaren errukia

O!, ene Ama maite!, ainbat grazi artu ondoren salmulariagaz abestu neike: "*Jauna ONA da, beti-koa aren* Errukia (Sal. 117, 1). Uste dot izaki guztiak nik aiñako graziak artu ba lebez, Jainkoa ez litzateke bildurkor iñorentzat be izango, zoratzeraiño maitatua baiño eta maitatzearen, eta bildur bage, arima batek be egundo ez leuke irainduko... Uler-tzen dot, alan be, arima guztiak ezin leikezala bardiñak izan; naitaezkoa da famili ezbardiñak egotea, bakotxak omendu dagian batez Jainkoaren gaitasun bat. Niri bere erruki azken *bakoa* emon daust eta, *bere bitartez*, ikusi ta gurtzen ditut beste Jainko osotasun batzuk... Olan danak iruditzen jatazo *maitasunez* dizdizka, baita Zuzentasuna bera be (eta bear bada beste edozein baiño geiago) iruditzen jat *maitasunez* jantzia... Bai pozgarria Jainkoa *zuzena* dala pentsatzea, au da, kontuan daukazala gure argaltasunak, osoro ezagutzen dabela gure izatearen argala! Zeren bildur izango, beraz? O!, Neurri barik *zuzena* dan Jainkoa, seme ondatzailleari ontasun aundiz falta guztiak parkatzen dautsozana, nigaz be "beti Beragaz nagon onegaz be" ezta izango *zuzena*?... (Luk. 25, 31).

Maitasunezko oparia

Urte onetan, bagillaren 9, Irutasun Guren-gurenaren jaietan, zenbat gura dauan maite izatea, iñoiz baiño obeto ulertzeko grazia artu neban.

Opari lez Jainkoaren Zuzentasunari eskintzen jakozan arimak nekazan nik gogora, aldatu edo euren gaiñ erakartzeko errudunai egozteko zigor-rak. Eskintza au aundia ta esku-zabala iruditen jatan, baiña urrin nengon berau egiteko gertu aurkitzera. O, ene Jainko!, deadar egin neban neure biotzaren barren-barrenetik, zeure Zuzentasuna izango da bakar-bakarrik opari lez eskintzen diran arimak artzen dabezana?... Zeure *maitasun* errukitsuak be ez ete ditu bear?... Ez-ezaguna da toki guztietan, arbuiaua; zeure ondasunak emon naita dabiltzanak izakietara biurtzen dira euren lera doakabea ortxe billaturik, zeure besoetan murgildu eta zeure Maitasun azken bakoa onartu bearean... O!, ene Jainko! Zure Maitasun ezetsia zeure biotzean geratuko ete? Uste dot, Zeure Maitasunari erre-opari lez eskintzen jatzuzan arimak aurkituko ba'zenduz, Zuk bertatik kiskalduko zeunkezala, gozatuko zintzazala uste dot Zeugan dagoan samurtasunezko olatu azken bakoai eusten ibilli barik... Zure Zuzentasunak tximista atera nai ba'dau be, berak, *hurgaiñez* bakarrik zabaltzen danak, zenbat eta zure Maitasun Errukitsuak zure Errukia *zeruetaraiño* eltzen *da-ta* (Sal. 35, 5)). O!, ene Jesus!, neu izan nadilla opari zoriontsu ori, austu zeure erre-oparia zure Jainko-Maitasunezko sutan!..."

Ene Ama maite, zuk, Jainkoari olantxe eskintzen laga zeustan orrek, ba-dakizu zelako grazi-ibaiak, edo obeto, zelako itxasoak etorri jatazan neure arimea asetzen... O!, egun zoriontsu ortatik, maitasuna barruraiño sartu ta inguratzen nauala uste dot; uaitasun Errukitsu orrek barriztuten naua-la deritxot, nire arimea garbitzen daua, pekatu izpirik be itxi бага, beraz ezin dodala garbitokiaren bildurrik izan... Ba-dakit neurez ez neukela merezik garbiketara egin oi dan leku orretan artze-

rik; arima santak bakar-bakarrrik orra eldu leikeze-
lako, baiña baita ba-dakit Maitasunaren Suak gar-
bitokikoak baiño geiago garbitzen dauala; ba-dakit
ezin leikela guretzat alperreko sufrimenturik nai
izan eta ez leuskidala daukadan buruan jarriko,
nik betetea gura ez ba leu...

O!, bai dala eztia Maitasunezko bidea!... Nik bai
Jesus'ena izan nai dodala beti, berea izanik beti,
Jainkoaren naiari osoan emonik!...

Ona emen, ene Ama maite, zeure Teresatxoren
bizitzaz esan neiskizun guztia. Zuk ba-dakizu ondo
be zer dan eta Jesusek beragaitik burutu dauana;
origaitik, parkatuko daustazu ainbeste laburtu ba
dot be bere lekaime bizitza...

Zelan amaituko da "loratxo zuri baten istori"
au? Koratxoan bear bada, mardul dala, artua izan-
go da eta beste ur-ertz batera eroana... Ez dakit,
baiña, ziur nago, Jainkoaren errukiak beti lagun
egingo daustala-ta; ba-dakit arek ez dauala sekula
be bedeinkatu barik itziko Jesus'egana eroan eban
Ama maitea. Bera beti-beti poz-alaituko da aren
korciko lora bat izateaz. Betiere osoan abestuko
dau arek, Ama maite onegaz batera, maitasunaren
beti barri dan abestia...

"B" ESKU-IDATZIA
JESUSEN BIOTZAREN
MARIA AIZTARI
ESKIÑA

J. M. J. T.

Jesus

Iraila 1896

IX ATALA

ESKUTITZ-ITZAURRE

Aizta Maitel, neure bakar-egotaldiko gomutaki bat emon daizudala eskatzen daustazu, eta berau ba leiteke azkenengoa izatea... Gure Amakolan nai dauan ezkerro, pozgarria da niretzat zuk naia egitea, birritan bait zara nire Aizta, zeuk bai zeustan ordetzat emon zeure abotsa, neure izenean agindurik, ni berba egiteko gauza ez nintzala, Jesusen zerbitzari bakar-bakarrik izan gure zenduala... Amabitxi maite, zeuk Jaunari eskiñi zeuntson neskatoa, axe bera gaur gabeen itz egiten dautzuna, alaba batek bere amari berba egiten dakian legez... Zeruan bakar-bakarrik jakingo dozu neure biotzean gaiñezka daukadan esker-on guztia... O, ene aizta maitel! Atsegin izango litzakizu Jesusek zeure alabatxoari jakin-erazo ezkutuak entzutea; ezkutu oneik zeuri be jakin erazo dautzuz, badakit, zeu izan zara-ta Jainkoaren irakatsiak batzuk irakatsi daustazuna. Alan be, berba batzuk biribiltzen saiatu, ba-dakidan arren, eziña dala, giza-biotzak ozt-oztan somatu eleikezan gauzak, giza-itzez adieraztea...

Ez dot uste atsegin ez titan uger dagidanik, o!, ez!, nire atsegiña da lurrean ez eukitea. Erakutsirik barik, itzik egiteke, Jesusek ixilean eskolatzen nau, ez liburuen bitartez, ez dotelako aïtuten irakurten dodana. Berba bat da batzuetan, otoitzean egonda azkenean atera dodan antzera (lior eta ixillik egonda), poztutera datorkidana: "*Ona emen damotzudan maisua, berak erakutsiko dautzu egin bear dozun guztia. Bizitzako bidean zuk irakurri daizun nai dot, ortxe bai dator MAITASUNAREN jakitura*". Maitasunaren jakitura, O!, bai!, itz onek oiartzun gozo bat dau nire ariman; ez dot gura jakituri au baiño. *Beraugaitik neure ondasun guztiak*. uste dot, Abestietako emazteak lez, ez dodala ezer emon... (Abest. 8, 7). Ba-dakit ondo be, maitasunez bakar-bakarrik izan geinkez Jainkoa-rentzat atsegingarri maitasuna bakarrik gura-dauta. Jesusek atsegiñez erakusten daust jainkozko sutegira daroan bide au; bide au umetxoaren bertanbera iztea da, bere aitaren besoetan bildur barik lo dagian umetxoarena... "Txikia dana, betor Nigana" (Par: 9, 4), esan dau Espiritu SANTUAK Salomon'en aoz eta Maitasun Espiritu berberorrek baita esan dau "*Txikiei emoten jakela errukia*" (Jak. 6, 7). Bere izenean, Isaias igarleak iragarten dausku azkenengo egunean *Jaunak larrara eroango dauala bere artalde, bildotsak batu ta bere kolkoan eroango dabezala* (Is. 40, 11), eta bere promesa guztiak naiko ez ba'litzaz, igarle berberak, begituz betiko sakonetaraiño eltzen zanak, Jaunaren izenean diño: "*Amak bere umea pozten dauanez, alantxe poztuko zaituet Neuk be; besoetan eroango zaituet, eta neure belaur gaiñ eregutuko* (Is. 66,12-13). O!, amabitxi maite, itz orreïn aurrean ez dago ixiltasuna besterik, negar egin esker-onez eta maitasunez... A!, arima makal eta utsez beteak eurotaik

txikienak, euren Teresatxorenak senti-tzen daua-na bat berak be ez leuke galduko maitasunaren mendi-tontorrera eltzeko itxaroa; Jesusek ez daukuz eskatzen, ba, eginkizun aundiak, iztea eta esker-ona bakarrik baiño. Berak esan bai dau 49'garren, salmuan: "*Ez dot bear zuen artaldeko aaritorik, neureak* dira ba mendietako abereak eta muiñoetan larratzen diran millakak. Ezagu-tzen ditut mendiko txori guztiak... Gose banintza, ez neuskizue esango, lurra ta beronek daukana neurea da-ta. Nik jan bear ete dot zezenen aragia ta akerren odola edan?... ESKIÑI JAINKOARI GORES-PEN OPARIAK ETA ESKER-ONEZKOAK" (Sal. 49, 9-13).

Auxe da Jesusek guri eskatzen daukuna; ez dauka gure egintzen bearrik, geure maitasuna bakar-bakarrik; Jainko onek beronek, bada, guri gose danik esan bearrik ez daukanak ez da bildur samaritarri ur apur bat eskatzen. Egarri zan Bera... Baiña, "*Emoidazu ura*" (J. 4, 7), esatean, bere izaki gaixoaren maitasuna zan Egilleak eskatzen ebana. Maitasun-egarri zan Jainkoa... A!, ba-dakit, Jesus iñoiz baiño *egarriago* da; eskerrikeza ta axolabakokeria besterik ez dau aurkitzen munduko ikasleen artean, eta bere *ikasleen artean be*, aïl, biotz gitxi aurkitzen ditu, emendio barik beretzat diranak, bere Maitasun amaibakoaren samurtasuna ulertzen dabenak.

Aizta maite, gu bai zoriontsu geure Senarraren ixil barru-barrukoak ulertuz! Zuk idatzi nai bazendu dakizun guztia, orrialde bikaiñak geunkakez geuk irakurteko, baiña, ba-dakit, zuk naiago dituzu zeure biotz-barru-barruan gorde. "*Erregearen ezkutua*", niri oster a esaten deustazu "*txalogarri dala Goi-Goikoaren egiñak iragartea*". (Tb. 12, 7).

Ondo deritxat, zuk ixillakeuki nai izatea; nik zeuri atsegin izatearren bakarrik idazten ditut lerro oneik, ez naz ba gai giza-itzez zeruko ixillak adierazteko; gaiñera, orrialdeak eta orrialdeak idatzi ondoren, oraindik ez dodala asita aurkituko nintzan... Aibat odei-ertz diferenteak dagoz, azken barik aldatzen diran lañoak, Zeruko margolariaren margo-parak bakar-bakarrik, bizitza onetako gaua joan ondoren, erakutsi al izango daustaz, neure ari-mearen begietan aurkitzen ditun mirariak eta edertasunak pintatzeko gai diran koloreak.

Aizta maite, neure amesa ta zeuk esaten dautsazunez, neure *"irakatsi txikia"* idatzi dauzudala, eskatu daustazu... Ori dagit urrengo orrialdeetan, baiña oso txarto dagit, eta ez jatzu errez izango berau ulertzea. Nire biozkadak, bear bada, geiegizkoak irudituko jatzuz... O!, parka eistazu, neure idazkeraren erruz izango da, bear bada; nire *ariman* alan be ez dago geiegirik, egia diñotzut, nire ariman dana bai da bakea ta atsedena...

(Jesus'egana noa idazten dodanean; errezago jat olan neure bururakizunak adierazteko... Au, ai!, ez jat eragozpen pentsamentuak txarto adierazota egoteko).

1896'ko irailak,8

(Neure Aizta maite Jesusen Biotzaren Maria'ri)

MAITASUNERAKO DEIA

O!, Jesus, ene maite!, nok esan dagike zein samur, zein leun zuzentzen dozun nire *arimea!* Zuri bai eder zeure grazi izpia dirdir eragitea ekaitz baltzenen artean!... Jesus, ekatxak orru egian indartsu nire ariman zeure garaipen jai ederraren ostean, Pazko jai dizditsuaren ostean, maiatzeko zapatu baten, arima batzuk noizik bein euki oi dabezan misteriozko amesak burura ekarriz, neure buruari niñotsan, pozgarri izango jake ta au, eta aundia, baiña berak ez ebalak olakorik eskatzen. Gabaz, zerua estaltzen eben odeiai begira, *nire arimeak* pentsatzen jarraitzen eban ames ederrok etzirala beretzat, eta lokartua geratu zan ekaitz azpian... Biaramonean, maiatzaren 10 zan, Andra Mariaren illeko bigarren IGANDEA, bear bada Andra Mariak bere loratxoari irripar egin eutsoneko urteurrena...

Ana Ama Agurgarri eta lagunak amesa

Goizeko lenengo argiz, galeria antzeko baten (amesetan) aurkitzen nintzan. An egozan beste

pertsona bi be, baiña banazeen. Gure Ama egoan bakar-bakarrik nigandik ur-ur. beingoan, zelan sartu ziran ez nekiala, iru karmeldar moja ikusi nebazan, euren kapa zuriz eta zapi aundiz jantzi-ta. Gure Amagana etozala iruditu jatan, baiña ondo be ondo ulertu nebana zerutik etozela izan zan. Neure biotzaren barru-barrutik esan neban neuretzat: O!, ni bai zoriontsu karmeldarretatik bateren arpegia ikusiko ba neu! Une aretan, entzun ba leust legezt. santetatik altuena urreratu jatan, bertatik ni belauniko jarri nintzan. O!, au zoriona!, karmeldarrak bere zapia jaso eban, edo obeto, *bazartu* ta beregaz *estaltu nindun...* Ezagutu neban, ezpai barik, Jesus'en Ana Agurgarria zan, Frantziko Karmeldegia irasi ebazana. Eder-rra zan aren arpegia, ederregia, ez eban dizdik botaten eta, alan be, biok zapiak estaltzen ginduzan arren, aren-arpegia ikusten neban argi ezti esan-eziñezkoa dirdaitua; argi, ori etzan artua, berberak sortua baiño...

Ez neuke adierazo al izango nire arimearen poza, gauza oneik somatzen dira, baiña ezin daitekez, adierazo... Illabete asko joan dira ames ezti au euki nebanetik; nire ariman itxi eban gomuteak, alan be, ez dauz galdu, bere freskotasuna, bere zerutar lillurak... Ba-dakustaz oindiño aren begirada ta irribarrea, Ama agurgarriarenak noski, MAITASUNEZ BETEAK; oraindik sentitzen dodazalakotan nago arek egindako txera samurrak...

Ain samurkiro maitatua ikusirik, itzok esaten ausartu nintzan: "O!, Ama!, arren diñotzut, esaidazu, Jainkoak luzaro itxiko ete dauan lurraren gainean... Arin etorriko ete da nire billa?... "samurki irri-barrez, santeak agopean; "Bai, *arin, arin...* Egia diñotzut". — "Ama, nik jarraika, esaidazu baita Jain-

koak eskatzen ez ete daustazan neure egite txikiak eta gurariak baiño? Pozik dago nigaz? "Santaren arpegikera itz egin eustan lenengotan baiño leunago biurtu zan. Aren begitu ta ereguak ziran erantzunik gozoena. Alan be, au esan eustan: "Jainkoak ez dautzu zuri besterik eskatzen. Pozik dago, oso pozik..." Gero barriro be loxinkaturik, amarik maitekorrenak bere semeaz egin oi dauan baizen maitekor, nigandik alde egiten ikusi neban... Poz-eztitan neukan biotza, baiña neure aitzakaz gogoratu nintzan, eta eurontzat mesede batzuk eskatu nai izan neutsozan. Ai!..., itxartu egin nintzan!...

O!, Jesus! Ekatzak orduan ez eban orrurik egiten, zerua baketsu egoan, eta garbi... *Siñisten* neban eta *sentitzen* ba-dala *zeru bat* eta *zeru* ori laztan nabon arimaz beterik dagoala, euren alaba lez ikusirik... Biotz-ondoko ori daroat barruan, eta batez be *Jesus'en Ana* Ama Agurgarria ordurarte niretzat *galdu-trabazi bako*a izan zalako, *oso-osorik*. Ez eutson iñoiz deirik egin eta gogoratzen eban bakar-bakarrik beraz itz-egiten ebela, banaketa-koa zala esanik. Olan, *zenbat maite nindun*, ni ez nintzakiola *ezaxol* ulertu nebanean, urtu egin jatan biotza maitasunez eta esker onez, ez bakarrik ikusten etorri jatan Santagan, baita zeruko biztanle zoriontsu guztiengan be. O!, ene Maite! Grazi au etzan besterik Zuk aurrez emon gura zeustan grazi aundiagoen asiera baiño. Laga eidazu, neure maitasun bakar, gaur gogora daidazan... gaur *gure alkartzearen* seigarren urteurrenean... Al!, parka eidazu, Jesus!, burutik ba dagit neure gurariak, neure itxaropenak, muga bageraiño eltzen diranak, adierazten ba dautzudaz; parkatu eidazu eta osatu nire arimea itxaro dauana emonaz!...

Dana opa dot

Zure *emazte* izan, Jesus, *karmeldar* izan, Zeugaz batera arimen *ama* izan au naikoa izan bear litzakit... baiña ez da orrela... Iru doai oneik osten dabe bear bada, *nire deia*, *Karmeldar*, *Emazte* eta *Ama*; alan be somatzen ditut neugan beste dei batzuk; GUDALARI deia sentitzen dot, ELEIZGIZON deia, APOSTOLU deia. IRAKASLE deia. MARTIRI deia; azkenez, bear-izana sentitzen dot, guraria, Zeugaitik, *Jesus*, egite aundienak burutze-ko guraria... *gurutz-gudari* baten kemena sentitzen dot arima, *Aita Santu* batena; eder izango litzakit Eleizearen aldeko burruka baten iltea...

APAIZ-deia somatzen dot neugan; benetako maitasunez nik Zu eroango eskuetan, neure aotsera zerutik jatxiko zintzakezenean... Nik bai Zu arimai eroango!... Baiña, ai!, *jaupari* izan naita be, miretsi ta bekatxez dakust Asis'ko Frantzisko Deunaren apaltasuna eta beronen antzekoa izan nai dot, *apaizaren* duintasun gorenari uko egiñik...

O!, Jesus!, ene maitasun, ene bizi... Zelan alkar-tu tarte ezbarðiñok? zelan egi biurtu nire arima gaixoaren naiok?...

A!, txiki nazala be, arimak argi-azo gura neukez igarleen antzean, *irakasle* lez, *apostolu-deia daukat*... lurra zearkatu nai neuke, Zure izena aldarrikatu eta siñisbakoan lurrean zure gurutz aintzatsua jarri; baiña. O!, ene Maite! ez litzakit misiño bat naiko izango, Ebanjelioa iragarri gurako neuke aldi berean munduko bost alderdietan, urriñene-ko ugarteetaraiño... Mixiolari izan nai neuke ez urte batzuetan bakarrik, gura neuke izan ba'nintz munduan asi zanetik gizaldien amairaiño... ta nai neuke, batez be, o!, ene Salbatzaille Maite!, Zeugaitik neure odola ixuri azkenengo tantaraiño...

Martiritza, nire gaztetako amesa; ames ori azi egin da neugaz batera Karmelo'ko orma barruan... Baiña, emen be, ba-dakit ames ori zoramen bat dala, ez nintzateke mugatuko-ta *Martiri-soilla* gura izatera... naikotu al izateko, *danak* bearko neu-kez... Zeu lez, ene Senar Gurgarri, zigortua ta gurutz-untzatua izan nai neuke... Narrutua il gura neuke Bartolome deunaren antzera... Juan donea-ren antzera orio irakiñetan sartua; jasan nai neu-kez martiriak oroan dabezan oiñaze guztiak sufri-du... Santa Ines eta Santa Zezilia'gaz, ezpatapean jarri nai neuke samea eta Arko'ko Juana, neure aita maiteak lez, gura neuke Zure izena aokatu sutzar gaiñean. O!, Jesus!... Anti-Kristoaren denpo-retan kristauen janari izango diran oiñazeak gogo-ra ekarriz, dardar dagi nire biotzak; idatzi gura ba'nitu neure naiera guztiak, *Zure bizitz-liburua* artu bearko neuke; or dagoz ipiñita santu guztien egintzak eta egintza guzti orreik nai neukez Zugaitik neuk egiñak izatea... O!, ene Jesus! Zer eran-tzungo dautsezu nire zorakeri guztiai?... Ba da arimarik nirea baiño txikiago, ezerezago danik?... Alan be, neure aultasunagaitik ain zuzen, Zuri, Jauna, *nire umez-aroko gurari txikiak* betetea, eta gaur mundua baiño aundiagoak diranak beste gurari batzuk ase dituzu...

Maitasuna da nire deia

Nire gurariak benetako martiritza sufridu era-giten dauste otoitz-aldian. San Paulo'ren kartak edegiten ditut erantzun bat idoro nairik. Korinto-tarrai egiñiko lenengo kartako 12 eta 13 garren atalak zabaltzen dira nire begi aurrean... Lenen-goan irakurten dot danak ezin dirala apostolu, igarle, irakasle, eta abar, izan, Eleizea atal askoz

osoturik dagoala eta begia ezin daitela izan *aldiberean* esku... Argia zan erantzuna baiña ez ebazan asetzen nire naiak eta ez eustan bakerik emoten... Magdalena lez, beti auspez illobi utsaren ondoan, azkenik idoro neban billatzen neban; olantxe, neure ezerezairen barreneraiño jatsirik, neure elburua goi-goi aurkitzeraiño eldu nintzan... Kikildu barik, irakurten ekinik, esan onek poztu ninduan: "*Doairik onenak arduraz billa egizuez, baiña bide bikaiño bat erakutsi bear dautzuet*" (I Kor. 12, 13). Eta Apostoluak azaldu nai dau zelan doairik **ONENAK** be, maitasun barik ez dirala ezer... *Goi-maitasuna* dala **BIDE BIKAIÑA** ziur-ziur Jainkoagana joateko...

Aurkitu neban azkenik be atsedena... Eleizaren gorputz mistikua gogora ekarriz, Paul Apostoluak esandako soin-atal baten be ez naban neure burua aurkitu, edo, obeto esanda, guztietan ezagutu izan nintzan... Goi-maitasunak emon eustan neure deiairen giltza. Ulertu neban, eleizeak gorputz bat eukala, atal askok osotua; bear-bearrekoenak, guztietak *beñenak* ezin uts-egin; ulertu neban Eleizeak biotz bat eukala, eta biotz au **MAITEASUNEZ IZETUTA** egoala. Ulertu neban Eleizearen atalai *maitasunak* eragiten eutsela eta maitasuna itzaliko balitz, apostoluak ez leukiela Ebanjeliorik otsegingo, martiriak ez leukiela odolik jarion nai izango... Ulertu neban, **MAITASUNAK DAUKAZALA BEREKAN DEI GUZTIAK; MAITASUNA DALA GUZTIA; ALDI TA TOKI GUZTIAK BEREKAN ARTZEN DAUAZALA... BERBA BATEAN BETIKOA DALA...**

Orduan, egi-egiazko poztasun itzalean, esan neban: Oi, Jesus, ene Maitasun!... Aurkitu dot azkenez neure deia. **NIRE BOKAZIÑO A MAITA-**

SUNA DA!... Bai, aurkitu dot neure lekua Eleizan, eta leku au, Oi, ene Jainko!, Zeuk emon daustazu... Eleizan, neure Amaren biotzean *Maitasuna* izango naz ni... dana izango naz olan... olan beteko da nire amesa!...

Zergaitik itz-egin poztasun murgilduz? Ez, esaera au ez da zuzena, zuzenagoa dala derist portura eroan bear dauan itxas-argia ikusten dauan itxas-lariaren bake ezti ta gozoa... Oi, maitasunezko itxas-argi dizditsua; nik ba-dakit zelan eldu zuganaño, aurkitu dot zureugarraz jabetzeko ezkutu!

Ni ez naz neskato bat baiño, erbal eta eziña, baiña neure aultasuna bera da niri indarra damostana. Oi Jesus!, zure maitasunari opari lez eskintzeko. Beste orduz osti garbi ta orbanbageak ziran gogoko, bakar-bakarrik, Jainko Indartsu eta Aalt-suari. Jainkoaren *Zuzentasuna* osotzeko, opari osoak bear ziran; baiña bildur legeari *Maitasunezkoa* doakio ondoren, eta Maitasunak neu aukeratu nau erre-oparitzat, aula ta uts-askoz beterik nagoan au... Au ez al da Maitasunaren aukeratze gurena?... Bai, olan da; Maitasuna oso-osorik kitutua geratu daiten, beeratu bear dau, ezerezeraiño beeratua dauka, eta *su* biurtu ezerez au... Oi, Jesus!, ba-dakit, maitasuna maitasunez bakarrik ordaintzen dala! (1). Olantxe, billatu dot eta olantxe aurkitu dot neure biotza nasaitzeko bidea, maitasuna maitasunez biurturik. "Egizuez lagunak oker irabazitako diru orretaz, ori barik gelditzean, betiko egoitzetan ar zagiezan" (Luk. 16, 9). Auxe da, Jaiuna, Zuk zeure jarraileai emoten dautsegun kon-

(1) *Kurutzeko uan Deuna, Gogozko Kanta*, 9.gn aapaldiaren agalpena.

tsejua, illunpeko semeakeuren gauzetan argiaren semeak baiño zuurrago dirala esan ondoren (Luk. 16, 8). Nik, argiaren alaba nazan onek, ulertu neban, *dana izateko gurariak*, dei guztiak barru artzeko gurariak, zuzen-eza egin nengikeen ondatsunak zirala; orduan erabili ditut eurak *lagunak egiteko*... Eliseo'k Elias bere Aitari BERE ESPIRITU BIKOTXA (2 R, 2, 9), eskatzen ausartu zanean gogoratuz, aingeruen eta santuen aurrean jarri eta esan neutsen: "Izakietan azkenengoa naz, ezagutzen dodaz neure mixeria ta makaltasuna, baiña ba-dakit zelan atsegin jaken biotz leial eta zabalai on egitea; eskatzen dautzuet, ba, zeruko biztanle zoriontsuoi, ALABA LEZ ARTU NAIZUELA; *zeuontzat izango da* lortu eragingo daustazun *aintza guztia*, alan be entzun nire eskaria ausartegia dirudiana; lor daistazuela, eskatzen dautzuet, ZEUEK MAITASUN BIKOTXA.

Lorak bota

Jesus!, ezin dot sakondu neure eskabidean; neure gurari ausarten pixupea ler-eragiña neure burua ikusteko bildurrez... Nire atxaki bakarra da, neskatobat nazala; umeak ez dabe gogoetarik egiten euren berbak noraiño eldu leikezan jakin nairik, baiña euren gurasoak, euren goi-aulkian jarten diranean, ondasun askoren jaube diranean, ezmezean ez dagoz *izaki txiki onein gurariak* beteteko orduan, euren buruak lez maite dabez-eta. Zorakeriak egin oi dabez eurak pozik eukiteko, *makaltasuneiraño* eltzen dira... Ortik ba, ni *Eleizearen alaba* naz eta erregiña da Eleizea, zure Emazte bai da, O!, erregeen errege Orrena!... Umearen biotzak ez ditu eskatzen ondasunak eta aintza (ezta zeruko aintza be). Ulertzen dau arek aintza

bere anai aingeru ta santuena dala... Aren aintza bere Amaren bekokitik urtendako dizdiz-txinparta izango da. Ak eskatzen dauana maitasuna da... Ez daki gauza bat baiño, Zu maite izan, o!, Jesus!... Egiteko aundiak galazota daukaz; ezin dau Ebanjelioa aldarrikatu, ezta bere odola ixuri be... eta zer?; bere ordeztan dagie bere anaiak, eta *umea, Erregearen eta Erregiñaren bakaulki* ondoan geratzen da; *maitatzen dau* gudukatzen daben anaiakaitik... baiña zelan probatu bere *maitasuna*, maitasuna egintzakaz bai da probatzen? Umeak, ba, *lorak botako* ditu, euren *usaiñez hurrunduko* dau erregearen aulkia eta bere abots ezti-ozenez abeztuko dau *maitasunezko* kantua...

Bai, ene Maite!, olantxe amaituko da nire bizia... ez daukat beste erarik neure maitasuna aztertzeko, lorak jaurtiz baiño, au da, buru-ukapen txiki bat be, begitu bat be, berba bat be, itxi barik, danak, pitiñenak be maitasunez egiñik... sufridu egin nai dot eta gozatu be bai maitasunez; orrela lorak botako ditut bakaulki aurrean; ez dot idoroko bat bera be Zeuretzat orriuldu barik... Gero, lorak jaurtiz, abestu egingo dot (negar egingo bear bada egintza ain alaia buruturik?); abestuko dot bai neure lorak arantzartean artu bear ba dodaz be, eta nire kantua izango da arantza luze ta sarkorrangoak eta ezti ozenagoa.

Jesus!, Zuk zetako nai dituzu nire lorak eta kantuak?... O!, ba-dakit, euri usaintsu au, lore-buru makal eta balio bako oneik, biotzik txikienaren maite-kantuok birloratuko zaitue, bai, ezerezkeri oneik atsegin izango jatuz; irri-barre eragingo dautsoe Eleiza Garaipentsuari; beronek artuko dauz nire lora txipilkatuak eta zeure jainkozko eskuetatik igaro azorik, o!, Jesus!, zeruko Eleiza au

bere alabatxoaz jolastu nairik, bota egingo dauz baita, zure jainkozko eskuak ikutuz, amaibako balioa jadetsi ostean. Berak jaurtiko ditu Eleiz garbitazillearen gaiñ, sugarrak itzaltzeko: jaurtiko ditu Eleiz Garaitzaillean gaiñ garaipena lortu dagian...

O!, ene Jesus!, maite zaitut; maite dot Eleizea, neure Ama. Gogoratzen dot: "MAITASUN GARBIZKO zirkiñik txikiena, egintza guztiak batera baiño onurakorrago jakozala (2), baiña MAITASUN GARBIRIK ba-dot neure biotzean?... Nire gurari eskergak ez ete dira ames bat, zorakeri bat?... O!, orrela bada, Jesus, argitu egidazu; Zuk ba dakizu *argi-billa* nabillena... Nire gurariak suster-bakoak ba-dira, suntsitu egizuz, gurari oneik bai dira oiñazik aundiena... Ba-dakit, alan be, o!, Jesus!, maitasunaren tontorrik goienetara igon nai izanik, egun baten ezin lortu ba litzakit gurari au, neure *martiritzan*, neure *zorakerian* aberriko *poztasunetan* baiño gozotasun aundiagoa izango neban, Zuk mirari aundiz niri kendu ezik neure itxaropenen gomuta lurrean. Itxi eidazu orduan neure erbestealdian gozatzen maitasunaren poz-atsegiñak... Itxi eidazu txastatzen neure martiritzaren mingostasun gozoak...

Jesus, Jesus, ain atsegingarria bada maitatzeko guraria, zer izango ete Maitasuna euki ta gozatzea?...

Arranoa ta txoritxo

Zelan arima bat, nirea baizen gaitz-utsa, nai izan daike maitasun osoaren jaube izatea? O!, Jesus!, nire adiskide *lenengo* ta *bakarra*, Zuk, nik

(2) *Kurutzeko Juan Deuna*, Gregorio Kantua, 29.gn aapaldiaren azalpena.

bakarrrik maite zaitudan orrek, esaidazu, zer misterio da au?... Zergaitik ez dozuz gordetzen gurari amaibako oneik arima aundientzat, goietan egaz dagien *Arranoentzat*? Txoritxo aul bat legez daukat nik neure burua, luma-estalki ariñez bakar-bakarrrik jantzia; ni ez naz *arrano* bat, onen BEGIAK eta BIOTZA daukadaz soil-soillik txiki-txikia nazan arren, ba, Jainko Eguzkia begitzen dot, Maitasuneko Eguzkia eta nire biotzak *arranoaren* gurari guztiak sentitzen ditu... Txoritxoak egaz egin nai leuke lilluratzen dauan Eguzki dizditsu orreganantz; arranoak lez izan, Irutasun Santu-Santuen jainkozko sugarreraiño igoten ikusten dabezan bere aitzak legez... Ai!, egin daikeana da bere *egotxoai* eragin, baiña egaz ez dago bere al-izate txikiaren mende...

Zer jazoko jako? Naigabez ilgo ete bere buruá ain eziñik ikusiz?... Ez orixe!; txoritxo ez da atsekabetu be egingo, Itxite ausartez, bere Jainko Eguzkiari begira jarraituko dau; ez dau ezek be ikaratuko, ez aizeak ez euriak, eta odei baltzak illuntzen ba dabe bere *Maitasun-Izarra*, txoritxo ez da lekuz aldatzen, odei ostean ba-daki bere Eguzkiak dirdirka jarraitzen dauana, aren dizdizera une baten be ez dala iñoiz be artua izango. Batzutan, egia da, txoritxoaren biotza ekatxak joa aurkitzen da, uste dau moltzoan artzen odeiak besterik ez dauala; auxe da poztasun betearen unea *Izaki gaitxo aulduarentzat*. Alan eta guzti, bai zoriona an jarraitzea, fedetik ostendutako argi ez-ikusiarri begiratzea!... Jesus, orain arte, ulertzen dot txori txikiari dautsazun maitasuna, Zeugandik ez bai da urrintzen... Baiña nik ba-dakit, eta Zeuk be ba-dakizu, sarri, izaki oso-ezak, bere tokian jarraitu arren, (au da, Eguzkiaren erraiñupean), zabartu egin oi da bere ardura bakarrez, ezker-

eskuma garautxo bat eta ba-doa artxo baten atzetik... Gero ur-pozutxo bat aurkiturik, bertan bustiten ditu bere luma ozt-ozta eratuak; eder jakon lora bat ikusten dau eta beragaz jolasten... Azkenez, arranoen antzera egaztu eziñik, lurreko uskeriakaz jost-alaitzen da txoritxo gaixoa. Alan be, bere gaiztakeritxo guztien ondoren, bere mixeria negartu ta damuturik ilteko bere burua bazter baten gorde bearrean, txoritxo bere Eguzki Maitagana itzuliz, bere *egotxo bustiak* aren izpi ongi-leeagan jarten ditu, intziri dagi elai antzo, bere kantu gozoan ustetsu; zeatz-meatz kontatzen ditu bere saldukeriak, bere izte bildurbakoz jabledunago egingo zalakoan, erakarri zintzoai barik pekatariai dei egiten etorri dan *Aren* maitasuna beteago bereganatzeko... (Mat. 9, 13). *Izar Gurgarriak* gor jarraitzen ba dau bere izaki txikiaren oiuetatara, *estalduta* jarraitzen ba dau... Ondol, izakiak *bustirik* jarraituoz onartzen dau otzak illik egotea, eta poztuten da merezi izan dauan sufrimentu oneikin be...

O!, Jesus!, zure txoritxo ba zala doatsu *txikia ta aula* izanik!, zer jazoko litzakio berari aundi ba litz?... Ez litzake iñoiz be atrebiduko zure aurrean agertzen, zure aurrean *lo egiten*... Bai, orixe txoritxoaren beste makaltasun bat. Jainkozko izpiari begitu nai izatean, berak nai ezta be begiak itxi egiten jakoz; bere burutxo egapean sartzen dau eta loak artzen dau gaixoa, bere Izar maitea ikusten jarraitzen dabelakoan. Itxartzen danean, ez da atsekabetzen, bakean darraiaren biotz txikiak; barriro asten dau *maitatze* bere eginkizuna; aingeruai ta santuai oles dagitse, arranoak bai litzaz, Su ireslarirantz jagiten diranean; orixe bai da aren gurarien jomuga, eta arranoak euren anaitxoaren errukiz dagoz, babestu, aldeztu ta iruntsi nai daben

saiak alderatzen dabez, deabru antza dabenak nunbait, eta txoritxo ez da arein bildur; ez, ezta arein eskin-gai, Maitasun-Eguzkiaren erdiak lilluratzten dauan Arranoarena baiño. O!, Jainkozko Itz! Zu zara, nik maite dodan Arrano gurgarria; Zuk *narakarzu!* Zu izan zara Zu, erbeste lurrera egazturik, jasan nai izan dozu eta il Irutasun Txit Zoriontsuaren Sute Betierekoaren altzoraiño ari-mak erakarteko; Zu izan zara Argi eldu-eziñeraiño Zure egoitza betikoa izango daneraiño igonik, jarraitzen dau oindiño negarrezko ibar onetan, osti zuri baten itxuran gordeta... Arrano betiereko, Zuk janaritzen nozu ni zeure Jainkozko Gorputzez, ni izaki gaixo, zure jainkozko begituak bizia emongo ez ba leust unero ezerezera biurtuko nintzakena... O! Jesus!, itxi nagizu neure esker on bete-betea, itxi eidazu Zuri esaten *zorameneraiño eltzen dala zure maitasuna*... Zelan nai dozu nire biotza ez abiatzea zuganantz, Zoramen onen aurrean? Zelan euki mugak nire konfiantzak?... A!, santuak be zorakeriak egin dabez zure alde, badakit, gauza aundiak egin dabez arranoak zirala-ko...

Jesus, ni txikiegia nozu gauza aundiak egiteko... eta nire *zorakeria* da zure maitasunak artu naiala, itxarotea, opari lege... Nire *zorakeria* da aingeru arranoai, neure aitzai eskatzea jadetsi daidela Maitasun Eguzkiantza jainkozko Arranoaren ego bereziakaz egaz egiteko mesedea... (Dt. 32, 11).

Zure txoritxoak, O ene Maite!, nai dozun beste denporaz indar eta ego barik jarraituko dau; bere begiak Zugan adi-adi daukazala jarraituko dau; jainkozko zure begituak *lilluratua* izan nai dau; zure maitasunaren *arrapakiña* izan nai dau... Noizbaiten, olan ditxarot, Arrano txit maitea, zeure

txoritxoaren billa etorriko zara, eta beragaz Maitasunaren Sutara igonik, beti-betirako murgilduko dozu opari lez eskiñi jakon Maitasun onen ondar ireslean...

O, Jesus!, eziña jat arima txiki guztiai esatea zein adierazo gatxa dan zure ontasunaren zabal... Somatzen dot, ezin batean, neure baiño arima makal eta txikiago bat aurkituko ba zendu, Zu poztuko ziñakela bera mesede aundiagakoaz oindiño asetzen, bera konfiantza osoz zure erruki azken-bakoari emona izatekotan. Baiña, zergaitik saiatu zure maite-ixillak adierazo-naiez? O, Jesus!, zeu ez ete zara erakutsi daustazuzana? eta Zuk ezin al dautsezu besteai be iragarri?... Bai, ba-dakit, eta arrena eskatzen dautzut egin daizula, benetan daskatzut beeratu daizula zeure jainkozko begitua arima txiki asko-askoren gaiñ... Aren, bai arren eskatzen dautzut autatu daizula zeure MAITASUNARENTZAT duin opari txikiz osoturiko talde bat...

*Arpegi donearen Jesus Aurraren Teresa Aizta txiki-
txikia, karmeldar lekaiñe duin-eza.*

**“C” ESKU IDATZIA
GONTZAGA'TAR
MARIA AMARI ESKIÑIA**

X ATALA

BIDETXOA. FEDEAREN AZTERKETA

Ama maite, erakutsi daustazu *Jaunaren errukiak kantatzea* (Sal. 88, 1) zeugaz amaitu daidalako guraria. Kantu zoragarri au zeure alaba maite Jesus'en Ines'egaz asia neban, auxe izan bai zan Jainkoak nire ama aukeratua ni zuzendu nendin neure aurtzaroko egunetan; beragaz, ba, kantatu bear nebazan Andra Mariaren loratxoai emondako graziak, bere bizitzako udabarrian egoanean, baiña zeugaz abestu bear dot loratxo onen zoriontasuna orain egun-sentiko erraiñu meiak eguerdiko bero galdatsuak ordeatuak izan diranean. Bai, zeugaz da, Ama maite, zeure gurariari erantzun naita, adierazo bear ditut neure sentimentuak, neure esker ona Jainkoari eta zeuri Aren ordezeko agiriko zarean orri. Zeure ama-eskuetan ez ete nintzan Ari emon oso-osorik? O, ene Ama!, gogoan dozu egun a?... Bai, ba dakit zure biotzak ezin dauana bera aiztu. Nik neure aldetik, zerurarte itxaron bear, emen bean, ba, ez dot aurkitzen itz egokirik egun zoriontsu orretan nire biotzean zer jazo zan itzuli daikeanik.

Eziketa sendo ta amakor

Ama maite, bada beste egun bat, izan al bada, zeureari osoago emona; barriro be Zuri Jesusek aginpidez jantzi zinduzan eguna izan zan. Egundori zuk, Ama maite, malkoz erein zenduan, baiña zeruan pozez abaildua izango zara, azaoz beterik ikusirik (Sal. 125, 5-6). O!, ene Ama!, asketsi nire ume-modua; ba-dakit zuk onartzen daustazuna lekaima gazte batek bere Nagusiari esatea egoki eztana be kezka bage esatea. Bear bada beti ez naz ibilliko menpekoai izten jaken muda barruan; baiña, ene Ama, errua zeurea dala esaten ausartzen naz; zugaz nabil umetxo bat legez, zuk ez bai narabilzu Nagusi batek lez, Ama batek lez baiño...

O!, ba-dakit ondo be, Ama maite, Jainkoa dala beti zure orde berba egiten daustana. Aizta askok uste dabe zuk maiñotu nazula kutxa done onetan sartu nintzanetik, ez dodala artu zugandik ereguak eta ondo-ikusiak baiño; baiña ezta orrala izan. Zuk ikusiko dozu, Ama, neure aur-aroko gomutak daukazan ingurraztian, zer deritxadan zuregandik artu neban eziketa *sendo ta amakorrari* buruz. Neure biotz barren-barrenetik eskertzen zaitut begirune barik erabilli ninduzulako. Bækian Jesus'ek bere loratxoak bear ebana apaltasunaren ur bizigarria; makalegia zan euskai au barik susterrak botateko, eta zeure bitartez, artu eban, Ama, laguntza au.

Urte bete t'erdi dala, Jesusek aldatu nai izan dau bere loratxoa azi-azteko modua; naiko *ureztatua* idoro eban antza, orain eguzkiak berak azi-erazten dautso-ta. Jesusek dau arentzat nai beronen irribarrea baiño, zeure bitartez, ene Ama maite, au be emoten dautsona Eguzki ezti onek, loratxoa legor-

tu bearrean, azi-erazten dau arrigarriro; bere lorekukula barru-barruan zaintzen ditu artu dabezan iruntz-tantak eta tantok gogoratzen dautsoe beti txiki ta aul dala... Izaki guztiak makur daitekez beraganantz, miretsi, gorespenez bete; ez dakit zergaitik, baiña onek ez leukio geituko guzurrezko pozaren tanta bat be bere biotzean, Jainkoaren begietan zer dan ikusirik, miazkatzen dauan egiazko pozari; gaixotxo ezerez bat; besterik ezer bez...

Ez dakidala zergaitik diñot; baiña ez da bear bada, gorespen-ur barik egon dalako, bere kukulu txikia epe guzti orretan apaltasun-iruntzez naiko bete barik egoalako? Ez dago arriskurik onezkero; bestera, loratxoari pozkario jako gaiñezka daukon iruntza, eta ez leuke aldatuko poz-bete guztien ur motelagaitik. Berari eder ba jako ni nazan baiño ohea agertzea, ez daust ardura, aske da Berak nai dauanez gauzak burutzeko... O!, ene Ama!, beste-lakaok bai dirala Jainkoak arimak daraoizan bi-deak! Santuen bizitzetan, ba-dagoz arima batzuk euren eriotz ostein ezertxo be itxi nai izan ez dabezanak, ezta gomutaki bat bere, ezta idatzirik txikiena be. Ba-dira beste batzuk, alderantziz, gure Teresa Ama lez, agerkari gurenakaz Eleiza aberastu dabenak, Erregearen ezkutua zabaltzeko bildur barik (Tb. 12, 7), ezagunago izan daiten, arimak maiteago izan dagien. Erakuste bi oneitatik zein ete jako gogokoen? Nire eritxiz, ene Ama, biak bardin jakoz gogoko, danak ibilli bai dira Espirituak bultz-eraginda, eta Jaunak esan dau: *Esan zuzenari DANA dagoala ondo* (Is. 3, 10). Bai, dana dago ondo; Jesusen naia besterik billatzen ez danean. Origaitik nik, loretxo gaixo onek, Jesusek naia egiten dot neure Ama maiteari atsegin eginda.

Bide bat guztiz barria

Zuk ba-dakizu, ene Ama, beti nai izan dot santa izatea; baiña, ai!, beti egiztatu dot, santuakaz bar-diñean jarri nazanean, arein eta nire artean zeruetan galtzen dan mendi-tontor baten artean eta bidez dabiltzanak zapaltzen daben are-pikor artean dagoan aldea dagoala. Kikildu bearrean, neuretzat diñot: Lortu-ezinko pentsamentuak ez daustaz Jainkoak emongo; al dot, beraz, txikia izanik be, santu izatea gura izan; aztea eziña jat, nazan lez eroan bear, neure akats guztiakaz; baiña zerura joateko bidea billatu bear dot, bide zuzen bat, laburra, bidetxo guztiz barri bat...

Asmakizunen gizaldian gagoz. Orain ez dago zetan nekaturik zurubi bateko maillak igoten; aberatsen etxeetan goragailluak ordeazkatzen ditu, eta edertotxo. Neuk be goragaillu bat aurkitu nai neuke Jesus'eganañño igoteko, txikiegia naz ba osotasunerako mailladi traketsa igoteko. Orduan billatu neban liburu santuetan igongaillu bidea, neuk nai nebana, eta itzok orduan irakurri nebazan, Betiko Jakituriaren aotik urtenak: "Iñor txiki-txikia bada, betor" (Jn. 9, 4). Orduan ni asmatuz joan nintzan billaten nebana aurkitu nebalakoan, eta, oi, ene Jainko!, zeure deiari erantzutzen eutsanakaz zer egingo zenduan jakin nairik; billatzari jarraituz, eta ona zer idoro neban: "Amak bere umea poztuten dauan lez, olantxe, Neuk be poztu-ko zaituet; neure altzoan eroango zaituet eta neure belaun-gaiñ erabiliko" (Is. 66, 12-13). Oi, itz samurragorik ez eban izan nire arimeak, ezta ozenagorik be. Zerurainño jasoko nauan igongaillu zure besoak dira, Oi, Jesus!; beraz, ez daukat azi-bearrik; bestera baiño, txikia izanaz jarraitu bear dot, gero



Terese, Lisieux-ko komentuan, berberak idatzitako "Jeane d'Arc" komedia egiten.

ta geiago izanaz. Oi, ene Jainko!; gainditu dozu nire itxaropena, eta nik zure errukiak abestu nai ditut. *"Gaztetatik irakutsi zeustan, ene Jainko, eta gaur arte iragarten dodaz zure miragarriak; zartzarozartzaroraiño be eurok iragarten jardungo dot nik"* (Sal. 70, 17-18). Zein izango da niretzat adin ori? Oraintxe bertan izan daitekela deritxat 2.000 urte, ba, Jaunaren begietan ez dira 20 urte, egun bat, baiño geiago... (Sal. 89, 4). Ai, ez uste, ene Ama maite, zure alabak itxi nai zaitunik... ez uste izan berari ederrago deritxola, grazi aundiagotzat daukala, arratsaldean baiño egun-sentian iltea. Berak ederresten dauana, berak gura dauana bakar-bakarrik *Jesus'i* atsegin izatea dozu... Orain bada, itxura denez, bere aintzazko egonlekura eroateko ordua urreratzen jakon ezkerro, pozgarri jako zure alabeari. Luze dala ulertu izan dau Jainkoak ez daukala iñoren bear-izanik (nirenik gitxiago bes-teenik baiño) lur gaiñean on egiteko.

Parkatu, ene Ama, naigabetzen ba'zaitut... Ai, niretzat bai poza zu poz-aztea!... Baiña, zuk uste dozu, zure erregu ta oroitzak, lur gaiñean entzunak ez ba'dira, Jesusek egun batzuetarako alabea bere Amagandik bananduko ba'leu, otoitz oneik ez dirala zeruan entzunak izango?...

Nobiziaduko enkargudun

Zuk nai dozu, ba-dakit, nik bete daidala zeure ondoan egiteko guztiz atsegiña, guztiz erreza; egiteko au, ezingo neuke zerutik amaitu al izango?... Jesusek egun baten San Pedro'ri esan eutson lez, zuk zeure alabari esan zeutson: *"Larratu egizuz nire bildotsak"* (Jn. 21, 15), eta arritu nintzan eta esan neutzun txikiegia nintzala"... Zerorrek

larratzeko eskatu dautzut zeure bildotsak eta neu be zaindu, eurakaz batera ni be larratua izan nendilla. Eta zuk, ene AMA MAITE; nire gurari zuzenari pizkat erantzunik, larratu dozuz ardiakaz batera bildotsak be; baiña sarritan mesedez eroateko aginduz *kerezpetara*, bedarrrik onenak zeintzuk diran adierazo, eta erabat alikagarriena, erakutsi egundo bear ez dabezan lorak, ibilliz oinperatzeko izan ezik...

Zu etzara bildur, ene Ama maite, zeure bildos-
txoak bide onetik aldenduko ete dautzudazan. Nire esperientzirik ezak, nire gaztetasunak etzaitu ikaratu. Zuk bear bada gogora ekarri dozu Jauna sarri poztu oi dala txikiai jakituria emonaz eta egun baten, atsegin-zoroaldi batez, bere *Aita* be-deinkatu ebala ezkutu oneik zuurrai gorde eta txikiai iragarten dautsezuelako (Mat. 11, 25). Zuk ba-dakizu, ene Ama, arima gitxi dirala, Jainkoaren al-izatea euren pentsamentu laburrez neurtzen ez dabezanak, lurra berezkuntzaz beterik dagoala ikusten dabe, Jainkoak bakarrik ez ete dau eskubiderik olakorik egitera? Aspaldi dala dakit, esperientzia urtez egitea gizonen artean, bere gaztarroan, ba, Dabid errege santuak Jaunari abesten eutson: *"Gaztea naz eta ezestua"* (Sal. 118, 14). Salmuan bertan 118'an ez da bildur esateko, alan be: *"Zaarrak baiño zurrago biurtu naz, billatu dodalako. Zure itza da nire oinkadak argitzen dauazana; gertu nago zure aginduak betetako, ETA EZEK EZ NAU DARDARATUKO..."* (Sal. 118, 100-105, 105).

Fedeari buruzko azterketa

Ama maite, zu etziñan bildur izan niri esaten Jainkoak nire arimea argi-azten ebala esaten, zaa-

rreren esperientzi berbera emoten eustala... O!, ene Ama!, txikiegia naz orain arrokeriak arrotzeko; txikiegia naz baita esaera ederrak taiutzeko eta apaltasunik ba-daukadala; gurago dot lau-lau autortzea. Guzti-aldunak gauza aundiak egin dabezala bere Jainko-Amaren alabearen ariman, eta guztietan aundiena dozu bere txikitasuna jakinaztea, bere al-eziña. Ama maite, ondo dakizu zuk, Jainkoak ontasunez prueba guztietatik igaro-azodau nire arimea... Askosufridu dot lurrean nagonetik; baiña umetan naigabez sufritzen ba'neban be, orain ez da bardin jazoten; egi-egiaz pozik sentitzen naz bakez eta pozik sufritzean. O! ene Ama, zuk nire arimearen ezkutu danak jakin bear dituzu irri-barre ez egiteko lerro oneik irakurriaz; ba ete da arima bat nirea baiño gitxiagoa aztertua, itxuretatik epaitu ezkeror? O!, urtebete dala sufritzen dodan ikusgarri egingo balitz, zelako, bai ezusteko aundia!...

Ene Ama maite, zuke ezagutzen dozu prueba au; alan be, beratzaz berba egin bear dautzut oindiño, artu dodan grazi aunditzat daukat- eta, zure Nagusitza zoriontsu onetan artu dodana...

Joan dan urtean, bere laztasun guztian zaindu al izan neban garizumako baraua; iñoiz be ez nintzan aurkitu ain sendo, eta indar onek Pazkoe-taraiño iraun eustan. Alan be, Bariku Santuz, Jesus'ek bera zeruan laster ikusteko esperientzia emon nai izan eustan... O!, gomutaki gozoi!...

Gaberdirarte Monumentu ondoan egon ondoren, gelara biurtu nintzan; baiña oian etzuteko unetxo bat be euki ez nebala, senti neban etorren olatu bat, borborka, neure ezpanetaraiño. Ez nekian zer zanik, baiña uste izan neban bear bada ilgo

nintzala, eta poztasunez gaiñezka egoan nire arimea... Bitartean, argontzia orduko amatauta neukan ezkeror, neure kautan esan neban urrengo goizerarte itxaron bear nebala neure zorionaren barria izateko, euki nebana odol-botaka izango zala-ta. Laster etorri zan urrengo eguna. Itxartu nintzanean, beratik bururatu jatan gauza pozgarriren bat jakingo nebala eta, leiora urreraturik, jakin al izan neban ez nengoala okerrean... Al, poz ikaragarri batek asetu eban nire arimea; ziur nengoan Jesus'ek bere eriotz urte-urreneko egunean lenengo deia entzun-erazo nai eustala "Senarra ba-etorrelakoa iragarten eustan zurru-murru leun urrutia zan" (Mat. 25, 6).

Goizeko Len-otoitzera ta erru-batzarrera joan nintzan. Artega nengoan, ene Ama maite, txanda noiz elduko zeuri eskatuz parkamena, neure itxaropena ta neure zoriona; baiña geitu neban ez nebala ezer sufriduten (egia zana) eta eskatu neutzun, Ama, ez eistazula gauza berezirik emon. Izan be, Bariku Santua neuk nai neban lez igarotea lortu neban. Iñoiz be ez jatazan iruditu ain atsegingarriak Karmelo'ko penitentziak; zerura joateko itxarokizunak pozez asetzen ninduan.

Egun zoriontsu ortako gaba eldu zanean, atsedena artu bear neban, baiña aurreko gabeen lez, Jesus'ek ezaugarri bardiña emon eustan, nire betiko bizitzarako sarrera ez egoala urrin... Fede bizia, benetan argia neukan orduan, eta zeruko pentsamentuak guztiz zoriontsu biurtzen nindun. Ezin neban siñistu fede bako gizasemerik egon leikenik. Uste neban euren pentsamentuen kontra berba egiten ebela, zerurik ez egoala-ta esaten ebanean, zeru ederraren kontra, Jainkoa bera euren betiko saria izan nai ebanean.

Pazko aldiko egun ain pozgarrietan, Jesus'ek berak somatu eragin daust baietz, egi-egiaz badagozala federik ezdauken arimak, grazia gaur eta biar alperrik erabilliz, ondasun bikain au galdu dabenak, poztasun garbi ta egiazkoen iturri bakar-rak. Berak nai izan eban nire arimea illunpe illunenez inguratua izan zedin, eta niretzat ain gozoa zan zeru-pentsamentua aurrerantzean niretzat izatea izatea burruka ta oiñaze motibu izatea... Proba onek egun batzuk, aste batzuk iraungo eustan, Jainkoak markaturiko ordurarte luzatuko zan eta... ordu au ezta eldu oindiño. Eder izango litzakit sentitzen dodana adierazo al izatea, baiña ail, eziña dala, uste dot. Bide illun ontatik ibilli bear da illuntasun au ulertu al izateko. Alan be, azaldu nai dot berau adibide bategaz.

Illunpe trinkoz beteriko eskualde baten jaio nazala egiten dot; ez dot sekula ikusi izadiaren itxura alaia, eguzki dirdautsuz betea, antz-aldatua; umetatik, egia da, entzun dot arrigarri orreitz itz egiten, ba-dakit bizi nazan lurraldea ez dala nire aberria; ba-dala beste bat eta arantza jo bear dodala aspertu barik. Ezta au ni aurkitzen nazan errialde tristeko arima batek asmatua, egi uts-utsa dozu, eguzkiak dizdi dagian aberriko Erregea 33 urtetan illunpeen lurraldera etorri da bizi izaten. Illunpe-lurraldean, ail, ez eben ulertu Jainko-Errege au zala munduko argia (Jn. 1, 5 ta 9). Baiña, Jauna, zure alabeak ulertu dau zure jainkozko argia; errukia eskatzen dautzu bere nebaentzat; berak onartzen dau oiñaze-ogia jatea; nai dozun beste denporan, eta ez dau itxi nai atsekabez beteriko mai au, pekatari giakoak jaten daben maia, izentaturik daukazun ordua baiño leen...

Baiña aldi berean, ezin leike berak esan, bere

izenean, bere aizen izenean: *Erruki zahiguz, Jauna, pekatari giakoak gara-ta?...* (Luk. 18, 13). Oil, Jauna!, zintzotu gagizuz... fedearen argontzi ditziratsuz argitu barik dagozan guztiak azkenez be ikusi dagiela argitzen. O, Jesus!, maite zaitun ari-ma batek garbitu bear ba dau eurak loituriko maia, bakarrik geratu gura dot or jateko probazko ogia, Zeuk nai dozun arte zeure erreñu argitsuan sartu. Eskatzen dautzudan grazi bakarra: ez zaidala iñoiz iraindu!...

Ene Ama maite-maitea, idazten dodanak ez dauka jarraipen eten bakorik; nire kondaira txikia, maitagarrien ipuiña zirudiana, otoitz biurta da beingoan; ez dakit zer balio eukitz dauan zuretzat pensamentu nastu eta txarto adierazo guztiok irakurteak. Azken baten, ene Ama, ez dot idazten literatur lan bat, esana betetearren idazten dot. Gogaikarri ba'naiatzu, be, zure alabak borondate ona erakutsi dau alako izango da. Aurrrera, eroango dot, bada, neure kontaketa kikildu barik itxi neban puntuari jarraituz.

Au niñotzun, Ama, egun baten lurralde goibel eta naigabetsutik urruti joango nintzan ziurtasuna neure ume-egunetatik neukala. Ez bakarrik ni baiño pertsona jakitunagoai esaten entzunda, baita neure biotz barrenean sentitzen nebazalako eskualde ederrago batera joan-gogoak neukazalako be. Kristobal Kolon'ek berejitean uste eban lez bageoala beste mundu bat, orretan iñok pentsatu baiño leen, nik be somatzen neban nozbaiten beste lur-zati bat izango jatala bizileku oizkoa baiña ez-bat ez-bi inguratzen naben lanbroak, trin-koagoak egin ziran, neure ariman sartu ta bildurik, eziña jat bertan neure aberriaren irudi ezitia aurkitzea. Dana izatua!

Inguratzen daben illunpeak nekarazo dausten biotza atsedendu dedilla nai dodanean, opa dauan lurralde argitsuaren oroipenez, nire oiñaz-miña aundiago egin oi da; illunpeak, uste dot, pekatarien abotsa artzen dabela, niri esanik, ixeka dagistela: "Argiaz ames dagizu, lurrun leunenakaz usaindutako aberriaz; miragarri guztien Egillearen jaube betiko izateaz; egunen baten, uste dozu, inguraturik zaukiezan gurmeak urratuko dituzula. Aurrera, aurrera; poztu zaitez eriotzaz, itxaron dozuna ez, baiña gau sakonagoa oraindik, ezerezaren gaba emongo dautzuna".

Ene Ama txit maitea, nire arimea illuntzen daben margoztu nai izan dautzudan illunpeen irudia, guztiz motela dozu, saiaketa bat ereduaren parean; baiña ez dot geiago idatzi gura, bildur naz biraoak esango ete ditudan... Bildur naz geiegi esan ete dodan be...

Al, parka beist Jesusek, iraindu baldin badot, baiña Arek ondo daki, fede atsegiñik euki ezta be, egiñetan beintzat alegintzen nazana. Uste dot, urte bete onetan, neure bizitza guztian baiño fedegintza geiago burutu dodazala. Burrukaldi ba-koitxean, nire arerioa erasoka datorkidanean, kementsu jokatu oi dot. Alkar iltera jokatzean koldarkeria dala jakiñik, bizkarra emoten dautsot etsaiari, arpegia begitu be egin barik; Jesusegana noa, neure odola azken-tantaraiño jariatoko gertu nagoala, esaten dautsot, zeru bat ba-dagoala autortzeko. Zoriontsu nazala, diñotsat, lur gaiñean zeru eder orren gozotasunik ezpadot be, Berak siñisbako gaixoai zabaldu dagitsen betikotasunera. Olan, proba au eukita be, atsegin guztia ain zuzen, esan dagiket: "Jauna, zuk ATSEGIÑEZ beteten nozu egiten dozun GUZTIAZ" (Sal. 91, 4).

Ba ete da atsegin aundiagorik zeure maitasunez sufritzea baiño?... Sufritzea barruago ta gitxiago agertu izakien begietan, geiago poztuten; zaitu oi, ene Jainko! Baiña, eziña dana, Zuke ezpa-zenki nire sufrimentuaren barri, oraindik be berau eukiteaz zoriontsu sentiduko nintzake, *fedearen* kontrako erru ta uts-egite bat bakarra galazo edo-ta ordaindu al izan ezkerro...

Ene Ama maite-maite, bear bada neure probea geitu egiten dodala iruditu jatzu; izan be, aurtan ondo dodazan poematxoetan agertzen dodazan sentimentuetatik epaitzen ba nozu, pozkarioz asetutako arima bat naz, eta fedearen zapia ia urraturik daukana, eta alan be... niretzat ez da zapi bat, zeruraiño jasotako orma bat da, eta ortzi izartua estaltzen dauana... Zeruko zoriona abesten dodanean, Jainkoaz jaubetze betikoa, ez dot bape atsegiñik sentitzen, lau-lau SIÑISTU NAI NEUKENA abestu daroat-eta. Batzutan, egia da, eguzki izpitxo bat datorkit neure illunpeak argiaztera; *pizkaten* orduan prueba ba-doa, baiña bein-goan izpitxo orren gomutak, poztasuna ekarri bearren, trinkoagoak oindiño egin daroaz nire illunpeak.

O!, ene Ama!, ez dot iñoz sentidu ainbeste, zein errukior eta ezta dan Jauna; prueba au ez daust baldiu nik eroan neikean momentuan baiño; lenago, uste dot osoan kikilduko ninduala... Orain, berezko griña egon leikean guztia kentzen dau, zeruaz neukan gurari biziak... Ama maitagarria, orain uste dot ezek ez daustala galazoten egaz egitea; onezkero ez daukat, ba, gurari bizirik, maitez ileraiño maitatzea ezik... (bagillaren 9).

Ama maite, ikaraz nago atzo idatzitakoaz, zela-zela zirribarroak!... Dardarka neukan eskua eta ezin

geiago idatzi eta orain damuturik nago idatziaz. Gaur ia irakurgarriago egiten dodan; orain ez nago ba oian, jarleku zuri polit batean baiño.

Ol, ene Ama!, ba-dakit ondo be diñotzudan guztiak ez daukana loturarik, baiña neure sentimentuak zuri esan bearra dot, oraingoak, gero-koak esaten asi baiño leen; ondoren, bear bada, aztuta nintzake. Esan nai dautzut ezer baiño leen zelan ikutu dausten biotzean zeure samurtasun amakorrak. Al, siñist egidazu, Ama maite, zure alabearen biotza esker onez beterik dago, ez dau iñoiz aztuko zor dautzun guztia...

Geien-geien biotz-erdiratzen nuana, ene Ama, Garaitetako Andra Mariari egiten dautsozun bederatz-urrena da, eta neure osasunerako esan-azoten dozuan mezak. Ba-dakit espirituzko ondasun guztiok on aundia dakartsela nire arimeari; bederatz-urrena astean niñotzun, ene AMA; Andra Mariak osatu bear ninduala, edo-ta zerura eroan, oso tristea neritxon, ba, zuretzat eta lekaimeentzat, karga aundia zala moja gazte bat gaixorik eukitea. Orain gaixorik egon nei neuke neure bizitza guztian, ori balitz Jainkoaren naia, eta onartzen dot baita nire bizia luzea izan daitela. Nai dodan grazi bakarra da maitasunez moztua izan dedilla.

Ol, ez, ez naz bizitza luze baten bildur; ez dot arbuizatzen burruka. *"Jauna dot Arkaitz, ni gordeteko, berak trebetzen ditu nire urteak, gerrarako eta nire eskuak burrukarako. Bera da nire eskutua, Beragan ditxarot"* (Sal. 143, 1-2). Origaitik, ezin ni il gazterik, egia dala be, beti uste izan dodala au zala zure naia. Sarri poztu oi da Jauna bere aintzagaitik lan egiteko gogoaz be eta zuk ba-dakizu, ene Ama, nire gurariak aundiak dirana. Baita ba-daki-

zu Jesusek kalitz garratz bat baiño geiago aurkeztu daustazala, nik edan aurretik nire ezpanetatik urrindu dauana; baiña ez nik aren garraztasuna gozagarritu-azo baiño leen.

Bere aizten ondoan burrukatu

Ama maite-maitea, errazoia eukan Dabid errege santuak, au kantatzen ebanean: *"Gozo ta atse-gingarri benetan, anaiak alkarturik bizi izatea"* (Sal. 132, 1). Egi-egia, esperientziz ikusi dot sarri, baiña alkartasun onek lur gaiñean izan bear dau batez be eskintza artean. Karmelo'ra ez nintzan etorri neure aitzakaz bizi izateko, Jesusen deiari erantzuteko izan zan bakar-bakarririk. Al, argi ikusten neban au etenbako sufrimentuen motibu izango zala, nobere aitzakaz bizi izateari ezertxo be eskini nai ez jakonean.

Zelan baiestu daikegu obeago dala nobereta-rrengandik urrindutea?... Ezer esan jake iñoiz anaiei burruka-zelai bardiñean gudukatu dabelako; ezer esan jake iñoiz alkarrekin abiatu diralako martiri-abarra eskuratzera?... Ezbai barik, errazoiz pentsatu dabe eurak alkar sustatzen ebela, eta bakotxaren martiritza guztiena egiten zala. Bardin-bardin jazoten da konbentuko bizitzan be, teologuak martiri-bizitza deituan. Norbait Jainkoari emokeran, onen biotzak ez dau berezko txera galtzen, txera ori alderantziz, geitu egin oi da, garbiago ta Jainkozkoago egiñik.

Ama maite-maite, asko-gura orregaz maite zaitut nik, maite dodaz neure aitzak. Pozik aurkitzen naz, *famillan*, zeruetako Erregearen aintzaren alde burrukatu al dodalako; baiña gertu nago baita beste burruka zelai batera joateko be, Jainko-

Gudalburuak eskatuko ba leust. Ez neuke bearko agindu bat, begite bat naikoa litzakit, seiñale soil bat.

Kutxa bedeinkatuan sartu nintzanetik, buruan ekarri izan dot beti, Jesus'ek eroaten ezpa-nindun beingoan zerura, nire zoria Noe'ren usoarena izango zala; Jaunak egun batean kutxaren leiatilla edegi ta urrun bialduko nindula egaz, urrun, oso, siñis-bakoen ur-ertzetara, neugaz eroanik olibo-abar-txoa. Ene Ama, pentsamentu onek azi egin dau nire arimea, sortutako izaki guztiak baiño gorago egaz eragiñik. Ulertu neban bai Karmelo'n izan daikezala banaketak, eta zeruan bakar-bakarrik izango zala alkartasun osoa eta betierekoa. Ordu-tik nai izan dot nire arimea bizi eitela zeruan, lurreko gauzak ez nebazala begiratu bear urriñe-tik baiño. Onartu neban ez atzerria bakarrik ez-ezaguna neban erri baten erdian, *garratzago* jata-na be, erbestea onartu neban neure aiztantzat be.

Ez dot iñoiz aztuko 1896'ko abuztuaren 2. Egun ori, ain zuzen be mixiolariak joan ziran eguna; orduan itz-egin zan seriozki Jesus'en Ines Amaren joateaz be.

Mixiolari deia

Ama maite-maite, zure zuurtasunak jakin eban Jainkoaren naia aurkitzen, eta Aren izenean zuk galazo dautsezu, sar-barriai, oraingoz beintzat, euren lekaima ume-abia izterik ez pentsatzeko; baiña zuk ba-dakizu arein gogoen barri, oso ondo ulertzen dozuz, zuk, ene Ama, zeure gaztaroan Saigon'era joatea eskatu zenduan-eta; amaren gurariak sarri oiartzuna izan oi dabe euren alaben arimetam. Oi, ene Ama maite, zure apostolu-gura-

riak nire ariman aurkitzen dau, ba-dakizu zuk, oiartzun leial bat.

Itxi eidazu esan daizudan zergaitik nai izan do-dan eta nai dodan oindiño be, Andrea Mariak osatzen ba nau, zeure begirada amakorrean ain zoriontsu bizi izan nazan lur atsegingarri au itxi ta arrotz batera joan...

Erbesteko Karmeldegietan bizi izateko, zeuk esan daustazu, ene Ama, bokaziño aparta bear da. Arima askok, orra deituak izan barik, baietz uste dabe. Zeuk esan zeustan baita nik dei neukala eta neure osasuna zala ortarako eragozpen bakarra; ba-dakit eragozpen ori uxatuko litzakela Jainkoak deituko ba leust urrutirako; beraz bape ardura barik bizi naz. Egunen baten neure Karmelo kutu-na itxi bear ba neu, ai!, ez neuke oiñaze barik egingo, Jesus'ek ez daust emon biotz gorra eta orixegaitik ain zuzen be eroan-gai da, eta Jesus'i emon daiola nai dot emon leion guztia. Emen, ene Ama txit laztana, ezetariko ardura barik daroat bizitzea, zeuk nire ardurara itxi dozun egiteko ezti ta erreza betetea besterik ez dot. *Emen*, zuk zeure ardura amakorrez asetzen nozu; ez-eukia ez dot sentitzen, iñoiz ez bait jat ezer falta izan, Baiña, batez be, *emen* maite nabe, zeuk eta Aizta guztiak, eta txera au guztiz atsegiña da. Nire amesa, orixe-gaitik, ez-ezaguna nintzaken monastegian dabil; olako etxe baten txirotasuna sufridu bearko neu-ke, txerarik eza, biotzaren atzerri-aldia azken ba-ten.

Al, artu nai nindukean Karmelo'ri onurakor ezatearren ez da, ez neuke origaitik itxiko maita-garri dodan guztia; neugan dagon guztia emongo neuke, duda bage, baiña ezagutzen dot neure ezintasuna eta ba-dakit, dakidanik ondoen egiñik,

ez neukela ondo egingo, esan dodanez, lurreko gauzen ezagutzarik ez dodalako. Nire burubide bakar-bakarra izango litzateke Jainkoaren borondatea bete, nai-alan Agaitik neure buruari uko eginik.

Ba-dakit, ez neuke etsipenik izango; sufrimentu garbi ta naste bakoa itxaroten danean, ba, pozik txikiena be uste bagako ez-uste biurtzen da. Gaiñe-ra, zuk ba-dakizu, ene Ama, oiñazea bera be pozik aundien egin oi da, ondasunik bikaiñena lez biltzen danean.

O!, ez!, ez da neure lanen frutuaz gozatzeko, emendik alde naia; ori balitz nire asmoa, ez, ez litzateke izango, ez neuke somatzen dodan poz eztia somatuko eta asko sufriduko neuke neure deia urriñeko mixiñoetan ez egitearren. Antxiñatik ez naz neurea, oso-osorik Jesus'i emona nazalako. Bera aske da, ba, nitaz nai dauana egiteko. Naigarri egin daust erbeste oso bat, *ulertu eragin daustaz an aurkitu neikeyan sufrimentu guztia*, neure buruari itanduz ia edan gura neuken kaliza azken ondarretaraiño. Bertatik, Jesus'ek eskitzen eustan kopa ori gura izan dot baiña Arek eskua baztertutik, ulertu eragin eustan nik artu nai izanaz, pozik egoala.

Menpetasunaren orratza

O!, ene Ama zenbat artegasunetik askatzen gaitun menpekotasun botuak! Doatsu bai dirala lekaike bakunak! Nagusien naia izanik euren orratz bakarra, eurak ziur dagoz beti bide artezez joten dabela-ta, ez daukie zelan bildur izan erratuz dabiltzala-ta, ezta nagusiak erraturik dabiltzala ziur uste izanik be. Baiña itxas-orratz oker-eziñari

ta arek agintzen dauan bidetik aldentzen danean, Jainkoaren naia egiteko atxakiz, ez bait ditu argitzen alan be euren tokia daukenak, eta orduan arimea tartekorik barik galdu egiten da bide legorretatik zear, laster graziaren ura falta izanik.

Zu zara, ene Ama maite-maite ori, Jesusek emon daustan orratza ni ziurtasun betiko ur-ertzera zuzendu naizun. Atsegin bai jatala zu begi aurrean zaitudala Jaunaren naia beingoan betetea! Fedearen kontra tentaldiak eroan ondoren Berak nai izan dau, Berak asko be asko geitu dau nire biotzean *fedearen espiritua*, eta zuga ikusi-azten daust onek, ez bakarrik maite nauan eta nik be maite dodan Ama bat, baita ikus-azo be Jesus zeure ariman bizi dana ta zeure bitartez bere naia erakusten daustana. Ondo dakit, ene Ama, zu nigaz arima makal bat lez, neskato maite bat lez narabilzuna; orixegaitik ez jat gaitz egiten menpetasuna karga eroatea; baiña nik uste dot, neure biotzbarruan somatzen dodanez, nikez neukela jokabiderik aldatuko eta nik zuri dautzudan maitasunak ez leukela izango gitxitze izpirik, nigaz gogorrago ba zenbiltz be; orretan ikusiko litzateke, ba, Jesus'en borondatea dala, zuk olan jokatzear, neure arimearen on-aundiagorako.

Goi-maitasuna

Urte onetan, ene Ama maite, goi-maitasuna zer dan ulertzeko grazia Jaunak emon daust; len be ulertzen neban, egia da, baiña modu ez-osoan. Ez nebazan sakondu Jesus'en berba oneik: "*Bigarren agindua lenengoaren ANTZEKOA da; zeure burua lez maite izango dozu urko laguna*" (Mt. 22, 39). Nire ardura guztia zan batez be Jainkoa maitatzea eta

orrela maitatuz ulertu dot etzala naikoa nire maitasuna ilzez bakarrik aldatzea, ez dira ba: *"Jauna, Jauna!, diñoenak zeruetako erreñuan sartuko diranak, Jainkoaren naia egin daroenak baiño"* (Mt. 7, 21). Jesus'ek sarri agertu dau nai au, ots, Ebanjelio-ko orrialde bakotxean, baiña azken avarian, Berak ba-ekialarik bere jarrailléen biotza Beraganako maitasunez beroago egoala, eurai emon-emon egoala, Eukaristiko misterio arrigarrian, Salbatzaille eztiak *agindu barri bat* emon nai dautse. Samurtasun esan-eziñezkoz diñotse: *"Agindu barri bat emoten dautzuet, alkar maite izan dagizuela, eta NIK MAITE IZAN ZAITUDAN LEZ ZUOK BE ALKAR MAITE IZAN DAITZUELA"*. *Onetantxe ezagutuko dabe guztiak neure ikasle zariena* (Jn. 13, 34-35).

Zelan maite izan ditu Jesus'ek bere ikasleak eta zergaitik maite izan ditu? A! Etziran Aren berezko gaitasunak A erakarri leikenak, euren eta Bere artean azkenbako bitartea. Bera zientzia zan, Betibetiko Jakiturgia; eurak arrantzale gaixoak, ezjakiñak eta lur-pentsamentuz beteak. Jesusek, alan be, neure *adiskideak* diñotse, neure anaiak (Jn. 15, 15). Errege lez ikusi nai ditu bere Aitaren erreñuan eta, erreñu au zabaldu dagitzen, gurutzen baten gaiñean il gura dau, Berak esan dau-ta: *"Bizia bere adiskideen alde emotea baiño maitasun aundiagorik ez dago"* (Jn. 15, 13).

Jesus'en itzok gogotan erabilliaz, ene Ama maite, ulertu neban zein ezereza zan nik aitzakaz neukan maitasuna. Jainkoak maite ebazan lezez nebazala maite, konturatu nintzan. A!, orain ulertzen dot egiazko maitasuna besteen utsak pazientziz eroatea dala, ez arritzea euren aultasunak diralata, egiten dabezan birtute egintza txikienak ba

ontzat artzea; baiña ulertu neban batez be goi-maitasunak ez dauala geratu bear biotz-barruan gorderik. *Iñok be, diño Jesus'ek, ez dau argi ixetua imillaun-pean ipinten, argi-ontziaren gaiñean baiño, etxean dagozan GUZTIAI argi dagitsen* (Mt. 5, 15).

Jaunak bere erriari agindu eutsonean bere burua lez urko laguna maite izateko (Luk. 19, 18). Bera oindiño etzan lurrera etorria; olan, bakotxa zenbateraiño maite izaten dan jakin barik, izakiai ezin leikeoan eskatu maitasun aundiago bat bere urko lagunarentzat. Baiña Jesus'ek bere apostoluai agindu barri bat, BERE AGINDUA emon eutsoeanean (Jn. 15, 12), gero diñoanez, ezta onezkero esaten dauana, nobere burua lez urko laguna maite izateko, *Berak, Jesus'ek, maite izan dauanez, maite izateko baiño, au da, munduaren azkeneraiño maite izango dauanez...*

O. Jauna!, ba-dakit ezin dan gauzarik agintzen ez dozuna; Zuk ezagutzen dozu nik baiño obeto nire bigunkeria, nire ez-osotasuna, Zuk ba-dakizu nik ezingo dodazala nire aitzak zuk maite dozuan ez maite izan, Zeuk be, o!, ene Jesus!, neugan maite ez ba'dozuz. Agindu barri bat emon dozu, grazi ori emon nai daustazulako. O! Maite dot, zure naia dalako, ziur, *neugan Maitatzea* da-ta maite izan daidazala agintzen daustazun guztiak maitatzea!...

Bai, maitekor eta onbera nazanean, ba-dakit Jesus dala nigan lan dagian bakarra; zenbat eta Beragaz alkartuago, maiteago ditut neure aitzak guztiak. Maitasun au nigan geitzea opa dodanean, deabruak batez be Aizta aren edo onen akatsak, ain begiko ez jatanarenak nunbait, neure arimearen begi aurrean jarten daustazanean, Aizta orren birtuteak, aren gurari onak billatzen saiatzen naz,

au esaten dautsot neure buruari, iñoiz jausten ikusi ba dot; neuretzat diñot, bein edo bein ikusi ba dot be jausten, lortu al izan leikezala apaltasunez gordetan dabezan garaipen asko be asko, eta baita, niri utsa dala iruditzen jatana, izan daikela, asmo onez dalako, birtutezko egintza. Ez litzakit gatx egingo onezaz zuritzea; esperientzi bat izan neban, ba, gau baten egundo be ariñegi uste ez izaten erakutsi eustana.

Sorkarien eritxia

Solasaldi baten zan. Atezaiñak kanpai-ots bi jo zituan. Ate andia zabaldu bear geuntsen langilleai, Gabon-Jaiotzarako zugatz batzuk sartu bear ziran. Jolasaldia etzan itz-egitekoa, zu ba, ene Ama maite etzengozan bertan; olan, uste izan neban, irugarrena lez bialtzen ba ninduen, pozik joango nintzala; Ama Nagusi-ordeak, ain zuzen be, agindu eban neu joan nendilla edo-ta neure ondoan egoan Aiztea, atea edegiten. Lana tolestuten asi nintzan beingoan, baiña astiro antza ta nire lagunak nik baiño leenago amaitu eban, uste neban ba atsegin izango jakola lekua iztea. Etxeko arduranaren ordeaz egoan Aizteak irribarrezka begiratzan euskun eta ni azkena jagi nintzala ikusiz, esan eustan: "Al, ba-nekian nik zuk ez zenduala irabaziko pitxi bat zeure korairako; astiroegi ziñoiazan..."

Igarrian, lekaime guztiak urte eben senez jokatut ebalan olan eta ez neuke esango zelako ona egin eutson nire arimeari ain gauza kaxkarrak, eta besteen makaltasunakaz biotz-samur izaten erakutsi eustan. Orrek ez nau arroputz ba egiten nitaz ondo itz egiten dabenean, burura au dakart eta: Nire birtutezko egintza pitiñak uts lez artzen ba

dabez, oker egin leikez baita utsak baiño ez diranak birtute lez arturik. Orduan neuretzat diñot Paul deunagaz: "*Niri gitxi zuek nai beste giza-auztegi batek epaitzea, neuk be neure burua ez dot epaitzen eta; ni epaitzen nauana JAUNA bai da*" (I Kor. 4, 3-4). Olan, epai zuzena egiteko, edo obeto, epaitua ez izateko, biotz-samurrez pentsatu bear dot beti, Jesus'ekesan bai dau: "*Ez ebatzi ta ez zaitue ebatziko*" (Luk. 6, 37).

Idatzi barri dodana irakurri ondoren, uste izan zeinke, ene Ama, ez jatala gogor egiten goi-maitasunaren ekiña. Egia da, illabete batzuk diranetik birtute eder onetan jardutea ez jat nekeza. Ez dot esan nai onekin ez jatala faltatzen iñoizkoren baten, oi, kaskarregia naz ortarako, baiña ez jat asko kostatzen jagitea, jausiez gero; burrukaren baten garaille izan nazalako. Zeruko gudari-taldeak orain be etorri oi jataz laguntzen, ezin bait nabe ikusi azpiratua esatera noian gerra aintzatsutik irabazle urten ondoren.

Maitasuna eta ikusi eziña

Komentuan ba-dago Aizta bat ni zer guztietan gogait eragiteko kermena daukana, bere jarduerak, bere itzak, bere izaera oso *iguingarri* jatazan oso. Alan eta guzti be, lekaime santu bat da, Jainkoari oso atsegin jakona nunbait. Arenganako berezko ar-txarrari amor egin nai ezta, neure kautan esan neban goi-maitasuna etzala izango sentikortasuna, egiteak baiño; orduan asi nintzan Aizta augaitik egiten neuk maiteen neban pertsoeagaitik egin izango neukena. Aurkitzen neban guztietan Jainkoari eskatu oi neutsan beragaitik Berari eskiñiaz bere birtute ta irabazi guztiak. Ba-nekian

Jesus'i au eder jakona, artistarik ez dago, ba, bere lanakaitik goralpenak artu nai ez dauanik, eta Jesus, arimen artista dana, zoriontsu aurkitzen da norbait azalean bakarrik gelditzen ez danean, Berak bizi izateko aukeratu dauan barruko santutegiraino sarturik, edertasuna miresten dauanean. Ez neukan naiko ainbat burruka ekarstan Aizteaz Jainkoa bizi-bizi otoizteaz, al nebazan zerbitzuak egiten be alegindu oi nintzan, eta iguñiez erantzuteko tentaturik nengoanean, neure irribarrerik maitekorrena eskiñirik, aldatu egin oi neban alkarritzeta gaia; Kristo'ren *Antz-Bideak* au diño: "*Oba da bakotxa bere eritzian laga, istilluz zolitu baiño*" (1).

Sarritan baita, solasaldian ni ez negoanean (lan orduetan esan nai dot); Aizta onegaz lan-artu-emonen bat ba'neban, nire burrukak zakarregiak ziranean, nik iges egiten neban igeskari baten antzera. Arentzat oso ez-ezagunak ziran nire sentimentuak eta iñoiz be ez eban nire jokabidearen barri eta uste dau ak bere izakera atsegin jatala niri. Bein, jolasaldian, errekreo bitartean, gitxi-gora bera berbok esan eustazan, pozaizez: "Esan nai neuskezu. Ume Jesus'en Teresa Aizta ori, zek nakarren zukanantz, begiratzen zaitudan guztietan irribarrez ikusten zaitut". A!, Jesus zan erakartzen ninduana, aren arima barruan gordeta... Jesus, garratzena be gogo biurtzen dauana... (2). Erantzun neutsan irripar egiten nebala bera ikustea pozgarri jatalako (ez neban geitu, jakiña, espirituari begira zanik).

(1) *Kristoren Antz-Bidea*, 3.gn liburua, 44, 1 atala.

(2) *Kristoren Antz-Bidea*, 3.gn liburua, 5, 3 atala.

Iges egiñik garaitu

Esan dautzut, ene Ama maite-maitea, nire *azkenengo bidea*, burruka aldietan azpiratua ez izateko, iges egitea dala; modu au nigan antxiñakoa da, sartu-barri nintzanean be erabilla. Ondoren ona ekarri daust beti. Edestu nai dautzut, ene Ama, jazoriko bat uste dot barre eragingo dautzuna. Zeure marranta (bronkitis) aldi baten, goiz batean joan nintzan ardura aunditan zeure gelan Jaun-artzeko burdin-sareko giltzak izteko, sakristiko arduraduna nintzan-eta. Barruan ez nindun kezkatzen zeu ikusteko eretia izateak, bestera, oso pozik nengoan, baiña alez beintzat estaldu egin oi neban. Aizta batek, maite-suak artua ta asko maite ninduanak, zeure gelan sartzen ikustean, itxartu egingo zindudazala uste izan eban. Giltzak artu nai izan eustazan, baiña ni okerregia nintzan ari giltzak izteko, *neure eskubideak* lagarik. Egokienik esan neutson berak baizen bizi nai nebala ez itxartzea eta neu nintzala giltzak emon bear neutsazana... Orain konturatzen naz niretzat ederragoa izango zala Aizta oni, gaztea egiaz, giltzak iztea, ni baiño leenagoa zalako. Orduan ez neban ulertzen; orrela, ni aren atzetik barruan sartu nairik, eta a ateari sakaka ni sartu ez nendin, laster jazo zan jazotea gura ez genduna: egin genduan zaratotsak begiak zabal-azo eutzuzan... Orduan, ene Ama, dana etorri zan neure gaiñ. Nik eutsi neutson Aizta gaixoak itzaldi bat botaten asi jatan, onela edo: Jesus Umearen Teresa Aiztea izan da zaratea atera dauana... Zein gogaikarri dan, ene Jainko... eta olan... Nik, bestera uste neban eta, pentsamentu argitsu bat izan neban; neure barrurako esan neban, neure burua zuritzen asten ba'nintzan, ezingo neban, ezelan be, neure arimako nekea iraun-azo; ba-nekian baita ez neukala naiko

birtute ezer esan barik salatzen izteko; iges egitea zan, bada, nire salbamenezko azken-ola. Esan eta egin; joan nintzan otsik egiteke, Aiztea itxirik Kamila'k Erroma'ren aurkako araoak zirudien itzaldiari jarraitzen.

Taupada gogorrez neukan biotza, eta aurrerago ezin joanik, mailletan jarri nintzan neure garai-penaren frutuak baketan gozatzeko. Au ez da kementsu jokatzea, ezta alan, ene Ama maite?; uste dot, alan be, oba dala, burrukan ez sartzea, galtzea ziurra danean.

Neure lekaima len-urteetan pentsatzen dodan, ail, zein kaskarra nintzan ni... Orain barre eragiten dausten gauzak naigabetzen ninduen. Al Jaunaren ontasunak azi-azo dau nire arimea, egoak emon dautsoz... Eiztarien sare guztiak ez nindukee ikaratu; izan be: *"Alperrik botaten dabez sareak egoak daukezan begien aurrean"* (Ptr. 1, 17). Aurre-rago, bizi-aldia utsez betea iruditzen jatan, orain barriz eze be ez nau arrituten, *auleria* bera nazana ikusiz ez naz atsekabetsen; bestera, bera da ni goratzen nauana (2 Kor. 12, 5) eta uste dot egunean egunean utsegite barriak aurkituko dodazala. *Goi-maitasunak pekatu moltzoa* estaltzen dauala (Pr. 10, 12) gogora ekarriz, Jesusek nire aurrean edegi dauan meatz ontatik artzen alegintzen naz.

Ebanjelioan, Jaunak azaltzen dau zetan dagoan bere agindu barria. San Mateok diño: *"Entzun dozue esanda dagoan au: Zeure lagun-urkoa maite izango dozu, eta zure areirioari gorroto izango dautsazu. Nik, ostera, au dññotzuet: Maite egizue arerioak, egizue otoitz aurrean zarabillezanen alde"* (Mat. 5, 43-44). Karmelo'n, dudarik ez, ez da arerio-rik aurkitzen, baiña, alan be, ba-dagoz begi on eta

atsegiñak, bat berez oartu oi da Aizta batek ekarria dala eta beste batek inguru osoa eragiten dautzu beragaz bidean idoro ez zaitez; olantxe, kontu-ratu barik, a eraso edo persekuziño-gai biurtu oi da. Orain ba, Jesusek diraust Aizta au maite izan bear dodala, beragaitik otoitz egin bear dodala, bere jokabideak ez nauala maite siñist eragiten ba daust be. *"Zeuek maite zaituezanak bakarrik maite ba dozue, zermerezi dozue? Pekatariak be orrenbeste egiten dabe"* (Lk. 6, 32). Eta ez da naikoa maitatzea, erakutsi egin bear da ori. Erregalu bat gustora egitean lagun bati, ez-ustekoa emotea atsegin izaten da batez be, baiña ori ez da goi-maitasuna, pekatariak be ori egiten bait dabe.

Goi-maitasuna eta txirotasuna

Ona emen, gaiñera, Jesus'ek erakusten daustana: *"Emoizu eskatzen dautzun EDOZEIÑI, eta zeurea dana ARTU DAGIONARI ez egiozu barriro eskatu"* (Luk. 6, 30). *Eskatze daben* guztiai ez da bere biotza-
ren eragiñai jarraituz bere buruaren eskintza baizen atsegiña; maitekorki eskatzen dabenean erreza da emotea, baiña, zoritxarrez, itz samurrak erabilten ez diranean, gora-goraka jarten da arimea, goi-maitasunean sendo ez ba dago, eskatzen dana ezezteko eta bakar-bakarrik eskatzen dauanari bere samurtasunik eza zuritu ondoren, emon oi dautso mesede bat lez eskatzen dauana, edo-ta zerbitzu txiki bat egiten dautso, ogei bider denpora gitxiago izango zana egiten, iruditako eskabideak beteten egin dauna baiño. Edozeiñi eskatzen dauana emotea zail ba da, *zaillago da* oraindik *nobereana dana*, eskatu barik, *kentzen iztea*. O ene Ama, zail, au da, gaitz dala diñot, *gaitz dala* dirudi esan bear neuke,

Jaunaren buztarria ba leuna da eta ariña, (Mat. 11, 30). Ontzat artzen danean, nabaitzen da bere gozotasuna eta salmodunanagaz batera diño: “*Zeure aginduen bidetik JOAN NAZ ariñeketan, biotz au zabaldu daustazunean*” (Salm. 118, 32). Goi-maitasunak bakarrik zabaldu al dau nire biotza. O!, Jesus!, sugar bigun onek erreten dagoanetik, zeure agindu Barritik nabil aringa, pozarren... Ortik ibilli nai dot, birjiñen taldeaz alkaturik azken-bako zeru-usgunetan zear jarraitu al dagizudan egun zoriontsura arte, zeure abesti BARRIA abestuz (Ap. 14, 3), maitasunarena ziur.

Begitanduten jatan: Jesus'ek ez dau gura neurea danik eskatzea; au erreza ta berezkoa izan bear litzakit, *nirea ez bait da ezer*. Lurreko ondasunak, uko egin neutsen txirotasunaren botoz, ez daukat ba zetan kexaz ibillirik neurea ez dan gauzaren bat kentzen ba dauste; beste aldetik, pozgarri izan bear jat ez-eukia sufriduteko abagunean gaiñ dodanean. Beste garaiz uste neban ez nengoala ezeri be josita, baina Jesus'en berbak ulertu nebazanatik, batzuetan oso zabarra nazala ikusten dot. esate baterako, dakidanez ezer be ez da nirea, ondo be ondo dakit; baiña lanera noianean, pintzelak eta pinturak nasteurik aurkitzen ba dodaz, erregla edo aizto bat galdua danean, pazientzia galdu bearrean aurkitzen naz eta neure kemenari oratu bear izaten dautsot falta jatazan gauzak gogor eskatzeko. Batzuten bearrezko dozu bear diran gauza keskatzea, baiña apalapal egiñaz ez doa Jesus'en aginduaren aurka; bestera bai baiño, bear dabena artzeko eskua luzatzen daben eskekoen antzera egiten dabe oneik; ezer ukatzen ba jake, ez dira arritzen, iñok ez bai dautsoe ezer zor.

O!, nik bai pozez betea dodala arimea berezko sentimentuen gaiñetik dagoanean!... Ez, ez dago

poztasunik egiaz espirituzko txiroak miazkatu oi dauan lakorik! Zabal-zabal eskatu ba dagi bear dauan gauza bat eta ori ukatu ez bakarrik daukana kendu nai ba dautsoe be, berak Jesus'ek esana egin dagi: “*Zure jantzia kentzearren, auzitegira eroan nai zagizanari, emon egiozu soin-gaiñekoa be* (Mt. 5, 40).

Soin-gaiñekoa iztea da, nik uste, azkenengo eskubideai uko egitea, nobere burua jopu egitea da, au da, besteen menpeko. Norbaitek bere soingaiñekoa itxi dauanean, errezagó dabil, ariñeketan doa, orixegaitik gaiñeratzen dau Jesusek: “*Eta milla oinkadako bidea egiten beartu zagizanagaz, egin aregaz bi milla oinkada*” (Mt. 5, 41). Ezta naikoa; eskatzen dauanari emon ezkerro, aren gurariak aurrea artzea da, oso beartua sentidu ta mesede egiñaz omendua, eta neuk darabildan gauza bat artzen ba dauste sentitzen dodanik ez dot erakutsi bear, pozik eta ardura-ezezko agertu baiño. Ene Ama maite, ulertzen dodana egi biurtzetik urrin samar aurkitzen naz, baiña egiteko daukadan gurariak bakea damost.

Konturatzen naz oso txarto azaldu nazala, beste egunetan baiño motelago. *Itzaldi* antzeko bat egin dot goi-maitasunari buruz, zuri bera irakurtea neketsu egingo jatzuna. Parka eidazu, ene Ama txit maite, eta gogorau eizu momentu onetan gaixozaiñak nigaz idatzi dodana egiten dabiltzala. Arei ez dautse ardura milla oinkada ibiltea ogei naiko litzakezanean, begi aurrean ikusi al izan dot goi-maitasuna! Nire arimea, duda barik, orretaz murgildua egon bear dau antza; nire espirituak autortzen dau moteldu egin dala pizkat onako ukapenetan, nire idazkortzak be galdu egin dau. Neure pentsamentuak adierazteko, *txori bakar-*

zalea lez (Sal. 101, 79), egon bear dot, eta ori bakanetan da nire kasua.

Idazteko eragozpenak

Lumea artzen dodanean, ona, Aizta on bat igaroten da neure ondotik urkulua lepo-gaiñ. Arek uste dau niretzat jolasgarri dala niri autualditxo bat emotea; elbitza, paitak, oilloak, osagillearen bisita, dana jatzu izketagai; egia esan, au ez da autu-gai luzea, baiña *Aizta maitekor* bat baiño geiago dagoz eta, beingoan, beste segalari batek nire belaun gaiñean izten ditu lora batzuk, olerkizko pentsamentuak sortzen daustezala uste izanik, bear bada. Nik, momentu ontan ez bai nabil lora billa, gurago neuke lorak ba lebiltz balantzaka euren kirtenetan. Au da, ingurrazti ospetsu au itxi ta zabaldu nekatu be egiñik, liburu bat edegiten dot (zabalik geratu gura ez daben bat) eta erabagitsu diñot Salmuetako eta Ebanjelioko pentsamentuak aldatzen dodazala Geure Amaren jairako; egi-egia ez ditut ba aipamenak gaillen ez egiten.

Ene Ama maite, asko poztuko ziñake, nik uste, Karmelo'ko basartean euki dodazan goraberak esanaz. Ez dakit amar lerro idatzi al izan dodazan etendura barik; onek ez leuskit barre eragin bear, ezta poztu-azo be, baiña Jainkoari eta neure Aiztai (ain maitekor nigaz) dautsedan maitasunarren, pozik agertu nai dot eta *egon* batez be... Ona emen segalari bat, errukior aizez diñostana: "Aiztatxo gaixoa, egun guztia idazten, onek asko nekatuko zaitu", —"Ez izan ardurarik", erantzun dausat, asko idazten dodala dirudi, baina egiaz ez dot idazten gitxi baino" —"Obeto"; erantzun daust aize ziur, "baiña bardin da; poztuten naz, segalari

gabiltzalako, atsegingarri izango jatzu pizkat". Olan da, niretzat barru-nasaigarri da ori (gaixozaiñak egiten daustezan ikustaldiak zenbatu barik) eta ez diñot guzurrik, ez bait dot ezer idazten.

Zorionez ez naz errez gogo-jausten. Ori zuri adierazteko, ene AMA; zati au amaitzeko, Jesus'ek goi-maitasunari buruz erakutsi daustana azaldu nai dautzut.

Barru-maitasuna

Oraiñarte ez dautzut itz-egin kanpotikoaz baiño. Berba egin nai neuskizu orain zelan ulertzen dodan nik soilik barrukoa dan goi-matasuna. Ziur nago, ez nazala asko luzatuko bata-beste nastatzen; baiña, ene Ama, zeugaz mintzatzen nazan ezkerro, egia esateko ez jatzu aldatz gora egingo nire pentsamentua ulertu eta zeure alabearen mataza asaltzea.

Karmelo'n beti ez da erreza Ebanjelioko berbea zeatz-zeatz betetea. Batzutan, etxeko zeregiñak dirala-ta, ezin leitekez egin mesede batzuk, baiña goi-matasunak ariman sustrai sakonak bota dauzanean, kanpoan agertu oi da. Modu bat ba-da txit maitekorra emon ezin leikenari uko egiteko, emona baizen atsegiña ezetza dana. Egia da, gitxiago kostatzen dala beti gertu dagoan Aizta bati mesede bat eskatzea; alan be, Jesusek esan dau: "*Eskatu dagitzun edonori ez egiozu sorbaldea emon* zerbait aurreratuta eskatzen dautzunari" (Mt. 5, 42). Orre-la, ukatzera beartua izango dalako atxakipean, ez dago zetan urrindu beti mesedeak eskatzeko oiturea dauken Aiztakandik. Ezta ezin daiteke izan atsegin onekoa, *Itxurarako* edo-ta beste ereti baten orain mesede eskatzen daustan Aizteak beste

ainbeste egingo daustalakoa; Gure Jaunak au be esan dau-ta: "Atzera biurtuko dautzuenai aurretiaz emoten ba dautsazue, zer irabazi dozue? Pekatariak be emoten dautsee aurretiaz pekatatariai beste ainbeste artzeko. Baiña zuok egin on, **ORDAINAREN USTE ON BARIK**; eta aundia izango da zuen saria" (Luk. 634-35). O!; bai! aundia dozu saria, lurrean be bai... bide onetan len-oinkadea da neketsua. Ezer itxaron barik emotea, latza dirudi izakiarentzat; oba litzake emotea, bein emondakoa ez da nirea ta. Norbait datorkigunean erabagitsu oso, esanik. "Aizta, ordu batzuetan zeure laguntza bear dot, baiña egon trankil, geure Amaren baimena dot eta emoten daustazun *aldia* biurtuko dautzut, ba dakit eta zein lanpetua zagozan". Egi-egiaz, ondo jakin oi danean emondako *aldia* ez jakola iñoiz be biurtuko, batek naiago leuke onela esatea: "Zeuretzat" Onak itxiko leuke nobere buruaren maite-zalekeria, emotea ba prestatzea baiño egintza zaleagoa dozu eta, gaiñera, Aizteari erakutsi-azten jako ez direla itxaroten bere zerbitzuak... A!, zein diferen-teak diran Jesus'en irakatsiak eta gure izatearen sentimentuak! Graziaren laguntza barik eziña izango litzateke ez bakarrik eurok egitea, baita eurok ulertzea be.

XI ATALA

SAR-BARRIAK ETA NEBA MIXIOLARIAK

Ene Ama, Jesus zure alabeari goi-maitasunaren misterioz beteriko barruak barren-azteko grazia emon dautso; berak ulertzen dauana adierazo al ba leu, zuk zerutar melodi bat entzungo zeunke, baiña, ai!, nukezin neikizu eskiñi umetxo baten itz titilicpotolok baiño... Jesusen itz eurak eusle ez ba'neukez, idazteari izteko baimena eskatuko neukizu... Baiña ez, esanda asi nebana esanez jarraitu bear dot.

Gogozko griñarik eza

Atzo idazten neban, ene Ama txit maite, emen beeko ondasunak, neureak ez izanik, ez jatala gaitz izan bear barriri iñoiz be eskatzea, egunen baten eroaten ba eustezan. Zeruko ondasunak be ez dira nireak, Jaunak *abantzuan* emonak dira, kendu leiskidaz ni origaitik kejaz asi barik. Alan be, Jainkoagandik zuzenean datorkidazan ondasuna, adimeneko ta biotzeko gurariak, adibidez, pentsamentu sakon-sakonak, guzti orrek ikuturik ez egiteko altxor bat, eta orri oratu oi dautso gure biotzak nobere gauza bati lez... Esate baterako, errekreo bitartean burura jatorko Aizta bati otoi-tzean artutako argi bat, eta andik laster Aizta

orrek, beste Aizta bati iragarten dautso otoitzean artua, bere pentsamentu lez, eta berea ez dana artzen dauala esan daikegu. Edo-ba bardin, solasaldian, lagunari esaten jako berba bitxi egoki bat; berak gero ba'diño abots zoli, bere jatorria aitzen emon barik, au be aurka jagiten ez dan jaubeari ostutea dala esan leiteke; egia da, pozik egingo leukena eta lenengo abagunean egingo be, era onez jakin eragiñik bere pentsamentuakaz jaubetu zala.

Ene Ama, nik ezingo neuskizuz ain ondo adierazo izatetik datozan pentsamentu triste oneik, neure biotzean somatu ez ba nitu. Neuri bakarrik jazo jatazalako ames eztian kulunkatzen itxiko neuke neure burua, zeuk zeure gazte sar-barriententaldiak entzuteko agindu ezpa-zeust. Asko ikasi dot zeuk emon daustazun egitekoa betetea; batez be, besteai erakusten neutsena egiten naitaez ikasi bear izan dot. Olan, orain Jesusek emon daustala esan neike espiritu ta biotzeko ondasunai, lurrekoai baiño itsatsiago ez egoteko grazia. Neure Aiztai atsegin jaken pentsatu edo esatea gogora ba datorkit, berezko lez iruditzen jat eurak euren ondasun lez ori artzea. Pentsamentu au ezta nirea Espiritu Santuarena baiño, Paul deunak diño ba gukezin geinkiola, Maitasunezko Espiritu au barik, zeruan dagoan geure Aitari "Aita" izenik emon (Err. 8, 15). Bera da, ba, jaun eta jabe, arima bati neure bitartez pentsamentu on bat adierazteko; nik uste ba neu pentsamentu ori neurea dala, "Erlikiak eroiazan astoa lez nintzake"; onek uste eban, dakigunez, santuai egindako deduak, erreberentziak, berari egiañak zirala.

Ez dodaz ezesten arimea janaritu ta Jainkoaz alkartzen daben pentsamentu sakonak; baiña antxiñatik dakit eusgarri lez eurok artu ta argi

asko artzean ez dagoala santutasunaren oiñarria. Pentsamenturik ederrenak be ez dira ezer egintza barik. Ziurra da besteak probetxu aundia atera leikeela apal-azi ta Jainkoari bere esker ona erakusten ba dautso; Berak bere graziakaz aberastuz atsegiña artzen dauan arima baten janaritzan parte artzen izten dautsolako; arima, au, baiña, bere *pentsamentu ederretan* ederresten, eta fariseutarrren otoitza egin, ondo ornidutako mai baten aurrean gosez ilten dan pertsona baten antzeko egiten da, beste bazkaldar guztiak ugari jaten dabela eta, batzutan, bekatxez begiraturik ainbat ondasunen jaube danari.

Al, egia bai dala Jainkoak bakar-bakarrik eza gutzen dauala biotzen barrena... izakien pentsamentuak bai dirala laburrak!... Besteak baiño argi geiagor arima bat ikusten dabenean, bereala ateraten dabe Jesusek arima ori baiño gitxiago maite dabezala eta eurak ez dagozala osotasun bardiñera deituta. Noiztik ez dau eskubiderik Jaunak maite dauzan arimai emon al izateko, bear daben janaria? Faraon'en egunetan be ba-eban *eskubide* au, Liburu Santuetan ba Nagusi oni dirautso: "*Ain zuzen be, nire al-izatea zeure lepotik erakusteko eta nire ALMENA lur guztian iragarteko*" (Urt. 9, 16). Gizaldiak joan dira Goi-goikoak itzok esan ebazanetik eta ezta aldatu ordutik Aren jokabidea. Izakiak erabili ditu aldioro, tresna lez, bere egintzea arimetan burutzeko.

Pintzelaren egitekoa

Margolari batek margozturiko oial batek oldoztu ta berba egin al ba leu, ez litzateke egiaz egon-go beti ikutu ta ikutu pintzel bategaz, ezta ez leuke

bekaiztuko tresna onen zoria, jakingo leuke ba ez dala pintzelari, au darabilen artisteari baiño laukia jantzirik dagoan edertasuna, Pintzelak, bere aldetik, egin dauan arte-lanagaitik ez leuke izango arrotuteko eskubiderik; ba-daki artistak ez dirala loturik geratzen, eragozpenak pozgarri jakezala eta gozatu egin oi dabe, batzuetan, tresna aul akatsdunak aukeratuz...

Ene AMA, pintzel txiki bat nozu, zeuk nire ardurapean ipiñitako arimetan bere irudia jarteko Jesuek autatu dauana. Artista batek ez dau pintzela bakarrik erabilten, bi gitienez bear ditu. Lenengoa da bearrezkoen, onegaz emon oi ditu kolorerik geienak, onegaz estaltzen dau oial osoa denpora laburrean; bestea erabili oi dau margo zeatzetarako.

Ene Ama, zu zara pintzel bikaiña, Jesusen eskuak maiteki darabilena, zure alaben ariman *lan aundi* bat egin nai dauanean, eta ni nozu *pitiña*, gero zeaztasun txikietarako darabilena.

Jesus'ek lenengoz bere pintzeltxo erabili ebana, 1892'ko abenduaren 8'an inguruan izan zan. Garai ori grazi ugariduna bezela gogoratuko dot beti. Peskizan emon gura dautzudaz, ene Ama maite, gomuta eztitsuk.

Amabost urteko nintzala, Karmelo'n sartu nintzanean, illabete batzuk ni baiño aurrerago sartu zan lekaime gazte bategaz aurkitu nintzan. Ni baiño zortzi urte adiñekoago zan, baiña bere umeizaerak aztu-erazten eban urteen aldea; zuk, ba, ene Ama, laster euki zenduan zeure lekaime-gai gazte biak alkar ondo artu ta banandu eziñak eginda ikusteko poztasuna. Alkar maitasun sortubarri au, zeure eritxiz, frutu onak emon bear

ebazan oni laguntzeko, noiztik noizera espirituzko alkar-izketa laburrak eukiteko baimena, emon euskuzun. Pozgarri jatan nire laguna oso laua, eta izaera zabal jentekiña zalako, baiña, beste aldetik, arrigarri jatan, zuri eutzun maitasuna nik neutzun lakoa etzala ikusten nebalako. Beste gauza asko be ba eukazan Aiztakaz ak aldatzea nik gura nebazanak... Aldikada ontatik Jainkoak ulertu-azo eustan ba-dagozala arima batzuk, bere errukia itxaroten nekatzen ez jakena. Orixegaitik, nik ez neban aurreratu nai izan bere ordua eta pazientzi aundiz itxaroten neban Jesus'ek berak eldu-azo egiala. Egun baten, alkarregaz berba egiteko emon zeuskun baimenaz, gure araudi doneak daiñoskuenez, gogoetak egin nebazan; *gure Senarraren maitasunean geiago ixiotuteko*, naigabez pentsatu neban gure alkar-izketak ez ebela lortzen gura genduan; Jainkoak ba ulertu eragin eustan orduan ordua eldu zala eta ez nebala bildurrik izan bear berba egiteko edo-ta adiskideen artekoak zirudien alkar-aurkitze oneik ebagi egin bear nebazala. Zapatu bat zan. Biaramonean, eskerrak emon orduan, Jainkoari eskatu neutsan ipiñi egizala nire ezpanetan itz maitagarri ta eragilleak, edo obeto, nire orde Berak itz egiola. Jesus'ek entzun eban nire eskaria; Berak nai izan eban ondorenak osorik aldetzea nire itxaropena; izan be: "*Beragana begiak biurtzen dabezanak argituak izango dira*" (Sal. 335), eta "*Argiak dizdiz dagi illumpetan biotzez zuzen diranentzat*" (Sal. 111, 43). Niretzat dira lenengo itzak eta besteak nire lagunarenztat, dudarik bage biotz zuzena eukan-eta.

Alkarganatzeko geratu gintzazan ordua etorri zanean, aizlatxo gaixoa, begiratu ninduan, beingoan konturatu zan ni ez nintzala lengoa. Neure ondoan jarri zan gorri-gorri eginda, eta ni,

aren burua neure biotz gain ipiñiaz, beretzaz uste neban guztia esan neutson negar-malko artean, baiña esaera maitagarriakaz, maitetxera bizi-bizia erakutsirik, eta laster aren negar-malkoak neureakaz nastatu ziran. Nik niñotsan guztia apal-apal onartu eban; bizimodu barria asiko ebalaz zin egiten eustala, mesede bat lez eskatu eustan bere utsakak beti adierazo nengiozala eskaturik. Azkenez, bata besteagandik banandu gintzazanean, gure txera lera espiritualaz zan oso-osorik, ez egoan an gizatiar zanik. Gudan betetetan zan Liburu Santuko pasarte au: "*Bere anaiak lagundua dan anaia, uri esitu baten antzekoa da*" (Pr. 18, 19).

Jesusek bere pintzeltxoagaz egin ebana laster ezereztuko zan zeugaitik egin ezpa-leu, ene Ama, bere lana osotzeko oso-osorik beretzat nai eban ariman, pruebea txit garratza iruditu jakon nire lagunari, baiña garaille urten zan zeure sendotasuna eta nik orduan, a poztu nairik, azaldu al izan neutson guztien artean aitzatatzat zeustanari zetan datzan egiazko maitasuna. *Bere burua maite ebalaz* ADIERAZO NEUTSON; ETA EZ ZU; esan neutsan zelan maite neban nik eta egin izan nebazan buru-ukapenak, neure lekaime bizitza asikera, zuri berezko moduz ez itsatsi ta josteko, txakurra bere jaubeari josten jakonez. Buru-ukapenakaz janaritzen da arimea; arimeak zenbat eta geiago lurreko poz-atsegiñai uko egin, bere samurtasuna sendaigo ta ezberekoia.

Gogoratzen dot, sar-barri nintzala batzutan tentaldi gogorak neukazan neure pozerako zeure gela sartzeko, poztasun tanta batzuk eukitearren, arin joan bear neban zure gela aurretik eta gero mailladiaren ertzari oratu. Neure izaera pozik eukiteko ainbat eta ainbat gauza eskatu bear

neutzuzan; azkenez, ene Ama guztiz maitea, milla errazoi aurkitu oi nebazan neure gogoari poza emon al izateko. Doatsu naz orain olakorik itxi ez zeustalako, neure lekaime bizitzaren asieratik! Poza ta atsegiña ditut orain kementsu burrukatzen diranai eskiñitakoa. Orain ez daukat neure buruari zetan ukatu biotzak eskatzen daustazan poztasun guztiak; nire arimea, ba, maite ebanak bakar-bakarrik idartuta dago. Pozarren dakust, A maite izan ezker biotza zabaltu egiten dala; emon leikela askozaz be samurtasun geiago maite diranai, maitasun norberekoi ta ekarri bakoan gorde-rik eukita baiño.

Sar-barriakaz lanean

Ene Ama maite, gogoratu eragin dautzut Jesus-ek eta zuk, neure bitartez, bete zenduen len-lana. Au etzan izan geroago emongo zeustezanen asiera baiño. Arimen santutegian sartu al izan nebanean, beingoan konturatu nintzan, arazo ori nire indarra gainetikoa zala. Jainkoaren eskuetan jarri nintzan orduan, ume baten antzera, eta, neure arpegia bere uledipean gorderik, esan neutson: Jauna, txikiegia naz zure seme-alabak janaritzeko; nai ba dozu, emon eiezu neure bitartez baktxari egokijakona, bete nire eskutxo, zeure besoa alde-
ratu barik, burua biurtu barik, janari billa dator-
kidan arimeari neure ondasunetik emongo dautsot. Gustuko aurkitzen ba'dau, niri barik Zeuri zor dautzuela jakingo dot. Alderantziz, kexaka ba'da-
bil, emoten dautsodana motela deritxolako, ez da artetatuko nire bakea; jakin eragingo dautsot jate-
ko au Zeugandik datorrela eta ez dot billatuko beste janaririk arima arentzat.

Ulertu nebanetik, Ama, ezin nebala ezertxo be gauzatu, zeuk ipiñi zeustan zama ez jatan zailla iruditu; ulertu neban naitaezkoa zala bakarrik gero ta geiago Jesus'egaz batzea eta *beste guztia* gaiñezka emongo jatala (Mat. 6, 33). Eta olantxe da izan be, Nire itxaropena ez da sekula be marro eginda geratu; Jainkoak berak eroan dau nire eskutxoak bear izan dan guztietan, nire Aizten arimea janaritzeko. Autortzen dautzut, ene Ama txit maite, gauzarik kaskarrenetarako be neure indarretan aldeztu ba'nintz, laster itzuliko neut-zuzan izkilluak.

Urriñetik gauza erreza dirudi arimai *on egitea*, gauza guztien gaiñetik Jainkoa maite izaten erakustea, eratu azkenez, nobere ikuspegi ta eritxiak erakutsiz. *Urretik* oso bestera dozu, ostendu egiten jatzu erreztasuna...; ezin-ala da, Jainkoaren laguntza barik on egitea, gabaz eguzkiari argi eragitea baizen gatxa... Aztu egin bear dira oso-osoan nobere gustoak, nobere eritxiak, eta arimak zuzendu Jesusék izentatu dautsen bidetik, iñoiz be berebere dauan bidetik nai izan barik. Eta au oraindik ez da gauzarik zaillena; niretzat zaillena faltak atera ta guda latza egitea. Zoritzarrez esatera niñoian (baiña ez, ori koldarkeria litzakean); ba diñot; zorionez nire Aiztentzat, Jesusen eskuetan ipiñi nintzanetik, gaztelu gotor bat baiña gorago ko torretxotik etsaiari begiratzan dautson zaindaria bezela nozu. Nire begietatik ez dau ezek iges egiten; batzutan arrigarri jat ain argi ikustea eta parkagarri jat Jonas igarlea iges egitean, Ninibe'ren ondamendia iragarten joan bearrean. Milla bider egin baiño agirakak artu gurago neuke bateai egin baiño; baiña-dakit, au sufrimentu bat izan dedilla niretzat, gauzea jitez egiten danean, ba, eziña da bere utsak adierazo nai dautseguzan

arimeak, bere utsak ulertzea. Arek gauza bat bakarrik ikusten dau: ni zuzendu bear nauan Aizta asarre da eta dana dator neure gaiñ, eta ni, alan eta guzti be, asmorik onenakaz beterik nago.

Ba-dakit nire bildostxoak latz aurkituko nabena. Lerro oneik irakurriko ba'lebez, euren atzetik ibilteak, esango leukie, dirudiane ez jatala nekegarri; ezta latz samar eurai berba egitea be bere ule-sapa ederra loi erakutsirik, edo-ta bideko larretan dindil itxi dabezan ule-moltzo batzuk ekarriaz. Bildostxoak esan beie gura dabena, barruan, ba-dakie eurak egi-egiaz maite dodazana; egundo be "*Otsoa etorten ikusi ta ardiak bertan-bera lagaten, dabezan alegorokoaren antzeko*" ez naiakela izango. (Jon. 10, 12). Gertu nago euren alde bizia emoteko; baiña biotz-txera garbigarbia da-ta, ez dot gura eurak ezagutu daien. Iñoiz be ez dot ezer egin, Jesus'ek olan naita, euren biotzak erakarteko; ulertu dot nire egitekoa eurak Jainkoagana eroatea dala eta ondo ulertu-azo, emen bean, zeu ziñala, ene AMA; Jesus agirako eurak maitatu eta lotsa azaldu bear eutsoena.

Esan dautzut, ene Ama, beste batzuei erakutsiaz asko ikasi dodala. Amen baten ikusi dot arima guztiak daukela, gitxi-asko, antzeko burrukak, baiña, beste aldetik, oso diferenteak dirala, eta ez jat gaitz egiten Aita Pichon'ek esaten ebana ulertzea: "*Arimen artean diferentzi geiago dago arpegien artean baiño*". Orixegaitik ez da errez danakaz bardin jardutea. Arima batzukaz ba'dakit txiki egin bear nazala neure burrukak, akatsak, autortuz beetzeko bildur barik. Nik be euren antzeko argalkeriak daukadazala ikustean, neure Aiztatxoak be, euren aldetik, eurekan ikusten dabezan akats guztiak autortzen daustez eta poztu

egin oi dira nik *esperientziz* ulertzen dodazalako. Beste batzukaz, eurei on egiteko, konturatu naz, sendo bizia izan bear dodala apaltasuna ez litzateke izango, makaltasuna baiño. Jainkoak egin daust gerra-bildurrik ez izatea; dana dan neurritz neure egitekoa bete bear dot. Baten baiño geiagotan entzun dot: "Nigandik zerbait lortu nai izan ezke-ro, onean izan bear dau; indarrez, ez dau ezer ja-detsiko". Nik ba-dakit iñor be ez dala epaille on nobere auzian eta ume batek, ebaiketa mingarria egiten dautsonean osagilleak, gogor garrasi egin, osakaia gaixoa baiño txarragoa dala esanik; baiña egun batzuk geroago, osaturik aurkitzean, zoriontsu izango da ibilli ta jolastuz. Ori bera gertatu oi da arimakaz; laster ezagutzen dabe, oba dala mingostasun pizkat, batzutan, gozokia baiño, eta pozik autortzen daroe.

Batzutan, ezin itxi barruz irri-barre egin barik, goizetik gabera aldakuntza arrigarria egiten dala ikusirik... Au esaten etorri oi jataz: "Atzo zeuk zeunkan errazoia zorrotz egotean". Lenengotan oni ez neritxan ondo, baiña gero dana gogora ekarriz, ikusi dot zu guztiz zuzena ziñala... Entzun: joan nintzanean, nik uste, amaitu da, esaten neban: gure Ama ikustera noa Ume Jesus'en Teresa Aiztegaz ez nazala biurtuko, esatera. Baiña ulertu neban deabrua zala au buruan jarten eustana eta, gaiñera, iruditu jat zuk Jainkoari nigaitik eskatzen zeuntsala. Olan trankil geratu nintzan eta argia barriro asi zan ñirñirka; orain alan be zuk oso-osorik argitu nozu, eta orixegaitik natorkizu".

Bertatik ariltzen zan autu-aria; nik, neure biotzaren joera jarraitzeko beti pozik, ez dot serbiduten jateko garratzik. Bai, baiña... laster konturatzan naz ez dodala geiegi aurreratu bear; *berba*

batek ondatu leike negar-malkoakaz eregitako etxe ederra. Aurreko egunean esandako aren aurka legoken ezer esango ba'neu, ikusten dodanez, nire Aiztatxoak adarra oratu nai dautse; barruz orduan otoitz txiki bat dagit eta or beti lez egiaren argia dizdizka. Al, otoitza da, buru-ukapenak dira, bortitz egiten nabenak, Jesus'ek emon daustazan izkillu garaitu-eziñak dira; arimai eurak eragin dagioe itzak baiño geiago; sarritan egiña dot esperientzi ori. Batek, batez be, zirrada gozo sakona egin daust.

Garizuma aldian izan zan. Orduan, sar-barri geunkan lekaime gazte baten arduraz nengoan; neu nintzan aren aingeru. Goiz baten, guztiz alai etorri jatan ikusten: "Al, zuk ba zenki, esan eustan, bart ames egin dodana. Neure aizteaz nengoan eta ak ain maite ebazan uskeri guztietatik aldendu nai neban; ortarako, kopla au azaldu neutson.

*"Maitatuz bizi.
Zu maitatu, Jesus,
bai galpen jori!"*

Nire berbak, ikusten nebanez, aren ariman barrentzen ziran, eta pozez zoratzen egoan. Gaur goizean, itxartu nazanean, burura etorri jat, Jainkoak bear bada, arima au Beretzat neuk irabaztea gurako ebala. Nik idatziko ba'neuskio, Garizuma ostean, neure amesa kontatu ta adierazo Jesus'ek beretzat nai dauala oso-osorik?"

Nik au asko ausnartu barik, saiatu leikeala ortan esan neutson, baiña aurretik Gure Amari baimena eskatu bear eutsola. Garizuma oraindik bere amaira eltzeko urrin egoala-ta, zuk, ene Ama, arri-

amaira eltzeko urrin egoala-ta, zuk, ene Ama, arri-tu egin ziñan ariñegia begitandu jatzun eskabide orrez; eta ziurki, Jainkoak argituta, eta eran-tzun zeuntsan karmeldar lekaimeak, kartaz barik, *otoitzez* zeruratu bear ebezala arimak.

Zeure erabagia jakin nebanean, beingoan ulertu neban Jesus'en erantzuna zala, eta Irutasunaren Maria Aizteari esan neutson: "Eskuak ipiñi bear doguz lanean; errezau daigun asko. Au poza, *garizumaren azkenean entzunak ba gara!*... Jainkoren erruki amaibakoa, bere seme-alaben eskariak entzuten dituna!... Garizumaren azkenean, arima bat geiago Jesus'i sagaratua izan zan. Graziaren mirari-miraria zan; lekaime sar-barri apañ baten biotz-garrez jadetsia.

Otoitza eta otoitzak

Aundia bai dala *otoitzaren* indarra! Erregiña bat dala esan leiteke, edozein orduz erregearen aurrea sartzeko eskubidea daukala, eta eskatu daroan guztia lortzekoa. Ez dago zetan, entzuna izateko, liburu baten esaera eder bat irakurri, ortarako eratutakoa. Orrela ba litz... ail, errukarri izan litzake... *Orduen Liturgitik*, errezateko izan ezik oso duineza bait naz, ez dot liburuetan *otoitz politikak* billatzen lotuta ibilteko kemenik, buruko miña emoten daust orrek, ainbeste dagoz!... eta, gaiñera, bata baiño bestea *ederragoak dozuz*... Eta eurak osorik aldarrikatzen ez neuke jakingo eta zein aukeratu ez dakidan ezkerro, irakurten ez dakien umeen antzera egin oi dot, Jainkoari diñotsat laulau esan nai dautsodana, esaera politik egin bage, eta Ak beti ulertzen daust... *Otoitza*, niretzat biotzaren zirkin bat dozu, begirada samur bat da,

zerura jaurtia, esker onezko ta maitasunezko oiubat dozu, pruebaren erdian, poztasunaren erdian lez, au da, gauza aundia bat dozu, goitikoa, arimea nasaitzen daustana, Jesus'egaz alkarturik.

Alan be, naiko neuke, ene AMA maitea, askoren artean egindako otoitzak, koruan, ermitetan, deboziño barik egiten dodazala. Bestera, alkar-tean egiñak atsegin jataz, Jesusek agindua da *ba bere izenean alkartzen diranen artean* egongo dala (Mt. 18, 20); abagune orreitan uste dot, nire maite-garrik eza nire Aiztenak ornitzen dauala; baiña bakarrik negoanean (lotsa emoten daust au esatea) errosarioa erreztea penitentzi-gaillu bat ipintea baiño gogorrigo jat... Konturatzen naz zein txarto egin oi dodan! Errosarioaren misterioak gogoznartu nai dodaz, baiña ez dot lortzen neure espiritua tinkotzea... Denpora luzean urturik izten nindun deboziño falta onek, arrituta nengoan, *Andra Maria* maite-maite dot-eta; errez egin bear jatan niri orren atsegin jakozan otoitzak esatea. Onek orain ez nau ainbeste naigabetzen; zerueta-ko Erregiña neure AMA dala pentzatzen dot, ikusten dau nire borondate ona eta beronegaz pozik dago.

Batzutan, nire espiritua legor be legor aurkitzen danean, Jainkoaz batuko nauan pentsamentu bat be atera ezin dodanean, *astiro astiro* bir-esaten dot "Gure Aita" bat eta baita "Agur Mari" bat be; otoitz oneik orduan atsegin jataz oso, eun bat bider ariñeketan esan ba nitu baiño askoz geiago janaritzen dabe nire arimea...

Andra Mariak erakusten daust ez dagoala asarre nigaz; eskatzen dautsadanean, ez nau iñoiz be babestu barik izten. Kezkaren bat, estualdi bat datorkidanean, agana itzultzen naiako bertatik,

eta beti-beti, amarik samurrena lez, berak aldezen ditu nire interesak. Zenbat aldiz, sar-barriakaz itz-egitean, jazo jatan ari dei egin eta aren amalaguntzaren gogotasuna somatzea...

Goralpenak eta apalaldiak

Sarritan, gazte barriak diñoste: "Zuk erantzun bat daukazu erantzun guztietarako, orain uste neban estu ta larri jarriko zindudala... nundik ateraten dozu esaten dozuna?" Ba-dira beste memel batzuk euren arimetan irakurten dodala uste dabenak, eurak uste dabe esaten aurreratzen nintzalako. Neure lagunetatik batek gau baten, benetan naigabetzen eban pena bat gorde nai izan eustan. Goizean aurkitu ta berba egiten daust irribarretsu eta nik, esaten eustanari erantzun barik, lau-lau bota neutson: Zuk naigabe bat daukazu. Bere oiñetara illargia jausi-azo ba leu, ez dot uste arrituago begiratuko eustanik. Aren arridura ain aundia bait zan, neu be bere kutsua erantsi eustan; une batetik bestera goitiko bildur batek artu ninduan. Ziur nengoan ez neukala arimetan irakurteko doairik, eta arrigarri jatan ain osoan igartea. Banekian Jainkoa ur-ur neukana, konturatu barik esan nebezala ume batek lez, neureak barik, Bereak ziran berbak.

Zuk ulertzen dozu, ene Ama maite-maite, lekai-me sar-barriai dana jakela zillegi; eurak esan bear legie pentzatzen daben guztia ezeren itxirik barik, ona naiz txarra. Ori errezago jaken nigaz oindiño, maistra bati zor jakon lotsa niri ez eustelako. Ezin neinke esan Jesus'ek, *kanpotik* beintzat, berapenbidez niñoiarik; pozik dago ni neure arima barrenan apal-azoz. Izakien begietan dana gertatu oi jat ondo, omen ezezko bidetik nabil, lekaime bati

bidezko jakonez. Ulertzen dot ez dala nigaitik, besteak-gaitik baiño, naiko arriskutsu dirudian bide ontatik ibili eragiten daust. Izan be, komunitatearen aurrean akatsez beteriko, gai-ez, ez buru ez zentzun-bako lez, agertuko ba nintz, eziña izango litzakizu, ene Ama, nigan laguntza billatzea. Jainkoak, orixegaitik, zapi bat edegi dau nire kanpoko ta barruko akatsak estaltzeko. Zapi orrek, batzutan, sar-barri gazteen aldetik txera-betegarri batzuk eskuratzen daustaz. Ondo dakit eurak ez dabela au labankeriz egiten, euren sentipenak lau-lau erakutsi baiño; baiña orrek egi-egiaz ez daust arrokeri izpirik sortzen, nire pentsamentuak ez bait dau bertanbeera izten nazanaren oroipena. Bitartean, batzutan entzun nai neuke goralpena ez litzakena. Zuk ba-dakizu, ene Ama txit maitea, ozpiña naiago dodala *gozokia* baiño, nire arimea be nekatu egiten da jateko gozoegiaz, eta Jesus'ek orduan barazki gatz-ozpindutxoa bialtzen dausku, ozpiñez eta onkailluz ondo betea, ez daitela ezer falta, orioa ezik, onek beste gusto bat emoten dautso-ta... Barazkitxo gatzozpindu au gazte sarbarriak zerbitzen dauste gitxien uste dodanean. Jainkoak jaso oi dau nire akatsak estaltzen dauazan zapia, eta nire Aiztatxo maiteak, nazan lez ni ikusirik, ez nabe aurkitzen euren gogora. Zoratzen nauan bakuntasunez, eratzen dautsedazan burruka guztiak esaten daustez, niri buruz gitxien ederjakena; azken baten, beste pertsona bat balitz lez diardue, olan berba egiñaz atsegin betea damostela jakiñik. Al, bene-benetan, atsegiña baiño geiago da, arimea pozez gaiñezka jartzen daustan jatordu gozo-gozoa jat. Ezin dot aitzen emon geure izateari ain gogaikarri jakonak zelan ekarri leikeon ain zorion aundia; *esperientziz* ez ba nenki, ez neuke siñistu al izango...

Bein, berariz apaldua nai izan neban egun batean, lekaime gazte sar-barri bat nire naia alik eta ondoen bete naita ebillen, eta bertatik Semei Dabid madarikatzen etorri jatan burura (2 Ereg. 16, 10) eta neure kolkorako esan neban: Bai, Jauna da gauzok niri esateko agintzen dautsona... Eta nire arimeak gozo-gozo lamiztu eban oparo be oparo zerbitzen eutsen janari garratza. Orrelaxe zaintzen nau Jainkoak. Ezin leikit beti emon kanpo-aldeko beerapen-ogi bizigarria, baiña noizik bein izten daust *umeen maitik jausten diran ogi-mirri-nak jaten* (Mk. 7, 28). Al Aren errukia bai aundial, Zeruan bakar-bakarrik abestu al izango dot...

Oiturazko gatzak

Ene Ama maite-maite, lur gaiñean zeugaz bate-ra erruki amaibako au kantatzen astera noan ezkerro, baita edestu bear dautzut zeuk emon zeustan egitekotik atera dodan on itzal bat.

Lenengo, Aizta bat gogoko ez jatan gauza bat egin edo-ta errazoizkoa etzala irudit, au pentsatzen neban: Al, uste dodana esango ba neutso, oker dabillega adierazo, ni bai nengoke nasai! Neure egitekoa pizkaten egin ondoren, ba diñotzut, ene Ama, oso aldatu nazala eritxiz. Aiztaren bat ikusten dodanean niri ondo ez dagoala iruditzen ez jatanaz, lasaitu egin oi naz, eta neure barrurako diñot: edertol, ezta gazte sar-barri bat, ez daukat berari ezer zetan esanik. Eta Aiztea zurikatzen alegintzen naz, eta arek bear bada daukazan asmo onak dakardaz gogora.

Al, ene Ama, gaixorik nagonetik, zuk nigaz daukazuzan ardurak be asko erakutsi dauste goi-maitasunari begira. Osakai bat be ez jatzu irudi-

tzen garesti, eta ona ez bada, zuk beste bat billatzen dozu, nekatzeke. Solasaldira joaten nintzanean, zelako kezka ondo egokitua egon nendin, aize-lasterren ezkutuan!, au da, dana adierazo gura ba neu, ez neuke amaituko.

Gauza guztiok gogotan erabillirik, erabagia artu dot neure Aizten arimako gatzakaz zeu zarean lez errukitsu izan bear dodala, ene Ama maite, ni egiazko maitasunez zaindurik.

Konturatu naz (eta oso berezko da) santuen diran Aiztak dirala maitatuenak be; euren alkar-izketa billatzen da, eurak eskatu barik zerbitzuak egiten jakez; eta azkenez, begiramen ezak, samurtasun faltak eroateko gai diranok, guztien txeraz inguratuak izan oi dira. Gurutzeko Joan Deunaren itzok: "Neure maitez nai ez nebana, bere atzetik joan barik emon jatan dana" (3), eurei erantsi leikeez

Arima kaskarrai, ostera, jaramon gitxi egiten jake; eurakaz giza-legez ibilli eta erlijioso adeiz, baiña bildurrez bear bada itz maitekor ez dan bat esateko; olakoagandik aldendu oi da. Arima kaskar-rak edo oso-ezak aitatzean, ez dot esan nai espirituzko akatsak bakarrik, santuen diranak be ez bait dira zeruan ezik orrela izango; izakera batzuk dakardaz gogora, zentzunez, eziketaz, sentikortasunez zakar diranak, Ba-dakit ondo be oiturazko gaixo oneik luzarokor dirana, osatzerik ia ez daukiena; baiña baita barruak diraust nire amak ez nindukela lagundu barik, miña arindu barik itxiko, ni bizitza guztian gaixorik ba nengo be. Ona emen nik ateratako ondorena: solaldian billatu

(3) Kuntzeko Joan-Deuna, Santuak berak Zagrututako On-Biderako Mendi-marraskia agertzen dau esakera.

bear dot, neure eguneroko ordu tarteetan, ain atsegin ez jatazan Aizten laguntza; samaritar onak egiña egin nik be arima zauritu onein ondoan. Berba bat, irri-barre txeratsu bat naikoa da sarri triste dagoan arima bat azaskatu ta pozteko; baiña ez dot maitekor asmo orregaz izan nai, laster gogait egingo neuke-ta: asmorik onenagaz esandako itz bat, bear bada txarto ulertua izango litzateke. Olan, neure den oreka ez galtzeko, maitagarri izan nai dot guztiakaz (eta batez be maitekor-ezen diran Aiztakaz) Jesus poztu-azteko eta Berak Ebanjelioan damoskun kontsejoari erantzuteko; gitxi gorabera, onela dirausku: "Jataldi bat ospatzen dozuenean, ez dei egin ortara zeuen senide eta adiskideei, euren aldetik dei egin ez daizuen, eta olan zeuen ordaiña artu: dei egin barriz beartsuai, errenai, elbarriai oneik ezin dautzue ordaindu-ta; zuen Aitak, ixilla be ikusten dauanak, ordainduko dautzue" (Luk. 14, 12-14 eta Mt. 6, 4); Karmeldar lekaime batek ze jataldi eskiñi leikeoe bere Aiztai, espirituzko oturuntza bat ezpada, goi-maitasun samur eta gogoz egiña? Nik ez dot besterik ezagutzen eta Paul Deunaren antzeko izan nai dot, poz-tuten ziranakaz poztu oi zana (Errom. 12, 16); egia da naigabetuakaz negar egiten ebala be eta negarmalkoak agertu bear dabe noizik bein nik zerbidu nai dodan jataldian; baiña beti alegiñak egingo dodaz *negar-malko orreik poz biurtu daitezcan* (Jo. 16, 20); *Jaunak maite ditu, ba, pozik emoten dabenak* (2 Kor. 9, 7).

San Pedro Aiztea

Gogoan dot Jainkoak oindiño sar-barri nintzala bururatu eustan maitasunezko egintza bat; gauza kaskarra, baiña *ezkutuan ikusten dauan gure Aitak*

gauzearen aunditasuna baiño egiten dan asmoa geiago atsegin jakonak, *ordaindu daust* beste bizitzarako itxaron barik. Aizta San Pedro oindiño korura ta jatokira joaten zanean jazo zan. Arratsaldeko otoitz-aldi bitartean neure aurrean egokitzan zan. Seirak baiño amar minutu aurrerago, Aizta bat aleginduko zan bera jantokira eroateko, gaixozaiñak orduan ba gaixo geiegi eukezan aren billa joateko. Aldatz-gora egoten jatan, mesede txiki onetarako neure burua eskintzea, gauza erreza etzalako Aizta gaizo San Pedro oni poza emotea; sufritzen ebalako, ez jakon eder laguntzaille aldatzea. Beste aldetik ez eban gurako goi-maitasun burutzeko abagunea ez eban galdu nai, Jesusek au esan ebala gogoratuz: "*neure txiki bategaz egin zenduena, neugaz egin zenduen*" (Mt. 25, 40). Eskiñi nintzan, ba, apaltasun aundiaz, bera eroateko. Ez jatan gitxi kosta neure zerbitzuak ari artu-azotea! Azkenez, lanera borondate onagaz eta ondo be ondo jo neban aurrera.

Arratsaldero, Aizta San Pedro bere arezko ordularia dardaratzen ikustean, ba-nekian esan gura eustala: Tira! Siñistu eziña da zenbat kostau jatan, lenengotan batez be; egin neroian, alan be, beingo baten, eta amen baten asten neban zeremoni osoa zana. Jarlekuari eragin eta aparteko moduan eroan bear zan, iñoiz be ez ariñeketan; gero asten gintzazan ibiltan. Gaixo errukarriari jarraitu bear neutson, gerritik eutsiz; nik alik eta ondoen egin oi neban; baiña berak, zoritxarrez, pauso txar bat emoten ba eban, nik txarto eusten neutsula uste eban, eta jausten itxiko neutsula. "O; ene Jainko! Zu ariñegi zoaz, lertuko naz. Astiroago joaten alegintzen ba nintzan: "Baiña jarraitu egidazu! ez dodaz sentitzen zure eskuak, itxi egiten nozu ta jausiko naz; a!, esaten neban nik zu gazteegia

ziñala ni eroateko!" Azkenez eltzen giñean jantokira, ezbear barik. An sortzen ziran beste oztupo batzuk. Aizta San Pedro jarrita ipiñi bear zan eta kontu aundiz ez zauritzeko; gero mangak batu bear jakozan (era apartekoz batu be), eta aske gelditzen nintzan joateko. Bere esku gaixo ondatuakaz, al eban lez, mirrintzen eban bere kati-lluan. Laster konturatu nintzan eta arratsalde guztietan egiten neutson mesede txiki au. Ez bai eustan eskatu, nire zerbitzu onek asko eragin eutson, eta nik egin-egiñez billatu ez nebalako berau, osorik irabazi neban eta, batez be, (geroago jakin neban), ogia ebagita gero, joan orduko, neure irri-barrerik eztiene eskintzen neutson.

Ene Ama maite-maitea, bear bada arriturik egongo zara goi-matasunezko egintza pitin au edesten dautzudalako, ainbat denporan gorderik eukia. A!, Egiten badot, kanta-gurariz nagolako dozu orrelaxe Jaunaren errukiak, ain zuzen kantatzea. Berak nai izan eban aren usain gozoa lez aren gomuta niri iztea, maitasun egintzak gauzatzera bultz eragiten eustana. Noizik bein zeatzasun batzuk datorkidaz burura, nire arimearentzat udabarriko aize bigun diranak: Ona bat gogotan dodana: Neguko arrasti baten, beti legetxe, ni neure zeregiñean nenbillen. Otz egiten eban eta gaba zan... kolpean, urriñera entzun neban musika jogaillu baten doiñu eresitsua entzun neban; orduan begitandu neban areto argiz betea, arripitxi dotoreakaz, neska apain jantziak, mundutarrek alkarri egin oi dautsezan ereguak egiten; gero nire begiak eusten neutson gaixoagana biurtu ziran; musika soiñuaren ordezt, batzutan, bere illeta negarrak entzuten nebazan; toki urrezlatuen ordezt, gure klaustro larderiatsuaren adrilluak ikusten nebazan, argitxo batek oztoztan argituta.

Ezin dot esan zer jazo zan nire ariman; dakidana da Jaunak diztiratu ebal egiaren izpiakaz lurreko jaien dizdiz illun-baltzak baiño geiago diranakaz, nire zoriana ez ulertzeraiño... A! Ez nebazan emongo neure maitasunezko egintza apal eta emondako amar minutu oneik munduko jaiak milla urtez gozatzearren. Neke-min artean, burrukan jokaturik, gozartu leike lurreko poz guztien gaiñetik dagoan zorientasun pizkat, Jainkoak mundutik atera gaitula pentsatuz zer izango da zeruan, betiko pozaren eta atsedenen erdian Jaunak egin dauskun grazi bardinbagea ikustean? Berak aukeratu gaitu bere *etxean* bizi izateko (Sal. 22. 6), *egiazko zeru-ataria*.

Beti ez dot jokatu goi-maitasunean onako poz-eragiñakin; baiña, neure lekaime-bizitza asikera, Jesusek nai izan eban nik somatzea zein samurra dan emazteen ariman Bera sentitzea. Orrela, Aizta San Pedro eroaten nebanean, maitasun oso-oso egiten neban, Jesus bera eroan bear izan ba neu obeto egin ezingo nebanez, Maitasun egintza ez jat izan beti ain samurra, esan-barri dautzut, ene Ama maite. Au adierazteko, barre nik uste eragin-go dautzuen burruka txiki batzuk edestu nai dautzudaz.

Jazar txikiak

Aldikada luzean, arratsaldeko otoitzezt, neure aurrean egokitu oi zan Aizta bat aparteko kuka edo manixa eukana, eta uste dot... argi ugarikoa, gitxitan erabilli oi eban libururik. Ikusi zelan konturatu nintzan; Aizta au eltzen zanean, zarata arraru bat egiten asten zan, kontxa bi igurtziaz egiten danaren antzekoa, bata besteaz erabillita. Neu

bakarrik konturatzen nintzan, belarri oso fiñak daukadaz-eta (fiñegiak bear bada). Niretzat zein neketsu zan ots-mee ori, esan eziña jat. Burua biurtu ta errudunari begiratzea gogoak emoten eustan, baiña au seguruen etzan konturatzen beretik orregaz; aixe zan bide bakarra konturatu eiten; baiña ba-nekian biotz barruan oba zala Jainkoa maitearren oro eroatea eta Aizteari gogait ez eragin. Trankil geratzen nintzan, Jainkoaz baturik, aztuten neban zaratatxo ori, dana alperrik; izerdiz beterik niñoiñan, eta naitaez sufrimentuzko otoitza egin bear argi ta garbi. Naste au bota nai neban gorputzetik, pozez eta bakez, neure barruan beinik-bein, gustua artuz orren gogaikarri jatan zarateari, ez entzuteko (eziña bait jatan) alegiñak egin bearrean; bera ondo entzuten alegintzen nintzan, kontsertu atsegiña ba litzakidan legez, eta neure otoitz-aldi guztia (*atsedenezkoa* etzana) kontzertu au Jesus'i eskitzen igaroten neban.

Garai onetan garbitokian, bere olaren gaiñean esku-zapiak astintzen ziarduanean ur zikiña jaurtzen eustan Aizta bat neukan nire aurrean; nire lenengo pentsamentua izan zan atzeratu ta arpegia garbitzea, txipristen ninduan Aizteari kontu geiagoz ebiteaz mesede aundia egingo leuzkidala erakutsirik; baiña beingoan pentsatu neban memela bat izango nintzala ain esku-zabal eskintzen jatan irabazia alperrik galtzea, eta ez neutsan neure barne-burruka erakutsi. Indar egin neban ur zikiñik asko artzeko, eta azkenez gustoa artu neutson urestatze modu barri oni, eta itzuli nintzan zorioneko leku ontara, ainbat ondasun artzen ziran bazterrera.

Ene Ama txit maite, ondo ikusten dozu arima txiki bat nazana, Jainkoari gauza *kaskarrak* baiño

eskiñi ezin dautsozana, eta sarritan jazo oi jat oindiño buru-opari txikiak egin barik izten dodazala, arimeari alako ona dakartsenak. Ez nau orrek kikiltzen; etsi egiten naz bake pizkat gitxitxuago eukiten, eta beste momentuetan adiago egoten alegintzen naz.

A!; Jaunagaz oso ona da-ta, ezin neinkio bildurrik izan. Beti emon daust nik gura izan dodana, edo obeto, Berak egin dau nik opa izatea Berak nai ebana niri emotea. Olan, nire fedearen kontrako azterketa asi baiño len, uste neban; egi-egiaz ez daukat kanpotiko azterketa edo prueba aundirik eta barrukoak eukiteko Jainkoak aldatu egin bear ko dau nire bidea; ez dot uste Ak egingo dauanik; alan be ezin naz bizi beti atsedentsu... ze modu aurkituko dau Jesusek ni aztertzeke? Laster etorri jatan erantzuna, nik maite dodan Arek ba-ditula bideak erakutsiz. Nire bidea aldatu barik, bialdu eustan, prueba bat mingostasun osasunkor bat nire pozkario guztiakaz nastatuko zana.

Apaiz nebea

Jesusek aurrez somatu ta gura izan eragiten daust, ez aztertu nai nauanean bakarrik. Denpora asko dalarik, nai-izate bat neban, oso jazo eziña iruditzen jatana; *apaiz neba bat euki*. Sarri uste izaten neban, nire nebatxoak zerura egaz egin ez ba lebe, altarara igoten ikusteko poza izango nebala; baiña, Jainkoak aingerutxoak izateko aukeratu ebazan ezkerro, orain ezingo nebala neure amesa egi bihurturik ikusi. Eta ona Jesusek ez daust bakarrik emon gura neban grazia, arimako lokiekin batu nau neure neba biurtu direan bere apostolu bigaz alkartu... nau. Gura dautzut, ene Ama maite,

zeatz-meatz edestu Jesusek zelan ase eban nire guraria, eta baita gainditu be, nik neba apaiz bat besterik ez neban nai izan-eta, egunero altara santuan gogoratuko ninduana.

Gure Ama Santa Teresa izan zan bialdu eustana, 1896'an, neure lelengo nebatxoa, jai doea legez. Ni neure garbitokian nengoan, neure lanean murgildua, Jesusen Ama Iñesek, banazean eroanik, artu-barri eban eskutitz bat irakurri eustanean. Apaiz gai gazte bat zan, Santa Teresak goiargitua, iñoan berak, Aizta bat batez be nai eban arduratu zedilla bere arimearen salbaziñoaz, eta lagundu eiola bere otoitzakaz eta buru-ukapenakaz, mixiolari izango zanean, arima ugari zeruratu egizan. Gomutaki eder bat izango jakon beti, agintzen eutson, bere neba izango zanari. Opari Santua eskintzera eltzen zanean. Jesusen Ines Amak esan eustan ni gura nindula mixiolari izango zan gazte onen arreba.

Eziña izango litzakit, ene Ama, zuri adieraztea nire poza. Nire leia uste barik asetuak nire biotzean erne.azi eban nik aur-poza esango neuskion a, neure ume-aroko egunetara eroan bai nindun, ain biziak diran gomutaki barrizlatzera biurtu bear izan neban, arimea eurok artzeko txikiegia bai da. Egundo, urteetan, ez neban izan onako pozaldirik. Edu onetan nire arimea barriturik egoala neritxon; ordurate azturik egozan musika-ariak lenengoz ots-egin ba lebe legez, izan zan.

Ulertzen neban artzen nebazan bere bearrak, eta lanean asi nintzan; neure barru-garra geituz. Autortu bear dot, lenengotan ez nebala izan pozbiderik nire garra berotu leikeanik. Eskutitz lirain bat idatzi ondoren, biotzez eta sentimentu jatorrez betea, Jesus'en Ines Amari eskerrak emoteko,

nire nebak bizi zanik be ez eban erakutsi urrengo garagarrillararte; bialdu eban tarjeta bat izan ezik, azillean bialdua, kuartelean sartzen zala esanik.

Zeu aukeratu zinduzan Jainkoak, ene Ama txit maite, asitako lana amaitzeko. Duda bagarik, mixiolariari otoitzez eta buru-ukapenez lagundu bear jake, baiña, batzuetan, Jesusek arima bi bere aintzarako alkartu gura dabezanean, nai izaten dau, noizik bein, euren pentsamentuak alkarri adierazo ta biak alkar sustatu Jainkoa geiago maite izaten. Ortarako aginpidea daukonaren *bai esana* bear da, bestelan uste dot kartazko artu-emonak on baiño kalte geiago ekarriko leukela; mixiolariari ez bada be, bai beintzat karmeldar lekaimeari, jarraikoa bada, bere bizi-moldeari dagokionez, bere gaiñ tolestu bearrez. Orduan, Jainkoaz alkartu bearrean, eskaturiko karta-idazte onek (sarri izan ezta be), asko beretuko leuke aren espiritua, urretza aundia eskuratzen ebala uste izanik, ez leuke egingo besterik, maitasuna dalakoan, alperrik sakabanatuta bizi. Auzi onetan lez beste batzuetan be, nik neure kartak agindurik idatzita egotea nai dot, ona egin dagien, eta eurak idaztean nik atsegiña baiño nazka geiago sentidu daidala. Olan, sar-barri batekin berba egiten dodanean, neure burua ilduratzen lez egiten saiatzen naz; nire ikus-miña sustatuko leuken itaunik eurai egiteke; gai interesgarri bat asi ta gero beste batera ba doa, gogaitgarri jatanera, lenengoa amaitu barik, itxi dan gai ez dakart barriz gogora, ezer onik egin leikenik ez dot uste ba norbaitek bere burua billatzen dauanean.

Ene Ama maite-maite, konturatzen naz iñoiz be ez nazala korrejiduko; barrien barri ba neure

gaitik joana nabil, goralera guztiokaz. Ez eidazu aintzat artu, arren bai arren, eta laga barriro asten lenengo eretian, bestelan ezin bait dot egin... Zuk Jainkoak lez dagizu, ez bai egongo be niri entzunez nekatzen, aurretik ezagutuko ez ba leuz neure penak eta pozak esaten dautsazanean... Zuk be, ene Ama; antxiñatik dakizu nik pentsatzen dodana, eta bardin garrantzi apur bat daben nire bizitzako gorabera guztiak. Ezin neinkizu, beraz, gauza barrik nik erakutsi. Ezin dautsot irri-barreari eutsi neuk baizen ondo ezagutzen gauza batzuk zeatz-meatz idazten dautzudazala ikusirik. Alan be, ene Ama maite, zeuk agindua dagit eta orain orrialde oneik irakurtean mamiñik aurkitzen ez ba dozu, bear bada zeure zartzaroan sua biztuteko gauza izango jatzu, olan ez dot denporarik alperrik galdu izango... Neskato baten antzera mintzatuz alaitzen naz; ez uste izan, ene Ama, ni, nire lan landerrak euki leiken probetxuaren billa nabille-nik; aginduz egiten dot eta naikoa dot orregaz, eta ez neuke txarto artuko zuk, irakurri aurretik, neure begien aurrean, erreko ba'zendu be.

Ordua da onezkero, nire bizitzan orain toki garrantzitsua dauken neure nebaren kondairan jarraitzeko.

Ignaz, maiatzeko azken egunetan, gogoan dot, egun baten jantokira joan aurretik zuk zeure gelara dei egin zeustan. Zure gelan sartu nintzanean, ene Ama maite, biotza taupa-taupaka neukan gogor. Zer esan bear eustazun itanduten neutson neure buruari, olan lenengoz deitzen zeustazlako. Jarteko esan ondoren, adierazte au egin zeustan; "Arduratu nai zeunke zuk laster apaiztu ta mixiñoetara doan mixiolari baten arimako gauzakaz?" Eta gero irakurri zeustan Aita gazte onen eskuti-

tza, zetaz jakin nengian zer eskatzen eban. Pozezkoa izan zan nire lenengo biotz zauskada, gero lastertxo bildur biurtu zana. Zuri, ene Ama maite, azaldu neutzun aurretik be geroko apostolu batgaitik neure irabazi kaskarrak uste neban ez nebala indarrik izango beste baten asmoetan jarduteko, beste aldetik ba-egozala ni baiña Aizta asko nik baiño obeto asmo beteko eutsoenak. Nire erantzun-atxaki guztiak, alparrekoak. Zuk esan zeustan bat baiño neba geiago euki neikezala. Orduan itandu neutzun, menpetasunak ez ete ebazan bitu nire merituak. Baietz erantzun zeustan, neba barri bat artu bear nebalako beste errazoi asko ipiñi barik.

Neure barruan nik zeure antzera pentsatzen neban, eta *"karmeldar baten maite-garrak mundu guztia artu bear dauan ezkerro"* ITXAROTEN DOT Jainkoaren grazia mixiolari bati baiño geiagori on izango jakola, enparau apaizak aztu barik, onein ardurea sarri siñisbakoena predikatzen dabiltzanena baizen gatxa bai da. Dana dala nik Eleizearen alaba izan gura dot, gure Ama Santa Teresa izan zanez, eta otoitz egin gure Aita Santuaren asmoetarako, aren asmoak mundu osoa artzen dabela jakiñik.

Auxe da nik bizitzan daukadan jomuga orokorra, baiña orrek ez eustan galazoko otoitz egin eta neure aingerutxu laztanen egintzakaz alkartzea, eleiz-gizonak izan ba litzaz. Orain ba, ikusi zelan alkartu nazan gogoz Jesusek neba lez emon dautazan apostoluakaz; nirea dan guztia euren ba-kotxarena be bada; ba-dakit Jainkoa *onegia* dana banaketak egiteko; oso aberatsa da eta neurri barrik emon oi dau eskatzen jakon guztia... Baiña ez uste izan, ene Ama. eskabide luzeetan galtzen nazanik.

Erakar nagizu, arin joango gara

Neba bi ta neure sar-barriak daukadazanetik, eskatu bear ba neu bakótxak bear dauana eta bera zeazkatu, laburregiak izango litzatekez egunak eta ni bildur nintzake gauzaren bat aztu egin dodala-ta. Arima lauak ez dabe bear ezer nasturik; eta ni orreitakoa nazan ezkerro, goiz baten, eskerak emokeran Jesusek aukeratu daust bide erreza neure zeregiña bete al izateko. Abestietako esakun au ulert-azo austan: EKAR NAGIZU, zure udaiñen *usaiñera* ARIN EGINGO DOGU (Abesti, i 3). O!, Jesus! eztot esan bearrik be. "Ni ekarriz, ekarri egizuz maite dozan arimak be!" Itz bakun au: "Ekar nagizu".....? da. Ulertzen dot, Jauna, ulertzen dot, zure *usain* zoragarrien *lurrin* gozoz katigu geratzen danean arima bat, ez leuke bakarrik arin egiten jakingo, berak maite dabezan beste arima guztiak be beragaz daroaz aringa; indarkeri barik egiten da au, berez lez zeuganako berezko erakarpen baten ondorena dozu. Ur laster indartsu zakarrak, itxasoan oldar aundiz sarturik, aurrean aurkitzen dauan guztia daroian lege; orrelaxe, o ene Jesus!, zeure maitasunaren muga bako itxasoan murgiltzen danak, beragaz daroaz daukazan ondasun guztiak... Jauna, zuk ba-dakizu, ez daukat beste altxorrik neureaz alkartu nai zan dozuzan arimak baiño. Altxorrok Zeuk emon zeustazan, orixegaitik eurok artzen ausartzen naz Zuk zeruko Aitari, lur gaiñean oindiño, bidazti ta ilkor, azken aparian zuzendu zeuntsazan berbak: Jesus, ene Maite, ez dakit noiz amaituko dan nire erbeste-aldia... Arratsalde batez baiño geiagotan ikusiko nozu oraindik zure errukiak abesten erbestean; baiña azkenez, niretzat be elduko da *azkenengo gaba*. Orduan atsegin izango litzakit

Jainkoari esatea. *Nik goratu zaitut lur gaiñean, Aita; zuk emondako lana bete dot; zure izena ezagutu-azo dautset emon zeustazunai. Orain ezagutzen dabe emon deustazun guztia Zugandik datorrena; nik ba Zeuk emondako itzak emon dautsedaz; eurak artu ebezan eta siñistu eben zuk bialdu ninduzula. Nik eskatzen dautzut emon daustazunanen alde, zeureak dira-ta. Ni onezhero ez nago munduan, baiña arek munduan dagoz eta ni zugana noa. Aita ona, zaindu zeure izenean emon zeustazan oneik. Ni Zugana noa orain, eta munduan diñodaz gauza oneik, nire aintza osoa izan dagien. Ez dautzut eskatzen mundutik atera daizuzanik, gatxetik gorde daizuzala baiño. Oneik ez dira mundukoak, ni be mundukoa ez nanez. Baiña onein alde bakarrik ez dautzut eskatzen, zeure itzez Zeugan siñistuten daben guztien alde baiño.*

Ene Aita, ni nagon lekuan egon beitez Zuk emon daustazunak be, eta munduak jakin bei zuk maite izan dozuzala neu maite izan nozun lez (Jn. 4 ta gñ.).

Bai, auxe da, Jauna, nai neuke esan zeure besoe-tara egaz egin aurretik. Asko-eritxia ete? Ez; ainbat denpora dala, itxi daustazu Zeugan ausarta izaten. Seme ondatzaillearen aitag lez, Zuk esan daustazu: "NIRE DANA zurea da (Ik. 15, 31). Zure itzak, o Jesus!; beraz neureak dira eta eurak erabilli neinkez neugaz alkarturik dagozan arimen gaiñ Aita zerukoaren mesedea erakarteko. Baiña, Jauna, nik diñodanean neu nagoan lekuan, an egotea gura dot niri emon zeustanak be, ez dot opa areik Zuk niri emon nai daustazun aintza baiño txikiagora eldu daitezunik; auxe nai dot, egun baten guztiok alkarturik zure zeru ederrean. Zure maitasunak lagun egin daust aurtzarotik, neugaz azi da eta orain nik barrendu eziña dodan leza sakona da.

Maitasunak maitasuna ekarten; olan, ene Jesus, nirea Zugana doa indartsu, darakarren lezea asetu nai neuke, baiña, ai!, ez da itasoan galduriko iruntz-tanta baiño!... Zuk maite nauzun beste nik zu maitatzeko, zure maitasuna bera eskuratu bear dot; orduan bakarrik atsedena aurkitzen dot. Oi; ene Jesus!, bear bada burutapen bat da; baiña uste dot arima bati ezin zeinkiola emon neureari emon dautsazun baiño geiago; orixegaik ausartzen naz eskatzen: *maitatu emon daustazunak neu maite izan nozuen lez* (Jn. 17, 23). Egun baten, zeruan, Zuk nik baiño geiago dozuzala jakiten ba dot, arima oneik nireak baiño geiago merezi ebela oraindi-xek autorturik; baiña emen beian ezin dot bururatu, esker utsez, *nik neuretik* meritu izpirik bage, emon daustazun maita suna baiño aundiagorik.

Ene Ama maite, ba nator azkenez be zeugaz; arriturik nago, oraintsu idatzi dodanez, ez bai neukan asmorik, baiña idatzi dodanez orrela geratu bear dau, alan be, neure neben istorira biurtu aurretik, esan nai dautzut, ene Ama, areintzako ez dirala, neure Aiztatxoentzat baiño; lenengo itzak Ebanjeliotik artuta: *arei emon dautsedaz zuk emoten zeustazan berbak*, eta... ez naz ba mixiolariak eskolatzeko lain. Zorionez nire arropuzkeria ez da ainbesteraño eltzen! Ezta ez nintzan neure Aiztai kontseju bat emoteko gai izango, zeuk, ene Ama, Jainkoaren ordezeko zaren orrek, orretarako grazia emon ez ba leust.

Bestera bai, zeuri neba espiritualak, neure nebak diranak, gogoan ba neukazan, Jesusen itzok ba neukazan eta urrengoak; "*Ez dautzut mundutik ateratea eskatzen... baita eskatzen dautzut zeure itzaz Zeugan siñisten dabenen alde be*". Nola neinkan, egitez, otoitz egin ez eurak, urriñeko lurral-

deetan, euren itzez eta sufrimentuz zeruratzen dabenen arimen alde?

Ene Ama, oraindiño uste dot beste azalpen batzuk emon bear dautzudazala Abestien Abestiko, "Erakar nagizu, arin joango gara", pasarteari buruz, esan nai izan dautzudana ulertu-gaitz samar geratu da-ta. "*ññok bere ez, esan dau Jesu'sek, dator nigana, nire Aitak, ni bialdu nauanak, ekarri ezik*" (Jn. 6, 44). Gero alegi ederretan, eta sarri bide ori, erriari ain atsegin jakona, erabilli barik, erakusten dausku dei egiteko edegi daiskuen, billatu aurkitu arte eta apal apalik eskatzeko eskatzen dana artu al izateko... (Mt. 7, 8). Au be ba-diño, Aita bere izenean eskatzen jakon guztia, emoten dauala (Jn. 16, 13). Dudarik bage, Espiritu Santuak orixegaitik, Jesusen jaiotza aurretik, bota eban igarle otoitz au: "Erakar nagizu, arin joango gara".

Zer besterik da *erakarria* izan eskatzea biotza lilluratzen dabena-gaz estu-estu lotzea ezik? Suak eta burdiñeak adimenik ba leukie eta bigarren onek esango ba leuskio besteari: Erakar nagizu, ez leuke erakutsiko suaz bardindu gura eukela, bere mamiñaz bat egin eta zurgatu, aregaz nastu-nastu egin arte? Ene Ama maite-maite, auxa da nire otoitza; Jesusi eskatzen dautsat erakar nagiala bere maitasun-garretara, Beragaz estu estu alkatu naiala, bera nigan bizi ta lan dagiala. Somatzen dot maitasunak biotza geiago kizkali, geiago ots egingo dodala: *Erakar nagizu*, eta baita: nigana urrera-tzen diran arimak (ni burdinpizki gaixo gauza-eza, jainkozko sutontzitik urrinduko ba nintz), ari-ñago egingo leuke *bere Maitearen usain lurruntsu ondoren*; arima bat be ezin da egon ezer egin barik. Dudarik ez, Magdalena santua lez, Jesusen oiñetan gelditzen da, onen berba gozo ta ixetuak entzu-

ten. Ezer ez ebalá emoten begitandurik, gauza askoz arduraturiko Martak baiño geiago emonaz (Lk. 10, 41) eta nai eban bere aizeak be alan egitea. Jesusek ez dau txarto ikusten Martaren zeregiña; bere Ama ona be orrelako lanetan ibilli izan zan bere bizitza guztian, apal-apal, Sendi Deunari jatekoa gertau bear eutson-eta. Bazkari gertatzaillearen kezka ta ardurea zentzatu nai izan ebazan Jaunak.

Santu guztiak olan ulertu dabe, batez be Ebanjelioaren irakatsi-argiz mundua dizdizka dabenak. Otoitzean ez da izan Paul Deunak, Agustin, Gurutzeko Juan, Akino'tar Tomas, Frantzisko, Domingo, eta Jainkoaren beste santu ospetsu askok, gizasemerik jatorrenak sustatzen ditun jakituri au aurkitu daben lekua? Jakitun batek esan eban: "*Ekatzu palanka bat, eutsi-puntu bat, eta mundua nih jaso egingo*". Arkimedes'ek lortu ezin ebana, eskabidea Jainkoari zuzendua ez zalako eta lurasmoz bakar-bakarrrik egiña zalako, santuak osooan jadetsi izan dabe. Guztialdunak emon dauts BERA eta BERA BAKARRIK emon be; *palanka* lez *otoitza*, maite-sutan kiskaltzen dauana, eta orrelaxe eurak *mundua jaso dabe*; orrelaxe gaur be bizi diran santuak jasoten dabe, eta olantxe jasoko dabe munduaren azkeneariño etorriko diran santuak.

Ene Ama maite, orain azaldu gura neuskizu zer esan nai dodan Maitearen *usain-lurruna* diñodan. Jesus zeruetara igon dan ezkerro, nik ezin neuskio ara jarraitu emen laga ditun oiñazen bitartez izan ezik, baiña zein argiak diran oiñaz orreik, zein lurren-usaintsuak! Naikoa dot Ebanjelioa ikusiaz, bertatik artzen dot Jesus'en bizitzearen lurruna eta ba-dakit nundik doan usain-egiñez... Ez noia aringa len-tokira, azkenengora bai-

ño; fariseoaren antzera aurea artu bearrean, barriro diñot, konfiantzaz betea, zergalariaren otoitz apala; baiña, batez be, Magdalenaren jokabidea artzen dot; aren jarrera arrigarria, edo obeto, aren ausardi maitekorra, Jesusen Biotza lilluratzen dauana, nirea be birloratzen dauana. Bai, sentitzen dot, neure kontzientzi gaiñean egin leikezan pekatu guztiak ba neukaz be, joango nintzake, neure biotz damuz birrinduaz, Jesusen beso artera, badakit-eta zenbat maite dauan Beragana biurtzen dan seme zarrastela. Ni konfiantzaz eta maitasunez Aregana jasoten ba naz, ez da Jainkoak, bere erruki zuurrez arimea pekatu astunetik jakon daualako.



Teresatxo 22 urteko.

GEIGARRI

PROFESA EGUNEAN TERESATXOK
BIOTZ GAIÑEAN EROIAN IDATZIA

1890'ko Iraillaren 8

O!, Jesus!, ene Jainko Senar! Iñoiz ez daidala galdu bigarren bateo jantzia! eroan naizu neure naiez pekaturik txikiena be egin aurretik. Zeu ezik, egundo ezdaidala ezer ez billatu ez arkitu; munduko gauzak ez daitezala niretzat ezer izan eta ni ez naitela eurentzat ezer izan, zeuretzat baiño; zeu izan zaitezala, Jesus, *nirezat dan* dana. Lurreko gauzak ez dagiela kezkatu iñoiz be nire arimea, ez daiala ezek nire bakea nast-azo. Jesus... Ez dautzut eskatzen besterik, bakea ta maitasuna, azkenbako maitasuna, Zeu baiño beste muga barik... ningandik zeurea baiño besterik ez dakiana, ene Jesus. Zeugaitk martiri il naitela, Jesus. Emon eidazu biotzaren edo gorputzaren martiri izatea, edo biak oba... Neure botoak bete daidazala oso-osorik, eta ulert egidazu zure emazte izatea. Eidazu ez nadilla izan egundo be karga komenturako, iñor ez daitela arduratu nigaz, ikus naiela zapaldua euren oiñetan, zeure are-garau bat lez aztua, Jesus. Zeure naia oso-osorik bete daitela nigan, el naitela gertatu daustazun lekuraiño...

Jesus, egizu arima asko zerutatu daidazala, gaur ez daitela bat bera be inpernuratu, garbitokiko

guztiak be doazala albait ariñen zerura... Parka
eidazu, Jesus, esan bear ez diran gauzak esaten ba
dodaz, ez dot gura besterik zu poztu ta alaitu
baiño.

MAITASUN ERRUKITSUARI ESKINTZA

J. M. J. T.

*Neure burua eskintzen dautsat erre-opari lez
Jainkoaren maitasun errukitsuari*

O!, ene Jainko!. Irutasun Zoriontsu! Maitatu nai
zaitut eta *maite-azo* lan egin Eleizearen aintzarako
lurrean dagozan arimak salbatuz eta garbitokian
sufritzen dagozanak askatuz. Albait zeatzen bete
nai dot zeure naia eta zeure erreñuan gertatu
daustazun aintzazko lekua jadetsi. Berba baten,
santu izan gura dot. Baiña ezagutzen dot neure
ezere za eta eskatzen dautzut, o!, ene Jainko!, zeu
izan zaitezala nire *santutasun*.

Maite izan nozun ezkerro, zeure Seme bakarra
Salbatzaille ta Senar lez niri emoteraíño, bere
merezien azken bako ondasunak, neureak dira;
pozez beterik eskintzen dautzudaz Jesus'en Arpe-
giz eta bere Biotz Maite kiskalduaren bitartez
baiño ez begiratzeko eskatuz.

Baita eskintzen dautzudaz santuen meritu
guztiak (zeruan eta lurrean dagozanenak), euren
maitasun egintzak eta Aingeru Santuenak; azke-
nez, ezkintzen dautzudaz, o *Irutasun Doatsu! Andra
Maria* neure Ama maitearen maitasuna eta iraba-
ziak, bere eskuetan ipinten dot neure eskintza,
Zeuri eroan daizula eskatuz. Bere Jainkozko Seme,

ene Senar maitea, bere bizitz ilkorreko egunetan, esan euskun. *Aitari nire izenean eskatzen dautsazuen guztia emongo jatzue.* Ziur nago, beraz, entzungo dozuzala nire eskariak; ba-dakit, oi, ene Jainko!, geiago emon nai eta Zuk geiago nai azoten. Amaibako gurariak sentitzen dodaz biotzean eta uste osotan eskatzen dautzut etorri zaitezala neure arimearen jaun eta jabe izatera. Ai, gure Jauna artu neinke nai dodan guztietan; baiña, Jauna, ez al zara Zu Guztialduna?... Egon zaitez niregan oteungian (sagrarioan) lez, etzaitez aldendu iñoiz be zeure osti txikitik... Poztu nai zeunkedaz gaiztoen esker txarragaitik, eta biotzez deskatzut ken daidazula Zu iraintzeko askatasuna; makaltasunez, iñoiz jausten ba naz, zure jainkozko begituak garbitu daiala beingoan nire arimea nire akats guztiak suntsiturik, suak bere gaiñ gauza guztiak aldatzen dauzan lez...

Eskerrak Zuri, ene Jainko!, egin daustazuzan mesede guztien alde, batez be sufrimentuaren arragoan erabilli nozulako. Poz-atsegiñez ikusiko zaitut azken egunean, gurutzearen makilla eroatean. Eta gurutz bikain onen erdikide egin nozun ezkerro, zeruan zeure antzeko izango nazala uste dot eta dizkizka ikusi neure gorputz aintzatu gaiñ zeure Pasiño zauri sagaratuak...

Lur-gaiñeko erbeste ostean, Aberrian zeugaz atsegintsu biziko nazala uste dot, baiña ez neunke zerurako meriturik pillatu gura, lan egin nai dot *bakar-bakarrrik* zeure maitasunarren, Zuri poza emon nairik soil-soil, zure Biotz Onari poza emoteko eta betiren beti maite izan zagiezan arimak zeruratzeko.

Bizitza onen arratsaldean, Zuere aurrean aurkeztuko naz esku utsik ez dautzut eskatzen ba,

Jauna, nire lanak kontuan izatekorik. Gure justitzi guztiak orbanak daukiez zure begien aurrean. Zeure *Justitzi*z jantzi gura dot, ba, eta Zeure maitasunetik artu *Zeuzeu zarean* betiko jaubetza. Ez dot nai, beste tronurik ez koroirik, Zeu izan ezik, o ene *Maite!*

Aldia zure begietan ez da ezer, egun bat da milla urte lez; Zuk unetxo baten gertatu naikezu, ba, zeure aurrean aurkezteko... Maitasun utsezko egintzan bizi izateko, ZEURE MAITASUN ERRUKITSUARI ESKINTZEN NAZ ERRE-OPARI LEGEZ, gelditu barik suntsitu naizula eskatuz; *mugarik bako samurtasunaren* olatuak gaiñez egin beie nire ariman, Zuk zeugan gorderik daukazuzanak, ni olan, oi, ene Jainko! zeure maitasunaren martiri biurtu naiten.

Martiritza onek, azkenez, zeure aurrera joateko ni gertatu ondoren, il-azo nadilla, eta nire arimea bioa luzapen barik *zure maitasun errukitsua* besar-katzera...

Neure biotzaren taupada bakoitzean gura dot, oi, ene Maite!, barriztatu opa neuke opari au milla ta milla bider itzalak urtu arte, nire maitasuna betiereko arpegiz arpegiko baten, bir-esan daiken arte.

Maria, Frantziska, Ume Jesus'en eta Arpegi Do-nearen Teresa, karmeldar lekaime duin-eza.

Irutasun Deun-Deunaren jaia, 1895'ko bagillaren 9 grazi-urtea.

ALDIZ-ALDIZKOA

I. Alenzon'en

- 1874 Urtarrillaren 2, *egüena*, jaioten da Alezon'en Mari Frantziska Terese Martin.
- Urtarrillaren 4, bere bateoa Andra Mari eleizan.
 - Apirillaren 16'rantza, Terese txikia Errose TAILLE IÑUDAREN ARDURAPEAN JARTEN DABE.
- 1874 Apirillaren 2, *egüena*; neskatoa azkenetz sendiko sukaldan sartzen da.
- 1875 Urtarrilla: Urte biko zanetik, Teresek lekaima izango zala uste eban.
- 1877 Abustuaren 28, astartea: ama, Zelia Guerin, ilten jako..
- Abustuaren 29, *egüastena*: Teresek Paulina aukeratzen dau bere bigarren amatzat.

II. Lisieux-en: Buisonetsak

- 1877 Azillaren 15: *egüenez*, Lisieux'era dator 16'an, Buisonetsetera daroe.
- 1878 Lenengo osterea Trouville'ra.
- 1879 Teresatxoaren lenengo autortza.
- 1880 Bere aitaren ikuskari ezkutua.
- 1881 Urtarrillaren 3, astelena: Paulina Lisieuxko karmeldar mojetan sartzen da. Terese abat-ikastetxera doa; azkenean, etenbako buruko miñak jatorkoz.

- 1883 Jorraillaren 25, *Pazko eguna*: Teresa gaixotzen da, bere aita ta bere aizta nagusi biak kanpotik dirala.
- Maiatzak 13, *Pentekoste igandea*: Andra Mariak irri-barre dagitso, arrigarriri osatzen daua-la.
 - Agusturantz, osterat bat dago Alanzon'era.
- 1884 Maiatzaren bostetik zortzira bakartadean lenengo Jaunartzerako gertatzen.
- Maiatzaren 8, *eguna*: Lenengoz Jaunartzen dau Teresatxok Abatetxean. Jesus'en Iñese Aiztearen profesa Karmeldegian. Maiatzaren 22'an, Igikunde egunean. Teresatxok bi-garrenez Jaunartzen dau.
 - Bagillaren 14. Bayeux-ko Gotzaiñaren eskuetatik Sendotza artzen dau. Maiatzaren 17-21, atsedenez beauville'n, kezkaz beteten da. Trouville'n.
- 1886 Abat-etxea izten dau Teresak, gaixo dagolako, eta klase bereziak artzen ditu Papinau anderearekin.
- Maiatzaren 31, *astelena*: Abat-etxean Mariaren Alaba lez artzen dabe. Urrillaren 3'tik 15'ra Alanzon'en aita eta alabak. Leonie ofduantxe sartzen Klaratarren komentuan.
 - Urrillak 15, *ostirala*: Teresaren aizta Maria, Lisieux-ko Karmeldegian sartzen da.
 - Urril azkenerantz, Teresa, bere nebatxoan bitartez, barruko kezketatik askatua.
 - Abenduaren 25: "Gabon-eguneko biurtzea".
- 1887 Urte barru onetan grazi berezia artzen dau Jesukristo Gurutzean josiaren Irudi baten aurrean, domekaz.
- Maiatzaren 29, *Pentekostez*: Teresak bere aitari eskatzen dautso Karmelo'n sartzeko baime-na.

- Iraillaren 1'na, *eguna*: "La Croix" egunkarian irakurten dau Prantzini'ren urkapena.
- Urrillaren 1'na, *astelena*: Karmel konbentuan sartzeko baimena eskatzen Hugonin Gotzaiñagana doa. Lortzen dau baimena, baiña oindiño ez da sartu monja.

III. Lisieux'en. Karmeldegia

- 1888 Apirillaren 9, *astelena*: Terese Lisieux-ko Karmelo'n sartzen da.
- Maiatzak 22, *astartea*: Bere aizta Mariaren profesa.
- 1889 Urtarrillaren 10, *eguna*: Teresek abitua artzen dau.
- 1890 Iraillak 8, *astelena*: Teresak profesa egin dau.
- Iraillaren 24, Teresak buru-zapia artzen dau.
- 1891 Abenduaren 5, *eguastena*: Santa Teresaren Maria Jenobeba ilten da.
- 1893 Zezeillaren 20, *astelena*: Karmeldegiko nagusi Jesus'en Iñese, Teresaren aiztea izentatzen dabe.
- 1894 Garagarrillaren 29, *igandea*: Martin jauna, Teresatxoren aita ilten da Musse'ko gazteluan.
- Iraillaren 14, *ostirala*: Lisieux-ko Karmelo'n sartzen da Zelina.
 - Il onen azkenerantz Iñese Amak bere bizi-tza idazteko agintzen dautso Teresa bere aitzari.
- 1895 Urtarrilla: lanean asten da Teresa bere bizi-tza idazten.

- Bagillaren 9, *igandea*: Irutasun Deunaren Jaia: Teresa, jaunartze ostean, eskerrak emotean, erre-opari lez eskintzen jako Maitasun Txit Errukitsuari.
- Urrillaren 16-17'an idazki bat artzen dau Bellière gaztearena, oindiño apaiz ikasle, baiña gero Aita Zuritarren arteko lekaide izango danarena; onen arreba espirituala izango da Teresa.
- 1896 Urtarrillaren 20, *astelena*: Teresak Ama Inesi damotso dagoneko idatzi dauan bere gomutapenen ingurraztia.
- Zezeillaren 24, *astelena*: Zelina'ren profesia. Santa Teresaren Jenobeba aizta deituko jakoa aurrerantzean.
- Otsaillaren 21: Aiazta Maria Gontzaga aukeratzen dabe Ama Nagusitzat, Teresa, sarbarri gazteen arduradun.
- Apirillaren 5, Pazko Igandea: Barruko kezka, fede ta itxaropenaren kontrakoa, erioztzaraiño iraungo dautsona.
- Jesus'en Ana Amari buruzko amesa.
- Iraillaren asiera: Bakar-egunetako ondoren argi etekintsuak.
- 1897 Garizuma amaitzean Teresa oso gaixorik.
- Uztaillaren 8: Gaixoen gelara daroe Terese.
- Uztaillaren 5'an, *arratsaldeko* seiretan, Azken-Igurtzia.
- Abustuaren 19, *eguna*: Terese'ren azken jaunartzea.
- Iraillak 30, *eguna*: Gabeko zazpirak eta ogei minututan, Teresak bere azken arnasa emon, maitasunezko zentzun-galtze liluragarritz.

NUN ZER

Sarrera.....	5
--------------	---

"A" ESKU-IDATZIA

I. ATALA.....	15
Lenengo Gomutapenak.....	15
Arimen diferentzia.....	16
Jomuga ta elbideak.....	18
Sendia.....	20
Maria.....	24
Paulina.....	24
Leonia.....	25
Zelina.....	26
Manns-era joan-etorria.....	28
Teresatxoren akatsak.....	29
Zelina ta Teresa, ezin aldenduak.....	30
Nik dana aukeratzen dot.....	33
Deabrukumeen amesa.....	34
"Ekin" pitiñak.....	35
Izadia eta txiroak.....	36
II. ATALA.....	39
Amaren eriotz ostean Lisieux-era aldatzen..	39
Lisieux-en.....	41
Buissonets-etan.....	42
Landa ta zelaietan zearko ibillialdiak.....	44
Biktoría.....	46
Lenengo autortza.....	48
Jaiak.....	49
Sukalde ta eskola.....	52
Ikuskari berezia.....	55
Trouville.....	58

III. ATALA.....	61
Abat-ikastetxean ikasten.....	61
Teresa eta Zelina.....	64
Paulina karmeldar.....	67
Gaixotasun bakana.....	71
Andra Mariaren barre-irria.....	77
IV. ATALA.....	81
Irudiak eta irakurteak.....	81
Lenengo joan-etorria Alenzon-era.....	84
Lenengo Jaunartzea.....	85
Sendotza.....	94
Jokoak eta adiskideak.....	95
Barru-kezkak. Abat-etxetik urtetan dau.....	100
Klase bereziak.....	101
Maria'ren Alaba.....	103
Laster doa Maria.....	104
Oporrak itxas-ertzean.....	106
Teresa'ren bizitokia.....	107
Bigarrenez Alenzon'era.....	109
Maria Karmel-konbentuan sartzen da.....	110
Teresa, bere barru-zimikoetatik osatua.....	111
V. ATALA.....	113
Gabonetako biurpena.....	113
Pranzini.....	116
Giza-zientzia ta Jainko-zientzia.....	118
Teresa eta Zelina, biotzeko aitzak.....	121
Sarri Jaunartzen.....	122
Karmeldegirako deia.....	124
Teresak bere goi-deiaren barria, aitari iragarten.....	126
Isidoro Guerin'en jazarketa.....	129
Nagusiagaz eragozpenak.....	131
Umetxoan arimea.....	133
Kanario eta papo-gorria.....	135
Bayeux'era.....	136

VI. ATALA.....	143
Erroma'ra.....	143
Lisieux-Paris.....	145
Paris-Milan.....	147
Venecia-Erroma.....	151
Erroma'n.....	153
Aita Santuagaz mintzaldia.....	157
VII. ATALA.....	175
Karmeldegian.....	175
Aita gaixorik.....	181
Teresak abitua jazten dau.....	183
Benetako proba.....	185
Itxaron aldia.....	186
Txirotasun eta buru-ukapen.....	187
VIII. ATALA.....	193
Profesa.....	193
Zapia artzen dau.....	197
Genobeba Ama.....	199
Izurria konbentuan.....	202
Maitasunaren bidetik.....	203
Ines Ama, Nagusi.....	206
Zelina Karmeldegian.....	208
Gurutzeko Juan Deuna.....	210
Ebanjelioa.....	211
Jainkoaren errukia.....	212
Maitasunezko oparia.....	212

"B" ESKU-IDATZIA

IX. ATALA.....	217
Eskutitz-itzaurre.....	217
Maitasunerako deia.....	221
Ama Ama Agurgarri eta lagunak amesa.....	221
Dana opa dot.....	224

Maitasuna da nire deia.....	225
Lorak bota.....	228
Arranoa ta txoritxo.....	230

"C" ESKU-IDATZIA

X. ATALA.....	237
Eziketa sendo ta amakor.....	238
Bide bat guztiz barria.....	240
Nobiziaduko enkargudun.....	242
Fedeari buruzko azterketa.....	243
Bere aizten ondoan burrukatu.....	251
Mixiolari deia.....	252
Menpetasunaren orratza.....	254
Goi-maitasuna.....	255
Sorkarien eritxia.....	258
Maitasuna eta ikusi eziña.....	259
Goi-maitasuna eta txirotasuna.....	263
Idazteko eragozpenak.....	266
Barru-maitasuna.....	267

XI. ATALA.....	269
Gogozko griñarik eza.....	269
Pintzelaren egitekoa.....	271
Sar-barriakaz lanean.....	275
Otoitza eta otoitzak.....	280
Goralpenal eta apalaldiak.....	282
Oiturazko gatxak.....	284
San Pedro Aiztea.....	286
Jazar txikiak.....	289
Apaiz nebea.....	291
Erakar nagizu, arin joango gara.....	296

GEIGARRI

Profesa egunean Teresatxok biotz gaiñean eroian idatzia.....	305
Maitasun Errukitsuari eskintza.....	307